

INFORME

37

EAEKO

BIZITEGI-BAZTERKETA

LARRIA GENERO-IKUSPEGITIK



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Izenburua: EAEko bizitegi-bazterketa larria genero-ikuspegitik

Editorea: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.
Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz

Lan taldea: SIIS. Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.
Fundación Eguía-Careaga Fundazioa

Data: 2016ko urtarrila

Deskribatzaileak: Gizarte bazterketa; pobrezia; etxebezitza; genero desberdintasunak; genero ikuspegia; datu estatistikoak; ikerketa txostenak

AURKIBIDEA

1.- AZTERLANAREN HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA	8
1.1.- Sarrera	8
1.2.- Azterlanaren helburuak.....	9
1.3.- Metodologia	9
1.4.- Txostenaren egitura.....	11
2.- BIZITEGI-BAZTERKETA: ESPARRU TEORIKOA ETA ANALITIKOA	12
2.1.- Bizitegi-bazterketa gizarte-bazterketako prozesuen esparruan	12
2.2.- Etxegabetasuna generoaren ikuspegitik.....	15
2.3.- Europako Etxegabetasunaren eta Bizitegi-bazterketaren Tipologia (ETHOS): bizitegi-bazterketako egoeren kontzeptualizazioa eta operatibizazioa.....	17
3.- EAE-N ETXEGABETASUNA ETA BIZITEGI-BAZTERKETA JASATEN DUTEN EMAKUME ETA GIZON KOPURUAREN KUANTIFIKAZIOA ETA BILAKAERA	22
3.1.- Sarrera	22
3.2.- EAE-n etxegabetasuna eta bizitegi-bazterketa jasaten duten pertsonen kuantifikazioa	23
3.2.1. 1. kategoria: aterperik gabe bizi diren pertsonak	27
3.2.2. 2. kategoria: gaua aterpetxeetan edo babeslekuetan egiten duten pertsonak	27
3.2.3. 3. kategoria: etxerik gabeko pertsonentzako bizitokietan dauden pertsonak	28
3.2.4. 4. kategoria: genero-indarkeria jasan dutelako aldi baterako aterpetxeetan ostatu hartuta dauden emakumeak	29
3.2.5. 5. kategoria: etorkinentzako bizitokietan bizi diren pertsonak	30
3.2.6. 6. kategoria: espetxeen, osasun-erakundeen edo tutoretzapeko erakundeen menpe dauden pertsonak, etxebizitzarik ez dutenak.....	31
3.2.7. 7. kategoria: etxebizitzarik ez dutelako epe luzerako bizileku-onuradunak diren pertsonak	33
3.2.8. 8. kategoria: bizitoki ez-seguruetan bizi diren pertsonak.....	33
3.2.9. 9. kategoria: etxebizitza uzteko errekerimendua duten pertsonak	34
3.2.10. 10. kategoria: beraiekin bizi diren pertsonen biolentzia-mehatxupearan bizi diren pertsonak....	35
3.2.11. 11. kategoria: bizitoki mugikorretan, ohikoak ez diren etxebizitzetan edo aldi baterako egituretan bizi diren pertsonak.....	36
3.2.12. 12. kategoria: bizigarritasun-baimenik gabe bizi diren pertsonak.....	37
3.2.13. 13. kategoria: pertsonen okupazio-estandar nazionala gainditzen duten etxebizitza pilatuetan edo gainokupatuetan bizi diren pertsonak	39
3.2.14. Ondorioak.....	39
3.3.- Etxegabetasun-egoeren bilakaera EAE-n: handitu egin al da emakumeen kopurua?	42
3.3.1. Sarrera	42
3.3.2. Klean dauden pertsona-kopuruaren bilakaera: klean dauden pertsona-kopuruak behera egin du baina emakumeen pisu erlatiboa handitu egin da	43
3.3.3. Pertsona-kopuruaren bilakaera ostatu hartzeko baliabideetan: gora egin du emakumeen kopuruak ostatu hartu duten pertsonen artean, aterpetxeetan izan ezik.....	45
4.- EAE-N ETXERIK GABE DAUDEN GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO EZAUGARRI BEREIZGARRIAK.....	51
4.1.- Sarrera	51
4.2.- Oinarrizko ezaugarri soziodemografikoak, egoera administratiboa eta sustraitzea.....	52
4.3.- Familiarteko harremanak eta harreman sozialak	54
4.4.- Etxe-gabetasunaren esperientzia: iraupena, aurretiko egoera, arrazoiak eta kaleko biktimizazioak....	57

4.5.- Ikasketa-maila eta jardueraren egoera	60
4.6.- Diru-sarreraren maila eta iturriak	63
4.7.- Osasun-egoera eta osasun-sistemara jotzeko aukera	65
4.8.- Tabakoa, alkohola eta beste droga batzuen kontsumoa	66
4.9.- Gizarte-zerbitzuen erabilera.....	70
5.- GIZONAK BAINO EMAKUME GUTXIAGO DAUDE BIZITEGI-BAZTERKETAKO EGOERA LARRIENETAN? AZALTZEKO ALDERDI BATZUK	72
6.- ETXE GABEKO PERTSONEI ARRETA ESKAINTZEKO ZERBITZUAK EMAKUMEEN BEHARRETARA EGOKITZEA	80
6.1.- Etxe gabeko emakumeen ikusezintasuna: gizarte-zerbitzuentzako erronka	80
6.2.- Gogoeta orokorrak etxe gabeko emakumeen ibilbideei buruz	82
6.3.- Emakumeei eskaintzen zaien arreta etxe gabeko pertsonentzako zerbitzuetan	85
6.3.1. Etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuen eskaintza EAEn eta emakumeentzako lekuen hornidura espezifiko.....	85
6.3.2. Emakumeentzako bakarrik diren baliabideak? Zeharkako genero-ikuspegirantz	90
6.3.3. Emakumeen etxegabetasunak dauzkan era askotako aurpegiak: erabiltzaile-profil ezberdinei arreta eskaintzea	93
6.3.3.1. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak	94
6.3.3.2. Ama diren emakumeak.....	96
6.3.3.3. Sexu-arloan lan egiten duten emakumeak	99
6.3.3.4. Droga-mendekotasun edo osasun mentaleko arazoak dituzten emakumeak	100
6.3.3.5. Adineko emakumeak	101
6.3.3.6. Emakume etorkinak	103
6.3.3.7. Espetxean egondako emakumeak	104
6.3.3.8. Emakume lesbianak, bisexualak edo transexualak (LBT)	104
6.3.3.9. Bikotekidea duten emakumeak	105
6.3.4. Arreta osoa eta genero-ikuspegiduna.....	106
6.4.- Emakumeen etxegabetasunaren prebentzioa	107
7.- ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	110

TAULEN AURKIBIDEA

2. kapitulua. Bizitegi-bazterketa: esparru teorikoa eta analitikoa

- 1. taula . Etxegabetasunaren eta bizitegi-bazterketaren arloak18
- 2. taula. Europako Etxegabetasunaren eta Bizitegi-bazterketaren Tipologia, ETHOS. 2007ko berrikuspena19

3. kapitulua. EAEen etxegabetasuna eta bizitegi-bazterketa jasaten duten emakume eta gizon kopuruaren kuantifikazioa eta bilakaera

- 3. taula. EAEen bizitegi-bazterketa larriak eragindako pertsona kopuruaren zenbatespena sexuka banatuta, ETHOS Tipologiaren arabera26
- 4. taula . ETHOS metodologiaren 2.1 kategorian –eskakizun gutxiko gaueko aterpetxe edo babeslekuak– sar daitezkeen zentroetako magnitude nagusiak, Lurralde Historikoaren arabera.....28
- 5. taula . ETHOS metodologiaren 3 kategorian –etxerik gabeko pertsonentzako aldi baterako bizitokia– sar daitezkeen zentroetako magnitude nagusiak, Lurralde Historikoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua29
- 6. taula. ETHOS metodologiaren 4.1 kategorian –emakumeentzako aterpetxeak– sar daitezkeen zentroetako magnitude nagusiak,30
- 7. taula . ETHOS metodologiaren 5.1 kategorian –etorkinentzako aldi baterako bizitokia– sar daitezkeen zentroetako magnitude nagusiak, Lurralde Historikoaren arabera.31
- 8. taula . ETHOS metodologiaren 7.2 kategorian –epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak– sar daitezkeen zentroetako magnitude nagusiak, Lurralde Historikoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua33
- 9. taula . Etxebizitzatik berehala (edo ez) kaleratzeko mehatxua jaso duten etxebizitza ez-seguruetan bizi diren pertsonak, sexuaren arabera. EAE 2013.....35
- 10. taula . Babes-agindua edo kautelazko neurriak dituzten genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktimak, sexuaren arabera. EAE 201436
- 11. taula. Bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzetan bizi diren pertsonak, sexuaren arabera. EAE 201438
- 12. taula . Pilaketa-arazoak dituzten etxebizitzetan bizi diren pertsonak, sexuaren arabera. EAE 2014.....39
- 13. taula. EAEen etxegabetasunak eta bizitegi-bazterketa larriak eragindako pertsona kopuruaren zenbatespena sexuka banatuta, ETHOS Tipologiaren arabera.....41
- 14. taula . Eremu publikoetan eta ezohiko bizitokietan dauden etxerik gabeko pertsonak Eustaten Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestan oinarrituta, sexuaren arabera. EAE 2005-201243
- 15. taula . Klean, Bilbo, Donostia eta Gasteizen, gaueko zenbaketetan zenbatutako pertsona-kopuruaren bilakaera. 2010/2011-201444
- 16. taula . Eremu publikoetan eta ez-ohiko bizitokietan dauden etxerik gabeko pertsonak INEren Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestan oinarrituta, sexuaren arabera. Espainia, 2005-2012.....44
- 17. taula . Klean, Madril eta Zaragozan, gaueko zenbaketetan zenbatutako pertsona-kopuruaren bilakaera. 2008-201445
- 18. taula. Eustaten Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestak zenbatutako etxerik gabeko pertsonen bilakaera, sexuaren eta bizitoki-modalitatearen arabera*. EAE 2005-201247
- 19. taula . INEren Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestak zenbatutako etxerik gabeko pertsonen bilakaera, sexuaren eta bizitoki-modalitatearen arabera*. Espainia, 2005-2012.48
- 20. taula . EAEen, gaueko zenbaketetan zehar ostatu hartzeko zentro eta zerbitzuetan zenbatu zen pertsona-kopuruaren bilakaera. 2010/2011-2014.....49
- 21. taula . EAEen, gaueko zenbaketetan zehar ostatu hartzeko zentro eta zerbitzuetan zenbatutako pertsona-kopuruaren bilakaera –etxeko indarkeria jasan duten emakumeentzako zentroak alde batera utzita (4.1)–, sexuaren arabera. 2012-201450
- 22. taula . EAEen, gaueko zenbaketetan zehar ETHOS tipologiak barne hartzen dituen ostatu hartzeko zentro eta zerbitzu garrantzitsuetan zenbatu zen pertsona-kopuruaren bilakaera, sexuaren arabera. 2012-2014.....50

4. kapitulua. EAEn etxerik gabe dauden gizon eta emakumeen ezaugarri bereizgarriak

23. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsona helduen banaketa sexuaren arabera, zenbaketaren gauean zuten kokalekua eta egindako inkestako partaidetza kontuan hartuz.....	52
24. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, adinaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua.....	52
25. taula . Bizitegi-bazterketako larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, nazionalitatearen eta jaioterriaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	53
26. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, bizileku-baimena, errolda-ziurtagiria eta sustraitze-ziurtagiria edukitzearen arabera.	54
27. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, hainbat aldagaiaren arabera.	55
28. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, egun gehiena bakarrik edo norbaitekin egotearen arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	55
29. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, etxegabetasun-egoeraren iraupenaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua.....	57
30. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, etxegabetasun-egoeraren aurreko bizitokiaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	58
31. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, une honetan dauden zentroan sartu aurretik gaua igarotzen zuten lekuaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua.....	58
32. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, aipatutako etxegabetasun-arrazoien arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	59
33. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka eta zenbaketaren gauean zeuden lekua, kalean lo egitearen esperientziaren arabera.	59
34. taula . Kalean lo egiten duten edo inoiz kalean lo egin duten eta bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa, sexuka, jasan dituzten delitu-mota eta -kopuruaren arabera.	60
35. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, ikasketa-mailaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	60
36. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, jarduera-egoeraren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	61
37. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden eta lanean ari diren edo langabezian dauden pertsonak, sexuka eta beren lan-jarduera egiten duten edo egin izan duten sektore ekonomikoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	62
38. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, diru-sarrerak ematen dizkien lan-jardueraren bat gauatzearen arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	62
39. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, diru-sarrerak izan edo ez izatearen arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	63
40. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, diru-sareren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	63
41. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka eta nazionalitateka, diru-sareren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	64
42. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, diru-sareren kopuruaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua.....	64
43. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, norberak bere osasunari buruz duen hautematearen arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua.....	65
44. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, osasun-arazo larri edo kronikoa izatearen eta tratamendu medikoaren hautematearen arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	65
45. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, osasun-txartela edukitzearen eta azken hiru hilabeteetan zerbitzuak erabiltzearen arabera.....	66
46. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, tabako-kontsumoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua.....	67
47. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa jatorrizko herrialdeka eta sexuka, tabako-kontsumoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua.....	67
48. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, alkohol-kontsumoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua.....	68

49. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa jatorrizko herrialdeka eta sexuka, alkohol-kontsumoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	69
50. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, beste droga batzuen kontsumoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	69
51. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa jatorrizko herrialdeka eta sexuka, beste droga batzuen kontsumoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua.....	70
52. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, azken hiru hilabeteetan egin duten zerbitzuen erabileraren arabera 2014ko urriaren 29-30eko gaua.....	70
53. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, gehien erabilitako zerbitzuekiko duten asebetetze-mailaren* arabera 2014ko urriaren 29-30eko gaua.....	71

6. kapitulua. Etxe gabeko pertsoneri arreta eskaintzeko zerbitzuak emakumeen beharretara egokitzea

54. taula . Etxerik gabeko pertsonak haurtzaroan eta nerabezaroan jasan dituzten arazoaren prebalentzia, sexuaren arabera. EAE eta Espainia 2012	82
55. taula . Zentro-kopurua, etxerik gabeko pertsonak laguntzeko zentro eta zerbitzuetan dauden lekuak eta artatutako pertsonak, EAEn eta Espainian. 2014	86
56. taula . Ostatu hartzeko zentro-kopuruaren eta lekuen banaketa, lehentasunezko biztanleria-motaren arabera. EAE 2014	87
57. taula . Etxerik gabeko pertsonentzako zentroetako langileak, gastua eta finantzazioa, EAEn eta Espainian. 2014	87
58. taula . Zentroen edo zentro-sareen kopurua eta leku-kopurua zentro motaren arabera eta zentroetan artatutako biztanleriaren arabera, sexuka. EAE 2014.....	89
59. taula . Adingabeek lagunduta doazen pertsonak hartzen dituzten zentro-kopurua eta hartutako adingabe-kopurua, zentro-motaren arabera.	97
60. taula . 60 urte edo gehiago dituzten pertsonen kopurua, bizitoki-motaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua	102
61. taula . Etxerik gabeko pertsona-kopuruaren bilakaera, jatorrizko herrialdearen arabera. EAE 2005-2012	103
62. taula . Bi ume bere ardurapean dituen etxerik gabeko emakumea artatzeak dakarren kostuaren zenbatespena	108

1. AZTERLANAREN HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA

1.1. Sarrera

Jeneralean, bazterketa larriari buruzko esparru teoriko orokorrean oinarrituta aztertu da etxe gabeko pertsonen fenomenoak, baina gutxiago, bizitegi-bazterketaren ikuspegi zehatzagoetik edo genero-ikuspegitik. Azterlan honen bidez, genero-ikuspegiaren oinarrituta aztertu nahi da EAEko bizitegi-bazterketa larriaren fenomenoak, baina beste ikuspuntu zabalago bat ere baliatu nahi da, etxerik edo etxebizitzarik gabeko pertsonak ez ezik, beste batzuk ere kontuan hartzeko: etxebizitza ez-seguruetan edo desegokietan bizi direnak eta etxegabetzat hartu ezin direnak, bizitegi-bazterketaren eraginpean egonik ere.

Dena den, azken urteotan, hainbat ikerketa egiten ari dira EAEn oinarri metodologiko ezberdinetatik etxe gabeko pertsonen profil soziodemografikoa, bizi-baldintzak eta baliabideak lortzeko aukera kuantifikatu eta ezagutzeko –zehazki, Eustatek egindako Etxerik Gabeko Pertsonen Inkesta eta bizitoki-bazterketa larriari bizi diren pertsonen gaueko zenbaketak, EAEko hainbat udalerrri eta erakundek bultzatuak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin–. Esan liteke, azterlan honetan aztertuko den gaiari dagokionez, ez dituztela erantzuten emakumeek jasaten duten diskriminazio anitzaren ikuspegiaren arloan sortzen diren galdera interesgarriak, honako hauek esaterako: zein neurritan eragiten dien emakume eta gizonei diferentzialki bizitegi-bazterketako beste egoera batzuek, hain larri edo gogortzat hartzen ez direnak, aztertu ohi direnak alde batera utzita; etxe edo etxebizitzarik gabeko pertsonentzako zerbitzu eta zentroak zein neurritan egokitzen diren beharizan jakinetara, ibilbide pertsonaletara eta erabiltzaileen itzaropenetara, eta zein neurritan betetzen dituzten; edo emakumeen artean bizitegi-bazterketa larriaren prebalentzia txikiagoa izatearen arrazoiak eta zein neurritan identifika daitezkeen generoaren eraikuntza sozialarekin lotutako arrisku- eta babes-faktoreak.

1.2. Azterketaren helburuak

Aurrez aipatutakoan oinarrituta, azterlan honekin honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Eskura dauzkagun iturri estatistiko eta informazio-iturriak erabilia EAEko bizitegi-bazterketa larriko egoeretan genero ikuspegitik dagoen prebalentzia ezberdina kuantifikatu eta aztertzea.
- Zehatz aztertzea etxerik gabe dauden gizonen eta emakumeen ezaugarri bereizgarriak, haien osaera demografikoa, ibilbideak eta bizi-baldintzak kontuan hartuta.
- Aztertzea zergatik emakumeen artean txikiagoa den bizitegi-bazterketa muturrekoen egoeren prebalentzia, eta zenbateraino identifikatu daitezkeen genero-identitateen eraikuntza sozialei espezifiko lotutako babes-, kontentzio- edo balazta-faktoreak.
- Espezifiko etxerik gabeko pertsonentzat jarritako zerbitzuak erabiltzaileen behar, ibilbide eta nahietara egokituta dauden ebaluatzea eta horren inguruko jardunbide egokiak identifikatzea.

1.3. Metodologia

Azterlan hau egiteko, eta ikuspuntu metodologikotik, teknika kuantitatibo eta kualitatiboak batera erabili ditugu. Zehazki, honako teknika hauetara jo dugu:

Nazioarteko literatura zientifikoaren azterketa. Gure inguruko beste herrialde batzuetan egin diren genero-ikuspegiarekin lotutako ikerketen emaitzak xehetasunez aztertu ditugu. Gai honi buruzko literatura zientifiko garrantzitsua bilatzeko SIIS, Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko gizarte-politikei buruzko datu-base bibliografikoa erabili dugu. Azterketa hau osatzeko, Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak eskura duen literatura akademikoko datu-baseak erabili ditugu. Erabilitako baliabideen artean Homeless Hub azpimarratu behar da, Etxegabetasunari buruzko Kanadako Behatokiak (Canadian Observatory On Homelessness) 2007an sortutakoa, fenomeno honi buruzko baliabide dokumentalak daukan datu-base zabala baitu. Bizitegi-bazterketa buruzko bibliografia, berez, eskas samarra bada, txosten hau egiteko gauzatu den bilaketa bibliografikoari esker, egiaztatu egin da urriak direla etxe gabeko emakumeen egoera berriaz aztertzen duten ikerketak. Asko tokiko azterketak dira, azterketa bibliografiko ez sistemakoak erantsita dituztenak, eta lana egin den herrialdean bertan argitaratu diren ikerketak bakarrik jaso ohi dituzte. Etxe gabeko emakumeen profil zehatzetan jarri ohi dute arreta, emakumeen etxegabetasunean bertan baino gehiago. Batzuk zerbitzu edo politika jakinak ebaluatzen badituzte ere, oso gutxi hartzen dute kontuan ikuspegi hau. Bereziki esanguratsua da Europako esparruan ia ez egotea azterketa konparatiborik¹.

Hurbilketa kuantitatiboa. Azterlan hau egiteko, eta batez ere, txosteneko laugarren eta bosgarren kapituluak idazterakoan, informazio-iturri eta eragiketa estatistiko ugari erabili ditugu. Erabili ditugun bizitegi-bazterketa edota etxegabetasuna bereziki aztertzen duten iturri nagusiak hiru hauek izan dira: EAEko bizitegi-bazterketa larriko dauden pertsonen zenbaketa, 2012 eta 2014. urteetakoak; Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkesta EAEko Eustatek eta Estatuan INEK egindakoa; eta Etxerik Gabeko Pertsonentzako Baliabideen Inkesta. Aipatutako iturri estatistikoak alde batera utzita, oinarritzko iturri hauek erabili ditugu –txosten honen laugarren kapitulu batez ere–: gizarteratzeari eta behar sozialei buruzko 2013ko inkesta, FOESSA Fundazioarena; Biztanleria eta Etxebizitzen 2011ko Errolda; eta Etxerik Gabeko Pertsonen Inkesta/ Beharrezko Sozialen 2014ko Inkesta (EDSS-ENS), Eusko Jaurlaritzarena. Kasu guztietan, txostenak jasotzen dituen iturri estatistikoaren aipamenak edo erreferentziak jasotzen ditu.

¹ Tipologia honekin ondoen bat datorren lana 2001ean Edgar eta Doherty-k zuzendurako bilduma da, *La femme sans-abri en Europe* (jatorriz ingelesez argitaratutakoa, *Women and Homelessness in Europe* izenburuarekin). Azterlan hau egiteko, Etxerik Gabeko Pertsonen Inkesta lan egiten duten Estatu Erakundearen Europar Federazioak (Feantsa) agindutako kontinenteko hamabost herrialderi buruzko diagnostikoetan oinarritu ziren. Europako eremuan arazoa aztertzeko lehenengo saiakeratza hartu daiteke liburua, ondoren egindako azterketetan maiz aipatzen da, eta oraindik ere interesa izaten jarraitzen du. Oraintsu, Moss eta Singh-ek beste azterketa konparatibo bat argitaratu dute (2015) –baina askoz ere ikuspegi eta proposamen apalagoekin–. Europar Batasunak diruz lagundutako proiektuaren emaitza, eta Europako lau herrialdetan gauzatutakoa, genero-indarkeriaren ondorioz etxetik alde egin beharra izan duten emakumeengan jartzen du arreta.

Halaber, idatziz jasotako informazioa datu zehaztatetik etorri beharrez gutxi gorabeherako zenbatespenetatik datorrenean, erabili diren iturriak edo irizpideak aipatzen dira.

Hurbilketa kualitatiboa. Datu kuantitatiboez gain, azterlan honetan eskaintzen diren azterketa kualitatiboetako batzuk eztabaida-talde bidez eta elkarrizketa ugariren bidez jasotako informazioan oinarritzen dira. Eztabaida-talde eta elkarrizketen helburua azterlan honetan aztertzen diren gaietan sakondu eta horiek EAEko errealitatera eramatea da. Horretarako, bi eztabaida-talde antolatu ziren 2015eko abenduan, bat Bilbon eta bestea Donostian. Eztabaida-taldeetan arlo akademikoko, eta batez ere etxerik gabeko pertsonen kudeaketa eta arretaren arloko 25 profesionalak parte hartu zuten. Gainera, erdi-egituratutako lau elkarrizketa egin ziren Katalunia eta Nafarroako aditu eta profesionalekin. Elkarrizketa horietan, eztabaida-taldeetan oinarritzko alderditzat hartu ziren alderdiak sakonago aztertu ziren. Hurrengo zerrendan eztabaida-taldeetan, zein elkarrizketetan parte hartu duten pertsonak eta erakundeak agertzen dira:

- Miguel Ángel Navarro. Ikertzailea
- Elena de la Hera. EAPN Euskadi
- Unai Lizarraga. Bizitegi
- Nieves San Martin. Bizkaiko Caritas
- Elisabete Aróstegui. Deustuko Unibertsitatea
- Saioa Quesada. Deustuko Unibertsitatea
- Elisa Zugazaga. Bizkaiko Foru Aldundia
- Mariel Quera. Sartu-Araba
- Leyre Gómez. Bilboko Udala
- Tania Diez. Goiztiri
- Cristina García T4 Elkartea.
- Delia García. Gasteizko Udala
- Jesús Ramos. Lagun artean
- Leire. Lagun artean
- Josune Sarabia. Gizakia Fundazioa.
- Fernando Etxarte. Cáritas-Emeki
- Eneida Amas. Gipuzkoako Foru Aldundia
- Iñigo Estomba. Donostiako Udala
- Nerea Kortajarena. Emaus Gizarte Fundazioa
- Eneida Amas. Gipuzkoako Foru Aldundia
- Elena Luquin. Gipuzkoako Gurutze Gorria
- Ainara Rubert. Gipuzkoako Gurutze Gorria
- Asun Berasategui. Agipad
- Ainhoa García. Romi Bidean
- Karen Gabino. Romi Bidean
- Amaia Las Heras. Arrats Elkartea
- Carme Fortea. Bartzelonako Udala.
- Albert Sales. Pompeu Fabra Unibertsitatea
- Elia María Solana. Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Tamara Gámez-Ramos. Etxerik Gabeko Pertsonen Arreta Emateko Iruñeko Zentroa

Esan beharra dago, parte hartu zuten pertsona guztiei ziurtatu zitzaizela adierazitako iritzia ahalik eta zehaztasun handienaz jasoko zirela, eta beti, parte-hartzaileen anonimotasuna errespetatuko zela. Horregatik, txosten honetan ez da adierazten iritzia nori dagozkion. Denak iritzi pertsonalak eta subjektiboak dira. Baliteke, beraz, gai batzuei buruz jarrera ezberdinak egotea.

Hurbilketa kualitatibo hau 10 emakumeri egindako 10 elkarrizketa erdi-egiturekin osatu da. Emakume hauek elkarrizketa egin zuten unean bizitegi-bazterketa larriko egoera desberdinetan zeuden. Elkarrizketak 2015eko abendua eta 2016ko urtarrila bitartean egin ziren, eta emakumeen ibilbide biografikoan jarri zuten arreta honako gai hauek identifikatzeko: [a] bizitzako gertaera estresagarriak eta etxegabetasun-esperientziak eragin dituen arrazoiak edo faktoreak; [b] arreta-sarearen erabilera eta jasotako arretaren balorazioa; eta [d] etorkizuneko itxaropena eta aukerak Eztabaida-taldeetan bezala, emakume guztiei ere anonimotasuna ziurtatu zitzaizkien, beraz txostenean jasotzen diren adierazpenak egin dituzten emakumeen izenak aldatu egin dira. Emakumeak aukeratzeko, etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuak eta baliabideak kudeatzen dituzten erakunde pribatuekin jarri ginen harremanetan. Hasiara batean nahiko profil desberdin edo adierazgarriak izateko aukera proposatu zen, baina proposamen horrek zekartzan zailtasunak zirela-eta ezin izan zen egin. Helburu horretarako, aipatu behar da elkarrizketatutako emakumeen taldeak aniztasun handia zuela beren bizitzako ibilbide eta esperientziari dagokionez, baina denak adin ertainekoak dira (35 eta 54 urte bitartekoak) eta gehienak egonaldi-erdiko baliabideetan bizi dira. Halaber, nabarmendu behar da, jatorriari dagokionez halako alborapen bat dagoela, elkarrizketatutako hamar emakumeetatik bi bakarrik baitziren atzerritarrak.

1.4. Txostenaren egitura

Deskribatutako helburu bakoitzari erantzuteko, txostena honela egituratuta dago:

- Funtsezko alderdien laburpena eta sarrerako kapitulu honen ondoren, hirugarren kapituluak bizitegi-bazterketa generoaren ikuspegitik aztertzekeo esparru teorikoa eta metodologikoa eskaintzen du. Kapitulu horretan bizitegi-bazterketaren eta bere arrazoien ezaugarriak deskribatzen dira labur-labur, aztertzekeo mahaigaineratu diren proposamen metodologiko batzuk nabarmentzen dira eta bizitegi-bazterketaren adierazpenik larrienak genero-ikuspegitik ikertu dituzten azterketen aurkikuntza nagusienak banan-banan aipatzen dira. Azkenik, azterlan hau egitekeo esparru analitikotzat, ETHOS metodologian oinarrituta FEANTSAk garatu zuena proposatzen da, tresna metodologiko bezala dituen abantailak, zein bere mugak identifikatuz.
- Esparru kontzeptuala eta analitikoa zehaztu ostean, laugarren kapituluaren helburua da ETHOS tipologiai ematen duen etxegabetasunaren kontzeptu zabaletik egun EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden emakume eta gizonen kopurua zenbatzea, jakitekeo bizitegi-bazterketa larriaren adierazpen larrienen eragina zein neurritaraino den handiagoa gizonengan eta diferentzialki zein neurritan eragiten dieten gizon eta emakumeei hain larritzat jotzen ez diren bizitegi-bazterketako beste egoera batzuek. Halaber, laugarren kapituluaren, etxegabetasunak EAEn izan duen bilakaera aztertzen da, egiaztatzekeo Europako eremuan ikusi diren bi joera garrantzitsuenak – etxegabetasunaren gehikuntza eta eragindako pertsonen artean emakume gehiago egotea– zein neurritaraino egokitu daitezkeen EAEko kasu zehatzera.
- Azterlan honen bosgarren kapituluak EAEn etxerik gabe dauden emakume eta gizonen arteko ezaugarri bereizgarrietan jartzen du arreta, eta gure autonomia-erkidegoan egindako gauekeo azken zenbaketan aurkitutako pertsonen egindako inkestatik ateratako datuak hartu dira erreferentziatuz, 2014ko urriaren 29tik 30era bitarteko gauekeoak.
- Seigarren kapituluak, berriz, etxegabetasunaren gaia ikertzen duten azterlanetan sarritan zeharka aztertu ohi den gai espezifikoa heldzen dio. Zehazki, kapitulu honen helburua da emakumeen artean dagoen bizitegi-bazterketa larriaren prebalentzia txikiagoa azaltzen duten arrazoiak ikuspegi kualitatibotik aztertzea –paradoxikoki, emakumeek parte-hartze handiagoa baitute pobrezia eta gizarte-bazterketako prozesuetan–.
- Amaitzekeo, zazpigarren kapituluaren helburua da aztertzea espezifikoki etxerik gabeko pertsonentzako baliabideek zein neurritan betetzen dituzten emakumeen beharrezkoak, ibilbide pertsonalak eta itxaropenak eta horietara zein neurritan egokitzen diren. Atal honetan, lehenik eta behin, emakumeen etxegabetasunak ezaugarri duen ikusezintasuna eta gizarte-politikek fenomeno honi heldzen dioten moduan ikusezintasunak duen eragina aztertzen ditu. Ondoren, emakumeen etxegabetasun-ibilbideak ulertzekeo aukera ematen duten osagaiak aztertuko ditugu, eta bizitegi-bazterketan bizi diren emakumeek erabiltzen dituzten zerbitzuetan jasotzen duten arreta ikertzen da. Gai honen inguruan, emakumeentzako zerbitzu espezifikoen zeregina ere aztertzen da, eta baita etxerik gabeko emakumeen profil nagusien beharrezkoak eta behar horiei erantzutekeo dauden baliabideak ere. Azkenik, azterlanak zenbait urrats proposatzen ditu emakumeak etxerik gabe gera ez daitezen esku hartzekeo eta egoera hori prebenitzekeo; horretarako, ikuspegi integrala eta genero-ikuspegia ulertzen da egokiena dela beharrezko konplexuenei eta berezienei erantzutekeo, ez bakarrik bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeenei, baita antzekeo egoeretan dauden gizonenei ere.
- Txostenaren azken kapituluaren, txostena egitekeo erabili diren erreferentzia bibliografikoak zehazten dira.

2. BIZITEGI-BAZTERKETA: ESPARRU TEORIKOA ETA ANALITIKOA

2.1. Bizitegi-bazterketa gizarte-bazterketako prozesuen esparruan

Honela definitu du gizarte-bazterketa Europar Batasunak: «alde anitzeko fenomeno soziala, gizarte bateko norbanako edo taldeei gizarteratzeko, eta beraz, beren nortasun sozial eta pertsonalerako, nahitaezkoak zaizkien trukaketa, jarduera eta eskubide sozialak ukatzeko erabiltzen diren mekanismoen azterketan arreta jartzen duena» (Gabàs, 2003). Gizarteratzeak beraz, bitzta sozialeko gune guztietan pertsonen erabateko partaidetzari egiten dio erreferentzia: lan-merkatuan, ondasun eta zerbitzuen merkatuan, politika erabakiak hartzeko eta komunitate-bitzta antolatzeko guneetan, gizarte-babeserako sistemetan, eta gizarte eta familiarteko harremanetan eta komunitatekoetan.

Fenomeno honen azterketak agerian jartzen ditu emakume eta gizonei eragiten dieten bazterketa-prozesuen arteko ezberdintasunak, eta horregatik, beharrezkoa da azterketari genero-ikuspegia kontuan hartuta ekitea. Zehazki, emakumeek aukera gutxiago dituzte partaidetza sozialeko eremu guztietan, eta bereziki integrazioarako hiru egitura edo ardatz garrantzitsuetan (Damonti, 2014; eta Vázquez eta Verde, 2015):

- Lan-merkatua: emakumeen langabezia-tasa handiagoa da eta gizonek baino lan-baldintza txarragoak dituzte. Horren arrazoi batzuk hauek dira, besteak beste: lan-merkatura berenduago sartzeari; emakumeen enpleguak eta soldatak duen izaera subsidiarioa etxeetako egitura ekonomikoan; ugalketa- eta zaintza lan-karga gehiago beren gain hartzea etxeetan; emakume gutxiago egotea erantzukizuneko lanpostuetan; parte-hartze handiagoa ezkutuko ekonomian eta enplegu informalean; edo ugaltzeko adinean dauden emakumeen diskriminazioa.
- Ongizate-estatuak: gure herrialdean indarrean dagoen gizarte-babeseko sistemak joera androzentriko argia du. Zerbitzu publikoen eskaintza urriak, prestazio gehienek duten kotizaziopeko izaerak eta gizarte-zerbitzuen sistemaren oinarriko erreferentzia-unitatea etxea izateak (norbanakoa izan beharrean), kalte egiten die emakumeei, etxeko beste kide batzuekiko mendekotasuna sustatu eta emakumeek gizarte-babes egokiaz baliatzeko duten gaitasuna mugatzen baitu.
- Familiarteko sareak eta sare sozialak: Damonti-ren esanetan (2014), ardatz sozial eta harremanetakoan agertzen dira bazterketaren arloan emakume eta gizonek dituzten ezberdintasunik handienak. Hala, emakume bat buru den etxeetan, bazterketako, gizarte-gatazkako eta isolamenduko tasa gizon bat buru den etxeetako baino bi aldiz handiagoa da (%17,5 eta %7,8; %9,7 eta %4,1; eta %8,3 eta %4,2 hurrenez hurren).

Esparru honetan, bizitegi-bazterketa gizarte-bazterketaren adierazpena da, etxebizitza bezalako oinarriko ondasuna lortzeari lotutakoa. Etxebizitza familiako instituzioak kopiatzeko euskarria da; sozializazio, ikasketa eta heltze pertsonala ahalbidetzen ditu, eta baita giza bizitzaren alderdi intimoen garapena ere; horrez gain, kontsumorako eta aisialdirako funtsezko gunea ere bada (Hernández, 2013). Dena den, etxebizitza eskuratzeko bermea, eskubide unibertsal eta ongizatearen eta norbanakoaren autonomiaren funtsezko osagaia den heinean (hezkuntza, osasuna eta lanarekin batera), ez dute betebeharrak bezala beren gain hartu gure herrialdeko botere publikoek². Izan ere, Estatu espainiarrean, etxebizitza ez da sartu Ongizate Estatuan, baizik eta, gizarte-politikatik banandu da, ekonomia-politikako beste pieza bat bihurtzeko. (Hernández, 2013). Gertaera honek etxebizitzaren esparruan beren beharrak behar bezala betetzeko talde sozial askoren gero eta zailtasun handiagoa ekarri du.

² Orain dela gutxi onetsi den Etxebizitzaren Euskal Legea (3/2015), dena den aurrerapen nabarmena da, gutxienez teoriarik, etxebizitza eskubide subjektibotzat hartzen baitu baldintza jakin batzuetan.

Etxegabetasun-prozesuen azterketa soziologikoa eta hedaduraz, bizitegi-bazterketarena, fenomenoaren arrazoiaren azterketari eman dio lehentasuna. XX. mendearen lehenengo erdialdean zehar, fenomeno azpian zeuden zergatiak izaera indibiduala zutela onartu zen sistematikoki, eta etxerik ez zuten pertsonak hartzen ziren beren egoeraren erruduntzat. 1960ko hamarkadaren erdira arte, ez zen gainditu eredu patologizatzaile hau, eta egiturazko izaera zuten azalpenak ematen hasi ziren, esaterako, egitura ekonomikoak eta gizarte-bazterketa nabarmentzen zituzten etxegabetasuna azaltzeko alderdi bezala. Dena den, laurogeiko hamarkadan, azterketek baieztatu egin zuten berriz ere, pertsonen egoera pertsonala garrantzitsua zela bizitegi-bazterketako prozesuetan. Beraz, egun, azterketa gehienek ikuspegi mistoa hartzen dute. Horrek esan nahi du, egiturazko alderdiek gizarte- eta bizitegi-bazterketa gertatzeko baldintzak sor ditzaketela, eta gizarte-bazterketako hainbat ardatzetan arazoak pilatzen dituzten pertsonak ahulagoak direla egiturazko alderdien aurrean. Ondorioz, etxerik gabeko pertsonen artean arazo pertsonalak dituzten hainbeste pertsona egotea egiturazko indarrekiko duten sentikortasun handiagoaren emaitzatzat hartzen da, beren abiapuntua ahula zelako dagoeneko, eta ez etxegabetasuna jatorri indibidualako fenomeno delako (Fitzpatrick, 2005).

Badago adostasuna, adierazterakoan, gure inguruko herrialde gehienetan, 1970etik aurrera gertatu diren eraldaketa sozioekonomiko eta soziodemografikoekin oso lotuta daudela bizitegi-bazterketaren azpian dauden egiturazko alderdiak. Alderdi horiek dira, hain zuzen, azken hamarkadetan bizitegi-bazterketa larriagotu izana azaltzen dutenak (Doherty, 2005; Hernández, 2013). Zehazki, horri dagokionez, eragin gehien duten alderdiak hauek dira: berregituraketa ekonomikoa eta lan-merkatua malgutzea, gizarte-prestazioen murrizketa eta gizarte-babeseko sistemen zati bat desegitea, eta azkenik, etxeen egitura gertatutako aldaketa soziodemografikoa eta dibertsifikazioa.

Berregituraketa ekonomikoa Europako gobernuak agenda ekonomiko eta politiko neoliberal hartzen dutelako gertatzen da, 1973. urtearen ondoren sortutako krisialdiari aurre egiteko. Politika-mota hauek ezartzeak honako ondorio hauek ekarri ditu: lan-merkatuaren malgutzea, Estatuaren produkzio-sistematik nabarmen baztertzea, Estatuaren aktiboak sektore pribatuari saltzea eta baliabide komunitario eta familiarren merkaturatzea, horien artean, etxebizitza (Doherty, 2005). Azken puntu hau funtsezkoa da ulertzeko, batetik, ordutik hona etxebizitzaren merkatuan egon den esku-hartze publiko eskasa, eta bestetik, Europako herrialde askotan etxebizitzaren jabetza sustatzeko joera duten politiken sustapena. Gainera, biztanleria-sektore jakin batzuek bizitegi-bazterketaren aurrean duten gero eta ahultasun handiagoa gogor markatu du lan-merkatuaren malgutzeak eta enpleguaren prekarizazioak. Espainian, adibidez, enplegu prekarioaren adierazpenak dira behin-behinekotasuna eta ezkutuko lana. Horiek batez ere prestakuntzarik gabeko langileengan, emakumeengan, gazteengan eta etorkinengan dute eragina (Laparra *et al.*, 2007, *cit. in* Hernández, 2013).

Europako herrialde gehienetan gertatzen ari den gizarte-babesaren murrizketa etengabea, berriz, elkarren artean lotura duten bi alderdiren emaitza da. Batetik, politika neoliberalak ongizatearen ikuskera indibidualistaren eta Estatuaren bizitza sozialaren eremu guztietatik (baita gizarte-babesaren eremutik ere) baztertzearen alde agertzen dira. Bestetik, arlo politiko eta ekonomikoetan Estatuaren ahultasunak bere gaitasuna apaldu du ekonomia-politika egiteko eta gizarte-babesari eusteko nahikoa baliabide ekonomiko lortzeko. Etxebizitzaren esparruan, zehazki, Doherty-ren (2005) arabera, etxebizitzaren hornitzaile zuzen bezala zuen egitekoa murriztu du Estatuak, jabetza-erregimena sustatu du beste ukaite-erregimen batzuen kalterako –kostu txikiko erosketa-eskubideko eta jabetza-eskubideko programen bidez– eta etxebizitza zuzenean eraikitzeke diru laguntzak diru-sarrerara txikiak dituzten familiei laguntzeko programekin ordezkatu ditu. Erreforma hauek gure inguruan izan duten eragina aztertzeke, garrantzitsua da kontuan hartzea Espainiako ongizate-estatuak eredu asistentziala jarraitzea duela ezaugarri, zati batean pribatizatua eta familian arreta jartzen duena (Vázquez eta Verde, 2015), eta ongizate-estatu horretan, etxebizitza –baita beste eskubide batzuk ere– familia-erantzukizun bat bezala partekatu edota nor bere gain hartzen du. (Hernández, 2013). Zentzu honetan, azpimarratu behar da, biztanleriaren sektore ahulenei etxebizitza eskuratzen laguntzeko prestazioak eta gizarte-politikak garapen oso eskasa izan dutela gure herrian.

Azken hamarkadotan gertatzen ari diren aldaketa soziodemografikoei dagokionez, honako hauek nabarmendu behar dira: biztanleria etengabe zahartzea, pixkanaka emakumea lan-merkatuara sartzea, seme-alaba kopurua murriztea –eta beraz, etxeko kide kopurua–, gazteak gurasoen etxetik joateko adina gehitzea, familia- eta bizikidetzeta-modu ireki eta malguagoak agertzea, banantze- eta dibortzio-tasak gehitzea, eta etorkinen biztanleria gehitzea. Familia-ereduan eta etxeko osaeran gertatu diren eraldaketa hauek guztiak bizitegi-eskaera berriak ekarri dituzte, baina egun dagoen etxebizitza-merkatuak, ez publikoak, ez pribatuak, ez die eskaerei behar bezala erantzun (Hernández, 2013). Bestalde, aldaketa soziodemografiko hauek murriztu egin dute familiaren botere integratzailea, eta gutxitu egin du familiako kideen gizarte- eta bizitegi-bazterketako prozesuak arintzeko zeukan gaitasuna. Bereziki, eraldaketa hauek gehitu egin dute biztanleriaren sektore jakin batzuek bizitegi-bazterketaren aurrean zeukaten ahultasuna, adibidez, bakarrik bizi diren pertsona nagusia, etorkinena edo seme-alabak bere ardurapean dituen pertsona bakar batek osatutako etxeena (Doherty, 2005). Garrantzitsua da azpimarratzea talde hauetatik bi –bakarrik bizi diren pertsona nagusiak eta guraso bakarreko familiak– nagusiki emakumeek osatzen dituztela.

Hernándezek (2013) aurreko hiru faktoreei familia eta pertsonen bizitegi-bazterketako arriskua handitu duen beste faktore bat gehitzen du: krisialdi ekonomikoa eta higiezin krisialdia. Egoeraren araberako faktoretzat har baliteke ere, egia esan, eragin dituen ondorio batzuk lan-merkatuaren gero eta prekarizazio handiagoa, langabezia handia, familien pobretzea eta hipoteka-krisialdi larria, esaterako ez dirudi, oraindik, leheneratuko direnik.

Egungo bizitegi-bazterketarekin lotutako faktoreei buruz adostasuna badago ere, eztabaida dago bizitegi-bazterketako prozesuetan norbanakoaren arazoiek daukaten lekua buruz. Fitzpatrick-ek (2005), hain zuzen ere, arlo honetan ez dagoela esparru teoriko eta kontzeptual argirik nabarmentzen du, beraz arazoak, norbanakoaren arazoak bereziki, nor bere gain hartzen ditu, arazorik sortu gabe, gaizki ulertzen dira edota –eta– ez dira ikerketaren funtsezko zatian sartzen. Ebidentzia honek bizitegi-bazterketako prozesuen konplexutasuna adierazten du, prozesuetan pertsonak ahultasun sozialean jartzen dituzten egiturazko faktoreak dauden arren, zailtasun-mota horiei aurre egiten dieten pertsonen erreakzioa ere gertatzen baita, baliabide pertsonalak eta inguru sozialekoak (gizarte-maila, gizarte-sarea eta familiakoa, prestakuntza) abiaraziz estrategietan, egoerari aurre egiteko. Zentzu honetan, bizitegi-bazterketa fenomeno subjektibo eta prozesual bezala hartu behar da, izan ere, etxegabetasun-egoera guztietan zehaztu daiteke aurretiko ibilbide bat eta etxerik gabe dauden pertsona edo taldeek erabili duten agentzia-mota identifikatu daiteke (Hernández, 2013), beraz, bizitegi-bazterketako ibilbide guztiak desberdinak dira. Halaber, bizitegi-bazterketako prozesuak gizarte-bazterketaren gainerako eremu eta alderdiekin elkarrekiko erlazio argian aztertu behar dira.

Bizitegi-bazterketa neurtzeko moduari dagokionez, Brändle eta Garcíaek (2013) proposamen metodologiko interesgarriak jasotzen dituzte. Subirats-ek (2005) zuzendutako lanak bi irizpide erabiltzen ditu fenomeno hau identifikatzeko: etxebizitza eskuratzeko aukera eta etxebizitzaren egoera. Etxebizitza eskuratzeko aukera etxebizitzaren eskuragarritasun fisikoak zein eskuratzeko gaitasunak baldintzatuko luke. Etxebizitza eskuratzeko ezintasunaren azterketan, berriz, bi egoera bereizi behar dira: infraetxe-egoerak (gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten bizileku-egiturak) eta etxebizitzarik gabekoak (etxe kolektiboetan edo etxerik gabeko pertsonentzako baliabideetan bizi diren pertsonak eta etxegabetutako familiak eta ordezko bizitoki aurkitu duten pertsonak, hala nola, okupazioa edo senideekin edo lagunekin batera bizitzea). Etxebizitzaren egoerari dagokionez, bi hipotesi hartzen dira kontuan: egoera txarrean dauden etxebizitzak (instalazioetan. ekipamenduetan gabeziak eta egitura-arazoak eraikinean) eta bizigarritasun-baldintza txarretan dauden etxebizitzan (pilaketatzat hartzen da etxebizitzak pertsonako 10 m² baino gutxiago dituen edo pribatutasun-faltatzat logela bat baino gutxiago dagoenean bi pertsonako).

Foessa Fundazioak proposatutako metodologia pixka bat landuagoa da, eta tresna egokia da gizarte-bazterketa aztertzeko etxebizitzaren arloaren barnean. Erakunde honek era askotako ahultasun-egoerak jasotzen dituzten zortzi ardatz proposatzen ditu: infraetxea; gabezia larriak etxebizitzaren eraikuntzan; hezetasunak, zikinkeria eta usainak (osasungarritasunik eza); pilaketa larria (15 m² baino gutxiago pertsonako), edukitza prekarioan (beste pertsona edo erakunde batzuek doan emanda, legez kontra berriz alokatuta edo okupatuta), inguru sozial eta urbanistiko oso degradatua, oztopo

arkitektonikoak desgaitasun fisikoren bat duten pertsonak bizi diren etxebizitzetan, eta etxebizitzaren gehiegizko gastuak (familiako diru-sarrerak etxebizitzaren gastuak kenduta, familia muturreko pobrezia-aren azpitik dagoenean).

Raya-k (2006) egindako ikerketak, aldiz, bizitegi-bazterketako hiru egoera posible bereizten ditu adierazle-multzo batean oinarrituta: larria, ertaina eta arina. Bizitegi-bazterketa larria gertatzen da pertsonak ez dutenean etxebizitza-ondasuna eskuratzeko aukerarik (etxe finkorik gabeko pertsonak edo familiak, leku desgokietan edo infraetxeetan lo egiten dutenak, senideekin edo lagunekin bizi direnak baliabide ekonomiko nahikorik ez dutelako). Bizitegi-bazterketa ertaina, etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzetan kolokatasuna dagoenean gertatzen da. Azkenik, bizitegi-bazterketa arinaren barnean sartzen diren egoeretan, oinarritzko ekipamenduren bat edo batzuk (sukaldea, labea, komuna, bainuontzia, dutxa, telebista, ordenagailu pertsonala) falta dira arrazoi ekonomikoengatik.

Aparteko aipamena merezi du ETHOS tipologiak, Etxerik Gabeko Pertsonekin Lan egiten duten Estatu Erakundeen Europar Federazioak (FEANTSA) garatu du Etxegabetasunaren Europako Behatokiaren esparruan. Sailkapen honek espezifikoki etxegabetasuna aztertzeaz gain, etxebizitza desgokia edo ez-segurua den egoeren espektro zabala hartzen du kontuan. Horrela, bizitegi-bazterketa baztertutako pertsonak pasatzen dituzten kategorien *continuum* bezala ikustearen ideia eraginkor bihurtuz.

2.2. Etxegabetasuna generoaren ikuspegitik

Emakumeen etxegabetasuna ikertzen duten azterlanen eskasia (Baptista, 2010) eta problematizazio hutsala genero-ikuspegi kritikotik, batez ere gizonengan eragina duen gizarte-errealitatez hartzen baita (Fernández-Rasines eta Gámez-Ramos, 2013). Horiek dira, zalantzarik gabe, aipatu behar diren aurkikuntzetako bi, gai honi buruz dagoen bibliografia zehatza egiten denean.

Hain zuzen, aztertu beharreko beste gai edo arlo batzuekin gertatzen den bezala, etxegabetasuna ikuspegi androzentrikotik aztertu eta kontzeptualizatu da orain dela gutxira arte, eta gizonen esperientziak hartu dira erreferentziatzat (Young), beraz, emakumeak gai honi buruzko diskurtso analitiko eta deskribatzailetik kanpora geratu dira (Edgar, 2001). Etxerik gabeko emakumeen ikusezintasuna ikuspegi androzentrikoaren berehalako ondorioa izan da.

Zalantzarik gabe, ikusezintasuna lagundu duena izan da, fenomeno honen definizio oso murriztuak (ofizialak zein ez ofizialak) hartzeko joera etxegabetasuna kalean edo aterpetxeetan lo egitearekin lotuz, eta emakumeak, argi eta garbi, gutxienak dira egoera horietan (Baptista, 2010). Baina aurrez esan bezala, genero-ikuspegi kritikotik fenomenoak problematizazio hutsala izan du. Beraz, etxegabetasunari buruzko azterlan gehienetan genero-ikuspegia txertatu ez denez, egoera horretan dauden emakumeen kopurua ez da behar bezala haztatu, hortaz, azterlan horiek hierarkizazio-kategoria garrantzitsuenetako bat falta dute.

Hala, etxegabetasuna genero-ikuspegitik aztertu denean, emakumeen bizitegi-bazterketa larriko esperientziak eratzen dituzten ezaugarri espezifiko batzuk identifikatu dira. Horren haritik, azterlan hauen aurkikuntza garrantzitsuenetako bat fenomeno honek emakumeen artean ezkutuko izaera hartzen duela egiaztatzea izan da (Edgar eta Doherty, 2001). Emakumeengan arazo honek hartzen duen modu espezifikoa adierazteko etxegabetasun ezkutua aipatzen denean, emakumeek beren genero-egozpenengatik ez dituztela gizonek erabiltzen dituzten ostatu-moduak erabiliko nabarmentzen da, beste batzuk baizik, zenbait estrategiaz baliatuz –edo, hobeto esanda, jarduteko tarteez baliatuz– bereziki gune gogortzat jotzen dituztenak ekiditeko estrategiak erabiliko dituzte, esaterako kalea edo harrera egiteko gaueko baliabide jakin batzuk saihesteko.

Estrategia hauen artean, aipatu behar da –sakontzeko asmorik gabe, gai hau zabal aztertzen baita ikerketa honetan zehar– emakumeek gehiago erabiltzen dituztela laguntza-sareak, familiarterkoak, zein sozialak. Gainera, emakumeek beste estrategia batzuk erabiltzen dituzte, hala nola, etxebizitza beste pertsona batzuekin partekatzea, edo elkarri laguntzeko sareak eratzea egoera berdinean dauden beste

emakume batzuekin (Baptista, 2010; Feantsa, 2010). Azterketa batzuek etxeko barne-langilearen edo langile sexualaren enplegua ere emakumeen baliabidetzat hartzen dute, eta baita nahi ez izan arren, harreman sexual-afektiboak izatea ere, diru-sarrerak sortzeko edo ostatua lortzeko bakarrik (Fernández-Rasines eta Gómez-Ramos, 2013; Reeve, *et al.*, 2006). Garrantzitsua da nabarmentzea estrategia hauek guztiak genero-erolek asko baldintzatzen dituztela.

Zeintzuk dira emakumeek ezkutuko etxegabetasun-modu hauek hartzeko arrazoiak. Arrazoiaren artean, kontsultako bibliografiak bi nabarmentzen ditu: etxerik gabeko pertsonen arreta eskaintzeko baliabide orokorretan erabiltzaile gehienak gizonak izatea, eta baliabideen egokitzapen eskasa emakumeen behar espezifikoetara (Edgar eta Doherty, 2001; Moss eta Singh, 2015; Reeve *et al.*, 2006). Era berean, egiaztatu egiten du kalean lo egitea arriskutsuagoa dela eta estigma sozial handiagoa dela emakumeentzako (Feantsa, 2010; Fernández-Rasines eta Gómez-Ramos). Hainbat azterketaren arabera, emakumeek sexu-abusuak eta beste eraso batzuk jasateko arrisku handiagoa dute kalean lo egiten dutenean (Reeve *et al.*, 2006; Cramer, 2002) eta emakumeek baldintza fisiko eta mentalen narriadura handiagoa dute kalean daudenean (Moss eta Singh, 2015). Etxegabetasunari lotutako estigma sozialari dagokionez, genero-rol eta -identitateek sendo baldintzatzen dute (Baptista, 2010; Feantsa, 2010; Fernández-Rasines eta Gómez-Ramos, 2013). Emakumei egozten zaien rol soziala sendo lotuta dago ama eta emaztearen egitekoei, hau da, etxeko eremu pribatuan egiten diren bi funtziori. Beraz, genero-baldintzatzaile hauen ondorioz, emakumeek gutxi ikusten diren etxegabetasun-moduak erabiltzen dituzte, segurtasun pertsonaleko estrategia bezala, baina baita norbanakoaren aukera baten zati bezala ere, ez nabarmentzen saiatzen baitira, kalean egon arren (Baptista, 2010; Feantsa, 2010).

Ikuspegi zabalago batetik, uler daiteke emakumeen etxegabetasuna ikusezina izatea eta oso gutxi ordezkatuta egotea orain dela gutxi arte etxegabetasunari buruzko azterketetan. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da aipatzea, orain dela hamarkada batetik hona, aldatu egin dela etxegabetasunari buruzko ikerketa ugari bideratzen dituzten esparru teorikoa, fenomeno honi buruzko definizio zabalagoa hartu baitute. Horri esker, hein batean, zuzendu egin dira aurreko ereduaren gabeziak eta agerian jarri dira maila kontzeptualean emakumeen ezkutuko etxegabetasunaren modu jakin batzuk. Hala ere, etxegabetasuna ikuspegi zabalago honetatik kuantifikatzeko datu egokiak iturririk ez edukitzeak (Fernández-Rasines eta Gómez-Ramos, 2013; Baptista, 2010, Edgar, 2001) oztopatzen jarraitu du ikerketaren aurrerapena ikuspuntu metodologikotik. Hau gertatzen da, etxegabetasunari buruzko estatistika ofizial gehienek oinarritzat hartzen dituzten datuak etxerik gabeko pertsonen arreta eskaintzeko zerbitzuetakoa edo kalean gaua igarotzen duten pertsonen zenbaketa zehaztetakoa direlako (Brousse, 2004).

Gai hau alde batera utzita, etxegabetasuna genero-ikuspegitik aztertu denean, egindako azterketa eta ikerketek erakusten dutenez, arrazoiaren artean, harreman-faktoreek garrantzia handiagoa dute, berehalako eztanda-eragile bezala zein epe luzeko ahultasun-faktore bezala (Fernández-Rasines eta Gómez-Ramos, 2013). Banantzeen eta bikotekidearekin arazoaren garrantzia, eta familiaren barneko abusua indarkeria eta genero-indarkeria faktore eragile garrantzitsutzat hartu dira emakumeen etxegabetasun egoeretan (Moss eta Singh, 2015; Reeve *et al.*; Fernández-Rasines eta Gómez-Ramos, 2013; Cramer, 2002; Marpsat, 2000). Zentzu horretan, azpimarratu da hausturak eta banantzeak ahultasun-faktore garrantzitsua direla emakumeentzat ezegonkortasun ekonomiko handiagoa baitute eta bikotekide maskulinoaren diru-sarreraren mende baitaude lan-merkatutik kanpora egonez gero (Doherty, 2005; Baptista, 2010). Bestalde, azterketa ugari adierazten dutenaren arabera, batez ere bikotekidearengandik jasandako genero-indarkeriak eginkizun espezifikoak du, emakumeak etxegabetasun-egoerara heltzeko faktore eragilea edo epe luzerako ondorioak dituen baita. Hala, Fernández-Rasines eta Gómez-Ramosen (2013) esanetan, indarkeria ardatz egituratzailea da etxerik ez duten emakume askoren bizi-ibilbideetan. Bestalde ikerketek familia barneko indarkeria eta desegituratutako familia izatea faktore garrantzitsuak direla azpimarratzen dute emakumeen etxegabetasuna azaltzerakoan. Dena de, arrazoi honek gizonentzako ere balio du (Cramer, 2002).

Halaber, beste aurkikuntza bat ere aipatu behar da. Beraz, gai hau espezifikoki aztertu duten ikerketek egiaztatzen dutenez, emakumeak muturreko etxegabetasun-egoerara heltzen direnean, beren hondamen fisiko eta mentala handiagoa izan ohi da eta arazo gehiago pilatzen dituzte, esaterako

droga-mendekotasuna, osasun mentaleko arazoak edo batez ere genero-indarkeriarekin lotutako esperientzia traumatikoen bizipena (Moss eta Singh, 2015; Reeve et. al, 2006). Luzaroan irauten badu, egoera honek gehitu egingo luke mendekotasunak, osasun mentaleko arazoak garatzeko edo biziraupen-estrategia gisa sexu arloan lanean hasteko aukera.(Fernández-Rasines eta Gómez-Ramos, 2013; Moss eta Singh, 2015). Halaber, ikerketa hauen arabera, etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuak ez daude egokituta arazo hauei arreta eskaintzeko eta emakumeen etxegabetasunari ikuspegi malgu eta berritzailetik heltzeko beharra nabarmentzen dute etxerik gabeko emakumeek dauzkaten era askotako arazoei erantzun integrala ematea ahalbidetzeko, kalean dauden emakumeen kasuan bereziki (Ross eta Singh, 2015; Reeve et al., 2006).

2.3. Europako Etxegabetasunaren eta Bizitegi Bazterketaren Tipologia (ETHOS): bizitegi-bazterketaren kontzeptualizazioa eta operatibizazioa

Azterketa honen oinarria, ikuspuntu metodologikotik, FEANTSAk garatutako bizitegi-bazterketa jasaten duten pertsonen buruzko esparru kontzeptuala da, aurreko mendearen laurogeita hamarrekoko hamarkadan Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Europako Behatokiak egindako ikerlanetatik abiatuta.

Tipologia honek Dragana Avramov soziologoak, 1994 eta 1998 bitartean Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Europako Behatokiaren ikerketa-koordinatzaileak, proposatutako definizioak hartzen ditu abiapuntutzat Avramov-en proposamenaren arabera, hau izango litzateke etxegabetasuna: «*bizitzeko leku iraunkor eta egokirik ez edukitzea*» eta etxerik gabeko pertsona: «*bizitzeko leku iraunkorra eskuratzeko aukerarik ez daukana, zailtasun ekonomikoen nahiz beste oztopo sozial batzuen ondorioz bizitoki horri eustetik ez daukalako, edo bere kabuz bizitzeko zailtasunak dituelako eta instituzionalizatua izateko beharra ez izan arren, atentzia zein babesa behar dituelako*» (Avramov, 1996: 71).

Azalpen hori behar bezala mugatzeko –ez zen sortu modu zehatzean operatibizatu ahal izateko, termino zaharrago bat zehatzago erabili zedin baizik–, FEANTSAk babesten duen Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Europako Behatokiak etxerik gabe eta bizitegi-bazterketako egoeran zeuden pertsonen tipologia bat garatu zuen, prebentzio-politiken hobekuntza, integrazioa eta koherentzia bultzatzeko eta arazoari ekiteko (Cabrera eta Rubio, 2008).

ETHOS (European Typology of Homelessness and Housing Exclusion) siglekin ezagutzen da, 2005ean gauzatu zen lehenengo aldiz, eta ondoren 2006 eta 2007an berrikusi zen. Tipologiak lau kontzeptu-kategoria handi hartzen ditu kontuan, eta kategoria horiek hamahiru kategoria eragiletan bereizten dira, eta horiek 24 azpikategoriatan banantzen dira, bizitegi-bazterketaren arazoa erakusten duten hainbat bizitegi-egoeratan.

ETHOS tipologiaren azpian dagoen eredu kontzeptualaren oinarria –Bill Edgar, Joe Doherty eta Hank Meert-ek garatua 2003 eta 2009 urte bitartean– etxebizitza kontzeptuaren alderdi askoko ikusmoldea da, eta horren arabera etxebizitza hiru eremuk edo arlok osatuko lukete. Hiru arlo horiek honela deskribatzen dira: «*etxebizitza egoki bat (edo leku bat) edukitzea pertsona baten eta bere familiaren beharrak asebetetzeko (arlo fisikoa); pribatutasuna mantendu eta gizarte-harremanez gozatu ahal izatea (arlo soziala); eta jabetza eskusiboa, okupazioaren segurtasuna eta legezko titulua eduki ahal izatea (lege-arloa)*» (Edgar, 2009: 16). Zehatzago, arlo horietariko bakoitza alderdi hauekin lotuta egongo litzateke:

- Etxebizitzaren *arlo fisikoaren* barnean etxebizitzaren bizigarritasuna sartzen da, eta instalazioen kalitatearekin eta etxebizitzaren azpiegiturarekin lotutako guztia barne hartzen du. Arlo honekin lotuta daude, etxebizitzaren gabeziak edo etxebizitzaren egoera txarrak eragindako egoerak ez ezik, baita pilaketa bezalako desegokitasun-egoerak ere.
- Etxearen *arlo soziala* pribatutasun pertsonaleko eskubidearekin eta norbere gune intimoa edukitzeko eskubidearekin lotuta dago. Harreman sozialak etxetik kanpo dauden eremuetan eduki daitezkeen arren, arlo honetan etxebizitzaren barnean gertatzen diren harremanak kontrolatzeko eta familiarean gozatu ahal izateko gaitasuna aipatzen da. Multzo honen barnean daude bizikidetzaren unitate berbera osatzen duten pertsonen artean sortzen diren harreman

sozialak, zein beste pertsona batzuen artean sortutakoak. Kasu bietan, etxebizitza garapen pertsonalerako gunea eta inguruarekiko harreman sozialak sendotzeko lekua da.

- *Lege-arloaren* barnean daude, bai etxebizitzaren edukitza-erregimena, bai etxebizitzan bizi diren pertsonen duten segurtasun juridikoko maila. Beraz, etxebizitzaren gainerako legezko titulua edukitzean –jabetzakoa edo alokairukoa– segurtasuna lortzen da haren okupazio zein edukitza eskusiboan, eta berme bakarra ere bada, haren jabetzarekin edo gozamenarekin lotutako eskubideak benetan erabiltzeko orduan.

Hala, hiru arlo hauek elkartuz gero, lau kategoria eragile sortzen dira (bazterketa-maila handienetik txikienera antolatuta daude), hots, ETHOS Europako Etxegabetasunaren eta Bizitegi-bazterketaren Tipologiaren oinarritzko lau kategoriak:

- Etxerik gabe: inolako bizitokirik ez dutenak.
- Etxebizitzarik gabe: aldi baterako bizitokian, aterpetxean edo egonaldi ertain-luzeko beste zerbitzu batzuetan bizi direnak.
- Etxebizitza ez-segurua: etxe-kanporaketarako mehatxupearan, kolokako errentamendu-egoeretan edo genero-indarkeriako egoeretan bizi direnak
- Etxebizitza desegokia: txaboletan, bizigarritasunari buruzko araudia betetzen ez duten lekuetan edo pilaketa-egoeretan bizi direnak.

ETHOS tipologiak gertatu daitezkeen bizitegi-bazterketako egoerak bereiztea ahalbidetzen du, identifikatutako eremu edo arloetako bakoitzean gabezia-egoerak dauden edo ez dauden kontuan hartuta. Horren haritik, tarte kontzeptualaren mutur batean bizitegi-bazterketa larrienak daude, etxearen oinarritzko hiru arloen gabezia (etxerik gabe) dute ezaugarri, eta beste muturrean modalitate «arinenak» daude, identifikatutako hiru arloetako bat edo gehiago betetzen ez direnean edo mugatuta daudenean gertatzen direnak.

1. taula . Etxegabetasunaren eta bizitegi-bazterketaren arloak

Kontzeptu-kategoria	Arlo fisikoa	Gizarte arloa	Lege-arloa
Etxerik gabe	-	-	-
Etxebizitzarik gabe	+	-	-
Etxebizitza ez-segurua	±	+	-
Etxebizitza desegokia	±	±	+

Iturria: geuk eginikoa lan honetan oinarrituta: Cabrera (2008: 190).

Bereizketa horietan oinarrituta, ETHOS tipologiak hainbat egoera ezberdin identifikatzen ditu, hamahiru kategoriatan. Kategoria hauek aldatu egiten dira, continuum batean zehar. Bertan, benetan kalean bizi diren pertsonen egoera eta lo egiteko gune publikoak erabiltzen dituztenak, eta etxebizitzak eduki arren bizigarritasun-baldintza desegokietan bizi direnak sartzen dira.

2n erakusten den bezala, etxegabetasun-egoerak lehenengo bi kontzeptu-kategorietan sartuko lirateke. Lehenengoaren barnean, *etxerik gabe*, 1.1 eta 2.1 kodeei dagozkien bizitegi-bazterketak daude, eta aipatutako hiru arloen gabezia ezaugarritzat duten egoerak jasoko lituzke. Bigarren kontzeptu-kategoria ere, *etxebizitzarik gabe*, etxegabetasun-egoeretan sartuko litzateke eta arlo sozial eta legaleko bazterketa-egoerak adieraziko lituzke. Azken bi kontzeptu-kategoriak, *etxebizitza ez-segurua* eta *etxebizitza desegokia*, bizitegi-bazterketako egoeretan biltzen dira. 8 eta 13 arteko kategoria eragileetan adierazten diren egoera hauek, lege-arloko edo arlo fisikoko bazterketa izango dute ezaugarri, kasuan kasuko egoeraren arabera.

2. taula. Europako Etxegabetasunaren eta Bizitegi-bazterketaren Tipologia, ETHOS. 2007ko berrikuspena

	Kontzeptu-kategoria	Kategoria eragilea	Kodea	Bizitegi-egoera	Azalpena	
ETXEGABETASUNA	Etxerik gabe	1	Ereму publikoan bizi direnak (atari zabalean)	1.1	Kanpoko eremu publikoa	Aterpetxerik gabe kalean edo eremu publikoetan bizi direnak, etxebizitzat hartu daitekeen aterperik gabe
		2	Gaueko babeslekuan lo egiten dutenak edota egunean zenbait ordu eremu publikoan eman behar dituztenak	2.1	Gaueko aterpetxea edo babeslekua	Ohiko bizilekurik ez daukatenez, oso eskakizun urriko aterpetxeak edo bizitokiak darabiltzatenak
	Etxebizitarik gabe	3	Etxerik gabekoentzako aterpetxe eta zentroetan / aldi baterako bizitokietan bizi direnak	3.1	Aterpetxeak eta bizitokiak	Egonaldia epe labur edo ertainerako eta aldi baterako denean eta ez behin betiko bizilekua denean
				3.2	Aldi baterako eta iragaitzako bizitokia	
				3.3	Babespeko bizitokia	
		4	Emakumeentzako aterpetxeetan daudenak	4.1	Emakumeentzako aterpetxeak (bakarrik edo seme-alabekin)	Genero-indarkeria jasan duten emakumeak, betiere, aldi baterako bizitokitzat hartzen denean.
		5	Asilo-eskatzaile eta etorkinentzako bizitokietan daudenak	5.1	Aldi baterako bizitokia / Harrera-zentroa	Etorkinentzako bizitokietan daudenak: atzerritarrak edo sasoiko langileak izateagatik aldi baterako bizitokietan dauden etorkinak
				5.2	Sasoiko langileentzako bizitokiak	
		6	Epe jakin batean egoitza-instituzioetatik edo barneratze-instituzioetatik irtengo direnak	6.1	Zigor-instituzioak (espetxeak)	Espetxetik irtetea etxebizitarik ez dutenak
	6.2			Osasun-instituzioak (ospitaleak, etab.)	Etxebizitarik ez edukitzeagatik behar baino egonaldi luzeagoa egiten dutenak	
	6.3			Adingabeentzako zentroak	18 urte betetzean non bizi ez dutenak, esate baterako	
	7	Etxerik gabeko pertsonak direnez babes eutsiko bizitokia jasotzen dutenak	7.1	Adineko etxerik gabekoentzako egoitza	Etxerik gabe bizi izan direnentzako egonaldi luzeko babespeko bizitokia	
			7.2	Aurretiaz etxerik ez zutenentzako epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitza		
BIZITEGI-BAZTERKETA	Etxebizitza ez-segurua	8	Edukitze ez-seguruko araubidean bizi direnak.	8.1	Senide edo lagunen harrerapean bizi direnak	Etxebizitza galdu dutenez, ohikoa ez den ezohiko bizitokian bizi direnak. Legez kanpoko okupazioa edo bertan bizi izateko inolako berme juridikorik gabe
				8.2	Legezko edukitza ez-segurua (adb.: azpialokatuak)	
				8.3	Legez kanpoko okupazioa	
	9	Etxegabetze-mehatxupear bizi direnak	9.1	Alokairuko araubidean	Alokairua ez ordaintzeagatik etxegabetze-agindua dutenak	
			9.2	Jabetzako etxebizitza	Hipoteka ez ordaintzeagatik desjabetuak izatear daudenak.	
	10	Bikotekideen edo familiaren indarkeria-mehatxupear bizi direnak	10.1	Polizian aurkeztutako salaketak	Poliziak edota esku-hartze azkarrerako zentroek jardun dutenean, etxeko indarkeriaren biktimentzako bizitoki segurua aurkitzeko.	
	Etxebizitza desegokia	11	Aldi baterako eta ezohiko egituretan bizi direnak	11.1	Karabanak eta antzekoak	Beti bizitoki mugikorretan bizi diren pertsonak
				11.2	Ezohiko eraikinak eta pertsonak bizi izateko egokiak ez direnak	Ohiko bizitokiak ez diren eraikinetan (txabolak edo etxolak) bizi direnak
				11.3	Adi baterako egiturak	
		12	Bizitoki desegokia	12.1	Bertan bizi izateko egokia ez den eraikina	Legeria nazionalaren arabera, gizakiek etxebizitza moduan erabili ezin dituzten leku desegokietan bizi direnak
13	Larregizko pilaketa	13.1	Pilaketa zehazten duten ohiko estandarren gain-gainetik	Etxebizitzetan pilatuta bizi direnak (okupazioari buruzko arau nazionalaren gainetik)		

Iturria: geuk eginikoa lan honetan oinarrituta: Cabrera (2008: 192-193) eta Pleace *et al.* (2013: 21)

Kontzeptu-eremu honetatik, zeintzuk dira ETHOS metodologiari egotz dakizkioken indarguneak? Jarraian, etxegabetasun eta bizitegi-bazterketako egoerak aztertzekeo tresna bezala duen gaitasuna nabarmentzen duten bereizgarri batzuk aipatuko ditugu labur-labur:

- **Bizitegi-bazterketak barne hartzen dituen egoeren heterogeneotasuna agerian geratzen da:** tipologia honek egindako ekarpenik handienetakoa da, etxegabetasunaren metodologia hau erabiliz ikuspegi murriztailea –eta orain dela gutxira arte nagusia– gaitzetzeko aukera ematen duela. Ikuspegi murriztaile horren arabera, arazo hau etxerik gabeko pertsonen arazoa besterik ez da. Etxegabetasuna generoaren ikuspegitik aztertzerakoan funtsezko gaia da hau. Hortaz, esan daiteke, ETHOS tipologiak emakumeen presentzia handiagoa izan daitekeen beste egoera batzuk agerian jartzeaz gain, egoera espezifikoak ere kontuan hartzen dituela, esaterako genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako bizitokietan daudenena, mahai gainean jartzen baitute, zeharka baino ez bada ere, emakumeengan eragina duen etxegabetasunaren arrazoi espezifikoetako bat.
- **Bizitegi-prozesu eta -egoeretan jartzen du arreta, eta ez pertsonaren izaeran:** arazoa azaltzeko norbanakoaren alderdietan bakarrik arreta jartzen duten etxegabetasunari buruzko teoriak ez bezala, ETHOS metodologiak barne hartzen duen kontzeptu-eremuak aukera ematen du bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonak bizi diren lekuak dauzkan baldintzen arabera sailkatzeko, eta ez beren izaeraren arabera.
- **Esparru metodologikoaren malgutasuna:** ETHOS metodologiari esker, bizitegi-bazterketa ikuspegi murriztutik aztertu daiteke (etxerik gabe edo etxebizitzarik gabe dauden pertsonak) edota ikuspegi zabal eta hedatuagotik.
- **Herrialde edo lurralde bakoitzeko errealitateara egokitzea:** bestalde, aintzakotzat hartu behar da, abantaila handi bat duela: herrialde bakoitzeko egoeretara egokitzekeo diseinatutako tipologia da, eta luzetara eta nazioen artean alderatu daitezkeen datuak emateke ere gai da.
- **Politika publikoak diseinatu eta balioesteko erabilgarritasuna:** hasiera-hasieratik, ETHOS metodologiaren helburuetako bat etxegabetasunaren eta bizitegi-bazterketaren analisi konparatibo hobea ahalbidetzeko esparru analitiko argia eta egokia eskaintzea ez ezik, etxegabetasuna saihestu eta murrizterakoan politika jakin batzuek duten eraginkortasuna adieraztekeo aukera ematen duen tresnaz hornitzea ere bada.

Indargunez gain, tipologia honi buruzko beste alderdi batzuk ere aipatu behar dira, erabilerak ekar ditzakeen muga, anbiguotasun edo zailtasunekin lotutakoak.

- **ETHOS tipologiak etxebizitzaren gabeziarekin edo prekarietatearekin lotutako egoerak identifikatzen ditu, ez ditu kausak identifikatzen, ez ditu zerbitzuak deskribatzen eta ez ditu barne hartzen gizarte-bazterketaren beste alderdi batzuk:** Etxegabetasunaren fenomeno konplexua sailkatu eta zenbatzerakoan ETHOS metodologia erreferentziazko tresna bada ere, mugak dituen metodologia dela adierazi behar da. Metodologiaren barnean bizitokiarekin eta etxebizitzarekin lotutako hainbat egoera identifikatu daitezke, baina barne hartzen dituen kategorien helburua –bereziki *etxerik gabe* kategoria eragilean– ez da dauden zerbitzuak deskribatzea. Halaber, ETHOS sailkapenak ez ditu kontuan hartzen etxegabekotasunaren arrazioak, ezta gizarte-bazterketarako beste arrazio batzuk ere, bizitegi-egoerara lotuta daudenak ez badira.
- **ETHOS metodologiak barne hartzen dituen bizitoki-egoerek ez dute, derrigorrez, ordena hierarkikorik jarraitzen:** tipologia honen barnean dauden lau kontzeptu-kategoriak ordinaltzat har daitezke, bazterketa-maila handiagotik (etxerik gabe) txikiagora (etxe desegokia) antolatuta baitaude, etxearen kontzeptuan sartzen diren arlo guztien edo bat edo besteren gabeziaren arabera, ETHOS tipologiak deskribatzen dituen

egoerek ez dute, derrigorrez, ordena hierarkikorik. FEANTSAk jakinarazten duenez, beren egoeraren arabera etxebizitza ez-seguruko edo desegokiko kategoriaren barnean dauden pertsonak ez dute zertan etxebizitzarik edo etxerik gabeko egoeran dauden beste pertsona batzuek baino egoera orokor hobea eduki³.

- **Erreferentziako denboraldi sendoaren gabezia** ETHOS metodologiak zehaztasun-falta nabarmen samarra du aztertzen dituen egoera batzuk denboran kokatzerakoan. Horri dagokionez, aurrez esan bezala, ETHOS tipologiak bere sailkapenekoak ez diren kategoriez bestelako erreferentzia-denboraldiak erabiltzen ditu (Amore *et al.*, 2011: 30). Deskribatutako egoera gehienetan etxegabetasunak uneko egoera aipatzen badu ere, batzuetan etorkizuneko egoera edo gertatu daitekeen egoera bezala uler daiteke –adibidez instituzio jakin batzuetatik irtengo diren pertsonen presentzia aipatzen duenean–, edo iraganeko egoera bezala –epe luzerako laguntza jasotzen ari diren pertsonen kasuan, esaterako–.
- **Zehaztasun-falta eta kategoriak gainjartzea**: ETHOS tipologiak etxegabetasunarekin eta bizitegi-bazterketarekin lotutako egoera-sorta zabala jasotzen duen arren, zehaztasun-falta, zein sailkapenean kategoria gainjarriak egotea dira egotzi zaizkion mugetako batzuk. Kategorien arteko gainjartzea azaltzen duten adibide batzuk honako egoera hauek erakutsi dezakete: aldi baterako txabolen kokalekua legez kontra okupatutako lursailean (8.3 eta 11.3 kategoriak) edo gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituen etxebizitza batean bizi direnak pilaketako egoeran bizi badira (12.1 eta 13.1 kategoriak)
- **Arbitrariotasuna etxegabetasun-egoerak bizitegi-bazterketako egoeretatik bereizten dituen atalasean**: egile batzuek nolabaiteko arbitrariotasuna aurkitu dute ETHOS tipologian, etxegabetasun-egoerak eta bizitegi-bazterketako egoerak bereizteko erabiltzen diren irizpideei dagokienez (Amore *et al.*, 2011: 35). Kritika hau egiteko kontuan hartu da, etxegabetasun-egoerak (eta bereziki *etxebizitzarik gabe* egoera) bizitegi-bazterketa kontzeptuaren barnean dauden gainerako egoeretatik bereizteko bi eremu espezifikoen gabezia (soziala eta legala) erabili izana, eta ez beste batzuk.

³ ETHOS. *Frequently Asked Questions*. Hemen kontsultatu daiteke: http://www.feantsa.org/download/ethos_faq_18107446974200637605.pdf?force=true

3. EAE-N ETXEGABETASUNA ETA BIZITEGI-BAZTERKETA JASATEN DUTEN EMAKUME ETA GIZONEN KOPURUAREN KUANTIFIKAZIOA ETA BILAKAERA

3.1. Sarrera

Europako esparruan, etxegabetasunak duen eraginera gerturatzaren azterketarik gehienak arabera, bizitegi-bazterketarik larriak gizonengan dute eragina batez ere, eta emakumeen %15-30 bakarrik daude egoera horretan.(Edgar eta Doherty, 2001)⁴. Hala eta guztiz ere, eta *etxerik gabeko* edo *etxebizitzarik gabeko* pertsonen artean emakume gutxiago daudela egia den arren, bibliografia espezializatuan nolabaiteko adostasuna dago, adierazterakoan bizitegi-bazterketako egoeretan emakumeen presentzia gutxitzeko joera egon dela.

Bizitegi-bazterketa larrian dauden emakume-kopurua azpitik zenbatesten lagundu duten arrazoiaren artean honako hauek aipa daitezke:

- Pobrezia eta gizarte-bazterketa azterterakoan kontuan hartu ohi den joera androzentrikoa: azterketako beste arlo batzuetan bezala, etxegabetasunari buruzko azterketetan ere etxegabetasunaren arazoak aztertzeko, oro har, gizonen esperientziak hartu dira erreferentzia bezala (Young, 2010).
- Etxegabetasuna azterterakoan hartzen diren definizio murriztaileak: kaleko etxegabetasun-egoerak duten agerikotasun handiagoagatik, larritasun gutxiagoko beste egoera batzuei buruzko informazio zuzena lortzeko zailtasunagatik edo bizitegi-bazterketa ohiz kanpoko egoeretara murrizteko borondate politikoagatik, egia esan, fenomeno honen oso definizio murriztuak (ofizialak, zein ofizialak ez direnak) hartzeko joera egon da, etxegabetasuna kalean edo aterpetxeetan gaua igarotzearekin lotuz, eta emakumeak, argi eta garbi, gutxienak dira egoera horietan (Baptista, 2010).

⁴ Berez, etxerik gabeko pertsona-kopurua ezartzen saiatzen diren azterketak urriak eta mugatuak badira, arri eta mugatuagoak dira etxerik gabeko pertsonen artean emakumeak zenbat diren zehaztasun pixka batekin jakin nahi duten azterlanak. Orain dela gutxi arte, horrelako hurbilketa gehienak tokiko azterketetan edo garrantzi berezia duten zentro batzuen memorietan oinarrituta egin dira. EAEn, 2012ko Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestaren azken datuen arabera, lo egiteko edo jateko zentro eta zerbitzuek arreta eskaini dien pertsona guztien %19 emakumeak ziren. 2014an, EAEn egindako gaueko zenbaketaren datuek adierazten zutenez, zenbaketa egin zen hamar udalerrietan (Barakaldo, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Getxo, Irun, Laudio, Portugalete, Santurtzi eta Sestao) aurkitutako pertsona guztien %12 inguru ziren emakumeak, eta etxerik gabeko pertsonen ostatu hartzeko zentro eta zerbitzuetan %24 ziren emakumeak.

- Emakumeen ezkutuko etxegabetasun-modu jakin batzuen eragina neurtzeko zailtasuna: definizio zabalagoak erabili arren, oso zaila da etxegabetasun-egoera *zabal* batzuen eragina neurtzea, zehazki, emakumeen kasuan, gaiari buruzko literaturak espezifikoki emakumeenak direla adierazten duen egoeren eragina. «Ezkutuko etxegabetasuna» delakoaren barnean sartzen dira, emakumeek garatzen dituzten estrategia espezifikokoak aipatzen dituzten egoera horiek guztiak. Estrategiok ageriko egoeretatik edo errazen zenbatu daitezkeen egoeretatik urruntzen dituzte emakumeak. Zentzu honetan, egile batzuek adierazi dutenez, emakumeek joera handiagoa dute kalean edo aterpetxe jakin batzuetan lo egitea saihesteko, arrisku handia antzematen baita bertan. Beste ostatu-aukera batzuk hautatzen dituzte, seguruagoak, senide edo lagunen etxean ostatu hartzea, gela partekatzea, etab. (Edgar eta Doherty, 2001).
- Ez dago datu eguneraturik, zehatzik eta argirik etxerik gabe dagoen pertsona-kopuruari buruz: definizio adosturik ez egoteaz gain, metodologiak mugak dituzenez, eta etxegabetasuna eta bizitegi-bazterketa neurtzeko egun dauden tresnek baliabide urriak dituztenez, oraindik ere tarte handia dago etxerik gabeko pertsonen buruz dagoen informazioa zabaltzeko eta hobetzeko.

Atariko zehaztasun hauek egin ostean, kapitulu honen helburua EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden gizon eta emakumeen kopurua kuantifikatzea da, etxegabetasunaren ideia zabala kontuan hartuta. Horretarako, Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Europako Behatokiaren esparruan garatutako definizioa hartuko da oinarritzat eta FEANTSAk garatutako kontzeptu-eremua hartuko da kontuan, azterlan honen hirugarren kapituluaren adierazten denaren arabera.

3.2. EAEn etxe-gabetasuna eta bizitegi-bazterketa jasaten duten pertsonen kuantifikazioa

Zalantzarik gabe, etxegabetasunari buruz hitz egiterakoan kontzeptu-esparru bezala balio izateaz gain, ETHOS tipologia ezartzearen ondorio logikoetako bat lurralde zehatz batean etxerik gabe dauden pertsonen kopuruari buruzko zifrak lortzea da. Horixe da, beraz, epigrafe honen helburua, hots, ETHOS tipologian eta dauden informazio-iturrietan oinarrituz, jakitea zenbat gizon eta emakume dauden bizitegi-bazterketa larrian egun EAEn. Datu hauei esker, jakin nahi da bizitegi-bazterketa larriaren eragina zein neurritan den handiagoa gizonen artean, eta zein neurritan duten eragin bereizgarria gizon eta emakumeen artean, nolabait, ez hain gogor edo larritzat hartzen diren beste bizitegi-bazterketako egoera batzuek, ETHOS tipologian etxebizitza ez-segurua eta etxebizitza desegokia kategoriaren barnean sartzen dituenak.

Jakina, epigrafe honetan egin nahi den lanak baditu bere zailtasunak, eta baita muga oso garrantzitsuak ere. Horren haritik, aipatu behar da, alde batetik, ez dagoela ETHOS metodologiak proposatzen dituen egoerei buruzko hurbilketa zehatz eta zorrotza eskaini dezakeen informazio-ituririk. Izan ere, eta hainbat arrazoiengatik, azpimarratu beharra dago, dauden aldizkako informazio-iturri espezifikoek – EUSTATen Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkesta eta EAEn gauetan egindako zenbaketak– ere muga handiak dituztela, ez bakarrik ETHOS sareak duen espektro osoa barne hartzeko, baita metodologiako kategoria larrienei hurbilketa kuantitatibo bat eskaintzeko ere. Esan behar da, bestalde, ETHOS tipologia bizitegi-egoera larriko egoerak zenbatzeko erreferentziatzeko kontzeptu-esparrua bada ere, jasotzen dituen 24 azpikategorietako batzuetan zehaztasuna falta duela, eta horrek hurbilketa are gehiago zailtzen du.

ETHOS sailkapenean bildutako bizitegi-egoerei buruzko informazio objektiboa eskuratzeko, iturri estatistiko eta informazio-iturri oso heterogeneoak erabili ditugu. Erabili ditugun iturriak, zein lortutako emaitzak hemen ikus daitezke: 3, azterlan honen 26. orrialdean.

Oro har, irizpide metodologiko hauek erabili dira zenbatespena egiteko:

- Hamar iturri estatistiko eta informazio-iturri ezberdin erabili diren arren, informazio gehiena lan nagusi hauetatik atera dugu: EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen gaueko azken zenbaketa, 2014koa: 2013ko FOESSA inkesta eta 2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen errolda.
 - Etxerik gabeko pertsonen zenbaketa, 2014koa: *etxerik gabe* eta *etxebizitzarik gabe* ETHOS kontzeptu-kategorietan jasotzen diren egoera gehienak *EAEn Bizitegi Bazterketa Larrian Daudenen Egoerari buruzko II. Azterketan* agertzen den informaziotik atera dira. Ikerketa honetako informazioa 2014ko urriaren 29tik 30era bitarteko gaueanaldi berean egindako zenbaketetako da: bat kalean egin zen eta bestea etxerik gabeko pertsonen ostatu hartzeko baliabideetan. Gauen kalean egin zen zenbaketan udalerririk hartu zuten: Barakaldo, Bilbo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Donostia, Irun, Laudio eta Gasteiz. Hamar udalerririk hartu zuten, hiriburuak barne, 2014an EAEn bizi zen biztanleriaren erdia baino zertxobait gehiago biltzen zen. Ostatu hartzeko baliabideetan egindako zenbaketari dagokionez, azterketaren eremu geografikoaren barnean EAeko hiru lurralde historikoak sartzen dira. Ikerketa honetan 253 bizitoki-baliabide zenbatu ziren, 2.086 leku zituzten guztira bizitegi-bazterketa larrian zeuden pertsonentzako.
 - 2013ko Gizarteratzeari eta gizarte-beharrei buruzko inkesta, FOESSA Fundazioarena: etxegabetzearen mehatxupearan dauden egoereri lotutako etxebizitza ez-seguruen zenbatespena egiteko, FOESSA Fundazioaren gizarteratze eta gizarte-beharrei buruzko 2013ko Inkestaren mikrodatuak erabili dira. Estatu osoko bizi-baldintzak eta gizarte-baldintzak kuantifikatu eta aztertzeko egin dugun azterlan honetako azken lagina 24.775 pertsonak osatzen dute. Hala ere, ikerketak autonomia-erkidego bakoitzeko informazio adierazgarria eskaintzen duenez, ikerketa honetarako jasotako datuek EAE aipatzen dute, eta 1.759 pertsonaren azpi-laginetik hartu dira.
 - 2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Errolda: bizitoki desegokiaren eta pilaketa larria etxebizitza desegokia kategoriatan barruan sartu dira, eta INEren web-orrialdean dagoen Biztanleriaren eta etxebizitzen erroldako mikrodatuak erabiliz zenbatetsi dira.

Aipatutako informazio-iturriez gain, Eustaten 2012ko Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Estatistika erabili dugu legez kontra okupatutako etxebizitzan bizi diren pertsonen kopurua zenbatesteko; eta Eusko Jaurlaritzaren Eskaera Estatistika / Gizarte Beharrei buruzko 2014ko Inkesta erabili dugu azpierreantza-erregimenean dauden bizitokiak daukaten segurtasun-falta juridikoko egoereri buruzko hurbilketa egiteko. Idatziz jasotako informazioa datu zehaztatik etorri beharrean gutxi gorabeherako zenbatespenetatik datorrenean, erabili ditugun iturriak edo irizpideak aipatzen dira.

- Ematen den informazioa sexuaren arabera banatuta dago. Hainbat lurralde-eremutan aurretik egindako ikerketek etxerik gabeko biztanleria zenbatu badute ere, ikerketa honen espezifikotasun eta ekarpen garrantzitsuenetako bat, zenbatutako pertsonen buruz eskaintzen duen informazio guztia sexuaren arabera banatuta dagoela da. Ikerketa honen helburu nagusienetako bat emakume eta gizonei, bereizita, ETHOS metodologiak zehaztutako etxegabetasun-egoerak zein neurritan eragiten dieten aztertzea denez, egindako zenbatespen guztietan ezaugarri hau hartu da kontuan.
- Informazio eguneratua. Ahal izan denean, ETHOS sareak bildutako egoera ezberdinei buruzko informazio ahalik eta eguneratuena erabiltzen saiatu gara. Horri dagokionez, esan beharra dago, ematen ditugun datu ugari 2014koak direla. Hala ere, zehaztu behar da, zenbatespenak urte ezberdinetako informazioa duela, eta beraz, alborapen hau kontuan hartu behar da datuak batera aztertzerakoan.
- Informazio-falta bizitoki-egoera batzuei buruz. ETHOS tipologiak biltzen dituen 24 azpikategoriak aztertzeko ahalegina egin bada ere, ezin izan da 6.2 kodearentzako (Etxebizitzarik ez edukitzeagatik osasun-instituzioetan behar baino egonaldi luzeagoa egiten dutenak) eta 8.1 kodearentzako (aldi baterako senide edo lagun harrerapean bizi direnak) zenbatespenik eskaini. Halaber, 5.2 kodeak zehaztutako bizitoki-egoerak (sasoiko langileentzako bizitokiak) eta 7.1 kodeak zehaztutakoak (adineko etxerik gabekoentzako egoitza) ez dira zenbatespenean sartu. Lehenengoak, zenbaketa bereziki zaila delako, eta bigarrena, EAeko errealitatean aurkitzea zaila delako. Azkenik, esan behar

da, 11. kategoria eragileari dagokionez (aldi baterako eta ezohiko egituretan bizi direnak) Gipuzkoako datuak bakarrik jaso direla, zaila baita gainerako lurraldeei dagozkien datuak zenbatestea.

Hurrengo taulan ikus daitezkeen bezala, egun etxegabetasun- eta bizitegi-bazterketako egoeretan egon daitezkeen pertsonen, emakume zein gizonen, kopuruari buruzko ahalik eta zenbatespen zehatzena eskaintzeko ahalegina egin da, ETHOS tipologiak egoera hauek jasotzen dituen moduan. Amaitzeko, azpimarratu behar da, azterketak nagusiki izaera miatzailea duela eta garapenean etorkizuneko hobekuntzetara irekita dagoela.

3ren ondorengo orrialdeetan, ETHOS tipologian dauden kategoria eragile bakoitzarentzako eskuragarri dagoen informazioari buruzko azterketa txikia egiten da. Azkenik, 39. orrialdean orokorrean lortutako emaitzak aztertzen dira.

3. taula. EAEn bizitegi-bazterketa larriak eragindako pertsona kopuruaren zenbatespena sexuka banatuta, ETHOS Tipologiaren arabera

A	Kategoria eragilea		Bizitegi-egoera	Kopurua			Data Erref.	Iturriak
				Gizonak	Emakumeak	Guztira		
A	ETXERIK GABE							
1	Eremu publikoan bizi direnak (atari zabalean)	1.1	Kanpoko eremu publikoa	192	26	245	(2014)	EAEn bizitegi-bazterketa larriak daudeneko egoerari buruzko II. azterketa. 2014
2	Gaueko babeslekuan lo egiten dutenak edota egunean zenbait ordu eremu publikoan eman behar dituztenak	2.1	Eskakizun gutxiko gaueko ostatua edo aterpetxea	210	15	225	(2014)	
B	ETXEBIZITZARIK GABE							
3	Etixerik gabekoentzako aterpetxe eta zentroetan / aldi baterako bizitokietan bizi direnak	3.1	Aterpetxeak eta bizitokiak	132	33	165	(2014)	EAEn bizitegi-bazterketa larriak daudeneko egoerari buruzko II. azterketa. 2014
		3.2	Aldi baterako eta iragaitzako bizitokia	45	24	69	(2014)	
		3.3	Babespeko bizitokia	562	162	724	(2014)	
4	Emakumeentzako aterpetxeetan daudenak	4.1	Emakumeentzako aterpetxeak (bakarrik edo seme-alabekin)	35	107	142	(2014)	Ad hoc zenbatespena aurrez aipatutako azterketa oinarritzat hartuz.
5	Asilo-eskatzaile eta etorkinentzako bizitokietan daudenak	5.1	Aldi baterako bizitokia / Harrera-zentroa	42	26	68	(2014)	EAEn bizitegi-bazterketa larriak daudeneko egoerari buruzko II. azterketa. 2014
		5.2	Sasoiko langileentzako bizitokiak	--	--	--	--	
6	Epe jakin batean egoitza-instituzioetatik edo barneratze-instituzioetatik irtengo direnak	6.1	Zigor-instituzioak (espetxeak)	71	10	81	(2014)	INE. Espetxean dagoen biztanleriari buruzko estatistika; eta beste balioespen batzuk
		6.2	Osasun-instituzioak (ospitaleak, etab.)	Daturik gabe	Daturik gabe	Daturik gabe	--	
		6.3	Adingabeentzako zentroak	14	10	24	(2014)	Ad hoc zenbatespena, hainbat iturritan oinarrituta
7	Etixerik gabeko pertsonak direnez babes eutsiko bizitokia jasotzen dutenak	7.1	Adineko etxerik gabekoentzako egoitza	0	0	0	(2014)	
		7.2	Aurretiaz etxerik ez zutenentzako epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitza	143	54	197	(2014)	EAEn bizitegi-bazterketa larriak daudeneko egoerari buruzko II. azterketa. 2014
C	ETXEBIZITZA EZ-SEGURUA							
8	Edukitza ez-seguruko araubidean bizi direnak.	8.1	Senide edo lagunen harrerapean bizi izatea	Daturik gabe	Daturik gabe	Daturik gabe	--	
		8.2	Legezko edukizari gabe (adb.: azpialokatuak)	784	95	879	(2014)	Gizarte Zerbitzuen Eskaerari buruzko Estatistika. ENS
		8.3	Legez kanpoko okupazioa	61	13	74	(2012)	EUSTAT. Etixerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkesta
9	Etxegabetze-mehatxupean bizi direnak	9.1	Alokairuko araubidean	19.215	26.616	45.831	(2013)	2013ko FOESSA inkesta
		9.2	Jabetzako etxebizitza	2.704	6.251	8.955	(2013)	2013ko FOESSA inkesta
10	Bikotekideen edo familiaren indarkeria-mehatxupean bizi direnak	10.1	Polizian aurkeztutako salaketak (<i>babes-aginduekin</i> edo <i>kautelazko neurriekin</i>)	154	732	886	(2014)	INE. Etxeko Indarkeria eta Genero-indarkeriari buruzko Inkesta
D	ETXEBIZITZA DESEGOKIA							
11	Aldi baterako eta ezohiko egituretan bizi direnak	11.1	Karabanak eta antzekoak	10	2	12	(2014)	EAEn bizitegi-bazterketa larriak daudeneko egoerari buruzko II. azterketa. 2014
		11.2	Ezohiko eraikinak eta pertsonak bizi izateko egokiak ez direnak	109	72	181	(2014)	Gipuzkoa bakarrik: 2014. urtean Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatutako biztanleria ijito-errumaniarrari buruzko azterketa diagnostikoa.
		11.3	Adi baterako egiturak					
12	Bizitoki desegokia	12.1	Bertan bizi izateko egokia ez den eraikina	44.771	42.695	87.466	(2011)	Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 2011ko errolda
13	Larregizko pilaketa	13.1	Pilaketa zehazten duten ohiko estandarren gain-gainetik	44.697	42.359	87.056	(2011)	Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 2011ko errolda
	GUZTIRA							

Iturria: geuk eginkoa aipatutako iturrietan oinarrituta.

3.2.1. 1. kategoria: aterperik gabe bizi diren pertsonak

ETHOS sailkapenak dauzkan hamahiru kategorietatik lehenengoak gunee publikoetan edo kanpoko eremuetan gaua igarotzen duten pertsonak barne hartzen ditu. Egun, Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Estatistikak etxerik gabeko pertsonentzako ostatu hartzeko edota jateko zerbitzuen erabiltzaileen gaua igarotzeko lekua bakarrik jasotzen duenez –beraz, erakundeen arreta-zirkuitutik kanpora dauden pertsonak ez ditu kontuan hartzen–, kalean egindako gaueko zenbaketak bakarrik hurbil daitezke egoera hauen eraginera.

2014ko urriaren 29tik 30era bitarteko gauean 10 euskal udalerritako kaleetan egindako gaueko inkestako datuetan oinarrituta dagoen *EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko II. azterketan* argitaratutako azken datuen arabera, 323 pertsona zenbatu zituzten guztira, zenbaketaz arduratu ziren pertsona boluntarioen taldeek. Horietatik %9 gizonak ziren (256 pertsona) eta %12 emakumeak (40 pertsona). 323 pertsonetatik 27ren sexua ezin izan zen zehaztu.

Hala ere, kaleko gaueko zenbaketetan zehar 323 pertsona zenbatu ziren arren, horietako batzuk nolako egoeran zeuden ikusita, zenbatutako pertsona guztiak ez liriteke ETHOS metodologiaren 1. kategoria eragilean sartu behar. Funtsean, ibilgailu, txabola edo eraikin hutsetan lo zeuden edo lo egingo zuten pertsonak dira. Egoera horietan 78 pertsona zenbatu ziren, eta ikerketa honen xedeetarako 11. kategorian sartu dira⁵. Zehaztapen honen ondoren, 2014an kalean 245 pertsona zenbatu ziren zehatz-mehatz: 192 gizon, 26 emakume eta sexua zehaztu ezin izan zen beste 27 pertsona. Zifra hau izan da zenbaketa honetan aukeratu dena, baina zehaztu egin behar da pare bat arrazoiengatik.

- Azkenean jaso den zifrak, hots, 245 pertsona, berariazko muga du, EAEko 10 udalerritan bakarrik egin baitziren gaueko zenbaketak. Udalerrien artean hiru hiriburuak eta biztanleria gehien duten euskal hiriburuak badaude ere –berez, udalerritan autonomia-erkidegoan bizi den biztanleriaren %53a bizi da–, kopuru hau ezin da orokortu EAE osoarentzako.
- Egindako zehaztasunez gain, gaueko zenbaketek dauzkaten muga espezifikoak ere kontuan hartu behar dira. Alde batetik, kontuan hartu beharra dago, kalean dauden pertsonen irudi finkoa eskaintzen dutela ikerketa-mota hauek, gau zehatz bateko (2014ko urriko 29-30 gaua) gaueko zenbaketaren bidez eta ordutegi mugatu batean (22:00etatik 2:00etara). Halaber, ikerketa hauek beste muga bat dute, ezin baita zehazki kontrolatu kalean dauden pertsonen kokapenean gertatzen den errore-maila. Errore hori kuantifikatzeko helburuarekin, ikerketan ordezko bi kontraste-metodologia erabili ziren (SIIS, 2015: 41) benetan kalean aurkitutako pertsonen kopurua bikoiztuko duen azken zifra iradokiko dutenak.

3.2.2. 2. kategoria: gaua aterpetxeetan edo babeslekuetan egiten duten pertsonak

ETHOS tipologiako 2. kategoriaren barnean ohiko bizilekurik ez daukatenez, oso eskakizun urriko aterpetxeak edo babeslekuak darabiltzaten pertsonak sartzen dira. EAEn egindako gaueko azken zenbaketako datuen arabera, ostatu hartzeko zentro eta zerbitzuetan, 2014ko urriaren 29 eta 30eko gauean zehar 225 pertsonak ostatu hartu zuten zentro-mota hauetan. Horietatik 15 bakarrik ziren emakumeak, eta ostatu hartu zuten pertsonen %93 gizonak ziren.

⁵ Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu kapitulu honetako 36. orrialdeko 3.2.11. epigrafea.

4. taula . ETHOS metodologiaren 2.1 kategorian –eskakizun gutxiko gaueko aterpetxe edo babeslekuak– sar daitezkeen zentroetako magnitude nagusiak, Lurralde Historikoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Zentro-kopurua	1	5	3	9
Leku-kopurua	32	142	100	274
- Leku mistoak	0	132	100	232
- Emakumeentzako lekuak bakarrik	3	0	0	3
- Gizonentzako lekuak bakarrik	29	10	0	39
+ Leku publikoak edo itunduak	32	96	56	184
Ostatu hartuta dauden pertsonen kopurua	25	121	79	225
- Emakumeak	2	8	5	15
- Gizonak	23	113	74	210

Iturria: EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko II. azterketa. 2014

Argitzeko bakarrik bada ere, adierazi daiteke, kategoria honetan sailkatutako ostatu hartzeko zerbitzua duten 9 baliabidetatik lau titulartasun publikodunak direla. Hauek dira zentroak: Gasteizko Aterpe Gaueko Udal Zentroa (25 pertsona), Donostiako Gaueko Aterpea (30 pertsona) eta Bilbon, Gaueko Harrerarako Udal Zerbitzua (36 pertsona) eta Eskakizun Urriko Udal Aterpetxea (28 pertsona). 2014ko urriaren 29 eta 30eko gaua lau baliabide hauetan igaro zuten 119 pertsonetatik %8,2 bakarrik ziren emakumeak.

3.2.3. 3. kategorია: etxerik gabeko pertsonentzako bizitokietan dauden pertsonak

Eskakizun gutxiko gaueko aterpetxe edo babeslekuen ondoren, ETHOS tipologiak etxerik gabeko zentroetan epe labur edo ertaineko egonaldia egiten dituzten pertsonak barne hartzen ditu hirugarren kategoria eragilean. 2007. urtean, FEANTSAK⁶ proposatutako ETHOS tipologiaren azken berrikusketan oinarrituta, Espainiako testuingurura egokitu zen ETHOS sarea, eta hiru bizitoki-modalitate barne hartu zituen –aterpetxeak eta bizitoki-zentroak (3.1), aldi baterako eta iragaitzako bizitokiak (3.2) eta babespeko bizitokiak (3.3)–, baina kategoria bakoitzaren zehaztapen doiagorik ez dagoenez, oso zaila da behar bezala alderatzea⁷.

ETHOS tipologiaren 3. kategoria eragilean deskribatzen diren egoerak kuantifikatzen saiatzeko, berriz ere EAE osoan, ostatu hartzeko zentro eta baliabideetan 2014an egin zen gaueko zenbaketan agertzen den informazioa erabili dugu. Ikerketa honen emaitzek –ikerketan, gutxi gorabehera zentro guztiak sartzen dira ETHOS tipologiak barne hartzen dituen egoeretako kategorietan– agerian jartzen dute 2014ko urriaren 29 eta 30 bitarteko gauean guztira 958 pertsonak ostatu hartu zutela kategoria eragile honen esparruan sailkatuta dauden bizitoki-modalitateetan. Horietatik guztietatik, zenbaketaren emaitzen arabera, emakumeak %23 ziren ia (219 emakume) eta %77 gizonak (739 gizon).

⁶ Hemen ikus daiteke: <http://www.feantsa.org/download/ethospaper20063618592914136463249.pdf?force=true>

⁷ EAEn egin diren gaueko azken zenbaketetan, dauden baliabideak bi fasetan sailkatu ziren, ETHOS metodologiak barne hartzen dituen kategoria eragileen arabera. Lehenengo fasean, zentroetako profesionalek egin zuten lehenengo autosailkapen-txanda. Lehenengo hurbilketa honetan oinarrituta, bigarren fasean, ikerketa koordinatzeaz arduratu ziren teknikariek homogeneizatu zituzten hiru Lurralde Historikoetan erabilitako irizpideak.

5. taula . ETHOS metodologiaren 3 kategorian –etxerik gabeko pertsonentzako aldi baterako bizitokia– sar daitezkeen zentroetako magnitude nagusiak, Lurralde Historikoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
3.1.- Aterpetxeak eta bizitokiak				
Zentro-kopurua	2	1	3	6
Leku-kopurua	79	71	79	229
- Leku mistoak	79	9	56	144
- Emakumeentzako lekuak bakarrik	0	16	3	19
- Gizonentzako lekuak bakarrik	0	46	20	66
+ Leku publikoak edo itunduak	79	71	79	229
Ostatu hartuta dauden pertsonen kopurua	45	66	54	165
- Emakumeak	10	14	9	33
- Gizonak	35	52	45	132
3.2.- Aldi baterako eta iragaitzako bizitokia				
Zentro-kopurua	5	1	12	18
Leku-kopurua	41	7	81	129
- Leku mistoak	0	7	81	88
- Emakumeentzako lekuak bakarrik	8	0	0	8
- Gizonentzako lekuak bakarrik	33	0	0	33
+ Leku publikoak edo itunduak	33	7	81	121
Ostatu hartuta dauden pertsonen kopurua	20	5	44	69
- Emakumeak	2	3	19	24
- Gizonak	18	2	25	45
3.3.- Babespeko bizitokia				
Zentro-kopurua	23	81	48	152
Leku-kopurua	175	457	333	965
- Leku mistoak	113	203	233	549
- Emakumeentzako lekuak bakarrik	18	78	21	117
- Gizonentzako lekuak bakarrik	44	176	79	299
+ Leku publikoak edo itunduak	113	300	262	675
Ostatu hartuta dauden pertsonen kopurua	111	344	269	724
- Emakumeak	36	52	74	162
- Gizonak	75	292	195	562

Iturria: EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko II. azterketa. 2014

Aurreko taulan ikus daitezkeen bezala, zenbatu ziren etxerik gabeko pertsonen ostatu hartzeko 256 zentro eta zerbitzuetatik 176 (%69 ia) kategoria honen barnean sailkatu ziren. Horietan ostatu hartzen duten emakumeen batez besteko proportzioa %23koa da, baina kopuru hau aldatu egiten da zentroen modalitatearen arabera, %20 dira aterpetxeetan; ostatu hartzeko zentroetan eta aldi baterako bizitokietan edota iragaitzako bizitokietan, berriz %35. Halaber, jasotako informaziotik ondoriozta daiteke, zentroetako leku guztietatik (1.323), %59 leku mistoak direla, %30 espezifiko gizonentzako lekuak, eta %11 bakarrik dira emakumeentzako lekuak.

3.2.4. 4. kategoria: genero-indarkeriagatik aldi baterako aterpetxeetan ostatu hartuta dauden emakumeak

ETHOS tipologiako 4. kategoriaren barnean genero-indarkeria jasan dutelako aldi baterako bizitokietan dauden emakumeen egoera espezifiko sartzen da. Kategoria hau kuantifikatzeko EAEn ostatu hartzeko gaueko zentroetan egindako gaueko azken zenbaketaren emaitzak erabili ditugu. Ikerketa honen arabera, 2014ko urriaren 29-30eko gauean 65 pertsonak ostatu hartu zuten baliabide mota hauetan. Horietatik guztietatik, 40 emakume helduak ziren eta 25 emakume hauen ardurapean zeuden adingabeak.

6. taula. ETHOS metodologiaren 4.1 kategorian –emakumeentzako aterpetxeak– sar daitezkeen zentroetako magnitude nagusiak, Lurralde Historikoaren arabera.

2014ko urriaren 29-30eko gaua

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Zentro-kopurua	11	12	5	28
Leku-kopurua	61	69	38	168
+ Leku publikoak edo itunduak	61	60	38	159
Ostatu hartuta dauden pertsonen kopurua	27	23	15	65
- Emakume helduak	14	17	9	40
- Adingabeak	13	6	6	25
+ Mutikoak	9	3	4	16
+ Neskatoak	4	3	2	9

Iturria: EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko II. azterketa. 2014

Zenbatespen hau EAEn egindako gaueko azken zenbatetatik eskuratu daitezkeen informazioan oinarrituta badago ere, zentro-mota hauetako plaza-kopuru txikiak mugak daudela nabarmentzen du egoera hauek duten eraginera behar bezalako hurbilketa eskaintzerakoan. EAEn egindako gaueko azken zenbaketan muga espezifiko bat antzeman da: baliabide-mota hauek aukeratzeko dauden hutsune handiak. Bizkaian, adibidez, hainbat arrazoiengatik, ez dira tratatu txarrak jasan dituzten emakumeentzako dauden foru-baliabide batzuk sartu (57 leku guztira), eta ezta Bilbotik eta Barakaldotik kanpo dauden udal-baliabideak ere (9 etxebizitza, 42 leku guztira). Araban, aldiz, genero-indarkeriaren biktimeentzako foru-baliabideak behar bezala jaso dira (bi harrera-etxe, 9 leku guztira), baina Gasteizko Udalaren udal-baliabideak bakarrik hartzen dira kontuan (8 harrera-etxe eta berehalako harrera egiteko zentro bat, guztira 52 leku dituzte). Azterketa honetan ez dira kontuan hartu Laudioko eta Amurrioko udal-etxebizitzak (5 eta 4 leku hurrenez hurren). Antzeko zerbait gertatzen da Gipuzkoan, 6ko datuetan ez baitira hartzen kontuan indarkeria matxistaren biktimeak izan diren emakumeentzako foru-etxebizitzak (31 leku) edo Donostiatik kanpo dauden beste udalerrri batzuetako harrerarako udal-baliabideak (15 etxebizitza, 60 leku inguru).

Ad hoc bildutako informazioaren arabera, ateratako ondorioa da, EAEn egindako gaueko azken zenbaketan kategoriatik honen barnean zenbatutako emakumeen kopurua (eta beren seme-alabena) zenbatespenaren azpitik dagoela, gure autonomia-erkidegoan genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako dauden lekuen %46 inguru bakarrik jasotzen baita⁸. Azpi-zenbatespen hau gutxitzeko, gaueko zenbaketan jasotako zifra zuzendu egin da, hipotesizat honako hau hartuta: zentro-mota hauetan noizean behin ostatu hartuko luketen pertsonen kopurua benetan dauden lekuen kopuru osoa (367) eta zenbaketa gauean ikusi zen okupazio-tasaren (%38) arteko biderkadura izango litzateke. Kalkulu hauetan oinarrituta, baliabide-mota hauetan 142 pertsonen ostatu hartzen dutela zenbatesten da, eta horietatik 87 emakume helduak izango lirateke, eta 55 adingabeak.

3.2.5. 5. kategoriatik etorkinentzako bizitokietan dauden pertsonak

ETHOS tipologiak espezifiki etorkinentzako bizitokietan dauden pertsonak sartzen ditu kategoriatik honetan, bi bizitoki-modu zehatz bereiziz: aldi baterako bizitokiak –5.1 kodea– eta sasoiko langileentzako bizitokiak –5.2 kodea–.

EAEn 5.1 azpi-kategoriako egoeran dauden pertsonen kopurua zenbatzeko, EAEn Hiru Lurralde Historikoetan 2014ko urriaren 29-30eko gauean egin zen bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen gaueko zenbaketa emaitzak erabili dira. Zenbaketa honen emaitzen arabera, gau horretan 68 pertsona zeuden ezaugarri horietako zentroetan ostatu hartuta, eta horietatik %38 emakumeak ziren (26 pertsona) eta %62 gizonak (42 gizon).

⁸ Egindako hurbilketa arabera, azterlan honetan kontuan hartu ez diren zentroek 199 leku edukiko litzateke guztira. Kontuan hartu diren lekuei leku hauek gehituz gero, 367 izango lirateke guztira.

7. taula . ETHOS metodologiaren 5.1 kategorian –etorkinentzako aldi baterako bizitokia– sar daitezkeen zentroetako magnitude nagusiak, Lurralde Historikoaren arabera.

2014ko urriaren 29-30eko gaua

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Zentro-kopurua	4	5	--	9
Leku-kopurua	34	41	--	75
- Leku mistoak	20	22	--	42
- Emakumeentzako lekuak bakarrik	14	14	--	28
- Gizonentzako lekuak bakarrik	0	5	--	5
+ Leku publikoak edo itunduak	34	41	--	75
Ostatu hartuta dauden pertsonen kopurua	30	38	--	68
- Emakumeak	15	11	--	26
- Gizonak	15	27	--	42

Iturria: EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko II. azterketa. 2014

ETHOS tipologiaren 5.2 azpi-kategorian deskribatzen diren egoerak –sasoiko langileentzako bizitokiak– batez ere Arabako nekazaritza-kanpainetan parte hartzen duten pertsonen egoerarekin alderatu daitezke, lurralde honetara etorri eta aldi baterako baliabideetan ostatu hartzen baitute. Sasoiko Lanari Buruzko Erakunde Arteko Mahaiak egindako 2014ko Kudeaketa eta Jarduerari buruzko Urteko Txostenean adierazten denez, urte horretako nekazaritza-kanpainetarako 1.010 pertsona kontratatu ziren, eta pertsona horietatik bi bakarrik ziren emakumeak. Pertsona guztien %86 inguru marokoarrak ziren, gainerakoak, Saharaz hegoaldeko herrialdeetakoak, Ekuadorrekoak eta Errumaniakoak ziren. Espainiako langileak oso gutxi ziren.

Daukagun informazioa kontuan hartuta, oso zaila da sasoiko langileek lurralde honetan duten bizitoki-egoerari buruzko ikuspegi orokorra lortzea. Hala ere, azken urteotan biztanleria honen bizitoki-baldintzak nabarmen hobetu direla dirudi. Zehazki, sasoiko langileentzako bizitokiak bete behar dituzten baldintzak eta bizitoki baimena, erregistroa eta akreditazioa erregulatzen dituzten arauak onetsi dira, eta 2013an Arabako nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerako sasoikako lanerako sektorearentzako hitzarmen kolektiboa sartu zen indarrean. Hitzarmen honek lehenengoz jasotzen du enplegatzaileek sasoiko langile guztiei bizitokia emateko beharra, langilea errolatuta dagoen bizitokia enpresaren egoitza soziala dagoen lekutik 40 kilometro baino gehiagora badago. Bizitoki hori Higiezin eta ekipamenduen erregistroan erregistratuta egon beharko da. Eskuragarri dauden azken datuen arabera, 2014ko abenduaren 31n Higiezin eta ekipamenduen erregistroan 78 bizitoki zeuden erregistratuta sasoiko langileentzako EAEn, eta guztira 816 langilerentzako lekua zuten. Arabara etorri ziren sasoiko langilerik gehienek bizitoki baimenduetan ostatu hartu zutela badirudi ere, kontuan hartu behar da, badaudela gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten bizitokiak ere (leku nahikorik ez dutenak, aireztapenik gabekoak, zoruan koltxoak dituztenak, komunik gabeak, lurrezko zorudunak, ur eta urik ez dutenak, makinak, tresnak, produktu fitosanitarioak, gasolioa... eta pertsonak leku berean). 2013-2016 Sasoiko Lanaren Arretarako III. Plan Integralean aipatutakoarekin bat etorritik (2013: 18-20), eta baita prentsako hainbat albistetan argitaratutakoarekin ere⁹.

3.2.6. 6. kategoria: espetxeen, osasun-instituzioen edo babespeko instituzioen menpe bizi diren pertsonak eta irteteen etxebizitzarik ez dutenak

Kategoria honen barnean daude egoitza-instituzioetan edo barneratze-instituzioetan dauden pertsonak baina laster irtengo direnak, eta irteteen nora joan ez dutenak. ETHOS tipologiak kategoria hau hiru kodetan banantzen du, instituzio-motaren arabera, hau da, espetxeak –6.1 kodea–, ospitaleak –6.2 kodea– eta adingabeentzako harrera zentroak –6.3 kodea–.

⁹ PÉREZ, P.J. (2014) «Uvas blancas, uvas negras. La trastienda de la vendimia es más amable en Rioja Alavesa, donde saben que un temporero satisfecho rinde mejor», *Noticias de Álava*, 2014ko urriak 12; PÉREZ, P.J. (2014) «Regresan las mafias de temporeros. Más de 40 temporeros vivían en malas condiciones en Baños», *Noticias de Álava*, 2014ko urriak 12

Hiru egoeretatik lehenengoak espetxean dauden pertsonen egoera islatzen du, batzuetan espetxetik irteterakoan etxegabetasun-egoeran aurki baitaitezke. Espetxeratzea eta etxegabetasunaren arteko harremana adierazi du dagoeneko gai horri buruzko literatura espezializatuak. Bibliografia espezializatuak azpimarratu egiten du, fenomeno bien noranzko biko izaera, eta espetxetik irteten diren pertsonen etxegabetasuna jasateko duten arrisku handiagoa ez ezik, etxerik gabeko pertsonen espetxeratutako izateko duten arrisku handiagoa ere nabarmentzen du (Metraux *et al.*, 2007).

Barne Arazaetako Ministerioaren datuetan oinarritutako INEren Espetxean dagoen Biztanleriari buruzko Estatistikaren 2014ko datuen arabera, EAEn 1.224 pertsona daude espetxean, eta horietatik 1.074 gizonak dira eta 150 emakumeak. Horri buruzko informazio estatistikorik ez dagoenez, hurbilketa adierazgarria egin da orain espetxean zenbat pertsona egon daitezkeen egoera horretan jakiteko, espetxean dauden pertsona guztietatik %10 inguru¹⁰ datorren urtean irtengo direla zenbatetsi da, eta irtengo diren bi herenek ez dutela nora joan¹¹. Zenbatespen honen ondorioa da, EAEko espetxeetan 81 pertsona egon daitezkeela egoera honetan, 71 gizon eta 10 emakume.

Hertsiki, 6.2 azpi-kategoriaren barnean daude hainbat motatako osasun-instituziotan (ospitaleak, psikiatrikoak, drogen errehabilitazio zentroak, etab.) egonaldia luzatzen duten pertsonak, etxebizitzarik ez daukatelako. Egoera hauen eraginaren azterketa kuantitatiboa egitea oso zaila bada ere –eta beraz, ez da aintzat hartu–, merezi du aipatzea, gutxienez, gaixotasun mentala duten pertsona jakin batzuk izaten duten ahultasun-egoera ospitaleratuta dauden ospitale psikiatrikoetatik irten eta nora joan ez daukatenean. Hala ere, pentsa liteke, egoera hauetariko asko etxerik gabeko pertsonen bizitoki-arreta eskaintzeko sareak bere gain hartzen dituela. Eustaten Etxerik gabeko Pertsonentzako Baliabideen Estatistikako datuen arabera, EAEn zenbatu diren 234 zentroetatik zok diotenez, ospitaleak dira zentro horietara sartzeko biderik ohikoena.

Epigrafe honetan aztertutako azken azpi-kategoriak adingabeengan eragina duten egoerak biltzen ditu, egun bizitoki-harreran dauden arren, adin-nagusitasuna laster beteko dutenak, eta bizitzeko etxerik ez dutenak. Kasu honetan ere informazio egokirik ez dagoen arren, gai honi buruzko gutxi gorabeherako hurbilketa egitea erabaki dugu. Ildo horretan, dagoeneko aipatu da, 2014an, EAEn egoitza-bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonen egoerari buruzko azterketaren barnean egoera honetan zeuden eta oraindik adingabeak ziren pertsonen kuantifikazioa egin zen (12 pertsona), baina Bizkaian bakarrik. Kopuru honetan oinarrituta, eta Bizkaian 12 pertsona horien eta lurralde honetan 2014ko urte amaieran bizitoki-harreran zeuden 411 pertsonen artean zegoen harremana kontuan hartuz, beste bi Lurralde Historikoentzako egozpena egin da lurralde bakoitzean bizitoki-harreran dauden adingabe-kopuruaren arabera (143 Araban eta 284 Gipuzkoan). Emaitzaren arabera, 24 pertsona daude EAE osoan, eta horietatik %60 gizonak (14 pertsona) eta %40 emakumeak (10 pertsona), EAEn harrera emateko adinean dauden adingabeen artean gizon eta emakumeek daukaten garrantzi demografikoaren arabera¹².

¹⁰ Proporzio hau Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Orokorrak urtero argitaratzen duen Txosten Orokorraren 2014ko informazioan oinarritzen da. Txosten horretako datuen arabera, Zigor Kodeari buruzko 10/95 Lege Organikoa ezarrita espetxean dagoen biztanleriaren %29k (Estatu osoko espetxeratuen %99,4k) 3 urte baino gutxiagoko zigorra du, eta ez da antzematen ezberdintasun esanguratsurik sexuaren arabera. Datu hau hartu da oinarritzat EAEn espetxean dagoen biztanleriaren %10 inguru, gutxi gorabehera, hurrengo urtean irten daitezkeela adierazteko.

¹¹ 2011ko martxoan Kale Gorrian kolektiboak etxerik gabeko pertsonen Donostiako egoerari buruzko ikerketaren esparruan 2011n bildutako informaziotik atera dugu datu hori.

¹² Hala ere, azken urteotan, batez ere izaera ekonomiko eta prestakuntza-izaerako baliabideak gehitzeko joera dute euskal foru-aldundiek, baina baita bizitoki-baliabideak gehitzeko ere, 18 urte bete ostean, harrera (familiakoa zein egoitzetako) alde batera utzi eta beren jatorrizko familietara itzultzen ez diren gazteen emantzipazio-prozesuetarako. 2014ko Etxerik Gabeko Pertsonen Arreta Eskaintzeko Zentro eta Zerbitzuen azken Inkestak adierazten duenez, EAEk 118 leku izango lituzke guztira, adin-nagusitasuna gainditu ostean bizitoki-harrerako zentroak utzi dituzten pertsonentzako espezifikoki. Dauden leku guztietatik, %61 (115 leku) gizonak bakarrik hartzen dituzten zentroetan daude eta %26 (48 leku) zentro mistoetan daude eta gainerako %13a (25 leku) emakumeentzako bakarrik izango lirateke.

3.2.7. 7. kategoria: etxebizitarik ez dutelako epe luzerako bizileku-onuradunak diren pertsonak

ETHOS tipologiaren zazpigarren kategoria eragilean, oro har, etxegabetasun-egoeratik epe luzerako arreta-zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen egoerak sartzen dira. Era berean, kategoria bitan banantzen da, zentro motaren arabera: batetik, adineko etxerik gabekoentzako egoitzak –7.1 kodea– eta bestetik, aurretiaz etxerik ez zutenentzako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak –7.2 kodea–.

Aztertzen diren bi modalitatetatik lehenengoari dagokionez, adineko etxerik gabekoentzako egoitzak, EAEn ez dago antzeko zerbitzurik. Baina horrek ez du esan nahi, mota horretako baliabide espezifikoak ez eduki arren, adineko pertsonentzako egungo egoitza-zerbitzuen sareak egoera honetan dauden adineko jakin batzuk edo gizarteratzeko beste bizitoki-baliabide batzuetatik bideratutako pertsonak behin betiko hartzen ez dituenik.

Bigarren azpi-kategoriari dagokionez, 2014an EAEn egindako gaueko zenbaketak 29-30eko gauean 197 pertsona zeudela adierazten du mota honetako baliabideetan ostatu hartuta. Pertsona horiek guztietatik, %72,6 gizonak ziren (143 gizon) eta %27,4 emakumeak (54 emakume).

8. taula . ETHOS metodologiaren 7.2 kategorian –epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitzak– sar daitezkeen zentroetako magnitude nagusiak, Lurralde Historikoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Zentro-kopurua	2	24	5	31
Leku-kopurua	28	156	62	246
- Leku mistoak	28	92	13	133
- Emakumeentzako lekuak bakarrik	0	28	5	33
- Gizonentzako lekuak bakarrik	0	36	44	80
+ Leku publikoak edo itunduak	28	106	57	191
Ostatu hartuta dauden pertsonen kopurua	19	132	46	197
- Emakumeak	7	39	8	54
- Gizonak	12	93	38	143

Iturria: EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko II. azterketa. 2014

3.2.8. 8. kategoria: bizitoki ez-seguruetan bizi diren pertsonak

ETHOS tipologiako 8. kategorian etxebizitza ez-seguruen hainbat egoera biltzen ditu, bai etxebizitza galdu dutelako ohikoa ez den bizitokian bizi direnak –8.1 kodea–, bai lege eskubiderik gabeko etxebizitzan bizi direnak –8.2 kodea– edo legez kontra okupatutako etxebizitzan bizi direnak –8.3 kodea–.

Hiru egoeretatik lehenengoan, etxebizitza bat eskuratzeko baliabiderik ez dutenez, aldi baterako senide edo lagun harrerapean bizi diren pertsonak sartzen dira –8.1 kodea–. Dauzkagun iturri estatistiko ofizialetan oinarrituta, oso zaila da egoera hauen gorabeherak kuantifikatzea, iturriek ez baitute eskaintzen hurbilketa ez egoki, ez osorik. Adibidez, 2011ko Biztanleria eta Etxebizitzaren Erroldaren bidez, familia batek eta euren artean ahaideak ez diren pertsonen osatutako etxeak identifikatu daitezke. EAEn, biztanleriaren %2 bizi da etxe-mota hauetan. Iturri berberaren arabera, ahaidetu gabeko 16.452 pertsona ahaideak diren beste pertsona batzuekin bizi dira, horietatik 8.846 gizonak dira eta 7.607 emakumeak. Zoritxarrez, eskura dauzkagun datuekin ezin dugu zehaztu egoera hauek zein neurritaraino duten ezaugarri behin-behinekotasuna edo pertsona hauek euren kabuz etxebizitza eskuratzeko gaitasuna. 2013ko FOESSA Inkestak, berriz, EAerentzako gai honi buruzko datu interesgarriak eskaintzen dizkigu, baina datu horietatik ezin daiteke eragindako pertsonen kopurua zehaztu. Dena den, ezagutu daitekeena da arazo ekonomikoengatik azken urtean arazo hauetakoren bati aurre egin behar izan dioten pertsona-kopurua: ahaideak ez diren pertsonekin etxebizitza partekatzea (pertsona guztien %2,2), gurasoen etxera itzultzea (%2,3) edo gurasoen etxetik irten ezin

izatea (%4). Guztira, pertsona guztien %6,4 inguru, hots 137.113 pertsona, bizi dira hiru egoera hauetakoren bat duten etxeetan inkesta honen arabera. Azkenik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bi urtez behin egiten duen Etxebizitzaren Beharren eta Eskariaren Inkestak (EBEI) ere gai honi buruzko informazio interesgarria eskaini dezakeela pentsa liteke. Hala ere, datuak eskura ditzakegun azken urtera arte, hau da, 2013. urtera arte, eragiketa estatistiko honek pertsona jakin batzuen etxebizitza eskuratzeko beharra bakarrik aztertzen zuen: adin zehatza (18-44 urte) zuten pertsonena, familia-egoera zehatza zuten pertsonena (beren guraso edo tutoreekin bizi ziren pertsonena) eta etxebizitza eskuratzeko prozesua finantzatzea pentsatu ahal izateko behar besteko finantza-egoera zuten pertsonena.

ETHOS tipologiak barne hartzen duen bigarren bizitoki-egoera etxebizitzan bizi izateko berme juridikorik ez duten egoera jakinak dira. Zenbatespen honen esparruan, egoera hau azpierrean edo azpialokairuan bizi diren pertsonen egoerarekin parekatu da. Hala eta guztiz ere, esan behar da, hasiera batean, etxebizitza bat berriz alokatzea (edo, hala balegokio, etxebizitzaren logela bat edo gehiago) ez dela legez kanpoko ekintza, errentariak horretarako baimena badauka. Beraz, errentariak jabearen oniritzia izan behar du, eta errentariak eta azpierreariak kontratua sinatu behar dute, beti hala gertatzen ez bada ere. Zehaztapen hauek egin ostean, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoak egindako Gizarte Politiken Zerbitzuen Eskariaren 2014ko Estatistikak (GZEE) eskaini dezake egoera-mota hauek duten eraginari buruzko lehenengo hurbilketa. Estatistika-eragiketa honen arabera, 2014an, 880 pertsona bizi ziren berriz alokatutako etxebizitzan. Horietatik, 784 gizonak ziren eta 95 emakumeak. Datuetatik ezin daiteke ondorioztatu egoera horietatik zenbatek ez zituen legezko baldintzak betetzen.

ETHOS tipologiaren 8. kategoriak biltzen duen azken egoera legez kanpoko okupazio-egoerengatik etxe ez-seguruetan bizi diren pertsonena da. Zenbaketari begira, adierazi behar da, egoera-mota hauek 2013ko FOESSA Inkestan jasotzea aurreikusten bazen ere (galdetegiko F 73 galdera), EAerako erabili zuten laginak ez zuten legez kontra okupatutako etxebizitzaren kasurik jaso. Logikoki, egoera horien salbuespeneko izaera eta ekar ditzaketen ondorio penalak direla-eta, egoerok biztanle guztientzako inkesten bidez aurkitzea oso zaila da.

Dena den, pentsa liteke, eskura dugun estatistika-informazioarekin egoera hauek EAEn duten prebalentzia zehaztu ezin den arren, badaudela hurbilketa partzial bat eskaini dezaketen beste informazio-iturri batzuk. Adibidez, EUSTATen Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkesta. 2012ko datuen arabera, urte horretan zenbatutako etxerik gabeko pertsona guztietatik (2.090 guztira), %3,5ek inkesta egin aurreko gaua etxebizitza okupatuan igaro zuela adierazi zuen. Urte horretan, beraz, estatistikak egoera horiek eragindako 74 pertsona erregistratu zituen guztira. Horietatik 61 gizonak ziren, eta 13 emakumeak. Hala ere, datuok tentuz interpretatu behar dira, etxerik gabeko pertsonen ostatu hartu edota jateko zerbitzuak dituzten zentroetako erabiltzaileak bakarrik hartzen baititu kontuan.

3.2.9. 9. kategoria: etxebizitza uzteko errekerimendua duten pertsonak

ETHOS kategoria honen barnean sartzen diren egoerak dira etxebizitza uzteko errekerimendu esplizituak eragindako etxebizitzaren esparruan gertatzen den segurtasun ezak sortutakoak, alokairua –9.1 kodea– edo hipoteka –9.2 kodea– ez ordaintzeagatik etxegabetze-aginduaren bidez.

Egoera horiek zenbatesteko, EAerako 2013ko FOESSA Inkestak eskaintzen dituen datuak erabili ditugu, behar bezala identifikatu ahal izateko galderak barne hartzen baititu galdetegian.

Lehenengo egoerak –9.1 kodea– alokatutako etxebizitzan bizi direnak eta alokairuaren ordainagiria ez ordaintzeagatik etxegabetze-mehatxupean dauden pertsonak barne hartzen ditu. Egoera honetan dauden pertsonen kopurua zenbatesteko, honako baldintza hauek betetzen dituzten etxeetan bizi diren pertsonak hartu dira kontuan: [a] alokatutako etxebizitzetan bizi diren familiak; [b] azken urtean

etxearekin lotutako gastuak ordaintzeko nahikoa dirurik eduki ez duten etxeak; eta [c] orain dela gutxi, berehala (edo ez) etxetik kanporatzeko mehatxuren bat jasan duten familiak. Hau oinarritzat hartuta, 2013ko FOESSA Inkestaren datuek adierazten dute, EAEn, etxebizitza guztien %1,8 egoera honetan egongo litzatekeela, eta kopuru absolutuetan 15.300 familia-etxe izango lirateke. Halaber, erreferentziatzat etxebizitzak hartu beharrean, etxeetan bizi diren pertsona-kopurua hartzen badugu kontuan, eskura dauzkagun datuek iradokitzen dutenez, egoera honetan 45.831 pertsona egongo lirateke, 26.616 emakume eta 19.215 gizon. Beraz, lortutako datuek aditzera ematen dutenez, EAeko biztanleriaren %2,1ek izango luke arazo hau, emakumeen artean %2,4ko intzidentzia du eta %1,8koa gizonen artean.

9. taula . Etxebizitzatik berehala (edo ez) kaleratzeko mehatxua jaso duten etxebizitza ez-seguruetan bizi diren pertsonak, sexuaren arabera. EAE 2013

Alokairua	Guztirako biztanleriaren %-a		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
[a] Alokaturako etxebizitza	14,4	15,9	15,2
[b] Etxeko gastuak ordaintzeko baliabide-urritasuna	16,2	16,3	16,2
[c] Etxebizitzatik kanporatzeko mehatxua	2,2	3,3	2,8
[a]+[b]+[c]	1,8	2,4	2,1
Jabetza			
[a] Etxebizitza jabetzan ordainketa batzuk ordaindu gabe	37,4	33,4	35,3
[b] Etxeko gastuak ordaintzeko baliabide-urritasuna	16,2	16,3	16,2
[c] Etxebizitzatik kanporatzeko mehatxua	2,2	3,3	2,8
[a]+[b]+[c]	0,3	0,6	0,4
K	836	923	1.759

Iturria: geuk eginkoia, 2013ko FOESSA Inkestako mikrodatuetan oinarrituta.

Jabetzako araubidean eskuratutako etxebizitzetan bizi diren pertsonak, hipoteka ez ordaintzeagatik desjabetuak izatear daudenak osatzen dute bigarren kategoria hau, eta 2013ko FOESSA Inkestak EAerako ematen dituen datuek adierazten dutenaren arabera, biztanleriaren %0,41 egoera honetan egongo litzateke. Kasu honetan, identifikazio-irizpideak goian aipaturako berberak izan dira etxebizitzaren edukitza-araubidea aipatzen duena izan ezik, hemen jabetza-araubidean eskuratutako etxebizitza duten pertsonak bakarrik hartzen dira kontuan. Ikuspegi kuantitatiboari dagokionez, beraz, egoera honek 8.955 pertsonengan izango luke eragina, horietatik 6.251 emakumeak lirateke eta 2.704 gizonak. Kasu honetan ere, egoera honek eragin handiagoa du emakumeengan gizonengan baino (%0,56 emakumeak dira eta %0,25 gizonak).

3.2.10.10. kategoria: beraiekin bizi diren pertsonen biolentzia-mehatxupean bizi diren pertsonak

ETHOS tipologiaren arabera, kategoria honen barnean sartzen dira beraiekin bizi diren pertsonen biolentzia-mehatxupean bizi diren pertsonak jasaten dituzten etxebizitzaren esparruko egoera ez-segurua. Eragingarri bihurtzeko, ETHOS tipologiak poliziaren aurrean salaketak jarri dituzten pertsonak kontuan hartzea proposatzen du. EAEn egoera hauek duten eragina zenbatesteko, emandako kautelazko neurriak edo babes-aginduak dituzten biktimei buruz Etxeko Indarkeria eta Genero Indarkeriaren Inkestatik ateratako datuak erabili dira. Esan behar da eragiketa honen barnean ez direla sartzen aurkeztutako salaketa guztiak, baizik eta emandako kautelazko neurrien ondorioz etxeko indarkeria eta genero-indarkeriaren biktimak babesteko Erregistro zentralean (bere titulartasuna Justizia Ministerioari dagokio) erregistratu diren salaketak.

10. taula . Babes-agindua edo kautelazko neurriak dituzten genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktimak, sexuaren arabera. EAE 2014

	Kopurua	Banaketa bertikala (%)
Genero-indarkeria		
Emakumeak	577	%100
Etxeko indarkeria		
Emakumeak	155	%50,2
Gizonak	154	%49,8
Guztira	309	%100
Guztira		
Emakumeak	732	%82,6
Gizonak	154	%17,4
Guztira	886	%100

Iturria: INE. Etxeko Indarkeria eta Genero Indarkeriaren Estatistika. Etxeko eta genero-indarkeriaren biktimak babesteko erregistro zentralaren ustiapen estatistikoan oinarriturik lortutako datuak.

Eragiketa estatistiko honen esparruan, honako hau hartzen da genero-indarkeriatzat: emakumearen aurka bere ezkontideak edo ezkontide ohiak, edo ezkontidearen antzeko afektibitate-harremana duen edo izan duen gizonak (elkarrekin bizi ala ez) egindako edozein biolentzia-ekintza fisiko edo psikologiko (sexu-askatasunaren kontrako jazarpenak, mehatxuak, bortxak eta askatasun-gabetze arbitrarioak barne). Era berean, etxeko indarkeria da: Kode Penalaren 173.2 artikuluan zerrendatzen diren pertsonen aurka (ondorengoak, aurrekoak, ezkontideak, neba-arrebak, etab) gizonak zein emakumeak egindako edozein biolentzia-ekintza fisiko edo psikologiko, genero-indarkeriatzat hartzen diren kasuak izan ezik. Estatistika honen arabera, 2014an 886 pertsona erregistratu ziren erregistroan genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima bezala. Horietatik, 732 emakumeak ziren, eta 154 gizonak.

Dena den, aipatu behar da, zifra hauek muga asko dituztela eta funtsean datu argigarri bezala baino ez direla erabili. Lehenik, pentsa liteke genero-indarkeriaren biktimatzat zenbatutako emakume guztiek ez dutela beren etxe berean bizi den kideren batek eragindako indarkeria jasan. Bestalde, indarkeria matxista jasaten duten emakumeetatik oso gutxik salatzen dutenez beren egoera, egoerok kautelazko neurriak eragin dituzten salaketen bidez zenbatzea murriztailegia izan litekeela esan behar da. Dena den, ETHOS tipologiaren irizpideak jarraituz, definizio murriztaile hau aukeratu dugu, baina esan behar da, definizio zabalagoak hartzeak kategorien dimentsionamendu handiagoa ekar dezakeela. Adibidez, 2014ko Emakunderen *Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko EAEko datu estatistikoaren analisia eta interpretazioa*, azterketaren arabera, urte horretan 4.091 emakume izan ziren genero-indarkeriaren biktima¹³.

3.2.11.11. kategoria: bizitoki mugikorretan, ohikoak ez diren etxebizitzetan edo aldi baterako egituretan bizi diren pertsonak

ETHOS tipologiaren arabera, kategoria eragile honen barnean daude ohiko etxebizitzatzat bizitoki mugikorrek dituztenak, adibidez, karabanetan –11.1 kodea–, ezohiko eraikinak eta bizileku moduan diseinatu ez diren eraikinak –11.2 kodea–, edo aldi baterako egiturak, txabolak edo etxolak, esaterako –11.3 kodea–.

11.1 kodeari dagokionez, ibilgailuetan bizi diren pertsonen buruz, 2014ko urriaren 29-30eko gauean 10 euskal udalerritako kaleetan egin zen gaueko zenbaketako datuen arabera, 12 pertsona zeuden ibilgailuetan gaua igarotzen. Horietatik, 10 gizonezkoak ziren eta 2 emakumeak. Datu hauek dituzten

¹³ Datu hauek Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Azterlan eta Analisisien Dibisioak urtero ematen ditu, eta gizonak emakumearen aurka gauzatutako indarkeria bakarrik hartzen du kontuan, hau da, emakumeek jasandakoa honako hauengandik: beren bikotekide edo bikotekide ohi maskulinoak, beren familiako gizonen batek (bikotekidea edo bikotekidea ohia alde batera utzita) edo familiakoa ez den beste gizonen batek gauzatutako indarkeria sexual motaren bat.

mugak oso nabarmenak dira¹⁴, baina datu hauetaz gain, aipatu behar da, Gipuzkoan gutxienez, bazterketa-egoeran dauden edota etxebizitza eskuratzeko arazo larriak dituzten pertsonak kanpinaren baliabidea erabiltzen hasi direla, Oarsoaldeako eskualdean bereziki, *bungalowak* ohiko bizitoki bihurtuz. Dena den ez dago zifra edo daturik egoera hauek duten eraginari buruz, zenbatespena egin ahal izateko.

Bestalde, eta 11.2 eta 11.3 kodeei buruz, ETHOS tipologiak autoeraikitako bizitoki-motak (txabolak, etxolak) barne hartzen ditu, eta baita etxebizitza moduan erabiltzeko egokituta ez dauden eraikinak eta bizileku bezala diseinatu ez direnak ere (hutsik dauden etxebizitza-eraikinak, erabilera industriala zuten eraikin zaharrak, etab.).

Sakon aztertu gabe, egoera hauek hauteman eta zenbatzeko *ad hoc* landa-lana egin behar dela kontuan hartuta, EAEko udalerrri batzuetan mota honetako egiturei lotutako egoerak antzeman dira. Adibidez, Gasteizen, Errekaleor auzoan dagoen gunea aipa daiteke. Bertan, etxebizitzaren okupazioak bi mugimendu oso desberdin biltzen ditu: batetik unibertsitateko ikasleen errebindikazio-mugimendua, eta bestetik bazterketa-arazo oso larriak dituzten pertsonen osatutako mugimendua. Hiri honetan, txabola-guneak ere aurkitu dira, batez ere Errumaniatik etorritako ijito-etniako pertsonen okupatuak, Errekaleor inguruan. Halaber, Puente Alton, kanpin-dendetan dauden pertsonak ikusi dira noizean behin, ez beti. Bestalde, eta Bilbori dagokionez, hainbat profesional eta adituri kontsulta egin ostean, eskura dugun informazioaren arabera, pentsa daiteke, egoera hauek ezohikoak direla, hiriko gune batzuetan dauden txabola ez-iraunkor eta puntualak eta Zorrotzaurreko ibaiertzean bizitzeko erabiltzen diren hutsik dauden industria-nabeak alde batera utzita.

Gipuzkoari dagokionez, datu xehatuagoak eman daitezke 2014. urtean Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatutako biztanleria ijito-errumaniarrari buruzko azterketa diagnostikoa lanetik ateratako informazioari esker. Azterketa honen arabera, 16 kokaleku antzeman zituzten zazpi udalerritan banatuta (Donostia, Astigarraga, Tolosa, Legorreta, Beasain, Irun eta Hernani). Antzemandako 16 kokaleku horietatik, sei txabolez osatuta zeuden eta gainerakoak eraikin hutsetako kokalekuak ziren. Benetako errolda ezagutzea zaila den arren, azterketak 181 pertsona zenbatu zituen guztira, 109 gizon eta 72 emakume (%40). Halaber, azterketatik ondorioztatzen da kokaleku hauetan bizi diren pertsona gehienek ez dutela sarbiderik gutxieneko osasun-zerbitzuetara, ez daudelako erroldatuta eta oso egoera higieniko eskasean bizi direlako (zabor-pilaketa, baita arratoiaren edo labezomorroaren izurriak ere). Bestalde, diru-sarrerara ezegonkorrak dituzte, batez ere txatar-bilketatik eta eskaletzatik lortutakoak. Oro har, gizarte-bazterketako egoeran bizi dira, gaztelaniaren ezagutza desberdina dute eta oinarrizko prestakuntza-maila dute. Hala ere, azterketak Astigarraga eta Hernani udalerrietako Urumea esku-hartze proiektuari lotutako kokalekuek duten egoera konparatibo hobea nabarmentzen du.

3.2.12. 12. kategoria: bizigarritasun-baimen gabe bizi diren pertsonak

ETHOS tipologiaren arabera, kategoria honetan sartzen dira, lurralde bakoitzeko araudiaren arabera bizigarritasun-baimenik gabeko bizitokietan bizi diren pertsonen egoerak. EAEn, etxebizitzaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketara babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretu Proiektuan araututa daude. Arauaren IV. eranskinean Etxebizitzaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak agertzen dira, eta III. eranskinean eraikin batek

¹⁴ Dauzkagun datu fidagarri bakarrak hauek badira ere, funtsezkoa da datuon mugak aipatzea. Lehenengo muga kalean egindako gaueko zenbaketen hedadura geografikoari dagokio, EAEn dauden 251 udalerrietatik 10 udalerritan bakarrik egin baitzen. Hala ere, aintzat hartzekoa da, hamar udalerrri hauetan EAE osoko biztanleriaren %52,8a bizi zela 2014an. Bestalde, zenbaketek egoera jakinak antzematerakoan –ibilgailua etxebizitza bezala erabiltzen duten pertsonak– dauzkaten berezko mugak ere aipatu behar dira, izan ere hautemateko oso zailak dira. Baieztape hau berretsi egiten dute zenbaketa egin zen gauean bertan ekipoek bete zituzten zantzu-inprimakietako datuek. Inprimakien helburua zen zuzenean aipatutako pertsonak ezin behatu izan baziren ere, egoera horiek erregistratzea, euren presentzia zehazteko nahikoa zantzu edukita. Inprimakien bidez, ibilgailu barnean 27 pertsonen igaro zutela gaua zenbatetsi zen, eta 12 pertsonak gehituz gero, 39 pertsona zeuden egoera honetan. Hala ere, kasu honetan, zenbaketen aritu zen taldeak ikusitako pertsonen datuak bakarrik eskaintzea erabaki da, baina aurrez aipatutako datuek zenbatekoa handiagoa izan litekeela iradokitzen dute.

egitura eta eraikuntzari dagokienez egoki izateko bete behar dituen baldintza orokorrak. Gutxieneko bizigarritasun-baldintzen artean honako hauek daude: gela-kopurua eta guneen banaketa, gutxieneko derrigorrezko azalera erabilgarria, hondakin-uren hustuketa edo komunaren eta instalazio elektrikoaren ezaugarriak.

Nahiz eta daukagun informazioarekin zehazki ezin dugun jakin zenbat pertsona bizi diren egun gutxienez bizigarritasun-irizpideetako bat betetzen ez duten etxebizitzetan, 2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldara jo dugu, egoera guztiak barne hartzen ez dituen arren, eskaintzen duen informazioan oinarrituta egoeretako batzuk identifikatu baitaitezke. Zehazki, zenbatespen honetan kontuan hartu diren baldintzak ezaugarri hauek dauzkaten etxebizitzetan bizi diren pertsonen buruzkoak izan dira: [a] 36m² edo gutxiagoko azalera erabilgarria duten etxebizitzak [b] berogailurik gabeko etxebizitzak (berotzeko gailuak barne) [c] hondakin-uren hustuketarik gabeko eraikinetan dauden etxebizitzak [d] txorrotako uraren hornidurarik ez duten etxebizitzak [e] dutxa edo bainuontzirik gabeko etxebizitzak [f] komundun bainugelarik ez duten etxebizitzak [g] logela bakarria duten etxebizitzak (bainugela kontuan hartu gabe) eta [h] aurri-egoeran dauden eraikinetako etxebizitzak.

11. taula. Bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzetan bizi diren pertsonak, sexuaren arabera. EAE 2014

	Eragindako pertsona-kopurua			Guztirako biztanleriaren %-a		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Bizigarritasun-baldintzak						
[a] Etxebizitzaren azalera erabilgarria: ≤ 36 m ²	3.302	3.294	6.597	0,31	0,30	0,30
[b] Berogailurik gabe	31.079	28.851	59.931	2,93	2,60	2,76
[c] Hondakin-uren hustuketarik gabe	430	321	750	0,04	0,03	0,03
[d] Txorrotako uraren hornidurarik gabe	321	210	530	0,03	0,02	0,02
[e] Dutxa edo bainuontzirik gabe	4.375	4.278	8.653	0,41	0,39	0,40
[f] Komundun bainugelarik gabe	5.531	4.713	10.245	0,52	0,42	0,47
[g] Logela bakarrekoak (bainugela alde batera utzita)	3.305	2.957	6.262	0,31	0,27	0,29
[h] aurri-egoeran dauden eraikinetakoak	1.001	968	1.968	0,09	0,09	0,09
Betetako baldintza-kopurua						
Bat ere ez	1.017.602	1.068.196	2.085.797	95,79	96,16	95,98
Gutxienez bat	44.771	42.695	87.466	4,21	3,84	4,02
Bat bakarrik	41.049	40.095	81.144	3,86	3,61	3,73
Bi edo hiru	3.666	2.576	6.242	0,35	0,23	0,29
Hiru baino gehiago	56	25	81	0,01	0,00	0,00

Iturria: INE. Biztanleen eta Etxebizitzaren 2001eko Errolda

Aztertzen diren baldintza guztietatik berogailurik gabeko etxeetan bizi diren pertsonen dagokionak du intzidentzia handiena³⁵. Egoera honetan dauden pertsonen proportzioa %2,8koa da. Gainerako egoeren intzidentzia askoz ere txikiagoa da, eta ez da biztanleriaren %1era heltzen. Halaber, 11 taulan ikus daitekeen bezala, EAeko biztanleriaren %4 inguru gutxienez aipatu direnetako arazo bat duen etxebizitzan bizi da. Zehazki 87.466 pertsona daude egoera horretan, 44.771 gizon (%4,2) eta 42.695 emakume (%3,8).

³⁵ Beroketa-sistematik (zentrala zein indibiduala) edo berotzeko beste gailurik ez duten etxebizitzetan bizi diren pertsonen egoerak bakarrik sartzen dira hemen.

3.2.13. 13. kategoria: pertsonen okupazio-estandar nazionala gainditzen duten etxebizitza pilatuetan edo gainokupatuetan bizi diren pertsonak

Biztanleriaren bizi-baldintzak aztertzen dituzten ikerketetan erabili ohi den adierazlea da pilaketa, eta normalean, etxebizitzaren azalera eta bertan bizi diren pertsonen kopuruaren arteko lotura oinarritzat hartuta operatibizatzen da. EAEko esparruan, pilaketatzat uler daitekeenari buruzko lege-erreferentzia bakarra babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko araudia da, etxebizitza bakoitzak pertsonako 15 metro koadro edukitzea eskatzen baitu¹⁶.

Bestalde, eremu akademikoaren barnean, eta zehazki, gizarte-bazterketako prozesuak neurtzeko FOESSA Fundazioak diseinatu duen adierazle-multzoaren barnean ere, pilaketatzat hartzen da pertsonako azalera-ratioa 15m² baino txikiago den etxebizitzetako pertsonen egoera.

Atalase-hau kontuan hartuta, Biztanleria eta Etxebizitzen 2011ko Errolda berariaz aztertzen badugu, datuek erakusten dutenez, EAEn 87.056 pertsona daude egoera honetan –hots, familia-etxebizitzetan bizi den biztanleriaren %4–. Horietatik guztietatik, datuen arabera, 44.697 gizonak dira eta 42.359 emakumeak.

12. taula . Pilaketa-arazoak dituzten etxebizitzetan bizi diren pertsonak, sexuaren arabera. EAE
2014

	Eragindako pertsona-kopurua			Guztirako biztanleriaren %-a		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
<15 m ² pertsonako						
Ez dute betetzen bizigarritasun-baldintzetakoren bat eta pilaketa-arazoak dituen etxebizitzetan bizi dira	6.852	5.265	12.118	0,64	0,47	0,56
Bizigarritasun-baldintza guztiak betetzen dituzte eta pilaketa-arazoak dituen etxebizitzetan bizi dira	44.697	42.359	87.056	4,21	3,81	4,01
Guztira	51.550	47.624	99.173	4,85	4,29	4,56

Iturria: INE. Biztanleen eta Etxebizitzen 2001eko Errolda

Biztanleen eta Etxebizitzen 2001eko Erroldako datuek adierazten dutenaren arabera, 99.173 pertsona daude egoera hauetan. Hala ere, horietatik %12,2 gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzetan bizi da, aurreko epigrafeko 12.1 ETHOS kodean baliatutako definizioa kontuan hartuz gero. Beraz, eta kategoriak ez gainjartzeko asmoz, gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen dituzten etxebizitzetan pilatuta bizi diren pertsonak bakarrik zenbatzen dira hemen.

3.2.14. Ondorioak

ETHOS tipologiaren barnean dauden kategoria eta kodeen inguruko zenbatespen egokiak egin ostean, aztertu diren etxegabetasun- eta bizitegi-bazterketako egoera guztietatik ondorioztatzen den azken banaketa aztertzen da atal honetan. Laburpen moduan, 13n ETHOS tipologiako kategoria eragile bakoitzak eragindako pertsona guztiak biltzen dira, sexuaren arabera banatuta. Datu horietatik emaitza nagusi hauek atera daitezke:

- Oro har, jasotzen diren datuek agerian uzten dutenez, aztertutako etxegabetasun- eta bizitegi-bazterketako egoerak bitxiak izan ordez, EAEn 234.166 egon daitezke egoera horretan. Zifra hori EAEko guztizko biztanleriaren %10,7 da 2014an. Halaber, idatziz jasotako datuetatik, ondoriozta daiteke, orokorrean kontuan hartuta, egoera hauen eragina oso antzekoa dela gizon eta emakumeengan, talde bakoitzak duen pisuaren banaketa berdina baitu. Hala ere, aipatu behar da,

¹⁶ Aipamen hau martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan agertzen da, babes ofizialeko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitza eta lurzoru arloko finantza neurriei buruzkoan. Arau honetako 29.2 artikulua ezartzen duenaren arabera, esleitutako etxebizitza aldatu egin daiteke, baldintza batzuk egiaztatzen badira, eta baldintza horien artean dago 15m²-ko ratioa gainditzea pertsonako.

datu hauek behar bezala interpretatu behar direla. Horri dagokionez, EAEko testuinguruan deskribatutako bizitegi-bazterketako egoerek egun duten hedadurara hurbiltzeko lagungarriak izan daitezke. Baina datu orokor hauek gutxi gorabeherako ikuspegitik bakarrik interpretatu behar dira, zorroztasun-maila handi zein txikidun zenbatespenen arabera eginda baitaude eta zenbatespenek oinarritzat hartutako iturri heterogeneoetan ezin izan baita bildutako egoera batzuen balizko gainjartze-maila kontrolatu.

- ETHOS tipologiako oinarritzko lau kategorietarako jasotako banaketa orokorrean arreta jarriz gero (etxetik gabe, etxebizitzarik gabe, etxebizitza ez-segurua eta etxebizitza ez segurua), lortutako emaitzek agerian uzten dute maiztasun txikitik handirako mailaketa esanguratsua. Horrela, jasotako egoera guztien %2 etxe gabeko egoerei dagokie, %0,6 etxebizitzarik gabeko pertsonen egoerei eta %24,6 eta %74,6 etxebizitza ez seguruko eta etxebizitza desegokiko egoerei. Graduazio hori hala mantentzen da gizonentzat eta emakumeentzat, nahiz eta banaketa desberdindu samar dagoela ikusten den kontuan hartutako oinarritzko kategorietan. Horren haritik, gizonen proportzio handiagoa da etxe gabekoen, etxebizitzarik gabekoen eta etxebizitza desegokiaren kategorian emakumeena baino. eta emakumeen artean, aldiz, handiagoa da etxebizitza ez-seguruan bizitzeak dakartzan egoeren pisu erlatiboa.
- Lehenago beste azterketa batzuk iradoki duten bezala, ikerketa honetan, berretsi egiten da etxegabetasun-egoeretan, hau da, etxetik gabe eta etxebizitzarik gabekoen kategorian gizonen duten presentzia handiagoa. Egoera guztien laurdenak baino pixka bat gutxiagok emakumeengan izango lukete eragina (%24,1), eta gehiengoa gizonak izango lirateke (%74,5).
 - Gizonen eta emakumeen arteko diferentziak oso dira handiak *etxetik gabeko* egoerak bizi dituztenen kategorian. Jasotako egoeren artean, emakumeak %8,7 baino ez dira. Hala ere, deigarria da kalean gaua igarotzen dutenen artean emakumeak %10,6 izatea, baina gaueko aterpetxeetan gaua igarotzen duten pertsonen artean, aldiz %6,7 bakarrik dira emakumeak¹⁷. Datu hauek bat datoz kalean dauden emakumeek ostatu hartzeko zerbitzuak gutxiago erabiltzen dituztela adierazten duten emaitzekin¹⁸ eta litekeena da, lotuta egotea kalean dauden emakume batzuek zerbitzu horietara joan nahi ez izatearekin.
 - Emakumeen proportzioa gehitu egiten da etxebizitzarik gabeko kategorian aztertzen badugu. Egoera guztiak kontuan hartuz gero, emakumeak %29 dira eta gizonak %71. Logikoki, emakumeak dira gehienak genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako bizitokietan¹⁹. Hala ere, %30 baino gutxiago dira emakumeak gainerako egoera ia guztietan, asiloa eskatu dutenentzako eta etorkinentzako baliabideetan izan ezik, baliabide horietan %38,2 emakumeak baitira.
- Funtsezko genero-etena dago gizon eta emakumeengan etxegabetasun-egoerek (etxetik gabe eta etxebizitzarik gabe) eta bizitegi-bazterketak (etxebizitza ez-segurua eta etxebizitza desegokia) duten eragin desberdinari dagokionez. Etxegabetasun-egoeretan emakumeak pertsona guztien laurdena bakarrik badira, bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen artean erlazio askoz ere orekatuago dago, beren pisu erlatiboa %50 ingurukoa baita.
- Etxebizitza ez-segurua eta etxebizitza desegokia egoerak ETHOS sarean dauden egoera guztien %99,3 dira. Hortaz, egoera gehienak oinarritzko kategorian hauen barnean sartzen dira. Bai gizonen kasuan, bai emakumeen kasuan, batuketa eginez gero, antzeko emaitzak lortzen dira, kasu bietan jasotako egoera guztien %99 inguru baitira. Hala ere, kategorian biek intzidentzia desberdina dute: etxebizitza desegokiko egoeretan gizon eta emakumeen proportzioa ia-ia berdina da, baina etxebizitza ez-seguruko egoeretan dauden pertsonetatik %60 emakumeak dira.

¹⁷ Aldea pixka bat txikiagoa da EAEn 2012an egindako gaueko zenbaketan. Kalean zenbatutako pertsona guztietatik %6,6 ziren emakumeak eta gaueko aterpetxe edo babeslekuetan ostatu hartu zuten %5,1 emakumeak ziren.

¹⁸ 2014ko gaueko zenbaketan zehar kalean aurkitu zituzten pertsonetatik 138k egin zuten inkesta. Inkestaren emaitzen arabera, gizonen %44k eta emakumeen %6k bakarrik erabili zuten aurreko hiru hilabeteetan ostatu hartzeko zerbitzuren bat. Gai hau txostenaren bosgarren kapituluaz aztertuko dugu zehatzago.

¹⁹ Kategorian honen barnean dauden gizonen kopurua bizitoki-baliabide hauetan dauden emakumeen semei dagokio.

- Etxebizitza ez-segurua kategoriaren barnean askotariko egoerak badaude ere (legez kontrako okupazioa, azpi-alokairua, etxegabetzeak, indarkeria...), datuek erakusten dutenaren arabera emakumeengan eragin handiagoa dute. Egoera ohikoenen artean, etxegabetze-mehatxupear dagoen etxebizitzan bizi izateari lotutakoak daude, beste guztien gainetik. Egoera hauek jasaten dituzten pertsonak ETHOS metodologian dauden egoera guztietako pertsonen ia laurdena dira, eta emakumeen proportzioa nabarmen handiagoa da (%28) gizonena baino (%19,3). Arrazoen artean, esan behar da emakumea buru duten familiak direla egoera honetan dauden gehienak. Halaber, aipatu behar da, egoera honek alokairuko etxebizitzan bizi diren pertsonen artean duen intzidentzia berezia, ordaindu gabeko ordainketak dituen etxebizitzan bizi direnen eta jabetza-araubidean bizi direnen aldean.
- Etxebizitza desegokiaren egoeran, azkenik, ETHOS tipologian biltzen diren egoeren hiru laurdenak multzokatzen dira. Kasu honetan gizon eta emakumeek antzeko pisu erlatiboa dute egoera hauetan. Aldi baterako egituretan ostatu hartzearen egoeran, zenbatutako egoera guztietako %62 gizonak dira, baina egoera hau alde batera utzita, etxebizitza desegokian, zein pilaketa duten etxebizitzetan bizi diren pertsonen artean, gizon eta emakumeen proportzioa ia-ia orekatuta dago.

13. taula. EAEn etxegabetasunak eta bizitegi-bazterketa larriak eragindako pertsona kopuruaren zenbatespena sexuka banatuta, ETHOS Tipologiaren arabera

	Kategoria eragilea	Kopurua			Banaketa bertikala			Banaketa Horizontala		
		Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
A	ETXERIK GABE	402	41	470	0,4	0,0	0,2	85,5	8,7	100,0
1	Eremu publikoan bizi direnak (atari zabalean)	192	26	245	0,2	0,0	0,1	78,4	10,6	100,0
2	Gaueko babeslekuan lo egiten dutenak edota egunean zenbait ordu eremu publikoan eman behar dituztenak	210	15	225	0,2	0,0	0,1	93,3	6,7	100,0
B	ETXEBIZITZARIK GABE	1.044	426	1.470	0,9	0,4	0,6	71,0	29,0	100,0
3	Etterik gabekoentzako aterpetxe eta zentroetan / aldi baterako bizitokietan bizi direnak	739	219	958	0,6	0,2	0,4	77,1	22,9	100,0
4	Emakumeentzako aterpetxeetan daudenak	35	107	142	0,0	0,1	0,1	24,6	75,4	100,0
5	Asilo-eskatzaile eta etorkinentzako bizitokietan daudenak	42	26	68	0,0	0,0	0,0	61,8	38,2	100,0
6	Epe jakin batean egoitza-instituzioetatik edo barneratze-instituzioetatik irtengo direnak	85	20	105	0,1	0,0	0,0	81,0	19,0	100,0
7	Etterik gabeko pertsonak direnez babes eutsiko bizitokia jasotzen dutenak	143	54	197	0,1	0,0	0,1	72,6	27,4	100,0
C	ETXEBIZITZA EZ-SEGURUA	23.072	34.439	57.511	20,2	28,7	24,6	40,1	59,9	100,0
8	Edukitze ez-seguruko araubidean bizi direnak.	845	108	953	0,7	0,1	0,4	88,7	11,3	100,0
9	Etxegabetze-mehatxupear bizi diren pertsonak	22.073	33.599	55.672	19,3	28,0	23,8	39,6	60,4	100,0
10	Bikotekideen edo familiaren indarkeria-mehatxupear bizi direnak	154	732	886	0,1	0,6	0,4	17,4	82,6	100,0
D	ETXEBIZITZA DESEGOKIA	89.587	85.128	174.715	78,5	70,9	74,6	51,3	48,7	100,0
11	Aldi baterako eta ezohiko egituretan bizi direnak	119	74	193	0,1	0,1	0,1	61,7	38,3	100,0
12	Bizitoki desegokia	44.771	42.695	87.466	39,2	35,6	37,4	51,2	48,8	100,0
13	Larregizko pilaketa	44.697	42.359	87.056	39,2	35,3	37,2	51,3	48,7	100,0
A+B	ETXERIK ETA ETXEBIZITZARIK GABE	1.446	467	1.940	1,3	0,4	0,8	74,5	24,1	100,0
C+D	ETXEBIZITZA EZ SEGURUA ETA DESEGOKIA	112.659	119.567	232.226	98,7	99,6	99,2	48,5	51,5	100,0
	GUZTIRA	114.105	120.034	234.166	100,0	100,0	100,0	48,7	51,3	100,0

Iturria: guk eginikoa.

3.3. Etxegabetasun-egoeren bilakaera EAEn: emakumeen presentzia gehitu egin al da?

3.3.1. Sarrera

Aipatu den bezala etxegabetasunaren neurketa gai larria da, FEANTSAk –Europako eremuaren barnean etxegabetasunari buruzko datuak idatziz jaso eta alderatzeko zailtasunak gorabehera, ahalegin etengabea egiten ari den erakundea, dagoen informazioa sistematizatu eta joerak identifikatzeko– egin duen azken ikerketetako batek aditzera ematen du azken urteotan etxerik gabeko pertsonen kopurua gehitu egin dela (FEANTSA, 2012). Adituen iritzien bidez eta adituek herrialde bakoitzean dagoen informazioa aztertuz *On the way home?* txostenak arazo hau gehitu egin dela iradokitzen du federazio honetan ordezkariak duten 21 herrialdetatik 15etan²⁰. Etxegabetasuna gehitu den herrialde gehienetan, gehikuntza hau krisialdi ekonomikoari eta horren ondorioz gertatutako gizarte-ahultasunaren zabalkuntzari egotzen zaio, ibilbide luzeagoa duten egiturazko beste faktore batzuk ere aipatzen diren arren.

Halaber, eta historikoki etxegabetasuna nagusiki gizonen fenomenotzat hartu izan bada ere, Europar eremuko ikerketek hamarkada bat baino gehiago daramate ohartarazten, emakumeak gero eta gehiago direla etxe gabeko pertsonen artean. 2001ean argitaratutako azterlan batean, *La femme sans-abri en Europe* lanak, etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuen hornitzaileek emandako zifretan oinarritutakoak, aditzera ematen zuen emakumeak gero eta gehiago zirela aztertutako herrialde gehienetako onarpenetan (Edgar eta Doherty, 2001). FEANTSAren geroagoko ikerketa batean ere, aztertutako 21 herrialdetatik 10 herrialdetan (horien artean Espainia) etxerik gabeko pertsonen artean gero eta emakume gehiago egoteko joera dagoela azpimarratzen du. Arrazoen artean, familia-hausturen gehikuntzarekin, krisialdi ekonomikoarekin eta bere ondorioekin lotutako faktoreak aipatzen dira, eta baita etxeko indarkeria-kasuen gehikuntza ere (FEANTSA, 2012).

Kapitulu honetan egiaztatzen saiatuko gara zein neurritaraino bi joera hauek –etxegabetasunaren gehikuntza eta etxegabetasunak eragindako pertsonen artean emakumeen presentzia handiagoa– egokitu daitezkeen EAeko kasu zehatzera. Egun, gure testuinguruan egoera horien bilakaera neurtzeko dauden bi informazio-iturri bakarrak Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkesta eta gaueko zenbaketak direnez, analisiak ETHOS tipologiako oinarritzko lehenengo bi kategorietan bakarrik jarriko du arreta, hau da, etxerik gabeko egoeretan eta etxebizitzarik gabeko egoeretan. Jarraian, eragiketa bakoitzaren oinarritzko ezaugarriak laburtuko ditugu.

- Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Inkesta. Aldizkakotasuna irregularra bada ere, jan edota lo egiteko zerbitzuak dituzten zentroen erabilizaitzeen laginketazko inkestan oinarritutako eragiketa estatistiko honek 2005 eta 2012ko aldiatarako datuak eskaintzen ditu.
- EAEn kalean eta etxerik gabeko pertsonen ostatu hartzeko baliabideetan dauden pertsonen gaueko zenbaketak. Orain arte gaueko zenbaketen metodologian oinarritutako bi ikerketa egin dira EAeko eremuan. 2012 eta 2014an egindako ikerketa hauetariko bakoitzean, kalean zeuden pertsonak²¹, zein etxerik gabeko pertsonen ostatu hartzeko baliabideetan gaua igaro zuten pertsonak zenbatu ziren gau jakin batean, EAeko hiru lurraldeetan. Aurrez ere antzeko zenbaketak egin ziren, baina eremu geografiko txikiagoan, Bilbon eta Donostian, 2010 eta 2011. urteetan, hurrenez hurren.

²⁰ Azterketaren arabera, etxegabetasunaren gehikuntza erregistratu den herrialdeen artean honako hauek daude Espainiaz gain: Austria, Txekiar Errepublika, Frantzia, Alemania, Grezia, Hungaria, Irlanda, Italia, Lituania, Polonia, Portugal, Eslovenia, Suedia eta Erresuma Batua. Herrialde horiez gain, aztertutako beste sei estatuetatik bitan joera kontrakoa izan da (Finlandia eta Holanda), eta Danimarkan, berriz, lehen bezala jarraitzen du eta Belgikan, Luxenburgon eta Errumanian ezin izan da joerarik identifikatu.

²¹ 2012an egin zen ikerketan, kaleko zenbaketa hiru euskal hiriburuetan bakarrik gauzatu zen. Baina 2014. urtean, zazpi udalerrri gehiago gehitu ziren (Laudio, Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Irun).

3.3.2. Kalean dauden pertsona-kopuruaren bilakaera: kalean dauden pertsonen kopurua gutxitu egin da baina emakumeen pisu erlatiboak gora egin du

Etxegabetasun-egoerak behar bezala neurtzeko dauzkagun tresnak nahikoa sendoak ez badira ere, Etxerik Gabeko Pertsonen Inkestak eta orain dela gutxi kalean egindako gaueko zenbaketek ez dute erakusten kalean dauden pertsonen gehikuntzarako joera nabarmenik. Halaber, egoera hauetan dauden emakumeei dagokionez, alde batetik, Etxerik Gabeko Pertsonen Inkestak 2005 eta 2012 urteen bitartean emakume-kopuruak behera egin duela adierazten du, eta bestetik, hiru euskal hiriburuetan egindako gaueko zenbaketen emaitzek 2012 eta 2014 urte bitartean, bai emakumeen kopuruak, bai kalean aurkitutako pertsonen pisu erlatiboak pixka bat gora egin duela adierazten du. Nahiz eta azaletik, aztertutako emaitzetatik ondorio hauek atera daitezkeen, bi azterketek eskaintzen dituzten datu zehatzetan oinarrituta ñabardurak egitea komeni da.

Eustaten Etxerik Gabeko Pertsonen Inkestako ²² datuei dagokienez –inkesta horretan kalean gaua igarotzeko egoerak bi kategoriatan banantzen dira: eremu publikoa eta ezohiko bizitokia –, lehenik ikus daiteke 2005. eta 2012. urteen bitartean identifikatutako pertsonen kopurua 261etik 224ra murriztu dela, eta gainera, emakumeen artean murrizketa handiagoa egon dela (29tik 10era). 2005ean kalean gaua igarotzen zuten pertsonen %11,1 emakumeak ziren, eta 2012an %4,5 ziren emakumeak.

14. taula . Eremu publikoetan eta ezohiko bizitokietan dauden etxerik gabeko pertsonak Eustaten Etxerik Gabeko Pertsonen Inkestan oinarrituta, sexuaren arabera. EAE 2005-2012

		2005		2012		2005-2012
		K.	%	K.	%	Gehikuntza (%)
Eremu publikoa eta ezohiko bizitokiak	Emakumeak	29	11,1	10	4,5	-65,5
	Gizonak	232	88,9	214	95,5	-7,8
	Guztira	261	100,0	224	100,0	-14,2

* Hainbat ostatu-modalitatetan gaua igarotzeko erabili zen azken lekua jasotzen du. Eustatek hauek sartzen ditu ezohiko bizitokiak barnean: (8) eremu publikoa eta (9) higiezinako atondoa, haizuloa, autoa, etab...
Iturria: Eustat. Etxerik Gabeko Pertsonen Inkesta.(EGPI).

Oraintsuago hiru euskal hiriburuetakoa kaleetan egindako gaueko zenbaketek ematen dituzten datuen arabera, Bilbon eta Gasteizen –baina ez Donostian– gutxitu egin da kalean aurkitutako pertsonen kopurua. Joera hau oso argia da Bilboko datuak aztertzen direnean, kalean dauden pertsonen kopurua pixkanaka murriztu egiten baita azken hiru zenbaketetan, eta beharbada gutxixeago Gasteizen, 2014ko urriaren 29tik 30era bitartean zenbatutako pertsonen murrizketa, agian, egoeraren araberrako faktoreei egotzi dakiekeelako ²³. Kontrapuntua Donostiak jartzen du, hiri honetan egindako zenbaketek kalean dagoen biztanleriaren gehikuntza nabarmena erakusten baitute.

Kalean aurkitutako pertsonen bilakaera orokorra aztertu beharrean sexuaren araberrako antolaketa kontuan hartzen bada, Bilbo eta Donostiako datuek gehikuntza arin bat erakusten dute kalean dauden emakume-kopuruan, bai kopuru absolutuetan, bai kopuru erlatiboetan. 2012an emakumeak %4,2 ziren Bilbon eta %6,2 Donostian, 2014an, aldiz, %12,7 eta %11,3 da emakumeen pisu erlatiboak. Dena den, eskura dugun informazioa urria eta eskasa da, kalean emakumeen presentzia gehitzeko joera argia dagoela esan ahal izateko.

²² Eustatek EAE eta INEK Estatuan egindako Etxerik Gabeko Pertsonen Inkestak muga argia duela aipatu behar da kalean gaua igarotzen duten pertsona-kopurua behar bezala zenbatzerakoan. Zehazki, emaitzak ostatu hartzeko edota jateko laguntza-zentroetako erabiltzaileen laginean oinarrituta lortzen direnez, ez dira sartzen lo egiteko eremu publikoa erabiltzen duten pertsonak eta hainbat arrazoiengatik etxerik gabeko pertsonen arreta eskaintzeko sarea erabiltzen ez dutenak.

²³ Gasteizko Udalak intentsitate handiko Hurbil ekipoa bidez –Gizarte zein hezkuntza alorretan esku-hartzeko zerbitzua, diziplinarteko profesionalen taldeak osatutakoa– egiten ditu gaua kalean igarotzen duten pertsonen gaueko zenbaketak hilerok. Zenbaketek 2014. urterako ematen dituzten datuen arabera, kalean 27 eta 46 pertsona artean aurkitu ziren kaleko zenbaketetan, baina ezin daiteke datuetatik joera argirik ondorioztatu. Datu hauek eta zenbaketaren gauean zehar lortutakoak (17 pertsona aurkitu ziren) oso bestelakoak dira, horregatik, zifra hau tentuz interpretatu behar da.

15. taula . Kalean, Bilbo, Donostia eta Gasteizen, gaueko zenbaketetan zenbatutako pertsona-kopuruaren bilakaera. 2010/2011-2014

		2010 ⁽¹⁾ /2011 ⁽²⁾		2012 ⁽³⁾		2014 ⁽⁴⁾		2014-2012
		K.	%*	K.	%*	K.	%*	Aldea
Bilbo	Emakumeak	12	6,1	6	4,2	17	12,7	+11
	Gizonak	185	93,9	136	95,8	117	87,3	-19
	Daturik gabe	8	--	6	--	7	--	+1
	Guztira	205	--	148	--	141	--	-7
Donostia	Emakumeak	4	9,5	4	6,2	8	11,3	+4
	Gizonak	38	90,5	61	93,8	63	88,7	+2
	Daturik gabe	3	--	1	--	18	--	+17
	Guztira	45	--	66	--	89	--	+23
Vitoria-Gasteiz	Emakumeak	--	--	6	20,7	3	17,6	-3
	Gizonak	--	--	23	79,3	14	82,4	-9
	Daturik gabe	--	--	0	--	0	--	0
	Guztira	--	--	29	--	17	--	-12

* Sexua esleitu ezin izan zaien pertsona-kopuruaren gorabeherak direla eta, taulan jasotzen diren portzentaje bertikalak sexua zehaztu ahal izan zitzaizkien pertsonen guztizkoan oinarrituta kalkulatu dira.

Iturriak: (1) 2010eko datuak Bilbokoak dira eta Onartu Lantaldeak egindako *Bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko analisia* (2010) argitalpenetik atera dira. Zenbaketa 2010eko ekainaren 15 eta 16 bitarteko gauean egin zen. (2) 2011ko datuak Donostiari dagozkie. *Kale Gorria- Donostian etxerik gabeko pertsonen egoerari buruzko azterlana (2011)* txostenetik atera dira, SII5 Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak egindakoa. Datuak 2011ko martxoaren 23 eta 24 bitarteko gauean egindako zenbaketakoak dira. (3) 2012ko datuak 2012ko urriaren 17tik 18ra bitarteko gauean hiru euskal hiriburuetan batera egindako zenbaketakoak dira. *EAEñ bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko azterketa* (2013) lanetik ateratakoak dira. (4) 2014ko datuak ere hiru hiriburuetakoa dira eta 2014ko urriaren 29 eta 30 bitarteko gauean egindako gauekoak dira. *EAEñ bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko II. azterketa (2015)* lanetik atera dira datuok.

Estatu osoan egindako Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestan jaso diren datuek eta beste hiri batzuetan egindako zenbaketen emaitzek EAEko antzeko joerak erakusten dituzte.

16. taula . Eremu publikoetan eta ez-ohiko bizitokietan dauden etxerik gabeko pertsonak INEren Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestan oinarrituta, sexuaren arabera. Espainia, 2005-2012.

		2005		2012		2014-2012
		K.	%	K.	%	Aldea
Kanpoko eremu publiko eta ezohiko bizitokiak	Emakumeak	693	8,4	561	8,8	-132
	Gizonak	7.525	91,6	5.801	91,2	-1.724
	Guztira	8.218	100,0	6.362	100,0	-1.856

* Hainbat ostatu-modalitatetan gaua igarotzeko erabili zen azken lekua jasotzen du. Hauek sartzen dira ezohiko bizitokiaren barnean: (8) eremu publiko eta (9) higiezinako atondoak, haitzuloak, autoak, etab...

Iturria: INE. Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkesta.(EGPI).

INEren Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestari dagokionez, 2005-2012 aldiaren kalean edo ezohiko bizitokietan zenbatutako pertsonen kopurua nabarmen murrizten dela ikus daiteke 8.218 pertsonatik 6.362 pertsonara, hain zuzen, hau da %22,6 murriztu da zazpi urtean. Murrizketa hau -EAEñ %14,2koa bakarrik da - antzerakoa da emakumeen eta gizonen artean, euren pisu erlatiboari eusten baitiote aldi honetan, egoera honetan daudela aipatzen duten pertsona guztiekin alderatuta. EAEñ lortutako emaitzetan aldiz, kalean zeuden pertsonen %11,1 emakumeak ziren 2005ean eta 2012an %4,5 bakarrik ziren emakumeak. Estatu osoarako datuek adierazten dutenaren arabera, pisu horri eutsiko liokete egoera honetan dauden pertsonen %8k.

Bestalde, Madril edo Zaragozan egindako gaueko azken zenbaketen emaitzek ere, Bilbo edo Donostiako emaitzekin bat etorritik, kalean zenbatutako emakumeen kopuruak gora egiteko nolabaiteko joera berria erakusten du. Zehazki, Madrilen, sexuaren arabera banatutako informazioan oinarritutako emaitzek kalean emakumeen presentzia pixkanaka gorantz doala erakusten dute: 2008an %10,9 ziren, 2012an %13, eta 2014an, aldiz gune publikoetan aurkitutako pertsona guztien %14,2 emakumeak ziren. Zaragozan, 2010etik bi urtez behin egiten dira zenbaketak, eta zenbaketa horietatik ateratako datuek adierazten dutenez, emakumeen pisu erlatiboa handitu egin da, eta emakumeen proportzioa 2010ean %4,7koa zen eta 2012an, berriz %12,6koa.

17. taula . Kalean, Madril eta Zaragozan, gaueko zenbaketetan zenbatutako pertsona-kopuruaren bilakaera. 2008-2014

		2008		2010		2012		2014	
				K.	%*	K.	%*	K.	%*
Madril ⁽¹⁾	Emakumeak	62	10,9	d.g.	d.g.	77	13,0	96	14,2
	Gizonak	506	89,1	d.g.	d.g.	517	87,0	579	85,8
	Daturik gabe	83	--	d.g.	--	107	--	89	--
	Guztira	651	--	596	--	701	--	764	--
Zaragoza ⁽²⁾	Emakumeak	--	--	7	4,7	21	12,6	d.g.	d.g.
	Gizonak	--	--	141	95,3	146	87,4	d.g.	d.g.
	Daturik gabe	--	--	10	--	19	--	d.g.	--
	Guztira	--	--	158	--	186	--	139	--

* Sexua esleitu ezin izan zaien pertsona-kopuruaren gorabeherak direla eta, taulan jasotzen diren portzentaje bertikalak sexua zehaztu ahal izan zitzaizen pertsonen guztizkoan oinarrituta kalkulatu dira.

Iturriak: (1) Madrili dagozkion datuak gaueko zenbaketa hauetakoak dira: 2008an, otsailaren 26an egindako III. gaueko zenbaketa; 2010ean, otsailaren 24an egindako V. gaueko zenbaketa; 2012an, abenduaren 13an egindako VI. gaueko zenbaketa; 2014an, abenduaren 11n egindako VII. gaueko zenbaketa. (2) Zaragozari dagozkion datuak gaueko zenbaketa hauetakoak dira: 2010ean, azaroaren 23an egindako I. gaueko zenbaketa; 2012an, azaroaren 22an egindako II. zenbaketa; 2014an, azaroaren 23an egindako III. gaueko zenbaketa.

3.3.3. Pertsona-kopuruaren bilakaera ostatu hartzeko baliabideak dituzten baliabideetan: emakumeak gehitu egin dira ostatu hartzen duten pertsonen artean, aterpetxeetan izan ezik.

2005. eta 2012. urteetarako Eustaten Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestak eta 2012. eta 2014. urteetan EAeko ostatu hartzeko zentroetan egindako zenbaketek informazio interesgarria eskaintzen dute etxebizitzarik gabeko pertsonen bilakaera aztertzeko ETHOS tipologiaren arabera²⁴. Oro har, emaitzek agerian uzten dute 2005 eta 2012 urte bitartean etxerik gabeko pertsonentzako ostatu hartzeko zerbitzuen erabiliztaileen kopurua gehitu egin dela, funtsean, gizonen biztanleria gehitu egin delako. Dena den, gaueko zenbaketek eskaintzen dituzten datu berrienen arabera, litekeena da egoera horiek batik bat emakumeen artean gehitzen ari izatea.

Eustaten Etxerik Gabeko pertsonen buruzko Inkestak 2005 eta 2012 urteetarako datu interesgarri batzuk eskaintzen ditu EAEn ostatu hartzeko baliabideetan dauden pertsona-kopuruaren bilakaerari buruz. Hala ere, eragiketa honen ezaugarri tekniko batzuk aipatzea komeni da bere emaitzak behar bezala aztertze aldera, izan ere, Eustaten inkestak, zein EAeren esparruan egindako gaueko zenbaketek antzeko helburuak dituzten arren –etxerik gabeko pertsonak zenbatu eta horien ezaugarriak aztertzea–, bakoitzak bere definizio eta metodologiak ditu, eta horiek zehaztea komeni da.

Etxerik gabeko pertsonen definizioari dagokionez, ETHOS tipologiak proposatutako kontzeptu-esparruan oinarritzen diren gaueko zenbaketa-azterketek ez bezala, Eustaten inkestak, Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetan INEk egindako inkestak bezala, etxegabetzat hartuko du 18 urte edo gehiago dituen pertsona, elkarrizketa egin baino astebete lehenago jateko edota ostatu hartzeko laguntza-zentroren bat erabili duena eta gutxienez behin bitoki hauetakoren batean lo egin duena:

- aterpetxea, egoitza edo harrera-zentroa.
- Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako harrera zentroak
- Errefuxiatuak laguntzeko zentroak eta laguntza eskatzen duten pertsonentzako zentroak.
- Etorkinak barneratzeko zentroak.
- Administrazio publikoak, GKEk edo erakunde batek emandako etxebizitza (diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duen pertsonak ordaindutako etxebizitza barne).
- Okupatutako pisua.
- Administrazio publikoak, GKEk edo erakunde batek ordaindutako ostatua (diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duen pertsonak ordaindutako ostatua barne).

²⁴ Epigrafe honetan, 3., 4., 5., 6., eta 7. kategoriekin kodifikatutako egoerak aztertzen dira –denak «etxebizitzarik gabe» oinarritzko kategoriaren barnean daude–, eta baita 2. kategoriaren barnean daudenak ere, «etxerik gabe» kategoriari dagozkionak.

- Eremu publikoan (tren-geltokian, autobus-geltokian, metroan, aparkalekuan, lorategi publikoan, eremu hutsetan...)
- Ezohiko bizitokietan (higiezinako atondoak, haitzuloa, autoa, etab,...)

Orokorrean, aztertutako ostatu-modu guztiak ETHOS tipologiaren barnean sar daitezkeela iruditu arren, Europako tipologiak Eustatek barne hartzen ez dituen beste ostatu-modu batzuk hartzen ditu kontuan²⁵. Dena den, Etxerik Gabeko Pertsonen Inkestak barne hartzen dituen ostatu-moduei eta EAEn egindako gaueko zenbaketetan kontuan hartu ohi direnei buruz, oro har, bat datozela esan daiteke. Hala ere, azterketa bien arteko desberdintasun handienak tarteko moduei buruzkoak dira batez ere. Gaueko zenbaketek kalean eta etxerik gabe dauden pertsonen harrera egiteko sareko zentroetan bizi edo ostatu hartzeari lotutako egoeretan jartzen dute arreta, eta Eustaten estatistikak, aldiz, ETHOS tipologiak kontuan hartzen dituen egoera jakin batzuk ere barne hartzen ditu (adibidez, legez kontrako okupazioa) eta oro har, baita administrazio publikoak edo hirugarren sektoreko erakunde batek eman edo ordaindutako bizitoki-modalitateak, etxebizitzak eta ostatuak ere. Gai horri buruz, esan liteke Etxerik Gabeko Pertsonen Inkestaren azterketa-eremua EAEn orain arte egin diren zenbaketena baino zabalagoa dela.

Zehaztasun hauen ostean, 2005. eta 2012. urteetarako Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestak (ikus 18) honako aurkikuntza hauek jartzen ditu agerian:

- Aurrez ikusi bezala, kaleko egoerak %14 murriztu ziren 2005. eta 2012. urte artean (inkesta honetan eremu publikoa eta ezohiko bizitokia epigrafean agertzen dira); aldiz, bizitokietan, bai banakakoetan, bai kolektiboetan, igarotako gauak edo denboraldiak %22 egin zuten gora aldi berean, hau da 1.524 pertsona izatek 1.861 izatera igaro ziren. Hemen barne hartzen diren bizitoki-modalitate guztiak gizarte-zerbitzuen sareko ostatu hartzeko zentroekin bat ez badatoz ere, zalantzarik gabe, gorakada hau bat dator aldi bereko leku-horniduraren gehikuntza garrantzitsuarekin²⁶. Zenbatutako pertsonen sexuen arabera kontuan hartzen bada, gorakada hau ostatu hartu zuten gizonen kopurua gehitu zelako gertatu zen –2005ean 1.105 ziren, eta 2012an, berriz, 1.482–, emakumeen kopurua %10 murriztu baitzen.
- Bereziki deigarriak dira bizitoki kolektiboetan dauden pertsonen bilakaerari buruz inkestak ematen dituen datuak. Bizitoki kolektiboetan hauek sartzen dira: aterpetxeak, harrera egiteko egoitzak edo zentroak; tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako zentroak; errefuxiatuak laguntzeko zentroak; eta etorkinentzako beste zentro batzuk. Gai horri dagokionez, datuen arabera –leku-horniduran izandako gorakadak iradoki dezakeenaren kontra– zentro hauetako pertsonen kopuru osoak egonkor iraungo luke. Zentro hauetako erabiltzaileen artean ere aldaketa garrantzitsua ikusten da, sexuaren arabera bananduz gero: 2005ean pertsona guzti horien %17,9 bakarrik ziren emakumeak, eta 2012an, berriz %22,8ra igo zen emakumeen proportzioa.
- Azkenik, banakako bizitokiei buruzko datuak daude. Kategoria honetan sartzen dira gizarteratzeko etxebizitzak²⁷. Kasu honetan, Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestak gehikuntza nabarmena erakusten du bizitoki-mota hauetan dauden pertsona-kopuruan, 2005ean 687 ziren, eta 2012an 1.027. Hala ere, gehikuntza hau gizonen artean bakarrik gertatzen denez (ostatu hartuta dauden gizonen kopurua %100 gehitu zen, eta emakumeena, berriz, %30 gutxitu zen) banakako bizitokietan zenbatutako emakumeak 2005ean %39,3 ziren, eta 2012an, aldiz, %18,3.

²⁵ ETHOS tipologian badaude Etxerik Gabeko Pertsonen Inkestak barne hartzen ez dituen hainbat egoera, eta bere ezaugarriak kontuan hartuta, zailtasun handiegirik gabe jaso ahalko lituzke. Adibidez, «etxebizitza ez-segurua» oinarritzko kategorian bildutako egoera batzuk: aldi baterako senide edo lagunentzako bizi diren pertsonak, bizi izateko berme juridikorik gabeko etxebizitzan bizi diren pertsonak edo etxebizitzetako mehatxupean bizi diren pertsonak. Halaber, pilaketa ezaugarritzat duten «etxebizitza desegokia» kategoriako egoerak ere sar litezke.

²⁶ Eustaten Etxerik Gabeko Pertsonentzako Baliabideen Estatistikaren arabera, 2005 eta 2012 urteen bitartean, ostatu hartzeko lekuen kopurua 1.404tik 2.800era igo zen.

²⁷ Modalitate hauek sartzen dira banakako bizitokietan: administrazio publikoak, GKEk edo erakunde batek emandako etxebizitza; eta administrazio publikoak, GKEk edo erakunde batek ordaindutako ostatuak. 2012an, adibidez, «Banakako bizitokiak» epigrafean jasotako 1.027 egoeretatik %87 administrazio publikoak, GKEk edo beste erakunde batek emandako etxebizitzan ostatu hartzeari dagokio.

18. taula. Eustaten Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestak zenbatutako etxerik gabeko pertsonen bilakaera, sexuaren eta bizitoki-modalitatearen arabera*. EAE 2005-2012

		2005		2012		2015-2012
		K.	%*	K.	%*	Gehikuntza
Ostatu kolektiboak	Emakumeak	150	17,9	190	22,8	%26,7
	Gizonak	687	82,1	643	77,1	-%6,4
	Guztira	837	100,0	834	100,0	-%0,4
Banakako ostatuak	Emakumeak	270	39,3	188	18,3	-%30,4
	Gizonak	418	60,8	839	81,7	%100,7
	Guztira	687	100,0	1.027	100,0	%49,5
<i>Ostatu kolektiboak eta banakakoak</i>	Emakumeak	420	27,5	378	20,3	-%10,0
	Gizonak	1.105	72,5	1.482	79,7	%34,1
	Guztira	1.524	100,0	1.861	100,0	%22,1
Ereku publikoa eta ezohiko bizitokiak	Emakumeak	29	11,1	10	4,5	-%65,5
	Gizonak	232	88,9	214	95,5	-%7,8
	Guztira	261	100,0	224	100,0	-%14,2
Ezezaguna	Emakumeak	3	6,3	0	0,0	-%100,0
	Gizonak	46	95,8	5	100,0	-%89,1
	Guztira	48	100,0	5	100,0	-%89,6
Guztira	Emakumeak	452	24,7	388	18,6	-%14,2
	Gizonak	1.383	75,5	1.701	81,4	%23,0
	Guztira	1.833	100,0	2.090	100,0	%14,0

* Hainbat ostatu-modalitatean gaua igarotzeko erabili zen azken lekua jasotzen du. Bizitoki kolektiboak dira: (1) Aterpetxeak, egoitzak edo harrera-zentroak (2) Genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako harrera zentroak (3) Errefuxiatuak laguntzeko zentroak eta laguntza eskatzen duten pertsonentzako zentroak (4) Etorrinak barneratzeko zentroak. Banakako bizitokietan, berriz, bizitoki hauek sartzen dira: (5) Administrazio publikoak, GKEk edo erakunde batek emandako etxebizitzak (6) Etxebizitza okupatua (7) Administrazio publikoak, GKEk edo erakunde batek ordaindutako ostatua. Azkenik, Eustatek hauek sartzen ditu ez-ohiko bizitokiaren barnean: (8) eremu publikoa eta (9) higiezinako atondoa, haizuloa, autoa, etab...

Iturria: Eustat. Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkesta.(EGPI).

Metodologiaren ikuspegitik eragiketa ezberdinak badira ere, ostatu hartzeko zentro eta zerbitzuen erabiltzaileen sexuen arabera osoa alderatzen denean, emaitzak oso antzekoak dira bi ikerketetan. Gaueko zenbaketei dagokionez, etxerik gabeko pertsonen ostatu hartzeko zentroen sarean zeuden pertsona guztien %20,8 emakumeak ziren 2012an, hain zuzen ere EAerako urte berean egin zen Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestaren emaitza bera (%21)²⁸.

Bestalde, EAEko emaitzak eta Estatu osorako Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestaren emaitzak alderatzen badira, oso antzekoak direla ikus daiteke. Estatuan, EAEn bezala, bizitokietan, bai kolektiboetan, bai banakakoetan, bizi diren edo gaua igarotzen dutenak %21 inguru murriztu dira, eta kalean gaua igarotzeak ere murriztu egin dira. Halaber, EAEn, zein Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetan –EAEn baino pixka bat gutxiago– emakumeen pisu erlatiboa gehitu egin da bizitoki kolektiboetan, eta gutxitu egin da banakako bizitokietan. Ikuspegi honetatik, ondoriozta daitekeen desberdintasun handiena da, bizitoki kolektiboetan bizi diren emakumeak gehitu badira ere (EAEn gehiago), banakako bizitokietan dauden emakumeen kopurua %30,4 gutxitu dela EAEn, baina Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetan ia %45 gehitu da.

²⁸ 2012ko Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestaren bizitokietan gaua igaro edo bizi diren pertsonen dagokionez, etxebizitza okupatuetan bizi diren pertsonak edo ostatu batean bizi direnak kenduta, 1.725 pertsona dira, 1.362 gizon (%79) eta 363 emakume (%1).

19. taula . INEren Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestak zenbatutako etxerik gabeko pertsonen bilakaera, sexuaren eta bizitoki-modalitatearen arabera*. Espainia, 2005-2012.

		2005		2012		2014-2012
		K.	%*	K.	%*	Aldea
Ostatu kolektiboak	Emakumeak	2.015	20,7	2.384	23,7	%18,3
	Gizonak	7.724	79,3	7.678	76,3	-%0,6
	Guztira	9.739	100,0	10.062	100,0	%3,3
Banakako ostatuak	Emakumeak	1.082	27,4	1.568	24,1	%44,9
	Gizonak	2.862	72,6	4.946	75,9	%72,8
	Guztira	3.944	100,0	6.514	100,0	%65,2
Ostatu kolektiboak eta banakakoak	Emakumeak	3.097	22,6	3.952	23,8	%27,6
	Gizonak	10.586	77,4	12.624	76,2	%19,3
	Guztira	13.683	100,0	16.576	100,0	%21,1
Ereku publikoa eta ezohiko bizitokiak	Emakumeak	693	8,4	561	8,8	-%19,0
	Gizonak	7.525	91,6	5.801	91,2	-%22,9
	Guztira	8.218	100,0	6.362	100,0	-%22,6
Guztira	Emakumeak	3.790	17,3	4.513	19,7	%19,1
	Gizonak	18.111	82,7	18.425	80,3	%1,7
	Guztira	21.901	100,0	22.938	100,0	%4,7

* Hainbat ostatu-modalitateetan gaua igarotzeko erabili zen azken lekua jasotzen du. Bizitoki kolektiboak dira: (1) Aterpetxeak, egoitzak edo harrera-zentroak (2) Genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako harrera zentroak (3) Errefuxiatuak laguntzeko zentroak eta laguntza eskatzen duten pertsonentzako zentroak (4) Etorkinak barneratzeko zentroak. Banakako bizitokietan, berriaz, bizitoki hauek sartzen dira: (5) Administrazio publikoak, GKEk edo erakunde batek emandako etxebizitzak (6) Etxebizitza okupatua (7) Administrazio publikoak, GKEk edo erakunde batek ordaindutako ostatuak. Azkenik, Eustatek hauek sartzen ditu ez-ohiko bizitokiaren barnean: (8) eremu publikoa eta (9) higiezinako atondoak, haitzuloa, autoa, etab...

Iturria: INE. Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkesta.(EGPI).

Ostatu hartzeko zentroetan dauden pertsonen bilakaerari buruz Eustaten Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestaren datuetan oinarrituta joera nabari bat ateratzea zaila bada ere –bi urteetako informazioa bakarrik izateak eta bizitoki-modalitateen sailkapen nahaspilatsu samarrak zeregin hau zailtzen du²⁹–, lortutako datuek, dirudienez, EAEn 2005 eta 2012 urte bitartean ez dela gorakada garrantzitsurik gertatu adierazten dute etxerik gabeko pertsonentzako baliabide-sarean ostatu hartuta zeuden emakume-kopuruan. Horri dagokionez, emaitzen arabera, aldi horretan bizitoki kolektiboko modalitateei lotutako etxegabetasun-egoeren artean emakume-kopuruak (beren pisu erlatiboak) pixka bat gora egin zuen arren, banakako bizitokietan murriztu egin zen emakume-kopurua. Kategoria honen barnean batez ere administrazio publikoak edo hirugarren sektoreko erakundeak emandako bizilekuak sartzen dira. Aldiz, gizonen kopurua %34 gehitu dela ikus daiteke eta gehikuntza hau batez ere banakako bizitokietan gizonen kopurua handitu delako gertatu da.

Ostatu hartzeko zentro eta zerbitzuetan EAEn egindako gaueko zenbaketei dagokionez, 2012 eta 2014 urteetako emaitzak hiru lurraldeetan joera desberdinak daudela adierazten dute, aurkitutako pertsona-kopuruari dagokionez: Araban eta Bizkaian ostatu hartuta zeuden pertsonen kopurua egonkor samar mantendu zen –2012 eta 2014 bitartean %0,7 eta %1,2 gutxitu zen, hurrenez hurren– eta Gipuzkoan aldiz %14,2 gehitu zen. Horren guztiaren ondorioz, ostatu hartzeko baliabideetan dauden pertsonen kopurua 2012an 1.491ekoa zen, eta 2014an 1.513koa; gehikuntza osoa Gipuzkoako Lurralde Historikoan gertatu zen³⁰.

²⁹ Hain zuzen, Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestaren sailkapena ez da oso egokia barne hartzen dituen bizitoki-moten artean baliokidetasunak egiteko, etxerik gabeko pertsonak identifikatu eta etxerik gabeko pertsonen ostatu hartzeko egungo baliabide-sarean dauden zentroen tipologia identifikatze aldera. Adibidez, barne hartzen duen lehenengo kategoria –hots, «aterpetxeak, egoitzak edo harrera-zentroak»– oso zabal da (kalean gaua igaro ez duten etxerik gabeko pertsonen %43 biltzen zituen 2012an) eta ezin daiteke ondorioztatu zein zerbitzu-mota sartzen diren epigrafe honetan aterpetxe eta eskakizun gutxiko zentroz gain. Eustaten 2012ko Etxerik Gabeko Pertsonentzako Baliabideen Estatistikaren arabera, zentro hauetan 586 leku daude EAEn, baina «aterpetxeak, egoitzak eta harrera-zentroak» kategoriaren barnean 803 pertsona zeuden 2012an.

³⁰ Beste gogoeta batzuk alde batera utzita –adibidez 2012 eta 2014 urte bitartean kalean zeuden pertsonen kopurua ere hiru euskal hiriburuetatik Gipuzkoan bakarrik gehitu izana–, Gipuzkoan gertatutako gehikuntzaren zati bat gaueko zenbaketan parte hartu zuten zentroei lotutako leku-eskaintzaren gehikuntza handiagoagatik izan daiteke. Zentzu honetan, EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko II. azterketatik (2014) ondorioztatutakoarekin bat etorritik, 2012 eta 2014 urte bitartean, Araban zenbatutako leku-kopurua %10,8 gehitu zen –406tik 450 lekura–, Bizkaian %2,4 –921etik 943 lekura–, eta Gipuzkoan, aldiz, %20,3 gehitu ziren, 576tik 693 lekura.

20. taula . EAEn, gaueko zenbaketetan zehar ostatu hartzeko zentro eta zerbitzuetan zenbatu zen pertsona-kopuruaren bilakaera. 2010/2011-2014

		2010/2011		2012		2014		2014-2012
		K.	%*	K.	%*	K.	%*	Aldea
Araba	Emakumeak	--	--	81	29,0	90	32,5	+9
	Gizonak	--	--	198	71,0	187	67,5	-11
	Daturik gabe	--	--	0	--	0	--	0
	Guztira	--	--	279	--	277	--	-2
Bizkaia	Emakumeak	93	15,4	134	18,2	146	20,0	+12
	Gizonak	509	84,6	604	81,8	583	80,0	-21
	Daturik gabe	47	--	0	--	0	--	0
	Guztira	649	--	738	--	729	--	-9
Gipuzkoa	Emakumeak	73	19,5	89	20,0	126	24,9	+37
	Gizonak	302	80,5	355	80,0	381	75,1	+26
	Daturik gabe	44	--	0	--	0	--	0
	Guztira	419	--	444	--	507	--	+63
EAE	Emakumeak	--	--	304	20,8	362	23,9	+58
	Gizonak	--	--	1.157	79,2	1.151	76,1	-6
	Daturik gabe	--	--	0	--	0	--	0
	Guztira	--	--	1.461	--	1.513	--	+52

* Sexua esleitu ezin izan zaien pertsona-kopuruaren gorabeherak direla eta, taulan jasotzen diren portzentaje bertikalak sexua zehaztu ahal izan zitzaizkien pertsonen guztizkoan oinarrituta kalkulatu dira.

Iturriak: (1) 2010eko datuak Bizkaikoak dira eta Onartu Lantaldeak egindako *Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko analisia* (2010) argitalpenetik atera dira. Zenbaketa 2010eko ekainaren 15 eta 16 bitarteko gauean egin zen. (2) 2011ko datuak Gipuzkoari dagozkio. *Kale Gorrian–Donostian etxerik gabeko pertsonen egoerari buruzko azterlana (2011)* txostenetik atera dira, SIIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak egindakoa. Datuak 2011ko martxoaren 23 eta 24 bitarteko gauean egin zen. (3) 2012ko datuak 2012ko urriaren 17 eta 18 bitarteko gauean egin ziren. *EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko azterketa (2013)* lanetik ateratakoak dira. (4) 2014ko datuak 2014ko urriaren 29 eta 30 bitarteko gauean egin ziren. *EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko II. azterketa (2015)* lanetik atera dira datuok.

Zenbatutako pertsona-kopuruaren bilakaeran lurraldeen artean egon daitezkeen desberdintasunak alde batera utzita, hiru lurraldeetan gero eta emakume gehiago daude ostatu hartzeko zentro eta zerbitzuetan aurkitutako pertsonen artean. Beste era batera esanda, ostatu hartu duten pertsonen kopurua gehitu izana (Gipuzkoan, adibidez) edo lehengoan iraun izana (Bizkaian eta Araban) alde batera utzita, emaitzek agerian uzten dute 2014an emakumeen proportzioa handiagoa da ostatu hartuta dauden pertsonen artean 2012an baino.

Zalantzarik gabe, joera argia egiaztatzeko bi aldiko emaitzak bakarrik nahikoa ez diren arren, Bizkaian 2010ean, eta Gipuzkoan 2011n egindako gaueko zenbaketetako aurreko urteetako emaitzak adierazitakoarekin bat datoz, segidako hiru aldiatarako gorakada erregistratzen baitute –arina baina pixkanakakoa– emakumeen pisu erlatiboan.

Zein neurritan eragin diezaieke zifra hauei espezifikoki ETHOS 4.1 azpikategoriarekin lotutako emakumeentzako leku-kopuruaren balizko gehikuntzak? Horri buruz, lortutako emaitzek iradokitzen dute, espezifikoki genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako zentroak zenbatzen ez badira ere, lortutako emaitzek emakumeen pisu erlatiboa pixka bat gehitu dela adierazten jarraituko lukete. Hurrengo taulan ikus daitezkeen bezala, ostatu hartzeko zentro eta zerbitzuetan dagoen emakume-kopurua, espezifikoki genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako zentroak salbuetsita, 251tik (2012an) 314ra igaroko litzateke, eta hiru lurraldeetan emakumeen pisu erlatiboa gehitu egingo litzateke, ostatu hartuta dauden pertsona guztiak kontuan hartuta.

21. taula . EAEn, gaueko zenbaketetan zehar ostatu hartzeko zentro eta zerbitzuetan zenbatutako pertsona-kopuruaren bilakaera –etxeko indarkeria jasan duten emakumeentzako zentroak alde batera utzita (4.1)–, sexuaren arabera. 2012-2014

		2012 ⁽¹⁾		2014 ⁽²⁾		2014-2012
		K.	%	K.	%	Aldea
Araba	Emakumeak	62	24,6	72	28,8	+10
	Gizonak	190	75,4	178	71,2	-12
	Guztira	252	100,0	250	100,0	-2
Bizkaia	Emakumeak	111	15,6	127	18,0	+16
	Gizonak	601	84,4	579	82,0	-22
	Guztira	712	100,0	706	100,0	-6
Gipuzkoa	Emakumeak	78	18,1	115	23,4	+37
	Gizonak	354	81,9	377	76,6	+23
	Guztira	432	100,0	492	100,0	+60
EAE	Emakumeak	251	18,0	314	21,7	+63
	Gizonak	1.145	82,0	1.134	78,3	-11
	Guztira	1.396	100,0	1.448	100,0	+52

Iturriak: (1) 2012ko datuak 2012ko urriaren 17 eta 18 bitarteko gauean egin ziren. EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko azterketa (2013) lanetik ateratakoak dira. (2) 2014ko datuak 2014ko urriaren 29 eta 30 bitarteko gauean egin ziren. EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko II. azterketa (2015) lanetik atera dira datuok.

Bestalde, beste zehaztasun bat egin behar da, azterketa ETHOS tipologiarekin bat datorren okupazio-bilakaeraren arabera denean ikusi diren joerei buruz. Zentzu honetan, ostatu hartuta pertsona-kopuru handiena biltzen duten kategorien arabera behatutako egoeretan arreta jarriz gero, esaterako aterpetxe eta ostatu hartzeko zentroetan (2.1 eta 3.1 azpikategoriak), babespeko bizitokietan (3.3 azpikategoria) eta epe luzerako tutoretzapeko bizitokietan (7.2 azpikategoria)³¹, ikus daiteke 2.1 eta 3.1 egoerei dagozkien zentroetan bakarrik gutxitzen dela emakume-kopurua, era absolutuan, zein erlatiboan. Bestela esanda, emaitzek erakusten dute 2012tik 2014ra bitartean emakumeen presentzia apur bat jaitsi egin dela horrelako zentroetan. Zentro horiek, oro har, mistoak izaten dira, laguntza-intentsitate gutxikoak eta egonaldi motzekoak.

22. taula . EAEn, gaueko zenbaketetan zehar ETHOS tipologiak barne hartzen dituen ostatu hartzeko zentro eta zerbitzu garrantzitsuenetan zenbatu zen pertsona-kopuruaren bilakaera, sexuaren arabera. 2012-2014

		2012 ⁽¹⁾		2014 ⁽²⁾	
		K.	%	K.	%
2.1 eta 3.1 kategoriak: aterpetxeak eta ostatu hartzeko zentroak	Emakumeak	62	15,7	48	12,3
	Gizonak	334	84,3	342	87,7
	Guztira	396	15,7	390	12,3
3.3 kategoria: babespeko bizitokia	Emakumeak	137	18,5	162	22,4
	Gizonak	603	81,5	562	77,6
	Guztira	740	18,5	724	22,4
7.2 kategoria: epe luzerako tutoretzapeko bizitokia	Emakumeak	39	20,5	54	27,4
	Gizonak	151	79,5	143	72,6
	Guztira	190	20,5	197	27,4

Iturriak: (1) 2012ko datuak 2012ko urriaren 17 eta 18 bitarteko gauean egin ziren. EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko azterketa (2013) lanetik ateratakoak dira. (2) 2014ko datuak 2014ko urriaren 29 eta 30 bitarteko gauean egin ziren. EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko II. azterketa (2015) lanetik atera dira datuok.

³¹ Lau azpikategoria hauetan zeuden 2014an ostatu hartzeko baliabideetan gaua igaro zuten pertsonen %87 eta 2012an baliabide hauetan zenbatu ziren pertsonen %91.

4. EAE-N ETXEGABETASUN EGOERAN DAUDEN GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO EZAUGARRI BEREIZGARRIAK

4.1. Sarrera

Azterlan honen laugarren kapituluaz aztertu ditugun etxerik gabeko pertsonen, eta oro har, bizitegi-bazterketaren eraginpeko pertsona guztiek ez dute kolektibo bat osatzen –ez baitute nortasun bera edo antzekoa duten pertsonen komunitatea osatzen–; alderantziz, oso pertsona heterogeneoak dira, arrazoi desberdinengatik bizitegi-bazterketako egoera jakin batean bizitzen ari direnak. Cabrerak dioenez «Ez beren adina, ez beren sexua, ez beren hezkuntza-maila edo lanbide-ibilbidea, ez beren arazo edo portaerak, ez beren iragana, ez beren etorkizunerako itzaropena, ez dira zertan berberak izan behar. Denek partekatzen duten egoera bakarra bizi diren lekua (ez-lekua, berez) da» (Cabrera 2008).

Gogoeta hauek funtsezkoak dira etxerik gabeko pertsonen buruzko uste sozial jakin batzuei, nagusienei, zein bigarren mailakoei, aurre egiteko –funtsean gizonen irudikatzen dituzte uste horiek eta oso diskurtso estereotipatuetan oinarritzen dira, bazterkeria, droga-kontsumoa edo gaixotasun mentalarekin lotutako hainbat alderdi negatibo nabarmenduz eta handituz–. Eta uste sozial horiek abiapuntutzat hartuz, kapitulu honen helburua da, EAEn, 2014ko urriaren 29-30eko gauean egindako gaueko azken zenbaketatik lortutako informazioak ematen dituen datuak oinarritzat hartu eta bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen ezaugarriak eta bizi-baldintzak aztertzea. Beste autonomia-erkidego batzuetako azterlan batzuetan antzeko analisiak egin badira ere³², kasu honetan, lortu nahi den helburu zehatza da, bizitegi-bazterketa larrian dauden gizon eta emakumeen ezaugarriak, esperientziak eta bizi-baldintzak zer neurritaraino diren desberdinak identifikatzea.

³² Orain arte, gaueko zenbaketen emaitzetan oinarritutako bi azterlan daude autonomia-erkidegoen eremuan. Bertan, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen ezaugarriak eta bizi-baldintzen analisia egiten da. Analisi hauek EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko lehenengo eta bigarren azterketaren 5. kapituluaz kontsultatu daitezke. Halaber, aipatu behar da 2005 eta 2012rako Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestak eskaintzen duen sexuaren eta beste aldagai batzuen arabera banatutako informazioa Eustaten web-orriaren bidez.

Beraz, kapitulu honetan, zenbaketaren gauean galdera-sorta laburra erantzun zuten pertsona guztien erantzunak laburtu eta aztertzen dira. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, zenbatuak izan ziren adin nagusiko pertsona guztiak kontuan hartuta (1.725 pertsona), erantzun-tasa handi samarra izan zen, %71,7koa. Oro har, emakumeen erantzun-tasa pixka bat handiagoa izan zen gizonena baino. Dena den, jarraian erakusten diren emaitzei egotzi dakieken alborapen garrantzitsuena kalean edo aterpetxeetan aurkitutako pertsonekin lortutako erantzun-tasa txikiagoa da. Pertsona horiek, analisi honen helburuetarako, jasotako kasuen kopuru murriztuagatik, kategoria berean bildu dira.

23. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsona helduen banaketa sexuaren arabera, zenbaketaren gauean zuten kokalekua eta egindako inkestako partaidetza kontuan hartuz. 2014ko urriaren 29-30eko gaua K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Zenbaketaren emaitzak	86	596	709	261	755	1016	347	1.351	1.725
Galde-sortari emandako erantzunak	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236
Erantzun-tasa	%66,3	%57,9	%65,7	%82,0	%82,1	%82,1	%78,1	%71,4	%71,7

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

4.2. Oinarrizko ezaugarri soziodemografikoak, egoera administratiboa eta sustraitzea

Oro har, bizitegi-bazterketa larrian dauden gizon eta emakumeen batez besteko adina antzekoa den arren (37,4 eta 36,4 urte, hurrenez hurren), bi taldeak adin-taldeetan banatuz gero, desberdintasun batzuk ikus daitezke. Esaterako, gizonen artean handiagoa da biztanleria gaztearen pisu erlatiboa, eta emakumeen artean, berriz pixka bat handiagoa da tarteko adin-multzoa (35 eta 44 urte bitartean) duten emakumeen pisu erlatiboa. Desberdintasun hauek txiki samarrak dira orokorrean, baina agerikoagoak bihurtzen dira kalean aurkitutako pertsonengan eta aterpetxeen erabiltzaileengan.

24. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, adinaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Adina									
18-24 urte	10,5	20,9	19,4	22,9	30,2	28,3	20,3	26,8	25,4
25-34 urte	22,8	19,1	19,7	21,5	17,9	18,8	21,8	18,3	19,1
35-44 urte	36,8	23,5	25,4	24,3	18,5	20,0	26,9	20,3	21,8
45-54 urte	22,8	24,3	24,1	18,7	21,1	20,5	19,6	22,3	21,7
55 urte eta gehiago	7,0	10,1	9,7	11,2	8,2	9,0	10,3	8,9	9,2
Daturik gabe	0,0	2,0	1,7	1,4	4,0	3,4	1,1	3,3	2,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Bestalde, gizon eta emakumeen nazionalitatea eta jatorriari dagokionez ere desberdintasun esanguratsuak daude. Estatutik kanpo jaio direnen artean gehiago dira gizonak emakumeak baino (gizonen %61,5 eta emakumeen %54,2 atzerrian jaio dira), eta emakumeen artean, berriz, EAEn jaio direnen kopurua nabarmen handiagoa da (EAEn jaio diren emakumeak %36,5 dira, eta gizonak aldiz %25,3).

Halaber, Magrebko eskualdea atzerriko gizon erdien jatorria da; emakumeen artean, aldiz proportzio hori askoz ere txikiagoa da. Gaztetasuna eta atzerriko biztanleriaren artean ere lotura oso estua dago, bai gizonen artean, bai emakumeen artean, baina batez ere gizonen artean ikusten da lotura hori. Gizonei dagokienez, 30 urte baino gutxiagoko pertsonen %90 atzeritik etorritakoa da, eta emakumeen artean berriz proportzio hori %77koa da.

25. taula . Bizitegi-bazterketako larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, nazionalitatearen eta jaioterriaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Adina									
18-24 urte	10,5	20,9	19,4	22,9	30,2	28,3	20,3	26,8	25,4
25-34 urte	22,8	19,1	19,7	21,5	17,9	18,8	21,8	18,3	19,1
35-44 urte	36,8	23,5	25,4	24,3	18,5	20,0	26,9	20,3	21,8
45-54 urte	22,8	24,3	24,1	18,7	21,1	20,5	19,6	22,3	21,7
55 urte eta gehiago	7,0	10,1	9,7	11,2	8,2	9,0	10,3	8,9	9,2
Daturik gabe	0,0	2,0	1,7	1,4	4,0	3,4	1,1	3,3	2,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Nazionalitatea									
Espainiarra	50,9	38,3	40,0	52,3	42,3	44,8	52,0	40,8	43,3
Atzerritarra	49,1	61,7	60,0	47,7	57,7	55,2	48,0	59,2	56,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Jaioterria									
EAE	29,8	18,3	19,9	38,3	29,2	31,5	36,5	25,3	27,8
Estatuko gainerako erkidegoak	15,8	15,9	15,9	7,0	11,1	10,1	8,9	12,8	12,0
Atzerria	52,6	64,9	63,2	54,7	59,5	58,3	54,2	61,5	59,9
+ Europa: EB	29,8	14,5	16,7	4,7	2,9	3,4	10,0	7,0	7,7
+ Europa: gainerako herrialdeak	0,0	0,3	0,2	1,4	0,2	0,5	1,1	0,2	0,4
+ Afrika: Magreb*	0,0	31,3	26,9	17,3	37,4	32,3	13,7	35,2	30,5
+ Afrika: gainerako herrialdeak	10,5	13,0	12,7	15,4	12,7	13,4	14,4	12,8	13,2
+ Amerika	10,5	2,6	3,7	10,3	2,1	4,2	10,3	2,3	4,0
+ Beste kontinente batzuk	0,0	1,4	1,2	3,3	1,1	1,7	2,6	1,2	1,5
Daturik gabe	3,5	2,6	2,7	2,3	3,2	3,0	2,6	3,0	2,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

* Marokon eta Aljerian jaiotako pertsonak sartu dira barnean.

Iturria: geuk eginkoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Atzeritik datozen pertsonen egoerak askoz ere gutxiago gertatzen dira emakumeen artean, baina emakume gutxiagok dute bizileku-baimena: nazionalitate atzerritarra duten gizonen %53,8k bizileku-baimena du, eta emakumeen artean, aldiz, proportzio hori %46,9koa da. Desberdintasun horiek bereziki nabarmenak dira kalean aurkitutako biztanleriaren eta gaueko aterpetxeak erabiltzen dituzten pertsonen artean.

Errola-ziurtagiria edukitzeari buruz, ez dago desberdintasun esanguratsurik gizon eta emakumeen artean. Dena den, kalean gaua igarotzen duen biztanleria eta gaueko aterpetxeak erabiltzen dituzten pertsonen artean, errola-ziurtagiria duten emakumeen portzentajea handiagoa da gizonena baino.

Bizitegi-bazterketa larrian dauden emakume eta gizonen hiru laurden inguruk nolabaiteko sustraitzea du zenbatu zituzten udalerrian, bertan bizitzen geratu nahiko luketela adierazi baitzuten. Oro har, ez da ikusten desberdintasunik gizon eta emakumeen artean, eta joan nahiko luketela erantzun duten pertsonen erantzun-kopurua ere antzekoa da.

26. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, bizileku-baimena, errolda-ziurtagiria eta sustraitze-ziurtagiria edukitzearen arabera.
2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=673/K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Bizileku-baimena*									
Badauka	28,6	48,8	46,4	52,0	56,9	55,8	46,9	53,8	52,5
Ez dauka	71,4	47,8	50,6	45,0	42,5	43,1	50,8	44,5	45,7
Daturik gabe	0,0	3,3	3,0	3,0	0,6	1,1	2,3	1,6	1,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	28	209	237	100	339	439	128	548	676
Errolda-ziurtagiria									
Badauka	61,4	67,8	66,9	95,8	97,7	97,2	88,6	87,0	87,4
Ez dauka	36,8	28,7	29,9	3,7	1,8	2,3	10,7	11,4	11,2
Daturik gabe	1,8	3,5	3,2	0,5	0,5	0,5	0,7	1,6	1,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236
Sustraitzea									
Geratu nahiko luke	77,2	81,7	81,1	72,9	75,3	74,7	73,8	77,6	76,8
Joan nahiko luke	10,5	9,3	9,5	14,5	10,5	11,5	13,7	10,1	10,8
Daturik gabe	7,0	6,1	6,2	10,3	12,4	11,9	9,6	10,2	10,0
Guztira	5,3	2,9	3,2	2,3	1,8	1,9	3,0	2,2	2,3
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

* Pertsona atzerritarren erantzunak bakarrik jaso dira.

Iurria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

4.3. Familiarteko harremanak eta harreman sozialak

Legearen ikuspuntutik, bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsona gehienak ezkongabeak direla adierazi dute, dena den desberdintasun handia dago emakume eta gizonen artean. Egoera hau, emakume zein gizon gehieneko egoera den arren, gizonen hiru laurdena izango litzateke ezkongabea (%75,4), baina emakumeen %55,7 bakarrik egongo litzateke egoera berean. Ezaugarri honekin batera, azpimarratzeko da ezkonduetako pertsonen portzentaje txikia (emakumeen %11,4 eta gizonen %8,3) eta bananduta edo alargunduta dauden emakumeen pisu erlatibo handiagoa (emakumeen %31 eta gizonen %15). Kanean edo aterpetxeetan aurkitutako emakumeen artean egoera hauek are maizago gertatzen dira, emakume guzti horien %36,8k bananduta edo alargun dagoela adierazi baitu, aldiz, gizonen artean %17,6 bakarrik dago egoera horietan.

Lege-egoera alde batera utzita, eskuratutako informazio gehigarriak agerian uzten du bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeen artean zein neurritaraino den ohikoagoa bikotea izatea. Hala da, galdetu diegun emakume guztien %30,3k bikotea dutela adierazi dute, eta gizonen artean, aldiz, bikotea dutenak %23,5 dira. Emakumeen artean, proportzio hau %42,1era igotzen da kanean edo aterpetxeetan aurkitutako emakumeak kontuan hartuz gero. Ostera, kanean edo aterpetxean dauden gizonen %24,1ek bakarrik adierazi du bikotea duela.

Oro har, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak oso nabarmenak ez badira ere, familia-loturaren bat izatea kontuan hartzen badugu –gizonen %82k eta emakumeen %87,8k dio harremana duela, zuzeneko edo urruneko– badago aldea, ordea, harremanari ematen dioten garrantziari dagokionez. Zentzu honetan, lortutako datuek agerian uzten dute emakumeek gizonen baino oso garrantzitsuagozat hartzen dituztela harremanok. Halaber, aurrekoarekin bat etorritz, ikus daiteke bikotea duten emakumeek bikote-harremana gehiago aintzat hartzen dutela bikotea duten gizonen baino, eta gizonek, aldiz, adiskidetasun-harremanei garrantzia handiagoa emateko joera dutela emakumeek baino.

27. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, hainbat aldagairen arabera.
2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emaku meak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Egoera zibila									
Ezkongabea	43,9	67,2	63,9	58,9	80,0	74,6	55,7	75,4	71,1
Ezkondua	14,0	12,2	12,4	10,7	6,1	7,3	11,4	8,3	9,0
Banandua	19,3	15,9	16,4	25,2	12,9	16,1	24,0	14,0	16,2
Alarguna	17,5	1,7	4,0	4,2	0,6	1,6	7,0	1,0	2,3
Daturik gabe	5,3	2,9	3,2	0,9	0,3	0,5	1,8	1,2	1,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Familia eta bikotea									
Familia-harremanen bat	73,7	69,3	69,9	91,6	89,0	89,7	87,8	82,0	83,3
Bikotekidea du	42,1	24,1	26,6	27,1	23,2	24,2	30,3	23,5	25,0
Gizarte-harremanak*									
Senideak	49,1	42,0	43,0	68,7	64,8	65,8	64,6	56,7	58,4
Bikotea	38,6	18,6	21,4	21,5	15,5	17,0	25,1	16,6	18,4
Lagunak	33,3	37,7	37,1	31,3	39,8	37,6	31,7	39,1	37,5
Adiskideak	14,0	16,8	16,4	19,6	29,2	26,7	18,5	24,8	23,4
Gizarte-langileak	29,8	34,2	33,6	52,3	44,4	46,4	47,6	40,7	42,2

* Harremanak oso garrantzitsuztat jotzen dituzten pertsonen erantzunak bakarrik jaso dira.

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Azkenik, azpimarra daiteke, bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen gizarte-langileekin duten harremana. Gai horri buruz, ia emakumeen erdiek eta hamar gizonetatik lauk jotzen dituzte harreman hauek oso garrantzitsuztat. Hala ere, proportzio hau nabarmen murrizten da kalean edo aterpetxeetan aurkitutako pertsonengan, emakumeen %30ek eta gizonen %34k hartzen baitituzte garrantzitsuztat harreman horiek.

Hainbat pertsonekin dauzkaten gizarteko edo familiarteko harremanak, ohiko edo noizbehinkako harremanetan gauzatzen direnak, zuzeneko zein urruneko loturak alde batera utzita, zalantzarik gabe, bakardadea bizitegi-bazterketako egoera larri askorekin oso lotuta dagoen alderdia da. Bakartze sozialeko egoerei dagokienez, datuek erakusten dutenez, gizonen gehiago jasaten dituzte emakumeek baino. Horren haritik, jasotako informazioak azpimarratu egiten du gizonen %28.2k bakarrik ematen dutela egun gehiena, eta emakumeak aldiz %19,6 dira. Halaber, datuek adierazten dute zein neurritaraino areagotzen den egoera hauen intzidentzia kalean edo aterpetxeetan dauden pertsonen artean. Epe ertain edo luzerako zentroetan ostatu hartzen duten pertsonak ez bezala, kalean edo aterpetxeetan gaua igarotzen duten pertsonen gainerakoek baino neurri handiagoan jasaten dituzte egoera hauek. Dena den, hemen ere, egun gehiena bakarrik igarotzen duela adierazten duten emakumeen proportzioa (%29,8) gizonena baino nabarmen txikiagoa da (%44,6).

28. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, egun gehiena bakarrik edo norbaitekin egotearen arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emaku meak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Egun gehiena bakarrik igarotzen du	29,8	44,6	42,5	16,8	19,0	18,5	19,6	28,2	26,3
Egun gehiena norbaitekin igarotzen du	64,9	53,0	54,7	79,9	78,4	78,8	76,8	69,3	71,0
Daturik gabe	5,3	2,3	2,7	3,3	2,6	2,8	3,7	2,5	2,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Datu hauek aztertzeko oinarritzat hartu den azterlanari erantsitako galdera-sortan seme-alaben gaia behar bezala aztertu ez bada ere –galdera-sorta osoan ez dago galderarik elkarrizketatu diren pertsonen seme-alabak dituzten edo ez jakiteko–, gai horri buruzko gogoeta egitea merezi du. Oro har, gai hau aztertu duten azterlan kuantitatibo gehienen arabera, bizikidetza-modua zein den kontuan hartu gabe etxerik gabeko emakumeen artean ohikoa da seme-alabak dituzten pertsonak egotea. Horixe azpimarratzen zuten, esaterako, 2012ko INEren Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestaren datuek. Eragiketa horren arabera, Estatu osoari dagozkion datuek ziotenez, etxerik gabeko emakume guztien %71,5ek seme-alabak zituzten, baina egoera berean zeuden gizonen %44,3k bakarrik zituen seme-alabak.

Zifra hauek EAEn lortutako emaitzetara estrapolatu ezin daitezkeen arren, bildutako datuetako batzuk (adibidez, emakume-kopuru handiagoa bikotea duten, ezkondua edo bananduta dauden eta alargunak diren pertsonen artean) pentsarazten dute, agian seme-alabak dituzten emakumeen kopurua ere handiagoa izango zela galdera-sortari erantzun zioten pertsonen artean. Hala ere, azpimarragarria da, pertsona hauetariko askok, seme-alabadun emakumeak eta gizonak, familiei beren bizi-ibilbideetan ematen dieten garrantzia. Horren haritik, galdera-sortaren amaieran gehitutako galderak ikuspegi kualitatibo interesgarria eman dezake gai horri buruz³³. Kasu honetan, ezin bada ere, ordezkaritasunaz hitz egin edo zein neurritaraino diren desberdinak emakumeek eta gizonen bizi dituzten egoerak zenbatu edo ebaluatu, lortutako erantzunek agerian jartzen dituzte era askotako egoerak, seme-alabak berreskuratzeko nahia, jatorrizko herrialdean geratu ziren pertsonetik ardurak, euren bizi-egokia eskaini ahal izateko beharra edo familia sortu ahal izateko desirak edo nahiak elkartzeko dituztenak.

«Oso pozik nago aterpetxean izan dudana tratua-rekin. Lana eta bizitokia izateak egoera honetatik irtetzen eta nire seme-alabak berreskuratzen lagunduko lidakeela uste dut.»

Emakumea, 49 urte, Gipuzkoan jaiotakoa, aterpetxean igarotzen du gaua

«Senegalen geratu zen nire semeak asko kezkatzen nau. Lagundu ahal izatea gustatuko litzaidake.»

Emakumea, 31 urte, Senegalen jaiotakoa, aterpetxean igarotzen du gaua

«Laguntza behar dut nire alabaren zaintza berreskuratzeko, lan bat lortzeko eta bizi normala eduki ahal izateko.»

Emakumea, 33 urte, Kolonbian jaiotakoa, egonaldi ertain-luzeko baliabide batean bizi da

«Arazo asko izan ditut nire senarrarekin. Nire seme-alabak Donostiako zentro batera ekartzea nahiko nuke, harrera-etxe batean daude, Euskal Herritik kanpo. Nire senarrarekin izandako iragana ahaztu nahi dut. Nire seme-alabek eta nik asko sufritu dugu.»

Emakumea, 54 urte, Aljerian jaiotakoa, aldi baterako harrera-zentroan bizi da

«Nire etxea behar dut, nire bizitza berreskuratu. Lan bat behar dut nire semeak gauza gehiago egin ahal izateko, kirola, musika, arropa erosteko, etorkizuna izan dezan.»

Emakumea, 30 urte, Txinan jaiotakoa, indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako baliabide batean bizi da

«Etxe bat eduki nahiko nuke nire emaztea eta seme-alabak ekarri ahal izateko»

Gizona, 24 urte, Errumanian jaiotakoa, hutsik dagoen eraikin batean igarotzen du gaua

«Lan egin behar dut nire seme-alabak ekarri ahal izateko.»

Gizona, 48 urte, Marokon jaiotakoa, aterpetxean igarotzen du gaua

«Semea edo alaba edukitzeko beharra dut, horixe gertatzen aitat.»

Emakumea, 35 urte, Nigerian jaiotakoa, egonaldi ertaineko baliabide batean bizi da

³³ Kaleko pertsonentzako galde-sortak, zein ostatu hartzeko baliabideetan zeuden pertsonen bete beharrekoak galdera ireki bat zuten galdera-sortaren amaieran. Galdera horren bidez, galderak erantzun zituzten pertsonen, interesatzen zitzaizkien gaiei buruzko oharren bat egiteko edo iritzia emateko aukera eskaintzen zitzaien.

4.4. Etxe-gabetasunaren esperientzia: iraupena, aurretiko egoera, arrazoiak eta kaleko biktimizazioak

Oro har, emakumeek etxegabetasuneko ibilbide laburragoak dituzte gizonak baino. Horixe erakusten dute 2012. eta 2014. urteetako gaueko zenbaketen emaitzek, eta baita EAEn egindako Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestak eskaintzen duen informazioak ere. Gizon eta emakumeek bizi duten egoera desberdinaren erakusgarri da urte bete baino gutxiagoko etxegabetasun-egoeretan kasu guztien ia erdietan emakumeak dira, eta kasuen %30ean bakarrik dira gizonak. Hiru urtetik gorako etxegabetasun-egoeretan, berriz %40 gizonak dira, eta %25 emakumeak.

Gai honi buruz, aipatu behar da, emakume eta gizonen artean ikusi diren desberdintasunak epe ertain eta luzeetan ostatu hartzeko baliabideetan bistaratzen direla, kalean aurkitu ziren eta aterpetxeetan lo egiten zuten pertsonen artean ez baitzen ia desberdintasunik antzeman. Espero litekeen bezala, kasu hauetan etxegabetasunaren iraupena laburragoa da, aurkitutako gizon eta emakumeen erdiak gutxi gorabehera urtebete baino gutxiagoko ibilbideak baitituzte.

29. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, etxegabetasun-egoeraren iraupenaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Urtebete baino gutxiago	49,1	48,1	48,3	44,4	19,7	26,0	45,4	29,8	33,3
+ < Hilabete	15,8	11,3	11,9	3,3	2,7	2,9	5,9	5,8	5,8
+ 1-6 hilabete	21,1	22,3	22,1	18,7	8,2	10,9	19,2	13,3	14,6
+ 6 hilabete-urtebete	12,3	14,5	14,2	22,4	8,7	12,2	20,3	10,8	12,9
1 eta 3 urte bitartean	21,1	19,7	19,9	25,2	29,5	28,4	24,4	26,0	25,6
3 urte edo gehiago	26,3	29,9	29,4	24,3	44,7	39,4	24,7	39,4	36,2
+ 3-5 urte	12,3	9,3	9,7	10,3	16,5	14,9	10,7	13,9	13,2
+ 5-10 urte	5,3	9,0	8,5	6,5	16,5	13,9	6,3	13,8	12,1
+ 10-20 urte	3,5	6,4	6,0	6,1	7,4	7,1	5,5	7,0	6,7
+ 20 urte edo gehiago	5,3	4,3	4,5	0,9	2,9	2,4	1,8	3,4	3,1
+ Inoiz ez du etxerik eduki	0,0	0,9	0,7	0,5	1,5	1,2	0,4	1,2	1,1
Daturik gabe	3,5	2,3	2,5	6,1	6,1	6,1	5,5	4,8	4,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

* Informazioaren bat eman duten pertsonen banaketak bakarrik bildu dira.

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Etxegabetasun-egoeraren aurreko bizitegi-egoerari dagokionez, azpimarratu behar da, genero-desberdintasun garrantzitsuenetako bat galdu aurretik beren etxean bizi izana adierazten duten pertsonen artean dagoen emakumeen proportzio handiagoa dela. Etxerik gabe geratu aurretik non bizi ziren galdetzean, emakumeen herenak baino gehiagok (%36,9k) bere etxean bizi zela erantzun zuten, baina gizonen laurdenak bakarrik eman zuten erantzun bera (%26,2).

Baina hamar portzentaje-puntuko tarte hau sakabanatu egiten da geroago, emakumeek ordezkapen gutxi duten kategoria-multzoan, bereziki esanguratsua da, instituzionalizazio-motaren bat dakarten bizitegi-egoeretan emakumeek duten presentzia txikiagoa, bai adingabeentzako zentroetan, bai ospitale edo espetxeetan. Hala ere, adierazi behar da, gizon zein emakumeen artean, beren etxebizitzan bizi izan ostean, etxegabetasunaren aurreko egoerarik ohikoena senideen etxean (emakumeen %25,8 eta gizonen %28) edo partekatutako etxebizitzan bizi zela dela (emakumeen %17,3 eta gizonen %16,1).

30. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, etxegabetasun-egoeraren aurreko bizitokiaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Neure etxean	36,9	26,2	28,6
Senideen etxean	25,8	28,0	27,5
Lagunen etxean	4,1	5,8	5,4
Ostatu edo antzekoetan	0,7	2,8	2,3
Logela/etxebizitza partekatuan	17,3	16,1	16,3
Espetxean, ospitalean	0,4	2,2	1,8
Adingabeentzako zentroan	2,2	7,7	6,5
Beste batzuk	7,4	6,1	6,4
Daturik gabe	5,2	5,2	5,2
Guztira	100,0	100,0	100,0
K	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Bestalde, espezifikoki ostatu hartzeko baliabidean sartu aurretiko bizitoki-egoera kontuan hartuta –gauetz kalean aurkitu ez ziren pertsonen artean–, lortutako emaitzek genero-desberdintasun are nabarmenagoak uzten dituzte agerian. Hurrengo taulako datuei esker, egiaztatu egin dezakegu, emakumeen aurretiko bizitoki-egoera zein neurritaraino dagoen lotuagoa familiarreko edota gizarteke loturei eustea dakarten bizitoki-moduekin. Beren etxean, senideen etxean edo lagunen etxean bizi direnak batera kontuan hartzen baditugu, egoera hauen intzidentzia %38,1ekoa da emakumeen artean, eta gizonen artean, berriz %19,9koa.

31. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, une honetan dauden zentroan sartu aurretik gaua igarotzen zuten lekuaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.098

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Logela,etxebizitza edo bere etxea	11,6	7,7	8,6
Ostatua edo hotela	1,6	2,5	2,3
Lagunen etxea	12,0	6,8	8,0
Senideen etxea	14,5	5,4	7,5
Etterik gabeko pertsonentzako beste zentro batean	32,5	45,1	42,3
Kalean edo eremu publikoetan	5,2	13,3	11,5
Etxe edo eraikin huts batean edo txabola batean	1,2	3,7	3,1
Ibilgailuan	0,8	0,7	0,7
Ospitalean edo zentro terapeutikoan	7,6	6,8	7,0
Espetxean	2,0	2,6	2,5
Beste leku batzuk	2,8	0,8	1,3
Erantzunik gabe	8,0	4,6	5,4
Guztira	100,0	100,0	100,0
K	249	849	1.098

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Desberdintasunak al daude emakume eta gizonen artean etxegabetasun-egoera eragin zuten arrazoi nagusiak aipatzerakoan? Eskuratutako erantzunen arabera, badirudi baietz, baina emaitzak kontu handiarekin interpretatu behar dira, galdetu zitzaizen pertsonen %77k bakarrik erantzun baitzioten galdera honi. Zentzu honetan, eta 32n ikus daitekeen bezala, gizonak emakumeek baino maizago adierazten dituzte egiturazko alderdiak, funtsean laneko arazo edo arazo ekonomikoekin lotutakoak edo paperen faltarekin lotura dutenak. Emakumeen artean, aldiz, bereziki handia da familiarreko arazoek edo bikotearekin izandako hausturak ekarritako arazoekin lotutako harreman-faktoreen aipamena (emakumeen %34,2k eta gizonen %21,8k), eta horien barnean daude indarkeria matxistaren egoera espezifikoak ere.

**32. taula. Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, aipatutako etxegabetasun-
arrazoien arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=949**

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Faktore estrukturalak	63,4	70,7	69,4
+ Laneko arazoak	28,0	30,5	30,0
+ Arazo ekonomikoak	53,4	55,1	54,8
+ Etxebizitza mantentzearekin zerikusia duten arazoak	7,5	6,2	6,4
+ «Paper» faltarekin lotutako arazoak	14,9	23,5	22,0
Faktore instituzionalak	5,6	7,6	7,3
+ Institutuzio uztea eta familia-sarerik ez izatea edo kanpoan izatea	5,0	5,8	5,7
+ Harrera-sareekin arazoak	0,6	1,9	1,7
Harreman-faktoreak	34,2	21,8	23,9
+ Familiarteko arazoak edota bikote-haustura (etxeko indarkeria barne)	34,2	22,0	24,0
Faktore pertsonalak	29,2	28,0	28,2
+ Alkohola edo bestelako drogen kontsumoarekin arazoak	18,0	20,6	20,1
+ Norbere borondatez	5,0	4,6	4,6
+ Osasun-arazoak	9,9	5,6	6,3
+ Jokoarekin zerikusia duten arazoak	2,5	1,4	1,6
K	161	788	949
Erantzun gabeko galderen tasa (%)	%59,4	%81,7	%76,8

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Azterlan honen aurreko kapituluetan aipatu den bezala, kalean gaua igarotzen duten emakumeak gizonak baino askoz gutxiago dira. Kontsultatu ditugun pertsonak kontuan hartuta, egoera horiek bizi izan dituztela adierazi dute –egun zein iraganean– gizonen ia %75ek eta emakumeen %47,2k.

**33. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka eta zenbaketa gauean
zeuden lekuka, kalean lo egitearen esperientziaren arabera.
2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236**

	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	K	% bertikala	K	% bertikala	K	% bertikala
Kalean aurkitutako pertsonak	22	8,1	116	12,0	138	11,2
Baliabide batean ostatu hartuta dauden pertsonak	249	91,9	849	88,0	1.098	88,8
+ Behin edo behin kalean lo egin du	106	39,1	605	62,7	711	57,5
- Aterpetxeetan ostatu hartuta daudenak	29	10,7	181	18,8	210	17,0
- Beste baliabide batzuetan ostatu hartuta daudenak	77	28,4	424	43,9	501	40,5
+ Inoiz ez du kalean gaua igaro	139	51,3	235	24,4	374	30,3
+ Daturik gabe	4	1,5	9	0,9	13	1,1
<i>Behin edo behin kalean lo egin dute</i>	<i>128</i>	<i>47,2</i>	<i>721</i>	<i>74,7</i>	<i>849</i>	<i>68,7</i>
Guztira	271	100,0	965	100,0	1.236	100,0

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Zalantzarik gabe, desberdintasun hau azaltzen duten arazoien artean kalean gaua igarotzeak emakumei dakarkien arrisku handiagoa aipatu behar da. Jaso ditugun kalean jasandako liskar, larderia edo indarkeriazko esperientzia jakinei lotutako erantzunen arabera, emakumeen biktimizazioa gizonena baino handiagoa da aipatutako egoera guztietan.

34. taula. Kalean lo egiten duten edo inoiz kalean lo egin duten eta bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa, sexuka, jasan dituzten delitu-mota eta -kopuruaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua K=849

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Delitu-mota									
Irainak edo mehatxuak	43,1	37,0	37,9	45,5	44,6	44,7	44,5	41,5	41,9
Lapurretak edo iruzurrak	56,9	44,8	46,6	53,2	47,2	48,1	54,7	46,2	47,5
Eraso fisikoak	31,4	22,6	23,9	31,2	18,9	20,8	31,3	20,4	22,0
Sexu-erasoak	17,6	2,4	4,6	26,0	1,4	5,2	22,7	1,8	4,9
Delitu-kopurua									
Bat ere ez	31,4	43,8	42,0	33,8	38,2	37,5	32,8	40,5	39,3
Baten bat	68,6	56,2	58,0	66,2	61,8	62,5	67,2	59,5	60,7
Hiru edo gehiago	33,3	18,5	20,7	31,2	20,5	22,2	32,0	19,7	21,6
K	51	297	348	77	424	501	128	721	849

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Ikusitako genero-desberdintasunak kontuan hartu gabe, 34ko emaitzak aztertzerakoan deigarri gertatzen den lehenengo gauzetako bat, gaua kalean igaro eta irainak, mehatxuak, lapurretak edo erasoak jasan dituztela dioten pertsonen proportzio handia da. Biktimizazio-motaren baten prebalentziak eremu publikoetan gaua igaro duten edo behin edo behin gaua igaro duten hamar pertsonetatik seiri eragiten die. Hala ere, intzidentzia hau nabarmen handiagoa da emakumeengan, izan ere biktimizazio-motaren bat adierazten dute, emakumeen %67,2k eta gizonen %59,5ek.

Jasotako biktimizazio-mota desberdinak alderatzen direnean, denetan emakumeen biktimizazioa handiagoa dela egiaztatzen da, eta desberdintasunak bereziki handiak dira eraso fisikoei dagokienez (emakumeen %31,3k eta gizonen %20,4k aipatzen dituzte) eta batez ere eraso sexualei dagokienez (emakumeen %22,7k eta gizonen %1,8k baino ez).

4.5. Ikasketa-maila eta jardueraren egoera

Kontsultatutako bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsona guztien %58 inguruk ez du ikasketarik edo lehen mailako ikasketak ditu. Emakumeen artean proportzioa pixka bat txikiagoa bada ere (emakumeen %52,8 eta gizonen %59,1), ikusi daitezkeen desberdintasunak ez dira estatistikoki esanguratsuak, eta beraz, bi taldeek antzeko ikasketa-maila dutela esan daiteke. Nolanahi ere, genero-desberdintasunak pixka bat handiagoak dira kalean edo aterpetxeetan gaua igarotzen duten pertsonen artean. Kasu honetan, emaitzak alderantzikatu egiten dira eta ikasketarik ez dutenen proportzioa %23koa da emakumeen artean, eta %16koa gizonen artean.

35. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, ikasketa-mailaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Ikasketa-maila									
Ikasketarik gabea	22,8	15,9	16,9	9,3	13,2	12,2	12,2	14,2	13,8
Lehen hezkuntzakoak	40,4	40,6	40,5	40,7	47,3	45,6	40,6	44,9	43,9
Derrigorrezko hezkuntzakoak	29,8	33,9	33,3	40,7	34,4	36,0	38,4	34,2	35,1
Unibertsitate-mailakoak	1,8	6,1	5,5	7,5	4,0	4,9	6,3	4,8	5,1
Daturik gabe	5,3	3,5	3,7	1,9	1,1	1,3	2,6	2,0	2,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Jardueraren egoerari dagokionez, lortutako emaitzek nabarmentzen dutenez, oro har, biztanleriarekin gertatzen dena ez bezala, pertsona aktibo eta ez-aktiboen kopurua oso antzekoa da bizitegi-bazterketa larrian dauden gizon eta emakumeen artean. Halaber, emakume eta gizonen artean ikusi diren desberdintasunak oso nabarmenak ez badira ere, talde honen ezaugarri bereizgarriak nabarmentzea merezi du: batetik langabezia-egoeren intzidentzia handia (gizon eta emakumeen %42 inguru), eta bestetik, prestakuntzaren bat egiten ari diren pertsonen proportzio handia (emakumeen %21,4 eta gizonen %26,7). Lanean ari direla dioten pertsonen proportzioa %6,1ekoa baino ez da, eta proportzio hau pixka bat txikiagoa da emakumeen artean (%5,5) gizonen artean baino.

**36. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, jarduera-egoeraren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236**

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Jarduera-egoera									
Aktiboak	68,4	63,8	64,4	42,5	39,2	40,0	48,0	48,0	48,0
+ Praktiketako lana	5,3	3,5	3,7	5,6	7,9	7,3	5,5	6,3	6,1
+ Langabezian	63,2	60,3	60,7	36,9	31,3	32,7	42,4	41,7	41,8
Ez-aktiboak	15,8	23,5	22,4	52,3	54,8	54,2	44,6	43,6	43,9
+ Pentsioduna	5,3	8,1	7,7	16,4	15,5	15,7	14,0	12,8	13,1
+ Ikaslea	3,5	12,2	10,9	26,2	34,8	32,6	21,4	26,7	25,6
+ Zentro okupazionala	0,0	0,0	0,0	5,1	3,5	4,0	4,1	2,3	2,7
+ Lanerako ezintasuna	0,0	1,4	1,2	1,9	1,0	1,2	1,5	1,1	1,2
+ Beste egoera batzuk	7,0	1,7	2,5	2,8	0,0	0,7	3,7	0,6	1,3
Beste egoera batzuk	7,0	6,1	6,2	2,8	3,9	3,6	3,7	4,7	4,4
+ Lan-baimenik gabe	5,3	2,3	2,7	0,9	2,6	2,2	1,8	2,5	2,3
+ Noizbehinkako lanak	0,0	1,2	1,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,4	0,3
+ Bestelakoak	1,8	2,6	2,5	1,9	1,3	1,4	1,8	1,8	1,8
Daturik gabe	8,8	6,7	7,0	2,3	2,1	2,2	3,7	3,7	3,7
Guztira	100,0	95,7	96,3	100,0	96,1	97,1	100,0	96,0	96,8
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Kontsultatutako emakume eta gizonen %48 inguru aktibotzat hartu daitezke beren jarduerarekin duten harremana kontuan hartuta. Langabezian daudenei azken lanari buruz galdetuz gero, eta lanean dabilzaneiei beren egungo lanari buruz galdetuz gero, talde honek oso gabezia nabarmenak dituela azpimarratzen dute emaitzek, biztanleria orokorrarekin alderatuta. Desberdintasun hauen artean, egiaztagarriak gizonen zein emakumeen kasuan, nabarmentzekoa da lehen sektoreari lotutako jarduera-kopuru handiagoa eta industria eta zerbitzuekin lotutako produkzio-sektoreen presentzia txikiagoa.

Bestalde, berretsi egiten da bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kasuan ere, zerbitzuen sektorean emakumeen kopurua nabarmen handiagoa dela (%66,9) gizonena baino (%44,1), eta eraikuntza-sektorea gizonen lanen artean garrantzitsu samarra dela (%18,4) baina ez emakumeen artean.

Azkenik, lanean dauden pertsonen egungo lan-baldintzak eta langabezian daudenen azken laneko lan-baldintzak kontuan hartuz, lortutako emaitzek agerian jartzen dute bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsona ugari lanean jasaten duten prekarietate-egoera. Egoera ohikoenak behin-behinekotasuna (%40) edo kontraturik gabeko lana (%26,5) dira. Azken egoera honen prebalentzia %37koa da jardunean dauden emakumeen artean eta %23,5ekoa gizonen artean.

**37. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden eta lanean ari diren edo langabezia dauden pertsonak, sexuka eta beren lan-jarduera egiten duten edo egin izan duten sektore ekonomikoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=593**

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Jarduera-sektorea			
Lehen sektorea	6,9	11,2	10,3
Industria	3,8	4,3	4,2
Eraikuntza	0,0	23,5	18,4
Zerbitzu-sektorea.	66,9	44,1	49,1
Sailkatu gabe	12,3	7,1	8,3
Daturik gabe	10,0	9,7	9,8
Guztira	100,0	100,0	100,0
Kontratu-egoera			
Kontratu mugagabea	6,9	11,9	10,8
Aldi baterako kontratua	33,1	41,9	40,0
Kontraturik gabe	36,9	23,5	26,5
Beste egoera batzuk	11,5	11,0	11,1
Daturik gabe	11,5	11,7	11,6
Guztira	100,0	100,0	100,0
K	130	463	593

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Jarduerarekin lotutako egoera nagusiari buruz galdetzerakoan, lana dutela kontsultatutako pertsonen %6,1ek bakarrik adierazi izana alde batera utzita, %16,7 inguruk dio diru-sarrerak ematen dizkion lanen bat egiten duela, txikia izan arren. Egoera hauen intzidentzia ezkutuko lanarenaren presentziarekin alderatu liteke, eta gizonen artean (%18) emakumeen artean baino pixka bat handiagoa da, emakumeen %12k bakarrik adierazten baitu egoera honetan dagoela. Berriz ere, kasu honetan, oro har, biztanleriaren artean gertatzen den bezala, ezkutuko lanaren arloan nolabaiteko segmentazioa antzeman daiteke. Enplegu hauetan jarduten duten gizonak gehienbat txatar biltzen edo lantxoak egiten aritzen dira, eta egoera berean dauden emakumeak, aldiz, zerbitzu pertsonalekin eta mandatuekin lotutako lanak egiten dituzte.

**38. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, diru-sarrerak ematen dizkien lan-jardueraren bat gauzatzearen arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236**

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Daturik gabe	10,5	4,6	5,5	1,4	4,0	3,4	3,3	4,2	4,0
Ez du egiten	77,2	73,6	74,1	86,9	80,0	81,8	84,9	77,7	79,3
Egiten du	12,3	21,7	20,4	11,7	16,0	14,9	11,8	18,0	16,7
+ Lantegi okupazionalak	0,0	1,2	1,0	5,6	9,0	8,2	4,4	6,2	5,8
+ Zerbitzu pertsonalak eta mandatuak	3,5	3,2	3,2	5,1	2,9	3,5	4,8	3,0	3,4
+ Txatar-bilketa	5,3	9,6	9,0	0,0	0,8	0,6	1,1	3,9	3,3
+ Lantxoak	0,0	4,1	3,5	0,0	0,6	0,5	0,0	1,9	1,5
+ Merkataritza	1,8	0,9	1,0	0,0	1,5	1,1	0,4	1,2	1,1
+ Eskulanak, artisautza	0,0	0,9	0,7	0,9	0,3	0,5	0,7	0,5	0,6
+ Bestelakoak	1,8	2,0	2,0	0,0	0,8	0,6	0,4	1,2	1,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

* Informazioaren bat eman duten pertsonen banaketak bakarrik bildu dira.

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

4.6. Diru-sarreraren maila eta iturriak

Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen lotutako muturreko ahultasun-adierazle argienetako bat diru-sarrerarik ez duten pertsonen kopuru handi samarra da. 2014ko EAEko gaueko zenbaketan kontsultatutako pertsonetatik, gizonen %21,1ek eta emakumeen %13,3k ez zuten diru-sarrerarik. Gizonen artean diru-sarrerarik ez dutenen kopurua handiagoa izatea 2012ko gaueko zenbaketako emaitzek ere egiaztatzen dute, eta baita Eustaten Etxerik Gabeko pertsonen buruzko 2005 eta 2012ko inkestek ere. Beraz, joera etengabea dela esan daiteke nolabait.

Inketa honi dagokionez, gehitu daiteke, aldaketa hauek funtsean, kalean edo aterpetxeetan gaua igaro duten pertsonen artean ikusi direla (emakumeen %15,8k eta gizonen herenak ez dutela inolako diru-sarrerarik adierazi dute). Izan ere, gaua epe ertain edo luzeko baliabideetan igarotzen duten pertsonen artean ez baitago ia desberdintasunik.

39. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, diru-sarrerak izan edo ez izatearen arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Diru-sarrerak									
Diru-sarrerarik ez	15,8	33,3	30,8	12,6	14,4	13,9	13,3	21,1	19,4
Diru-sarreraren bat	77,2	62,9	64,9	86,0	85,0	85,3	84,1	77,1	78,6
Daturik gabe	7,0	3,8	4,2	1,4	0,6	0,8	2,6	1,8	1,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAE**n** bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Oro har, bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen dituzten diru-sarreraren iturri nagusia prestazio publikoak dira. Prestazio publikoren bat jasotzen dute bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsona guztien %42k: %46,5 emakumeak dira eta %4,1 gizonak. Diru-sarreraren iturri ohikoenak dira, batetik, DSBE (emakumeen %20,7k eta gizonen %17,7k jasotzen dute), eta bestetik, hirugarren sektoreko erakundeen dohaintza (emakume eta gizonen %18 inguruk).

40. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, diru-sarreraren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Diru-sarreraren iturriak									
Lana	14,0	20,3	19,4	15,9	13,2	13,9	15,5	15,8	15,7
Prestazioak edo laguntza publikoak	22,8	19,4	19,9	52,8	53,1	53,0	46,5	41,0	42,2
+ DSBE	1,8	4,6	4,2	25,7	25,0	25,2	20,7	17,7	18,4
+ Langabezia	7,0	4,9	5,2	2,8	2,7	2,8	3,7	3,5	3,6
+ Ezintasuna, Erretiroa	12,3	7,8	8,5	15,0	15,8	15,6	14,4	13,0	13,3
+ Beste bat	3,5	3,5	3,5	22,0	23,7	23,3	18,1	16,5	16,8
Laguntza-sare soziala.	17,5	17,1	17,2	14,5	11,8	12,5	15,1	13,7	14,0
+ Senideak	15,8	8,7	9,7	10,3	6,8	7,7	11,4	7,5	8,3
+ Lagunak	8,8	9,9	9,7	7,0	6,0	6,2	7,4	7,4	7,4
+ Auzokoak	3,5	2,3	2,5	0,5	0,6	0,6	1,1	1,2	1,2
Hirugarren sektoreko erakundeak	3,5	8,1	7,5	22,4	23,7	23,4	18,5	18,1	18,2
Kalean eskean aritzea	28,1	14,5	16,4	0,5	1,1	1,0	6,3	5,9	6,0
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

* Informazioaren bat eman duten pertsonen banaketak bakarrik bildu dira.

Iturria: geuk eginikoa, EAE**n** bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Gainerakoan, emakume eta gizonen arteko desberdintasunik handienak kalean bizi diren edo aterpetxeetan gaua igarotzen duten pertsonen artean ikus daitezke. Talde honetan, emakumeek gizonen baino gehiago adierazi ohi dute eskean lortutako diru-sarrerak dituztela, eta gizonen nahiago izaten dituzte hirugarren sektoreko lanetik edo dohaintzetatik lortutako diru-sarrerak.

Kasu honetan, nazionalitatea oso kontuan hartu behar den aldagaia da emaitzak aztertzerakoan, izan ere, ikus daitekeenaren arabera, genero-desberdintasunik handienak ez dira espainiar nazionalitatea duten pertsonen artean ematen, atzerritarren artean baizik. Atzerritarren artean, genero-arrakala are handiagoa da diru-sarrerarik ez duten pertsonen (emakumeen %18,5 eta gizonen %28,2) eta DSBE jasotzen duten pertsonen artean. Dena den, desberdintasun handienak nazionalitateari lotutakoak direla ikus daiteke, atzerritarren %26,1ak bakarrik jasotzen baitute prestazio edo laguntza publikoren bat, espainiarren artean, aldiz %63,4k bakarrik jasotzen du.

41. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka eta nazionalitateka, diru-sarreraren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236

	Espainiarra			Atzerritarra			Guztira		
	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Diru-sarrerarik ez	8,5	9,6	9,3	18,5	28,2	26,4	13,3	21,1	19,4
Diru-sarreraren iturriak									
Lana	14,9	15,0	15,0	16,2	16,3	16,3	15,5	15,8	15,7
Prestazioak edo laguntza publikoak	63,8	63,2	63,4	27,7	25,7	26,1	46,5	41,0	42,2
+ DSBE	27,7	30,7	29,9	13,1	8,8	9,6	20,7	17,7	18,4
+ Langabezia	5,7	6,1	6,0	1,5	1,8	1,7	3,7	3,5	3,6
+ Ezintasuna, Erretiroa	27,0	29,4	28,8	0,8	1,6	1,4	14,4	13,0	13,3
+ Beste bat	21,3	16,8	17,9	14,6	16,3	16,0	18,1	16,5	16,8
Laguntza-sare soziala.	17,0	17,3	17,2	13,1	11,2	11,6	15,1	13,7	14,0
+ Senideak	16,3	12,2	13,3	6,2	4,2	4,6	11,4	7,5	8,3
+ Lagunak	5,0	7,1	6,5	10,0	7,5	8,0	7,4	7,4	7,4
+ Auzokoak	2,1	0,5	0,9	0,0	1,8	1,4	1,1	1,2	1,2
Hirugarren sektoreko erakundeak	13,5	11,7	12,1	23,8	22,6	22,8	18,5	18,1	18,2
Kalean eskean aritzea	3,5	7,9	6,7	9,2	4,6	5,4	6,3	5,9	6,0
K	141	394	535	130	571	701	271	965	1.236

* Informazioaren bat eman duten pertsonen banaketak bakarrik bildu dira.

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Oro har, emakumeek eta gizonen diru-sarrera gutxi dituzte: emakumeen %53k eta gizonen %50ek ez dute diru-sarrerarik edo badituzte ere, 500 euro baino gutxiagokoak dira.

42. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, diru-sarreraren kopuruaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Zenbatekoa (€/hileko)									
Diru-sarrerarik ez	15,8	33,3	30,8	12,6	14,4	13,9	13,3	21,1	19,4
< 249	42,1	24,6	27,1	15,0	15,0	15,0	20,7	18,4	18,9
250-499	14,0	10,7	11,2	20,1	26,0	24,5	18,8	20,5	20,1
500-749	5,3	8,7	8,2	21,0	24,5	23,6	17,7	18,9	18,6
750-999	0,0	3,2	2,7	10,3	8,4	8,9	8,1	6,5	6,9
1.000 edo gehiago	1,8	1,7	1,7	6,5	3,2	4,1	5,5	2,7	3,3
Daturik gabe	21,1	17,7	18,2	14,5	8,5	10,1	15,9	11,8	12,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	141	394	535	130	571	701	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

4.7. Osasun-egoera eta osasun-sistemara jotzeko aukera

Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen artean, osasunaren hautematea biztanleria osoarena baino txarragoa da. Oro har, EAeko 15 urtetik gorako biztanleriak –EAeko Osasun Inkestako datuen arabera– osasun ona edo oso ona dutela adierazten duten pertsonen proportzioa %80koa da, eta portzentaje hau %63koa da etxerik edo etxebizitzarik ez duten pertsonen artean. Halaber, talde honetan genero-desberdintasun handiak daude, izan ere, hala-holako osasuna, osasun txarra edo oso txarra duten gizonen portzentajea %33koa da, eta emakumeena %44koa. Genero-desberdintasunik handienak kalean edo aterpetxeetan gaua igarotzen duten pertsonen artean daude –emakumeen %54,4k hala-holako osasuna edo osasun txarra edo oso txarra duela dio, eta gizonak %33,7 dira–. Hala ere, aipatu behar da, desberdintasun hau egoteko arrazoietakoa bat egoera honetan dauden gizonen artean gazte gehiago daudela izan daitekeela.

43. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, norberak bere osasunari buruz duen hautematearen arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua

K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Norbere osasunaren hautematea									
Oso ona edo ona	40,4	62,9	59,7	57,9	66,5	64,3	54,2	65,2	62,8
Hala-holakoa	29,8	21,2	22,4	29,4	23,7	25,2	29,5	22,8	24,3
Txarra edo oso txarra	24,6	12,5	14,2	11,7	8,7	9,5	14,4	10,1	11,0
Daturik gabe	5,3	3,5	3,7	0,9	1,1	1,1	1,8	2,0	1,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeek, gizonak baino osasunaren hautemate txarragoa ez ezik, gizonak baino osasun-arazo larri edo kroniko gehiago jasaten dituzte. Jasotako datuetatik ondoriozta daitekeen bezala, arazo hauek dituzte emakumeen %47,2k eta gizonen %39k.

44. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, osasun-arazo larri edo kronikoa izatearen eta tratamendu medikoaren hautematearen arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua

K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Egoera eta tratamendua									
Osasun-arazo larri edo kronikoak	47,4	35,1	36,8	47,2	41,1	42,7	47,2	39,0	40,8
+ Buru-nahasmenduak	14,0	7,2	8,2	22,4	17,3	18,6	20,7	13,7	15,2
+ Hepatitis, GIB-hiesa	8,8	6,7	7,0	11,7	12,6	12,4	11,1	10,5	10,6
+ Arnas aparatuko gaixotasunak	15,8	8,7	9,7	11,2	8,5	9,2	12,2	8,6	9,4
+ Traumatismoak eta hezur eta artikulazioetako gaixotasunak	10,5	8,4	8,7	10,3	6,8	7,7	10,3	7,4	8,0
+ Arnas aparatuko gaixotasunak	8,8	5,8	6,2	8,9	7,7	8,0	8,9	7,0	7,4
+ Tratamendua jasotzen du *	74,1	71,9	72,3	95,0	87,1	89,3	90,6	82,2	84,3
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

* Tratamendu medikoa jasotzen ari direla adierazi duten pertsonen erantzunak bakarrik jaso dira.

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen gaixotasun-mota kontuan hartuta, ikus daiteke patologia-mota ohikoenak prebalentzia gehiago dutela emakumeen artean. Talde bien arteko desberdintasun handienak buru-nahasmendu eta -gaixotasunen kategorian daude. Jasotako erantzunen arabera, patologia hau jasango lukete gizonen %13,7k eta emakumeen %20,7k.

Oro har, osasun-arazo larri edo kronikoa dutela adierazten duten pertsona gehienek (%84,3k) tratamendu medikoa jasotzen ari direla diote, gutxienez aipatutako arazoetako baterako. Proporzio hori pixka bat handiagoa da emakumeen kasuan.

Osasun-txartela edukitzeari dagokionez, osasun-txartela duten emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa da. Desberdintasun hauek gehiago ikusten dira atzerritarren artean, nazionalitate espainiarra duten pertsonen artean baino –talde honetan emakumeen eta gizonen %95 inguruk dauka osasun-txartela–. Atzerriko biztanleriaren barnean, herenak inguruk ez du osasun-txartelik eta proporzio hau handiagoa da gizonen artean (gizonen %35ek eta emakumeen %28,5ek).

45. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, osasun-txartela edukitzearen eta azken hiru hilabeteetan zerbitzuak erabiltzearen arabera.
2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Osasun-txartela									
Badauka	59,6	60,0	60,0	90,2	84,5	86,0	83,8	75,8	77,5
Ez dauka	35,1	37,1	36,8	9,8	14,7	13,4	15,1	22,7	21,0
Daturik gabe	5,3	2,9	3,2	0,0	0,8	0,6	1,1	1,6	1,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Zerbitzuen erabilera azken hiru hilabeteetan									
Osasun-zentroa (ambulatorioa, ospitalea)	54,4	53,6	53,7	89,3	75,2	78,8	81,9	67,5	70,6
Osasun mentaleko zentroa.	19,3	13,6	14,4	32,2	33,4	33,1	29,5	26,3	27,0
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Emakumeen osasun-egoera, eskasagoa izateaz gain, osasun-zentroetara gizonak baino gehiago joaten dira. Azken hiru hilabeteotan, bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeen %82 joan da ambulatoriora, eta gizonen artean, aldiz, kopurua %68koa da.

4.8. Tabakoa, alkohola eta beste droga batzuen kontsumoa

Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen artean oso hedatuta dago tabakoaren kontsumoa. Izan ere, talde honen barnean, egunero erretzea da gehiengoaren kontsumo-jarraibidea, gizonen artean (%55,8) eta neurri txikiagoan, baita emakumeen artean ere (%51,7). Oro har, egunero tabakoa kontsumitzearen prebalentzia emakumeen artean txikiagoa bada ere, kalean edo aterpetxeetan lo egiten duten pertsonen artean joera alderantzikatu egiten da. Talde honen barnean, egunero tabakoa erretzen dutela adierazten duten emakumeen kopurua bereziki handia da (%68,4) eta egoera berean dauden gizonen kopurua baino nabarmen handiagoa (%57,7).

**46. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, tabako-kontsumoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236**

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emaku meak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Tabakoa									
Egunero erretzen du	68,4	57,7	59,2	47,2	54,7	52,8	51,7	55,8	54,9
Noizean behin erretzen du	1,8	8,1	7,2	2,8	7,6	6,4	2,6	7,8	6,6
Erretzaile ohia	5,3	12,2	11,2	12,1	11,0	11,3	10,7	11,4	11,2
Ez du inoiz erre	21,1	19,4	19,7	37,9	25,8	28,9	34,3	23,5	25,9
Daturik gabe	3,5	2,6	2,7	0,0	1,0	0,7	0,7	1,6	1,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Kontsulta egin zaien pertsonen jatorria da, sexuarekin batera, tabakoaren kontsumoa ondoen azaltzen duen aldagaietako bat. EAEn edo estatuko gainerako autonomia-erkidegoetan jaiotako pertsonen artean, tabakoa egunero erretzea oso maiz egiten duten jarraibidea da, eta ia pertsona horien guztien %80 biltzen ditu, pertsonen sexua kontuan hartu gabe. Ostera, genero-desberdintasunak nabarmenagoak dira atzeritarren artean: gizonen dagokionez, eguneroko tabako-kontsumoa %39,7koa da, eta emakumeen dagokionez, berriz %28,6koa.

**47. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa jatorrizko herrialdeka eta sexuka, tabako-kontsumoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236**

	EAE edo Estatuko gainerako autonomia-erkidegoak			Atzerria			Guztira		
	Emaku meak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Tabakoa									
Egunero erretzen du	79,0	81,4	80,8	28,6	39,7	37,5	51,7	55,8	54,9
Noizean behin erretzen du	4,0	3,8	3,8	1,4	10,3	8,5	2,6	7,8	6,6
Erretzaile ohia	4,8	7,8	7,1	15,6	13,6	14,0	10,7	11,4	11,2
Ez du inoiz erre	10,5	5,9	7,1	54,4	34,5	38,5	34,3	23,5	25,9
Daturik gabe	1,6	1,1	1,2	0,0	1,9	1,5	0,7	1,6	1,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	124	371	495	147	594	741	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Datu hauek 2012ko Euskadi eta Drogak datuen multzoarekin³⁴ alderatzen baditugu, emaitzek agerian jartzen dute bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen artean eguneroko kontsumo-tasa, biztanleriak orokorrean duenaren bikoitza dela, bai emakumeen artean, bai gizonen artean.

Tabako-kontsumoa ez bezala, ohiko alkohol-kontsumoa jardunbide hedatuagoa da bizitegi-bazterketa larrian dagoen biztanleriaren artean EAEn bizi den gainerako biztanleriaren artean baino. 2012ko Euskadi eta Drogak azterlaneko datuen arabera –multzo honetakoak dira eskura ditzakegun azken datuak–, EAEn bizi diren 15 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %26,5ek bakarrik adierazten du ez duela alkoholik kontsumitu azken urtean. Galdetu diegun pertsonen artean, ostera, proportzio hori %56koa da.

³⁴ Multzo honetako azken datu eskuragarriak dira, EAEn bizi diren 15 eta 74 urte bitarteko biztanleriari buruzkoak. EAeko biztanleria kontuan hartuta, orokorrean, adin tarte horretako biztanleriaren %25,7k erre ohi du tabakoa. Tabakoaren ohiko kontsumoaren tasa %28,2koa zen gizonen artean, eta %23,2koa emakumeen artean.

Oro har, lortutako datuek nabarmendu egiten dute alkoholaren eguneroko kontsumoarekin –gutxienez, asteen 5 aldiz alkohola kontsumitzea– lotutako jarraibideak ez daudela oso hedatuta bizitegi-bazterketa larrian dauden biztanleriaren artean. Jarraibide hori dute galdera egin zaien pertsona guztien %6,6k. Dena den, gizonen artean prebalentzia handiagoa da (%9,2) emakumeen artean baino (%4,1). Biztanleria osoa kontuan hartuz, biztanleriaren %13,5ek kontsumitzen du alkohola, eta kasu honetan ere prebalentzia handiagoa da gizonen artean (gizonen %19,1ek eta emakumeen %7,9k). Hala ere, datu hauetan oinarrituta ezin daiteke egiaztatu bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonak gainerako biztanleriak baino alkohol-kontsumo problematikoagoak dituztenik –jasotako datuek kontsumo-maiztasuna bakarrik aipatzen dute, eta beraz, ezin daiteke eguneroko kontsumoa kontsumo problematikoarekin alderatu–, baina orokorrean, egiaztatu daiteke, alkoholaren kontsumo-maiztasuna txikiagoa dela bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen artean, eta talde honen barnean emakumeen kontsumo-maiztasuna ere txikiagoa dela.

Bestalde, azpimarratu behar da, kalean edo aterpetxeetan gaua igarotzen duten pertsonak egunero edateko ohitura handiagoa dutela, prebalentzia ia sei aldiz handiagoa baita egonaldi ertain edo luzeko beste baliabide-mota batzuetan dauden pertsonekin alderatuz gero (%18,2 eta %3,1). Gainera, kasu honetan aldea nabarmenagoa da emakumeen artean, %15,8k egunero alkohola kontsumitzen baitu, baina beste baliabide batzuetan bizi diren emakumeen %1ek bakarrik kontsumitzen du alkohola.

4.8. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, alkohol-kontsumoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Alkohola									
Egunero	15,8	15,1	15,2	0,9	3,1	2,5	4,1	7,4	6,6
Astean 5-6 egun	0,0	3,5	3,0	0,0	0,8	0,6	0,0	1,8	1,4
Astean 3-4 egun	1,8	3,8	3,5	0,5	1,5	1,2	0,7	2,3	1,9
Astean 1-2 egun	14,0	10,4	10,9	7,5	6,6	6,8	8,9	8,0	8,2
Hilabeteen 2-4 egun	3,5	4,6	4,5	5,1	6,0	5,8	4,8	5,5	5,3
Hilabeteen behin baino gutxiagotan	10,5	10,7	10,7	17,8	15,3	15,9	16,2	13,7	14,2
Ez dute kontsumitu azken urtean	45,6	44,9	45,0	62,1	61,0	61,3	58,7	55,2	56,0
Daturik gabe	8,8	7,0	7,2	6,1	5,8	5,9	6,6	6,2	6,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Eguneroko tabako-kontsumoarekin gertatzen den bezala, eguneroko alkohol-kontsumoaren prebalentzia nabarmen handiagoa da Estatuan jaiotako pertsonen artean atzerritarren artean baino. Nolanahi ere, genero-desberdintasunak ere handiagoak dira atzerritarren artean. Talde honetan, alkohola egunero edaten duten pertsonetatik %5,6 bakarrik dira emakumeak, eta atzerritarrak ez diren artean, berriz, proportzio hau %14,3koa da. Bestalde, eta adinaren aldagaia kontuan hartzen denean, eguneroko alkohol-kontsumoaren jarraibidea hedatuagoa dago pertsona helduagoen artean: 45 urte edo gehiago dituzten pertsonen artean gizonen alkohol-kontsumoa %16,6koa eta emakumeena %4,9koa.

49. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa jatorrizko herrialdeka eta sexuka, alkohol-kontsumoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua

K=1.236

	EAE edo Estatuko gainerako autonomia-erkidegoak			Atzerria			Guztira		
	Emaku meak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Alkohola									
Egunero	7,3	11,6	10,5	1,4	4,7	4,0	4,1	7,4	6,6
Astean 5-6 egun	0,0	3,0	2,2	0,0	1,0	0,8	0,0	1,8	1,4
Astean 3-4 egun	1,6	3,8	3,2	0,0	1,3	1,1	0,7	2,3	1,9
Astean 1-2 egun	9,7	7,8	8,3	8,2	8,1	8,1	8,9	8,0	8,2
Hilabetean 2-4 egun	5,6	4,9	5,1	4,1	5,9	5,5	4,8	5,5	5,3
Hilabetean behin baino gutxiagotan	17,7	12,1	13,5	15,0	14,6	14,7	16,2	13,7	14,2
Ez dute kontsumitu azken urtean	49,2	52,3	51,5	66,7	57,1	59,0	58,7	55,2	56,0
Daturik gabe	8,9	4,6	5,7	4,8	7,2	6,7	6,6	6,2	6,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
K	124	371	495	147	594	741	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Legez kontrako drogen kontsumoari buruzko datuen arabera, esan daiteke bizitegi-bazterketa larrian dauden herritarren legez kontrako drogen egungo kontsumoa gainerako herritarrena baino handiagoa dela, oro har, eta, gainerako pertsonen bezala, emakumeek gizonen baino erabilera-prebalentzia txikiagoa dutela.

Haxitari dagokionez, kontsumo hedatuena duen legez kontrako substantzia da, datuen arabera, bizitegi-bazterketa larria duten pertsona guztien %16 inguruk azken hilabetean haxixa kontsumitu du. Prebalentzia %11,8koa da emakumeen artean, eta %17,2koa gizonen artean. Kokaina edo heroinaren kontsumoari dagokionez, prebalentziak askoz txikiagoak dira, %1,4 eta %0,8koak hurrenez hurren, eta kasu honetan ere prebalentzia txikiagoa da emakumeen artean.

50. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, beste droga batzuen kontsumoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua

K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	Emaku meak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Beste droga batzuk*									
Haxixa	26,3	24,9	25,1	7,9	12,9	11,6	11,8	17,2	16,0
Kokaina	0,0	2,6	2,2	0,5	1,1	1,0	0,4	1,7	1,4
Heroina edo metadona	1,8	1,4	1,5	0,0	0,6	0,5	0,4	0,9	0,8
Legez kanpoko beste substantzia batzuk	7,0	4,1	4,5	0,5	1,0	0,8	1,8	2,1	2,0
Legez kontrako substantziaren bat	28,1	26,4	26,6	8,4	13,5	12,2	12,5	18,1	16,9
Legez kontrako substantziaren bat haxixa izan ezik	8,8	6,1	6,5	0,9	2,3	1,9	2,6	3,6	3,4
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

2012. urteko Euskadi eta Drogak azterlanaren arabera, 15 eta 75 urte bitarteko EAEko biztanleriaren %0,7 inguruk azken hilabetean haxixa ez den legez kontrako beste substantziaren bat kontsumitu duela adierazi du (emakumeen %0,2k eta gizonen %1,2k). Galdetu diegun pertsonen artean, ostera, proportzio hori %3,4koa da. Legezko drogekin gertatzen den bezala, kasu honetan ere kalean edo aterpetxeetan gaua igarotzen duten pertsonen kontsumo-tasa handiagoak dituzte. Halaber, prebalentziak handiagoak dira EAEko edo Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetako biztanleriaren artean.

51. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa jatorrizko herrialdeka eta sexuka, beste droga batzuen kontsumoaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua

K=1.236

	EAE edo Estatuko gainerako autonomia-erkidegoak			Atzerria			Guztira		
	Emaku meak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira	Emakum eak	Gizonak	Guztira
Beste droga batzuk*									
Haxixa	23,4	26,1	25,5	2,0	11,6	9,7	11,8	17,2	16,0
Kokaina	0,8	2,7	2,2	0,0	1,0	0,8	0,4	1,7	1,4
Heroina edo metadona	0,8	1,6	1,4	0,0	0,5	0,4	0,4	0,9	0,8
Legez kanpoko beste substantzia batzuk	2,4	3,8	3,4	1,4	1,0	1,1	1,8	2,1	2,0
<i>Legez kanpoko substantziaren bat</i>	24,2	28,0	27,1	2,7	12,0	10,1	12,5	18,1	16,9
<i>Legez kanpoko substantziaren bat haxixa izan ezik</i>	4,0	6,7	6,1	1,4	1,7	1,6	2,6	3,6	3,4
K	124	371	495	147	594	741	271	965	1.236

Iturria: geuk eginikoa, EAE n bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

4.9. Gizarte-zerbitzuen erabilera

Inkesta egin duten pertsonak gehien erabiltzen duten baliabidea ostatu hartzeko zerbitzuak dira, azken hiru hilabeteetan identifikatutako pertsona gehienek erabili dituzte (%92,4k). Ostatu hartzeko zerbitzuen ostean, bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsona gehienek erabiltzen dituzten zerbitzuak osasun-zentroak (%70,6) eta Lanbideren bulegoa (%60,1) dira. Inkesta egin duten pertsonen erdiek baino gutxiagok gainerako baliabideak erabili dituzte azken hiru hilabeteetan. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea pertsona horien %41,4 prestakuntza-ikastaroak ematen diren zentroetara joan direla, %38,5 oinarritzko gizarte-zerbitzuetara joan direla edo %34,5 eguneko zentro batean egon dela.

52. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, azken hiru hilabeteetan egin duten zerbitzuen erabilerearen arabera 2014ko urriaren 29-30eko gaua

K=1.236

	Kalea eta aterpetxeak			Beste baliabide batzuk			Guztira		
	E	G	Guzt.	E	G	Guzt.	E	G	Guzt.
Ostatu hartzeko zerbitzuak	63,2	78,8	76,6	100,0	100,0	100,0	92,3	92,4	92,4
Jantoki soziala	35,1	61,7	58,0	6,1	14,4	12,2	12,2	31,3	27,1
Higiene- edo garbitasun zerbitzuak	26,3	43,2	40,8	2,3	7,9	6,5	7,4	20,5	17,6
Eguneko zentroa	26,3	36,5	35,1	24,8	38,2	34,8	25,1	37,6	34,9
Lan-munduan txertatzeko enpresak edo tailerrak	1,8	16,2	14,2	18,7	22,7	21,7	15,1	20,4	19,3
Prestakuntza-zentroak	10,5	27,0	24,6	46,3	50,6	49,5	38,7	42,2	41,4
Oinarritzko gizarte zerbitzuak	43,9	41,4	41,8	44,9	34,2	36,9	44,6	36,8	38,5
Gizarte-larrialdietarako zerbitzuak	40,4	48,4	47,3	17,3	14,0	14,9	22,1	26,3	25,4
Osasun-zentroa (anbulatorioa, ospitalea)	54,4	53,6	53,7	89,3	75,2	78,8	81,9	67,5	70,6
Osasun mentaleko zentroa.	19,3	13,6	14,4	32,2	33,4	33,1	29,5	26,3	27,0
Lanbideko bulegoak.	24,6	41,4	39,1	66,8	71,5	70,3	57,9	60,7	60,1
Desintoxikatze zentroa edo programa	10,5	12,5	12,2	10,3	16,1	14,6	10,3	14,8	13,8
Kaleko hezkuntzako programa	12,3	22,3	20,9	5,1	4,7	4,8	6,6	11,0	10,0
Etorkinei laguntzeko zentroak	1,8	15,9	13,9	20,6	24,7	23,6	16,6	21,6	20,5
<i>+ Erabilitako zerbitzuen batez besteko kopurua</i>	3,9	5,3	5,1	4,8	5,1	5,0	4,7	5,1	5,0
K	57	345	402	214	620	834	271	965	1.236

* Informazioaren bat eman duten pertsonen banaketak bakarrik bildu dira.

Iturria: geuk eginikoa, EAE n bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Genero-desberdintasun esanguratsuak al daude aztertutako zerbitzuen erabileran? Lortutako emaitzen arabera, baietz erantzun dakiogalder horri. Izan ere, emaitzek adierazten dutenez, emakumeek gizonen baino zerbitzu gutxiago erabiltzeko joera ez ezik -4,7 zerbitzu emakumeek eta 5,1 gizonen-, erabilera-maila desberdinak ere badituzte zerbitzu espezifiko jakin batzuetan.

Oro har, esan liteke, aztertu ditugun zerbitzu ia gehienetan emakumeek erabilera-maila txikiagoa dutela gizonen baino. Diferentzia horiek bereziki handiak dira jantoki sozialetan (inkesta egin baino hiru hil lehenago, noizbait erabili dituzte gizonen %31,3k eta emakumeen %12,2k), eguneko zentroetan (emakumeen %37,6 eta gizonen %25,1) eta higiene- edo garbitasun-zerbitzuetan, hots, dutxa publikoetan eta garbategietan (gizonen %20,5, eta emakumeen %7,4). Joera hori ez da gertatzen ostatu hartzeko zerbitzuetan -asko erabiltzen dituzte, bai emakumeek, bai gizonen-, eta bi zerbitzu zehatzetan, emakumeek gizonen baino nabarmen gehiago erabiltzen baitituzte. Oinarrizko gizarte-zerbitzuak (emakumeen %44,6k eta gizonen %36,8k erabiltzen dituzte) eta osasun-zentroak (anbulatorioak, ospitaleak, etab.) dira bi zerbitzu zehatz horiek.

Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen gehien erabiltzen dituzten zerbitzuekiko duten asebetetzeari dagokionez, aurkikuntza hauek nabarmendu behar dira. Lehenbizi, azpimarratu behar da, oro har, jaso dituzten zerbitzuekiko asebetetze-tasak handi samarrak dira emakume zein gizonen artean, eta asegabetasun-mailak, aldiz, txikiagoak dira. Jasotako zerbitzuekin pozik dauden pertsonen proportzio handiena duten zerbitzuak honako hauek dira: prestakuntza-zentroak (%80,8), osasun mentaleko zentroak (%78,4), eguneko zentroak (%78,3) eta osasun-zentroak orokorrean (%78). Era berean, asegabetasun-portzentaje handiena dutenen artean jantoki sozialak (%13,8) eta Lanbideko bulegoak (%13,1) daude.

Bestalde, eta ikusitako genero-desberdintasunen ikuspegitik, orokorrean, hauteman daiteke, jasotako arretarekin pozik dauden pertsonen proportzioa handiagoa dela gizonen artean emakumeen artean baino (Lanbideko bulegoetan izan ezik). Hala ere, desberdintasunak txikiak dira, eta ezin daitezke esan estatistikoki esanguratsuak direnik, oinarrizko gizarte-zerbitzuen kasuan izan ezik.

53. taula . Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen banaketa sexuka, gehien erabilitako zerbitzuekiko duten asebetetze-mailaren* arabera 2014ko urriaren 29-30eko gaua
K=1.236

	Emakumeak			Gizonak			Guztira		
	Ona	Neutroa	Txarra	Ona	Neutroa	Txarra	Ona	Neutroa	Txarra
Ostatu hartzeko zerbitzuak	73,9	18,6	7,5	76,1	14,2	9,6	75,6	15,2	9,2
Jantoki soziala	64,5	19,4	16,1	68,8	17,7	13,5	68,4	17,8	13,8
Eguneko zentroa	75,4	13,8	10,8	78,9	11,1	10,0	78,3	11,6	10,1
Prestakuntza-zentroak	75,5	18,4	6,1	82,2	10,0	7,9	80,8	11,7	7,5
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	63,1	27,9	9,0	74,2	14,3	11,5	71,3	17,9	10,8
Osasun-zentroa (anbulatorioa, ospitalea)	74,8	15,2	10,0	79,2	11,1	9,8	78,0	12,1	9,8
Osasun mentaleko zentroa.	73,3	17,3	9,3	80,0	12,1	7,9	78,4	13,3	8,3
Lanbideko bulegoak.	63,5	25,0	11,5	60,6	25,8	13,5	61,3	25,6	13,1

* Ona, ez ona, ez txarra, eta txarra epigrafeek «nahikoa pozik», «ez bata, ez bestea»; eta «ez oso pozik» esan nahi dute hurrenez hurren. Balorazioen bat eman duten pertsonen banaketak bakarrik bildu dira.

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

5. EMAKUME GUTXIAGO DAUDE GIZONAK BAINO BIZITEGI-BAZTERKETAKO EGOERA LARRIENETAN? AZALTZEKO ALDERDI BATZUK

Etxegabetasuna generoaren ikuspegitik –edo, gutxienez sexuaren aldagaia kontuan hartuz– aztertzen duten azterlan askok «etxegabetasun ikusezina» edo «ezkutuko etxegabetasuna» terminoak erabiltzen dituzte bereziki gizarte-bazterketako egoeran dauden emakumeengan eragina duten egoerak adierazteko. Hala ere, berez, kontzeptuok fenomeno desberdin bi aipatzen dituztela esan daiteke –egoera jakin batzuen ikusezintasuna eta egoera horiek estali edo ezkutatzea–, eta kontzeptu horiek banan-banan aztertzea merezi dute.

Batetik, bizitegi-bazterketako fenomenoaren zati handienak duen ikusezintasun «estatistikoa», bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen kuantifikazioak egoera agerikoenak bakarrik kontuan hartzeko joera baitu, normalean kalean dauden pertsonekin edo etxerik gabeko pertsonentzako baliabideetan bizi direnekin lotutakoak, bereziki larriak diren beste egoera batzuk alde batera utziz. Arazoa ETHOS tipologia osorik erabilia konpon liteke nolabait, azterlan honen laugarren kapituluan egin den eran. Hala ere, metodologiaren erabilerak arazo ugari dakartzala egiaztatu da deskribatutako egoera batzuk zenbatzerakoan, bereziki emakumeengan eragin handiagoa eduki dezaketenak zenbatzerakoan, bigarren mailako datu-iturrietara jo dugunean batez ere.

Bestetik, ezkutuko etxegabetasuna aipatzen denean emakumeen artean arazo honek hartzen duen forma espezifiko gisa, esan ohi da, emakumeek dituzten genero-egozpenengatik, gizonak ez bezalako bizitoki-moduetara sar daitezkeela, eta kaletik edo etxerik gabeko pertsonentzako ostatu hartzeko zerbitzuen erabileratik «urrunduko» lituzkeen zenbait estrategia erabiliko lituzketela. Zentzu honetan, aipatzen da aldi baterako senide edo lagunentzako ostatu hartzeko emakumeek joera handiagoa dutela gizonen baino, edo familiarteko tratatu txarrak edo abusuak luzaroago jasateko prest egongo liratekeela. Hori, nolabait, etxegabetasunaren arriskuari aurre egiteko babes-faktore moduan uler daiteke, baina mendekotasun- eta prekarietate-egoerak ekar ditzake.

Bizitegi-bazterketako egoera jakin batzuk «ikusezin» bihurtu daitezkeela alde batera utzita, orain arte eskura dauzkagun datuek agerian uzten dute, argi eta garbi bizitegi-bazterketako egoerarik larriek (kalean edo etxerik gabeko pertsonentzako baliabideetan ostatu hartuta dauden pertsonak) zein neurritan duten eragin handiagoa –diru-pobreziako egoerak ez bezala, adibidez– gizonengan emakumeengan baino. Zentzu honetan, txosten honetan eskaintzen diren datuak bat datoz beste iturri batzuetako datuekin, etxerik gabekoen eta etxebizitzarik gabekoen kategorietara lotutako egoerak

eragindako pertsonen artean proportzionalki oso emakume gutxi daudela adierazterakoan. Gainera, EAEn biztanleria-talde honi buruz egindako azken azterketako datuen arabera, emakumeen artean etxegabetasunaren iraupena laburragoa da. (SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa 2015: 112)³⁵.

Etixerik gabeko pertsonen artean –bai gaua kalean igarotzen dutenen artean, bai gizarte-baliabideetan ostatu hartzen dutenen artean– emakume gutxiago egotea gutxienez deigarria da, kontuan hartzen bada sozioekonomikoki emakumeek dauzkaten desabantaila handiagoak gizonekin alderatuz gero³⁶. Izan ere, txosten honetarako egin den berrikuspen bibliografikoak agerian uzten ditu gizonengan eraginik ez duten edo eragin gutxiago duten hainbat arrisku-faktore. Edgarrek (2009) proposatutako eskema jarraituz, honako hauek dira arrisku-faktore bereizgarri nagusienak³⁷:

- Egitura-alderdia: enplegu-tasa txikiagoa, kontratazio mugagabearen eta lanaldi osoko kontratazioaren tasa txikiagoa, batez besteko diru-sarrera txikiagoa (soldatak, kapital-etekinak, kotizaziodun prestazio sozialak eta kotizazio gabekoak).
- Alderdi instituzionala³⁸: babes-sistema sozialak nagusiki duen kontribuzio-joera, emakumeentzako gizarte-zerbitzu espezifikoen falta, joera maskulinoa zerbitzu orokorretan, genero-ikuspegiaren gabedia gizarte-zerbitzuetako langileek artatzerakoan, arreta goiztiar eskasa trauma emozionalak edo antzeko arazoetan, arreta integralaren falta.
- Harremanen alderdia: indarkeria matxista (eta zehazki, genero-indarkeria), sexismoarekin lotutako edo loturarik gabeko trauma emozionalen prebalentzia handiagoa (abusuak, bortxaketa, seme-alabengandik urruntzea edo seme-alabak galtzea), prostituzioaren prebalentzia handiagoa.
- Alderdi pertsonala: osasun mental txarragoa, menpekotasun afektiboa izateko joera handiagoa (sistema patriarkaetik ondorioztatzen den menpekotasunaren ondorio gisa).

Beraz, emakumeengan eragin handiagoa duten bizitegi-bazterketarako hainbeste arrisku-faktore identifikatu ostean, galdetu behar da zergatik dauden hain emakume gutxi etxerik gabeko pertsonen artean. Erantzuna kontrapisua egiten duten eta emakumeak, arrisku-egoera jakinetatik eta bizitegi-bazterketako egoera larrietatik nolabait urruntzen dituzten faktoreetan bilatu behar da. Ikuspuntu horretatik, ez dira, zehazki, babes-faktoreak baizik eta bizitegi-bazterketako egoeran dauden emakume jakin batzuk bizitegi-bazterketa larrira igarotzea eragozten duten (edo aldi baterako ekiditen duten) faktoreak direla esan dezakegu³⁹.

Egiturazko alderdia

Egiturazko alderdian –aberastasunaren banaketarekin, lan-merkatura sartzeko mugekin eta enplegu-kalitatearekin lotutako faktoreak edo administrazio-irregulartasuneko egoerekin lotutako immigrazioaren fenomenoaren barne– ez da identifikatu mota honetako faktorerik, emakumeek, oro har, gizonen menpe dagoen maila baitute, lan-esparruan eta esparru ekonomikoan bereziki. Dena den egoera paradoxikoa gertatu daiteke, Sales *et. al.*-ek aipatzen dutenaren arabera, lan-esparruan emakumeak esplotatuago dauden arren, emakume direlako alde aurretik emakumeak esplotatzeko jarrera hartzen duen lan-merkatuaren eskaeretara errazago egokitzen direlako gizonak baino, batzuetan prekaritate ekonomiko bereziko hobia sortuz, nahiz eta kaleko egoerak ekidin ditzakeen (2015: 61). Hori guztia, malgutasun eta ezegonkortasunak zehaztutako lan-merkatuaren

³⁵ Zehazki, etxegabetasunean urtebete baino gutxiago daramatenak %45,4 dira, eta gizonen artean, berriz %29,8 daude egoera berean.

³⁶ Marpsat-ek (2009: 248) fenomeno hau genero-eten gisa deskribatzen du bizitegi-bazterketaren *continuumean*.

³⁷ Saikatzeko ahalegina baino ez da, izan ere faktore batzuek hainbat dimentsiotan dute eragina.

³⁸ Gai hauek sakonago aztertuko dira hurrengo kapituluaren (79.or), gizarte-baliabideak etxerik gabeko emakumeen beharretara egokituta dauden edo ez ebaluatzen baita kapitulu horretan.

³⁹ Jarraian egin dugun analisis erabili dugun material empirikoa, batetik gai honi buruz argitaratu den literaturaren berrikuspen bibliografikotik lortu dugu, eta bestetik, bizitegi-bazterketa larriaren egoera desberdinak bizi dituzten emakumei egindako elkarrizketetatik.

esparruan eskatzen diren ezaugarri pertsonal eta profesionalen sorrerarekin lotu liteke, ezaugarriok gizonei lotzen baitzaizkie emakumeei baino gehiago. Horren haritik, ekonomiak hirugarren sektorerako duen joerak (horrek bereziki gizonetzkoenak diren sektoreen, industria- edo eraikuntza-sektorearen, gainbehera dakar) eta malgutasun-eskaera handiagoak, nolabait, hobeto beteko lituzkete emakumeak laneratzeko jarraibide tradizionalak gizonak laneratzeko jarraibideek baino. Horren proba da, EAEn 2014an lana zuten gizonen kopurua, 2006an, krisialdia hasi baino lehen, lana zuten gizon guztien %85 zela; emakumeen artean, aldiz, lanean zeuden emakume-kopurua ez da murriztu, are gehiago, pixka bat hazi egin da, 2016an lanean zeuden emakumeen %102ra iritsi arte.

Era berean, adituekin, zein bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeekin egin diren elkarrizketetan eta eztabaida-taldeetan agerian jarri den bezala, dirudienez emakumeek aukera gehiago dituzte legezko kontrataziotik kanpo, esaterako etxeko lanetan (etxeak garbitzen, orduka edo etxean bertan bizita), mendekotasuna duten pertsonak zaintzen, edo baita prostituzioa ere. Aukera hauek egokienak ez izan arren, sarritan oso nekezak izaten baitira, emakumeei nolabaiteko autonomia izatea ahalbidetzen diete bizitoki eta diru-sarreraren alorrean.

Bere kabuz moldatzeko gai ez zen andre bat zaintzen lana topatu nuen, baina kontraturik gabe. Dirua amaitzen ari zitzaidanez onartu egin nuen. Denbora bat egon nintzen han. Lana nahiko nekeza zen. Emakumea ezin zuen inork baretu, ez semeak, ez errainak, ez nik... baina ni berarekin bizi nintzen eguneko 24 orduetan.

Ana, 53 urte.

Orain lana dut, oso txarra eta txarto ordaindutakoa. Gizon bat zaintzen dut gauean. Baina ezin didate kontratua egin laguntza bat jasotzen ari direlako. Lan eta lan ari naiz nire kontura bizitzeko itxaropena dudalako.

Gloria, 40 urte.

Alderdi instituzionala

Alderdi instituzionalari dagokionez, azpimarratu behar da gizarte-babeseko sistemak nagusiki duen kotizaziopeko izaera, emakumeei kalte egiten baitie, beren soldaten diru-sarrerak txikiagoak baitira (Escudero, 2003: 65). Dena den, badaude prestazio batzuk, emakumeentzako bakarrik ez diren arren, gehienbat emakumeek jasotzen dituztenak, esaterako alarguntza-pentsioa, kotizazio gabeko pensioak edo guraso bakarrek familientzako laguntzak (Marpsat, 2000), eta EAEn dagokionez, DSBE jasotzen dutenen %57 ere emakumeak dira⁴⁰. Halaber, oro har, instituzioen laguntza eskatu eta onartzeko emakumeek izango luketen joera egiaztatzen da (Escudero, 2003). Kotizaziopeko prestazioek pobrezia murrizteko gaitasun handiagoa duten arren, adierazi beharra dago batez ere emakumeek erabiltzen dituzten kotizaziorik gabeko prestazioen sorta badagoela, eta emakumeen pobrezia deuseztatu edo murrizteko nahikoa ez bada ere, intentsitatea arintzeko lagungarriak direla (hots, pobrezia-arrakala murrizteko), eta nolabaiteko bizitegi-autonomia izateko aukera eskaintzen dute (nolanahi ere, kontsulta egin zaien pertsonen diskurtsoan azpimarratzen den bezala, ezegonkortasun handiarekin bateragarria da).

Arrazoiketa hau jarraituz, kontsultatutako bibliografian ere badaude aipamenak etxerik gabeko emakumeei emandako balizko lehentasunezko tratuari buruz, gizarte-zerbitzuetako langileak artatu eta baliabideak esleitzen dizkietenean (Marpsat, 2000: 275-276). Fenomeno honen arrazoia erruki-logika da, ahulagotzat hartzeagatik babesteko borondatea baitago. Baina eraginkortasun-logika ere izan liteke arrazoia, langileek uste badute emakume horiek egoera berean dauden gizonek baino larritasun gutxiagoko arazoak izateko joera dutela eta horregatik, arazook konpontzeko aukera gehiago dutela (ibidem). Zentzu honetan, ikuspuntu historikotik, bistakoa da espezifikoki emakumeek ostatu hartzeko baliabideen sarea badagoela –batzuetan erlijio-ordenak sustatutakoa–, bereziki seme-alabak beren ardurapean badituzte.

⁴⁰ 2015eko abenduko Lanbideren datuen arabera, DSBEren titular guztien %57 emakumeak ziren (36.733).

Halaber, emakume jakin batzuei egotzen zaien sumisio-rolarekin lotutako beste alderdi batzuk aipatu behar dira. Horren haritik, eztabaida-taldeetako parte-hartzaile baten hitzetan esanda:

Nire ustez, hain zuzen, kultura- eta instituzio-mailan alarmak lehenago pizteko joera dugu emakumeak sumisio-rola duenean. Pertsona otzana bazara eta ahultasun-egoeran bazaude lehenago jarriko zaituzte baliabideetan.

Bibliografian aurkitu ditugun azalpenezko alderdi gehienak harremanen alderdikoak eta alderdi pertsonalekoak dira. Bi alderdi hauek sarritan elkarri sendo lotuta egoten dira eta lotura estua dute emakumeek gizarte-laguntza informala mugiarazteko duten gaitasun handiagoarekin zein sozializazioan eskuratutako rolen espezifikotasunarekin.

Harremanen alderdia

Harremani dagokionez, gehien aipatzen den faktoreetako bat emakumeek familia-lotura estuagoak eta gizarte-sare zabalagoa dutela adierazten duena da. Emakumeek esleitu izan zaizkien genero-zereginengatik, gizarte-lotura sendoagoak izan ohi dituzte, bai senideekin, bai lan-inguruarekin zerikusirik ez duten hurbileko harremanekin, eta orokorrean, sortzen dituzten harreman-loturei eusteko gaitasun handiagoa izaten dute. Hortaz, emakumeen eguneroko bizitzako rolen aniztasunak harreman-baliabideak mugiarazteko gaitasun handiagoaz hornitu ohi dituela nabarmentzen da, ezegonkortasuna larria den egoeretan babestu eta klean amaitu ez dezaten (Escudero, 2003). Horren haritik, 2013ko FOESSA inkestaren arabera, emakumea buru zuten baztertutako etxean %76,8k beste etxe batzuen laguntza jasotzen dute, gizon bat buru duten etxeetan, berriz, %73,4k jasotzen du laguntza: 10)⁴¹.

Zalantzarik gabe, nolana ere, senideek laguntza handiagoa izateak dinamika anibalenteak izan ditzake, askatasun pertsonala mugatu eta norbanakoaren autonomia nabarmen murriztu baitezake. Horixe adierazten dute, grafikoki, Bonvalet *et al.*-ek (1993: 106, *cit. in* Marpsat, 2000: 256), «familiak lagundu egiten du, baina lotu ere bai; segurtasuna ematen du, baina ito ere egiten du». Familiaren laguntza mugatu egin daiteke edo ordainetan zerbait eman beharra egon daiteke. Horixe iradokitzen dute Sánchezen lanean (2007) elkarrizketatutako emakumeen kontuek, eta familiek laguntza ematen dutela diote, emakumea familiarentzako funtzionala baldin bada.

Bestalde, aldi batean zuzenekoak ez diren senideek edo lagunek etxean hartutako pertsonen dagokienez ere, genero-desberdintasunak egongo lirateke, emakumeek laguntza hauek gehiago erabiltzea alde batera utzita. Bartzelonan orain dela gutxi etxegabetasunari buruz egindako ikerketaren arabera, emakumeek eta gizonak egiten duten egoeraren kudeaketa desberdina dela ikus daiteke. Etxeko zereginekin emakumeek integrazio eta lankidetzako rolak hartu ohi dituzte, baina gizonak, aldiz, produkzio-rola hartu ohi dute ostatu ematen dieten etxeetan, funtsean, diru-sarreraren ekarpenean oinarritutakoa, eta beraz diru-sarrerak amaitzen diren unean elkarbitzita ere amaitu egiten da (Sales *et al.*, 2015).

Oro har, lagun edo senideekin aldi baterako bizikidetzara lotutako egoera mota hauek etengabe entzuten dira elkarrizketatu diren emakumeen ibilbideei buruzko kontakizun ia guztietan.

Nire lehengusinarekin alaba hemen bizi denez, eta nire gurasoak euskal jatorrikoak direnez, jatorrira itzultzea iruditu zitzaidan. Bakarrik etorri nintzen eta nuen dirua joan egin zen apurka-apurka. Nire lehengusinarekin alabarekin jarri nintzen harremanetan eta bere etxean egon nintzen denbora batez.

Ana, 53 urte.

⁴¹ Joera bera da laguntza jasotzen duten etxeetan ere: emakumea buru den etxean %77,8k eta gizona buru duten etxean %73,8k jasotzen dute laguntza.

Nire kasuan, tratu txarreatatik joan nintzen etxetik. Joan nintzenez lagun baten etxera joan nintzen. Bertan bizitzen egon nintzen 3 hilabetez errentariak jakin zuen arte eta kalera bota ninduten.

Rosa, 50 urte.

Nire etxetik irten nintzenez, lehenengo aldiz lagun baten etxera joan nintzen, baina azkenean kalean amaitu nuen.

Josune, 54 urte.

Udal-aterpetxea aurkitu baino lehen ezagun baten etxean egon nintzen. Ezin nuen ordura arte bizitzeko erabiltzen nuen gela ordaindu eta etxetik alde egin nuen. Baina dagoeneko oso deserosoa zen berak bikotea zuelako eta ni larri nengoen beti. Ni ere oso deseroso sentitzen nintzen. Lan bila irteten nintzen egunero baina ezer ez.

Gloria, 40 urte.

Emakumeek gizarte-sare zabalagoa eta kalitate onekoa dutela adierazten duten gogoetei oso lotuta, baina beste ikuspegi batetik –pixka bat paternalistagoa– emakumeak babesteko joera orokorra ere aipatu da faktore bezala. Azken beltzean, faktore hori emakumeek duten gizonen menpeko mailaren ondorioa da, ahultasunak laguntza-hartzaile bihurtzen baititu pertsonak (Marpsat, 2000: 249). Baina emakume guztiek ez dute maila bereko laguntza merezi dutenik uste: Marpsat-ek azaltzen duenez (ibidem: 278-279), lehenengoaren eskala dagoela dirudi, amatasunaren edo ama izateko gaitasunaren arabera, beraz elkartasuna beren ardurapean seme-alabak dituzten emakumeentzat izaten da lehenengo, eta emakume gazteentzako eta emakume helduentzako ondoren.

Hala da, esan bezala, mendeko seme-alabak izatea ere bizitegi-bazterketa larritik emakumeak babesteko faktoreen artean aipatzen da, gizarte-baliabide espezifikoak erabiltzeko aukera eskaintzen baitu, familian eta komunitatean ere elkartasun handiagoa eragiteaz gain (Marpsat, 2000: 274; Cabrera, 2012: 21). Ikuspuntu honetatik, seme-alabak kapital moral eta emozionala ez ezik, kapital ekonomikoa ere badira (Messu, 1992: 80, *cit. in* Marpsat, 2000: 249) eta amatasuna (benetako edo etorkizuneko), oinarritzko osagai bihurtzen da, emakumei nolabaiteko lehenengoaren arreta eskaintzeko⁴² (Marpsat, 2000: 249).

Dena den, amatasunak ere baditu desabantaila argiak. Litekeena da bizitegi-bazterketa larrian dauden eta seme-alabak beren ardurapean dituzten emakumeek hazkuntza-zereginak beren gain hartzea gizonek baino neurri handiagoan (emakume gehienek bezala), eta horrek enplegua eta zaintza bateratzeko beharra eragiten die, eta lan-aukerak eta bizitza autonomoa edukitzeko nahia gutxitu dezake (Cabrera, 2012: 21). Bestalde, zaintza kentzeko mehatxuak (benetako edo fikziozkoak) indar handia du emakumeen jarreran (Marpsat, 2000: 274), eta ez dute laguntzarik eskatzen drogamenpekotasun-arazoak edo osasun mentaleko arazoak baldin badituzte (Hutchinson *et al.*, 2014: 15), edo ez dute etxetik alde egiten genero-indarkeria jasaten badute (Marpsat, 2000: 267; EDE Fundazioa, 2012). Halaber, seme-alabak etxegabetasun-egoerak geldiarazteko faktorea izan daitezkeela aipatzen da –noizbehinka gizarte-laguntza edo instituzioen laguntza handiagoa ekar dezakeelako, edo betebeharrak kultural afektibo oso zehatza dagoelako– seme-alabak galtzea. zaintza edo guraso-ahala kentzeagatik, esaterako, faktore eragile azkarra izan daiteke.

Bikote-harremani buruz nabarmendu behar dugun gogoeta da, emakumeek zailtasunen bat izanez gero, asko pentsatuko luketela etxegabetasun-egoerari aurre egiterakoan, eta beraz, luzaroago jasango lukete bikote gatazkatsuekin duten harremana, beren autonomiari eusteko baliabide nahikoa edukiz gero apurtu nahiko lituzketen bikote-harreman txarrak luzatuz (Enders-Drăgășser, 2001).

Estrategia hauekin batera –edo, hobeto esanda, «jarduteko tartea» egile batzuek adierazten duten bezala (Marpsat, 2000: 249)–, etxegabetasuna prebenitzeko beste modu bat aipatu daiteke, akordio esplizituak edo ez hain esplizituak lortzea. Horien bidez emakumeek aldi baterako bikotea osatuko lukete laguntasuna edo zaintza eskaintzen dien gizon batekin, lo egiteko lekuaren truke (Marpsat, 2000: 272; Aldridge, 2001: 112-113; Thörn, 2001; Reeve *et al.*, 2006: 5). Bibliografia berrienean aipatu ere ez da

⁴² Bestea, aipatu den bezala, emakumeen mendekotasuna da.

egiten ia estrategia hau, baina azterlan honetan parte hartu duten gizarte-zerbitzuetako teknikariek berretsi egin dute.

14 urtean egon naiz berarekin, baina ni ez nengoen maiteminduta. Berak bazekien. Hasieran hoteletan egoten ginen, gero ezagun baten etxera eraman ninduen eta azkenean etxebizitza bat aurkitu genuen. Elkarrekin bizitzera joan ginen, baina nik ez nekien berak heroina saltzen zuenik [...] Oso berandu jakin nuen. Horretaz jabetu nintzenean esan nion ez nintzela berarekin elkartuko horren berri izan banu. Baina azkenean, bakardadea...

Manuela, 43 urte.

Alderdi pertsonala

Etzegabetasuna azaldu dezaketen alderdi pertsonalen barnean, bi garrantzitsuenak etzegabetasunarekin lotutako biktimizazioari eta estigmari beldurra dira, segur aski. Etxerik gabeko pertsonen biktimizazio handiagoa hainbat azterlan eta iturri estatistikoren bidez egiaztatu da (Hatento-Etxerik Gabeko Pertsonen aurkako Gorroto Delituen Behatokia, 2015), eta gizon zein emakumeengan dute eragina, baina emakumeak dira –gainerako biztanlerian gertatzen den bezala– sexu-eraso gehien jasaten dituztenak. EAEn bizitegi-bazterketa larriari buruz egindako azkeneko azterketaren arabera (SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, 2015: 119),kalean lo egiten duten edo lo egin duten ia hiru emakumetatik batek (%31,3) eraso fisikoak jasan ditu, eta lautik batek baino gehiagok (%22,7) eraso sexualak; gizonen artean, aldiz %20,4 eta %1,8 dira egoera berean daudenak, hurrenez hurren.

Hautemate horietako batzuk elkarrizketatutako emakumeen kontakizunetan ikus daitezke argi eta garbi:

Kalean geratu nintzenean, nire egoera berean zeuden beste gizon batzuk hurbiltzen zitzaizkidan Casanova tankerarekin. galaiarena egiten. Ikaratu egin nintzen. Inork ez eraso arren, guztiz egoera ahulean sentitu nuen neure burua. Ni helburu argia nintzen han.

Ana, 53 urte.

Kalean jendearen irainak jasan nituen. Dagoen arazoa zein den jakin gabe, zer erraza den gu kritikatu eta epaitzea [...] Arratsaldetan babestuagoa sentitzen nintzen, baina gauez beldurra sentitzen nuen. Ez nekien nora jo.

Josune, 54 urte.

Ostatu hartzeko baliabide batera joateak ez du kentzen biktimizazio-arriskua, eta horregatik emakume askok ez direla seguruak uste dute, eta nahiago izaten dute ez erabiltzea (Enders-Drägässer, 2001: 231. or. eta hurrengoak).

Bestalde, emakumearen etzegabetasunari lotutako estigma agerikoagoa eta gogorragoa da gizonen etzegabetasunari lotutakoa baino, eta euste-faktore nabarmen bezala jarduten du. Genero-adierazpenak funtsezkoak dira berriz ere fenomeno hau ulertu ahal izateko. Patriarkatuak etxeko gunea eta ugalketa-lanak esleitzen dizkie emakumeei; eta gune publikoa eta produkzio-zereginak gizonei⁴³. Ideologia honen arabera, «onargarria» da gizon batek kalean lo egitea eta emakume batek enplegurik ez izatea, baina ez emakume batek kalean lo egitea (Passaro, 1996, *cit. in* Marpsat, 2000: 248). Etxea galtzeak eragin ditzake, batetik, ustez gizonentzako bakarrik den gune publikoan sartzea eta bestetik (are garrantzitsuagoa), ama, emazte eta alaba izateko gaitasuna edo ahalmenaren galera (sinbolikoki, gutxienez) (Edis Ikerketa Soziologikoko Taldea, 2004: 45): zentzu horretan, emakumeen etzegabetasuna, *statu quo*aren urratze bikoitza izango litzateke. Sarritan etzegabetasuna prostituzioarekin lotzea (Thörn, 2001), eta baita beste jarduera arriskutsu batzuekin ere, substantzien kontsumoarekin, esaterako, estigma gehigarri bat da.

⁴³ Etxea espazio anibalentea da emakumeentzako, gizonen menderatzearen adierazgarri (Davis, 2001, *cit. in* Bowpitt *et al.*, 2011: 537) izateaz gain, «nortasun, ohore eta poztasunaren iturri sendoa» ere bada (Darke, 1994, *cit. in* Bowpitt *et al.*, 2011: 537).

Beste euste-faktore garrantzitsu bat espetxeratze-tasa txikiagoa izango litzateke. Espetxeak duen izaera baztertzaila agerian geratzen da espetxean egotearen eta etxegabetasunaren arteko lotura egiaztatzerakoan (cfr. Mayock eta Sheridan, 2013: 120): etxerik gabeko pertsonak aukera gehiago dauzkate espetxeratuak izateko, eta espetxetik irteten direnean, zailtasun asko izaten dituzte bizitoki egonkor bat aurkitzeko. Emakumeei, etxegabetasunari eta espetxeratzeari buruzko azterlan espezifikoei, oraindik gutxi badira ere, gauza bera erakusten dute, oraindik ondo ezagutzen ez ditugun genero-jarraibide batzuk erakusten dituzten arren⁴⁴. Nolanahi ere, espetxean dagoen biztanlerian emakumeek duten pisu erlatibo txikiari esker —Estatu osoan %8koa da (Espetxeetako Idazkaritza Nagusia, 2015)⁴⁵—, datu hau emakumeen etxegabetasuna eusteko faktoreen artean sar daiteke.

Norbere burua zaintzeko eta laguntza eskatzeko joera handiagoa oso lotuta daude elkarren artean, eta horiek ere kategoria horretan sartuko lirateke. Estatu Batuetan egindako azterlan batek (Courtenay, 2000) argi eta garbi erakusten du emakumeek gizonak baino jokaera eta sineste osasuntsuagoak dituztela. Ostera, gizonak maskulinitate hegemonikoaren postulatuetara atxikitzeak gizarte-bazterketarekin lotura argia duten arrisku-jokaerak dakartza osasun eta segurtasunaren eremuetan⁴⁶. Laguntza eskatzeari dagokionez, aipatu den bezala ohikoagoa da etxerik gabeko emakumeen artean, egoera berean dauden gizonen artean baino (Cabrera, 2012: 16). Vanneville-k horri buruz, adierazten duenez, etxerik gabeko emakumeek edonolako zerbitzuak eskatzeko joera dute, egin beharko dituzten izapideengatik edo egon daitezkeen bikoiztasunengatik arduratu gabe (2010: 15)⁴⁷.

«Babes-faktore» hauei buruz egin daitezkeen irakurketa, nolanahi ere, anbigualak da: espetxeratze-tasa txikiagoa, norbere burua zaintzeko eta laguntza eskatzeko joera handiagoa, emakumeen gizarteratzeak dituen berezitasunekin lotzen dira. Sistema patriarkalak mendeko-maila ematen dio emakumeari, eta horregatik, emakumeek jasotzen duten hezkuntzak, gizonenak baino gehiago, arauak obeditzea azpimarratzen du, eta horrek azalduko luke emakumeen espetxeratze-tasa txikiagoa. Norbere burua gehiago zaintzeko eta laguntza eskatzeko joerak emakumeak amatasuna eta hazkuntzarekin identifikatzearekin izango luke zerikusia, gizonak baino neurri handiagoan beste pertsonen eta beren buruaren zaintzarako sozializatuak izatea eraginez, eta horrek arrisku-jardunbide jakin batzuk geldiarazi edo ekiditeko portaerak dakartza berekin. Horren haritik, egiaztatuta dago, emakumeek gutxiago parte hartzen dutela bazterketa-egoerekin lotzen diren arrisku-jardueretan esate baterako, substantzia jakin batzuen kontsumoan⁴⁸ edo delituzko jardueretan.

Labur esanda, atal honetan aztertutako faktoreek lehen begiratuan, aukera eskaintzen dute esateko bizitegi-bazterketa larrien aurrean emakumeak gizonak baino babestuago daudela eta gogorragoak direla. Paradoxikoki, hori emakumeen mendeko mailaren eta beraientzako ematen diren genero-aginduen ondorioa da⁴⁹. Gainera, oso babes mugatua da eta batzuetan ez da nahikoa izaten. Jasotzen dituzten laguntzak gizarte-zerbitzuenak, zein beren gizarte-sareen bidez jasotakoak, oso urriak izaten dira, erabateko gizarteratzearekin lotzen den ongizate eta autonomiaren mailak bermatu ahal izateko. Emakume askok ez badute kalean edo etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuetan amaitzen, beren

⁴⁴ Mayock eta Sheridan-ek (2013) bizitegi-bazterketako egoeran zeuden San Frantzisko (AEB) 1.175 pertsonen artean 2003 eta 2004 urte bitartean egindako azterketa bat aipatzen dute (Weiser *et al.*, 2009). Azterlan horrek espetxeratzeko arrisku handiagoa hautematen du kalean lo egiten duten pertsonen artean, baina genero-desberdintasunak zeuden, korrelazioa handiagoa baitzen kalean egonaldi luzeak (90 egunetik gorakoak) egiten zituzten emakumeen artean eta egonaldi laburrak (90 egunetik beherakoak) egiten zituzten gizonezkoen artean.

⁴⁵ Zehazki, 2015eko azaroan %7,72koa zen.

⁴⁶ Horren haritik, garrantzitsua da aipatzea, emakumeek gutxiago parte hartzen dutela bazterketa-egoerekin lotzen diren arrisku-jarduerak jakinetan (substantzia jakin batzuen kontsumoa, delituzko jardueretan parte-hartzea, etab.).

⁴⁷ «Eskaera amaiezin hauen atzean beste bilaketa bat dago, bilaketa emozional etengabea. Errepikapenean bizitzea ere ezinezkoa dirudien zoriontasuna bilatzea da. Halaber, eskaera hauetan du jatorria bizitzari sendo lotzen dituen indar eta energia amaiezinak».

⁴⁸ Gai horri dagokionez, droga-kontsumoari buruzko azterketa epidemiologikoei eta tratamendu-adierazleek agerian uzten dute gizonen zein neurritaraino eragiten dien adikzioek sortzen dituzten arazoak (Euskadi eta Drogak, 2012). Psikofarmakoien prebalentzia-kontsumoa bakarrik da handiagoa emakumeen artean gizonen artean baino. Emakumeek duten osasun mentaleko arazoaren prebalentzia handiagoa (Osasun Inkesta, 2013) ez dirudi etxegabetasun-egoerak dakartzanik berekin, arazo horiek dagoeneko aipatu ditugun faktore batzuek indargabetuko bailituzkete.

⁴⁹ Harrigarria da, bestalde, Fernández-Rasines eta Gámez-Ramos (2013) egileek adierazten duten bezala, etxegabetasunari buruz dagoen bibliografiak bizitegi-bazterketako egoera larrietan gizon gehiago daudela hauteman arren, ez da ia antzeman gizonen prebalentzia horri buruzko problematizaziorik genero-ikuspegi kritikoa kontuan hartuta.

gizarteratze-prozesuan eskuratutako roletan oinarritutako estrategia espezifikoak erabiltzen dituztelako da, kaleko egoeretara edo ostatu hartzeko zerbitzuen erabilerara lotutako arriskuak eta estigma ekidinez, baina kolokatasun eta ahultasun handiko egoeran geratzen dira. 'Babes' horregatik emakumeek ordaindu behar duten kostu pertsonala, ikuspuntu horretatik, izugarria da:

Egon nintzen aterpetxearen kasuan, harritu egin nintzen, emakumeentzako solairu bat zegoen eta bertako leihoek pertsona guztiak zeuden telebista-gelara ematen zuten Gero, intimitaterik gabeko eremuan, barruko patiora ematen zuten logelak genituenok kontuz ibili behar genuen, dutxatzen ari zinela, oharkabea... eta urteetan sexu-harremanik izan ez duten gizez ari garela kontuan hartuta... ni etxebizitzetan lasaiago egon naiz, baina hemen zeure burua zaindu behar duzu pixka bat. Zortzi hilabete egon nintzen pertsiana jaitsita.

Isabel, 45 urte.

Etiket irten nintzenean [eskakizun gutxiko aterpetxearen izena] aterpetxera joan nintzen, eta nazkagarria da emakumearentzat. Ez dago higienerik, edaten duen edo drogak hartzen dituen jendearekin bizi zara. Ez dago ohatzerik, ohe jarraituak dira. Ez dago itxitararik, ez dago ezer eta adi egon behar duzu. Denagatik izutzen nintzen, ez nuen lorik egiten. Bainugelak oinak garbitzen zenituenean eta bestea zuri begira, gehiegizkoa...

Manuela, 43 urte.

6. ETXE GABEKO PERTSONEI ARRETA ESKAINTZEKO ZERBITZUAK EMAKUMEEN BEHARRETARA EGOKITZEA

Kapitulu honetan zehazten saiatuko gara berariaz etxerik gabeko pertsonentzako baliabideak zein neurritan betetzen dituzten emakumeen beharrian espezifikoa, ibilbide pertsonalak eta itxaropenak eta horietara zein neurritan egokitzen diren. Txosten honen bigarren kapituluaz azaldu dugun bezala, analisisan erabili dugun material enpirikoa lortzeko, batetik gai honi buruz argitaratu den literaturaren berrikuspen bibliografikoa erabili dugu, eta bestetik, etxegabetasunaren arretan espezializatutako gizarte-zerbitzuetako teknikariek egindako eztabaida taldeen bidez burutu den landa-lana eta arazo hau jasaten duten emakumei egindako elkarrizketak.

Lehenik eta behin, eta aurreko kapituluaz hasitako gogoetarekin jarraituz, emakumeen etxegabetasunak ezaugarri duen ikusezintasuna eta gizarte-politikek fenomeno honi heltzen dioten moduan duen eragina aztertuko dugu. Ondoren, emakumeen etxegabetasun-ibilbideak ulertzeko aukera ematen duten osagaiak aztertuko ditugu, eta bizitegi-bazterketako egoeran dauden emakumeek erabiltzen dituzten zerbitzuetan jasotzen duten arreta ikertuko dugu. Gai honen inguruan, emakumeentzako zerbitzu espezifikoen zeregina aztertuko dugu, eta baita etxerik gabeko emakumeen profil nagusien beharrak eta behar horiei erantzuteko dauden baliabideak ere. Azkenik, zenbait urrats proposatuko ditugu emakumeak etxerik gabe gera ez daitezen prebenitzeko eta egoera hori tratatzeko; horretarako, ikuspegi integrala eta genero-ikuspegia proposatzen da beharrian konplexuenei eta berezienei erantzuteko, ez bakarrik egoitza-bazterketa larrian dauden emakumeenei, baita antzeko egoeretan dauden gizonenei ere.

6.1. Etxe gabeko emakumeen ikusezintasuna: gizarte-zerbitzuentzako erronka

Emakumeen etxegabetasunaren arazoa oraindik behar besteko xehetasunez aztertu ez den arren, bibliografia espezializatu guztiak ikusezintasuna aipatzen du bere funtsezko ezaugarritzat, eta horrez gain gizonen etxegabetasunetik bereizten duen ezaugarria ere bada. Ikusezintasunaren kontzeptua elkarren artean oso teilakatuta agertzen diren fenomeno honen hiru alderdiri buruz hitz egiteko erabiltzen da, eta alderdiok maila analitikoan bereiztea komeni da.

Lehenik, egiaztatuta dago bizitegi-bazterketako egoeran dauden emakumeen presentzia proportzionala murriztua da, bai kalean gaua igarotzen duten pertsonen artean (*etxerik gabe*), bai espezifikoki etxerik gabeko pertsonen ostatu hartzeko gizarte-baliabideetan gaua igarotzen duten pertsonen artean (*etxebizitarik gabe*). Zentzu honetan, etxerik gabeko emakumeak gutxi samar izateaz gain, *gutxituak* ere badira. Izan ere, «ikusezintasun» mota honek ondorio argiak dauzka emakumeen etxegabetasuna ulertu eta aztertzerakoan. Batetik, kalean emakume gutxi egoteak azaldu egiten du, hein handi batean emakumeen bizitegi-bazterketa gizarte-arazotzat ez hautematea. Bestetik, kalean gaua igarotzen duten emakumeen kopuru txikiak, gizarte-kontzientzia eskasak eta baliabide mugatu samarrek gizarte-politiken barnean 'kolektibo' honi lehentasun gutxi emateko balio izan dute (eta

oraindik ere balio dute). Horregatik, baliabide desberdinak berandu garatu dira eta etxerik gabeko pertsonentzako baliabideen diseinu eta funtzionamenduan genero-alborapena zuzentzerakoan geldotasun nabarmena.

Bigarren ikusezintasuna gizarte-zerbitzuek darabilten etxegabetasunaren definizioarekin ere lotu daiteke. Aurreko kapituluan, dagoeneko aipatu da 'isilpeko etxegabetasuna' edo 'ezkutukoa' zer den, hots, instituzioek bizitegi-bazterketatzat hartzen ez dituzten beste bizitegi-bazterketako modu guztiak. Lehen adierazi bezala, bizitegi-bazterketa modu oso murriztailean kontzeptualizatu (eta kontabilizatu) da luzaroan, beraz genero-indarkeria jasan duten biktimentzako edo beren ardurapean seme-alabak dituzten amentzako gizarte-baliabideak ez dira beti etxerik gabeko zerbitzu gisa sailkatu, eta hortaz emakume onuradunak ere ez dira etxerik gabeko pertsonatzat hartu (Edgar eta Doherty, 2001: 260-261). Etxegabetasuna deskribatzerakoan definizio zabalagoak kontuan hartzea, tresnen garapenarekin batera, ETHOS tipologia beraren garapena, esaterako, aurrerapen oso garrantzitsua izan da bizitegi-bazterketak hartu ditzakeen era askotako moduen jabeakuntzan, eta esku-hartze zeharkakoagoak proposatzeko oinarri metodologikoa ere eskaini dute.

Azkenik, etxegabetasunaren ikusezintasuna, bizitegi-bazterketa jasaten duten emakumeek beraiek, jakinda, edo jakin gabe garatzen dituzten estrategien⁵⁰ emaitza izan liteke gizarte-zerbitzuetara joatea saihesteko. Enders-Drögasser egileak jarrera hau honela deskribatzen du: etxerik gabeko emakumeak «nola edo hala bere[n] egoera ezkututzen eta arazoak modu pribatuan konpontzen saiatzen da [dira]», horrela, nahi gabe, gizarte-zerbitzuek artatua izateko emakumeek duten eskubidea zalantzan jartzen dute (2001: 234-235). Estrategia horien artean, aurreko kapituluan esan bezala, hauek dira azpimarragarrienak:

- Kolokako bizitokia senide edo lagunekin: laguntza egokiekin familia edo senideen etxean lo egitea lortu dezakete denboraldi batean zehar.
- Bikote-harreman txarrei eustea: etxean jarraitzeko estrategietako bat emakumeek apurtu nahi lituzketen bikote-harremanak luzatzea da.
- Trukea: hirugarren modu bat da, akordio esplizituak edo ez hain esplizituak lortzea. Horien bidez aldi baterako bikotea osatuko lukete laguntasuna edo zaintza eskaintzen dien gizon batekin, lo egiteko lekuaren truke (Marpsat, 2000: 272; Aldridge, 2001: 112-113; Thörn, 2001; Reeve *et al.*, 2006: 5). Bibliografia berrienean aipatu ere ez da egiten ia estrategia hau, baina azterlan honetan parte hartu duten gizarte-zerbitzuetako teknikariek berretsi egin dute.
- Etxerik gabe: emakume batzuek nahiago dute leku publikoetan edo kanpoan lo egitea, gizarte-zerbitzuekin harremanetan jarri gabe.

Lehenengo hiru kasuetan, bizitokia izateko emakumeek harreman ona izan behar dute etxearen jabeekin eta emandako baliabideak ez dira bestelako helburuetarako erabili beharko. Hemendik ondoriozta daiteke estrategia hauen azpian mendekotasun ekonomikoa eta (sarritan) emozionala dagoela. Patriarkatuak emakumeari menpeko maila ematen badio ere, jardun horiek urratu egiten dute emakumeak gizonen beren denbora eta lana doan ematera behartuko lituzkeen patriarkatuaren araua eta horregatik daude estigmatizatuta (Juliano, 2005: 85) eta ezkutatu egin ohi dira (Thörn, 2001)⁵¹. Gizartearen gaitzespenaz gain, menpekotasun honek onenean ere, atsekabea eta lotsa eragiten ditu; eta txarrean tratatu txar edo abusuzko harremanak sortu edo horiekin jarraitzea (ibidem: 246). Egoera hauek antzematen zailak badira ere, gizarte-zerbitzuak erne egon beharko lukete.

⁵⁰ Estrategia-kontzeptua ohikoa da testuinguru honetan, baina Marpsat-ek (2000: 249) nahiago du «jarduteko tarteez» hitz egitea.

⁵¹ Ikerlari honek Suedian jasotako bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeen testigantzek agerian uzten dute jardunbide hauek prostituziotik hurbil dauden jarduntzat hartzen direla, eta beraz, moralaren ikuspegitik gaitzesgarriak dira. Prostituta-etiketa ez jartzeko, elkarrizketatu zituen emakumeak garbi egoten eta gehienbat gizonen erabiltzen zituzten ostatu hartzeko zerbitzuak saihesten saiatzen ziren. Jatorrian, ingelesez argitaratu zen *Women and Homelessness in Europe* (The Policy Press, 2001) izenburuarekin.

Espazio publikoan (edo kanpoan) gaua igarotzeari buruz, datu guztien arabera gutxien estrategia da aurrez aipatu ditugunekin alderatuta. Gaua kalean igarotzen duten emakumeak ahalik eta gutxien nabarmentzen saiatzen dira (Bachiller, 2008: 64), «ikusezin bihurtu» arte (Vanneuville, 2010: 15). Estrategia horiek modu ezberdinak dituzte, emakume bakoitzak duen adinaren, jatorrizko kulturaren eta bizi-ibilbidearen arabera. Sarritan, etxerik gabeko gizonak sahiesten dituzte (Bachiller, 2008: 54), baina batzuek gizonetako bikotea dute, babesa emateko (Escudero, 2003; Perez, 2014). Halaber, hainbat ikerketek gizarte-zerbitzuekin harremana baztertzeko joera dutela erakusten dute (Reeve *et al.*, 2007; Moss eta Singh, 2015).

6.2. Gogoeta orokorrak etxe gabeko emakumeen ibilbideei buruz

Emakumeak bizitegi-bazterketa larrira nola iristen diren ikustea, egoera horretan dauden bitartean jarraitzen dituzten ibilbideak eta nola gaintzen dituzten etxebizitza iraunkorra aurkitu ondoren, funtsezkoa da prebentzio-politikak eta gizarte-zerbitzuek eskaintzen dieten arreta hobetzeko.

Azterlan honen bosgarren atalean aipatu den bezala, etxerik gabeko emakumeek, egoera berean dauden gizonetako baino gehiago, harreman-faktoreak argudiatzen dituzte egoeraren arrazoi bezala. Harreman-arazo hauen artean genero-indarkeriatik ondorioztatutakoak eta trauma emozionalak dira nagusi. Reeve *et al.*-ek Erresuma Batuan etxerik gabeko emakumeen ibilbideari buruz egin duen lanean (2007: 32-34), adibidez, parte-hartzaileek hainbat abusu mota adierazten zituzten maiz, sexu erasoak, tratatu txarrak, abandonatzea, eskola-jazarpena, derrigorrezko etxegabetzeak, edo maite dituzten pertsonen heriotza edo banaketa –bereziki beren seme-alabengandik banatzea–, sarritan haurtzaroan edo nerabezaroan zehar, baina baita helduak zirenean ere, eta gutxi jaso dute horien artean arreta gizarte-babeseko baliabideengandik.

Zehaztasun bera ez duen arren, Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestak eskaintzen dituen datu berrienen arabera, berretsi egiten da, bizi-ibilbideetan familia-gatazkak eta etxeko indarkeria jasan duten etxerik gabeko emakumeak askoz ere gehiago direla.

54. taula . Etxerik gabeko pertsonen haurtzaroan eta nerabezaroan jasan dituzten arazoaren prebalentzia, sexuaren arabera. EAE eta Espainia 2012

	EAE			Espainia		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Arazo ekonomikoak						
Ez du dirurik	47,3	54,9	53,4	44,5	40,8	41,5
Kideren baten langabezia luzea	19,0	28,6	26,8	23,6	23,3	23,4
Osasun-arazoak						
Kideren baten heriotza	36,8	38,4	38,1	36,2	42,9	41,6
Gurasoen gaixotasuna, ezgaitasuna edo istripu larria	27,5	25,0	25,5	23,9	23,5	23,6
Bizikidetzaren arazoak						
Gurasoen arteko borroak eta arazo larriak	28,5	14,5	17,1	28,7	16,6	19,0
Indarkeria-arazoak familian	22,6	13,9	15,5	27,3	14,9	17,3
Senideren baten edo norberaren alkoholismo-arazoak	19,3	12,9	14,1	23,3	20,3	20,9
Gurasoetako bat espetxean egon zen	7,7	4,2	4,9	6,3	3,9	4,4
Bizitokiarekin zerikusia duten arazoak						
Bizileku maiz aldatzea	18,3	12,3	13,4	13,2	12,7	12,8
Familia etxebizitzatik ateraraztea	4,6	4,2	4,3	6,9	4,1	4,7
K	389	1.701	2.090	4.513	18.425	22.938

Iturriak: EUSTAT eta INE. Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkesta.(2012).

Bakoitzaren ibilbideak alde batera utzita, etxebizitzarik ezean, emakumeek gizarte-zerbitzuen laguntza eskatzea edo ez eskatzea aukeratu dezakete, eta beren eskaera onartu edo ukatu egin dezakete; laguntzarik eskatzen ez badute, eskaera ukatzen bazaie edo behar bezala eskatu ez badute ezkutuko etxegabetasuna delakoan egongo lirateke. Eskozian egindako azterketa aitzindari batek, Webb (1994, *cit. in Aldridge, 2001: 112*) emakumeen ezkutuko etxegabetasunera heltzeko lau ibilbide identifikatzen ditu:

- 'Etxegabetasunaren ibilbidea': emakumeak etxerik gabeko pertsona bezala aurkezten dira gizarte-zerbitzuen aurrean baina ez zaie estatus hori ematen.
- 'Gizarte-prestazioen ibilbidea': beren eskaerak ostatu hartzeko eskaera soiltzat hartzen dira, eta ez etxegabetasun-kasutzat.
- 'Ez eskatzearen ibilbidea': emakumeek ez dute laguntzarik eskatzen eta egoera onartezina jasatera etsitzen dute.
- 'Ibilbide instituzionala': emakumeak luzaroan bizi izaten dira baliabide espezializatuan, ez baitago beraientzat beste bizitokirik.

Bibliografiaren arabera, emakumeek gizarte-zerbitzuak ez erabiltzeko arrazoiak hauek izango lirateke:

- Biktimizazioari beldurra gehienak gizonak diren baliabideetan (Enders-Drägässer (Enders-Drägässer, 2001: 235; Enders-Drägässer, 2010: 12).
- Gizarte-zerbitzuen erabilerari lotutako estigma (Thörn, 2001).
- Hautematea zerbitzuak ez direla beren beharretara egokitzen edo euren profila ez datorrela bat artatzen dituzten profilekin (Perez, 2014). Horren haritik, nabarmena da seme-alabak dituzten amentzako dauden tokien urritasuna, eta gainera bikoteak (Escudero, 2003:114) edo maskotak (ibidem) onartzen dituzten zerbitzuetan ostatu hartzeko zailtasuna hautematen da.
- Eskura dauzkaten zerbitzuak eta erabiltzeko duten eskubidea ez ezagutzea (Reeve *et al.*, 2007; Perez, 2014: 266-267).

Etxegabetasunaren kontzeptua bizitegi-bazterketako egoeren *continuum* bezala ulertu behar da, eta gainera garrantzitsua da ezkutuko etxegabetasuna egoera iragankor bezala ulertzea eta ez kategoria iraunkor bezala. Ingalaterrako etxerik gabeko emakumeen ibilbideei buruzko Reeve *et al.*-en azterketak argi erakusten du ideia hau, emakumeek ostatu hartzeko zerbitzuetako egonaldiak senide edo lagunentzako etxeetan, higiezin okupatuetan (*squats*) edo kaleko egonaldiekin txandakatzen dituztela erakusten baitu⁵². Ibilbide horietan, aterpetxeek egun batzuetan zehar atseden hartu eta indarberritzeko aukera eskaintzen diete (Escudero, 2003, 111-112). Ezkutuko etxegabetasunaren faseei dagokionez, Reeve *et al.*-k (ibidem) erakusten dutenez, ezkutuko etxegabetasunaren faseak bat etorri ohi dira arazo pertsonalen gehikuntzarekin⁵³ eta laguntzaren beharrezanekin. Gainera, aldi horietan zehar, itxuraz, emakumeek gutxiago parte hartzen dute gizarteratze-prozesuetan.

Nola hasten dira osasun-zerbitzuak erabiltzen? Eguneko zentroak, jantoki sozialak eta aterpetxeak izan ohi dira gizarte-zerbitzuen sistema erabiltzen hasteko atea (Escudero, 2003: 111; Reeve *et al.*, 2007; Perez, 2014: 271), sartzeko baldintza gutxi eskatzen dituztelako eta beste zerbitzu batzuei buruzko informaziorik ez dagoelako. Hala ere, EAE zein Estatuari buruzko informazioaren arabera etxerik gabeko emakumeek gutxiago erabiltzen dituzte zerbitzu hauek etxerik gabeko gizonen baino⁵⁴.

⁵² Halaber, egile horien arabera (ibidem: 36), kalean gaua igarotzen duten emakume gutxiak erabiltzen dituzte gizarte-zerbitzuak edo osasun-zerbitzuak, baina ohikoa da liburutegi edo museoetan babesa hartzea egunez.

⁵³ Adibidez, droga-kontsumo handiagoa (aire zabalean igarotako gauak jasateko edo kontsumitzen duten pertsonekin ibiltzeagatik) edo arazo mentalen larriagotzea.

⁵⁴ 2014an EAEn egindako gaueko azken zenbaketak eskaintzen duen gizarte-zerbitzuen erabilerari buruzko informazioak, zein Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestak ematen duen Estatuaren informazioak agerian uzten dute, bai jantoki sozialak, bai eguneko zentroak emakumeek gizonen baino gutxiago erabiltzen dituzten zerbitzuak direla. Arreta kalean aurkitutako pertsonengan bakarrik jartzen badugu (emakumeek ostatu edo jateko ere eman ohi duten baliabideetan bizi diren pertsonen artean duten pisu erlatibo handiagotik ondoriozta litekeen alborapena deuseztatzeko) bere horretan jarraitzen dute. EAEn egin zen gaueko azken zenbaketaren arabera, kalean aurkitutako gizonen %28,4 eta %57,8 joan ziren, hurrenez hurren eguneko zentroetara edo jantoki sozialetara azken hiru hilabeteetan. Aldiz, emakumeen % 13,6 eta % 31,8 bakarrik joan ziren, hurrenez hurren zentro horietara.

Halaber, kalean bizi diren baina gizarte-zerbitzuetara joaten ez diren –edo gutxi joaten diren– pertsonengana hurbiltzeko aukera ematen duten inguru zabalean esku hartzeko programak kalean bizi diren emakumeengana heltzeko ez direla hain erabilgarriak adierazten duten zantzuak daude (ibídem: 40; Moss eta Singh, 2015: 77), segur asko baztertuta dauden lekuetan lo egiten saiatzen direlako eta gizarte-zerbitzuetatik urruntzea nahiago dutelako.

Bakoitzaren ibilbideez eta gizarte-zerbitzuak erabiltzen hasteko moduez gain, etxerik gabeko pertsonentzako baliabideetan esku-hartzea arautzen duen kontzeptu-ereduak berak gizarte-zerbitzuetatik emakumeari ematen zaion erantzuna baldintzatzen du. Tradizionalki, gizarte-zerbitzuek etxerik gabeko pertsonari eskaini dieten laguntza eskailerazko metodoa izenekoa da (cfr. Busch-Geertsema, 2013: 16). Metodo honek faseetan banatutako esku-hartzea ezartzen du bere helburu eta laguntzekin. Asmoa programa batean sartzen den pertsonari banakako laguntza intentsiboa eta jarraipen zorrotza eskaintzea da, eta pertsonak autonomia irabazi ahala kendu egingo zaio laguntza hori; prozesuaren amaieran bizitoki independentea emango zaio⁵⁵. Arreta-eredu honen barnean, batzuetan, sustraitze komunitarioa eta bizitza normalizatua eragotzi dezaketen ibilbideak daude, ezaugarritzat baliabide batetik bestera igarotzea baitute.

Orduan, [erakundearen izena]-n hartu ninduten. Bueno, nik tailer batean lan egiten nuen eta dagoeneko ezagutzen ninduten. Lehenik egoitza batean sartu ninduten. Geroago etxebizitza batera eraman ninduten. Gero leku bat eman zidaten [izena] aterpetxean eta handik orain daukadan etxebizitza eman zidaten. Eta beharbada etxerik aldatu beharko dut berriz urtarrilean. Ez dakit bakarrik egongo naizen, proiektuak autonomia gehiago ematen duela esan didate. Hau guztia bi urte hauetan, batetik bestera eta hala ere abegi hartuta egotea eskertzen dut. Baina tokiz aldatu naute berriz ere. Niri bakarrik bizitzea gustatuko litzaidake, nire pisu-kideekin oso pozik banago ere. Beti galdetu didate nik zer nahi nuen eta bakarrik bizi nahi dudala erantzuten diet.

Rosa, 50 urte.

Eredu honez gain, azken urte hauetan ordezkari ikuspegi bat zabaltzen ari da hainbat herrialdetan –baita Estatu espainiarrean ere–, *housing first* izenekoa. Izenak adierazten duen bezala, prozesuaren hasieratik nor bere kabuz bizitzeko aukera eskaintzen du, gizarte-zerbitzuen esku-hartzea eraginkorragoa dela uste baita pertsona onuradunaren etxean bertan egiten bada. Gainera, *housing first* ereduari esker, gizarteratze eremuko esku-hartze prozesuetan osagai multzoa sar daiteke (pertsonan, bizi-kalitatean, autonomia pertsonalean ardaztutako arreta) eta horien bidez, errealitatean paradigma-aldaketa sakona gerta daiteke, gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen, gizon zein emakumeen, beharrian, itxaropen eta lehentasunetara egokituagoa dagoen esku-hartzea ahalbidetuz. (SIIS, 2015). Horren haritik, *housing first* ereduaren etxebizitza-arloko esku-hartze goiztiarrean oinarritzen da, eta etxebizitza egonkorak eskaintzen dizkie zentzuzko prezioan kalean bizi diren edo larrialdietarako gailuetan dauden pertsonari, gizarte-laguntza eta osasun-laguntza intentsiboa eskainiz. Nolabait ere, *housing first* ideia (etxebizitza lehenengo, ingelesez) kontrajarri egiten da etxerik gabeko pertsonekin esku hartzeko ikuskera tradizionalen azpian dagoen aurretiko ideiarekin, hots, tratamendua lehenengo, ideiarekin. Estrategia honek izan duen arrakasta ikusirik, Europar Batasuneko herrialde ugari etxegabetasuna errotik kentzeko estrategiaren ildo nagusi bezala –kontzeptu zabalagoarekin eta aldagai askorekin– txertatu dute⁵⁶.

⁵⁵ Eredu honen adibide bat etxerik gabeko emakumei aplikatutakoa Easton eta Matthews-en (2012) lanean ikus daiteke,

⁵⁶ Hábitat programa Estatuan etxebizitza lehenengo filosofia ezartzen duen lehenengo ekimenetako bat da. Aurretiko emaitzak etorkizun handikoak dira, bizi-kalitateari dagokionez, zein tokiaren kostuari dagokionez (34 €/egunear, «dauden baliabideek duten kostuaren antzekoa edo txikiagoa») [RAIS Fundazioa, 2015].

6.3. Emakumeei eskaintzen zaion arreta etxe gabeko pertsonentzako zerbitzuetan

La femme sans-abri en Europe, emakumeen etxegabetasunaren erreferentzia-lantzat hartzen den liburuan, Edgar eta Doherty (2001: 262) egileek Europan emakumeei arreta eskaintzeko bi modu bereizten dituzte⁵⁷: espezifikoki emakumeentzako diren zerbitzuak eta zerbitzu orokorrak. Baliabide orokorrek ustez genero-neutraltasuna daukaten arren, adostasun argia dago esaterakoan gizonak hartzeko pentsatuta egon ohi direla, eta ez dituztela betetzen etxerik gabeko emakumeen beharrian bereizgarriak. Ildo beretik, gizarte-zerbitzuak eta oro har, gizartea inguratzen duten androzentrismoa baino ez dute erakusten eta etxerik gabeko biztanleriaren artean emakumeek talde txikia izateak larriagotu egiten du.

Ikerketa gehienak bat datoz, beraz, emakumeentzako zerbitzu espezifikoen garrantzia nabarmentzean, bereziki indarkeria matxistaren biktima izan badira, baina horrek ez du esan nahi zerbitzu orokorretan ere behar diren egokitzapenak eskatu behar ez direnik, emakume zein gizonei bidezko arreta eskaintzen dietela bermatzeko. Nolanahi ere, Edgar eta Doherty-ren (ibidem) ustez, emakumeentzako baliabideen garrantzia hiru faktorek mugatuta dago:

- Eskaintzaren eskasia.
- Etxerik gabeko emakumeen profil oso zehatzetan arreta jartzea: ama ezkongabe gazteak eta genero-indarkeria jasan duten emakumeak.
- Arreta integralaren falta.

Hurrengo ataletan gai horiek aztertuko dira, diagnostiko hau geroko ikerketetatik ondorioztatutako diagnostikoekin eta txosten honetako fase kualitatibo eta kuantitatiboan jasotako datuekin osatu eta alderatuz.

6.3.1. Etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuen eskaintza EAEn eta emakumeentzako lekuen hornidura espezifikoa

Etxerik Gabeko Pertsonen Laguntzeko Zentro eta Zerbitzuen Inkestako azken datuen arabera, EAEk etxerik gabeko pertsonak laguntzeko Estatu osoko sarerik onenetako bat du. Baina zer gertatzen da espezifikoki etxerik gabeko emakumeekin? Edgar eta Doherty-k *La femme sans-abri en Europe* lana argitaratu eta hamabost urte geroago, egokia izango al litzateke emakumeentzako baliabide-eskaintzaren eskasiari buruz egin zuten diagnostikoa gure testuingurura ekartzea? Atal honek helburu bikoitza du, batetik etxerik gabeko pertsonen EAEn duten baliabide-sarearen ezaugarriak aztertzea ikuspuntu kuantitatibotik, eta bestetik, Edgar eta Doherty-k emakumeentzako zerbitzu-eskaintzaren eskasiari buruz egin zuten diagnostikoa eguneratzea.

Erantsitako taulak 2014an etxerik gabeko pertsonentzako egoitza-zentroen eta eguneko arreta eskaintzeko zentroen kopurua jasotzen du, bai EAerako –eta Lurralde Historiko eta hiriburu bakoitzarentzako–, zein Estatu osorako. Datu hauen arabera, 2014an EAEk 234 zentro daude, eta horietan ostatu hartzeko 2.771 toki, jateko 2.104 toki eta lan edota hezkuntzarako eguneko arretako 1.555 leku daude. Horrek esan nahi du, 1.000 biztanleko 1,27, 0,96 eta 0,71 tokiko hornidura dagoela, hurrenez hurren, Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetakoa baino askoz ere handiagoa⁵⁸.

⁵⁷ Edgar eta Doherty-k zuzendutako laneko kapituluetakoa batean, Bruto de Acosta eta Baptistak (2001: 60 or. eta hur.) sailkapen zehatzago bat proposatzen dute Portugalentzako. Sailkapen horretan, baliabideen erabiltzaileen profila eta beren hasiera historikoa hartzen dituzte kontuan. Hala, emakumeentzako zerbitzu espezifikoen barruan hauek bereizten dituzte: a) erlijio-jatorria duten zerbitzuak, beren ardurapean seme-alabak dituzten emakume, sexu-langile eta espetxean egon diren emakumeengan espezializatuak; eta b) joera feminista dutenak, batez ere genero-indarkeriaren eta prostituzioaren biktimentzako. Tipologia hau Europa mediterraneoko beste herrialde batzuetan ere erabil liteke.

⁵⁸ Estatuan, ostatu hartzeko lekuen estaldura 0,36koa da –EAEkoa baino 3,5 aldiz txikiagoa– eta jateko eta eguneko arretako 0,49 eta 0,31 leku 1.000 biztanleko, hurrenez hurren,

55. taula. Zentro-kopurua, etxerik gabeko pertsonak laguntzeko zentro eta zerbitzuetan dauden lekuak eta artatutako pertsonak, EAEn eta Espainian. 2014

	EAE					Espainia
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Bakarrik Hiriburuak*	Guztira	
Zentro-kopurua	28	127	79	148	234	794
- Ostatu hartzeko lekua duten zentroak	24	100	71	115	195	580
+Eskakizun gutxiko aterpetxeak eta zentroak	4	10	7	16	21	d.g.
+Bizitoki kolektiboak eta etxebizitzak	20	90	64	99	174	d.g.
-Eguneko zentroak	2	19	5	23	26	60
-Jantoki sozialak	1	5	3	6	9	67
-Kaleko esku-hartzea	1	3	-	4	4	87
Tokiak						
Ostatu hartzeko tokiak	516	1.300	955	1.969	2.771	16.882
-Eskakizun gutxiko aterpetxeak eta zentroak	106	261	182	459	549	d.g.
-Bizitoki kolektiboak eta etxebizitzak	410	1.039	773	1.510	2.222	d.g.
Jantokietako tokiak	335	1.302	467	1.609	2.104	23.074
Eguneko zentroetako tokiak	340	733	482	1.280	1.555	14.516
Artatutako pertsonak						
Ostatu hartuta dauden pertsonak	361	1.027	669	1.605	2.057	13.596
-Eskakizun gutxiko aterpetxeak eta zentroak	81	250	167	432	498	d.g.
-Bizitoki kolektiboak eta etxebizitzak	280	777	502	1.173	1.559	d.g.
Eguneko zentroetan artatutako pertsonak	266	692	458	1.157	1.416	13.146

* Bilbo, Donostia eta Gasteizko datu globalak eskaintzen ditu.

Iturria: geuk eginikoa, Eustaten eta INEren datuetan oinarrituta. Etxerik Gabeko Pertsonen Laguntzeko Zentro eta Zerbitzuen Inkesta, 2014.

Ostatu hartzeko zentroei dagokienez, EAEn 195 zeuden 2014an, eta guztira ostatu hartzeko 2.771 leku zituzten. Horietatik guztietatik, 21 aterpetxeak edo eskakizun gutxiko zentroak ziren eta guztira 549 leku eskaintzen zituzten⁵⁹, hau da, ia zeuden leku guztien %20. Gainerako zentroak (174 guztira) ostatu-hartze kolektibo eta etxebizitzaren modalitateez osatua, 2.222 leku eskaini zituzten guztira, eta abenduaren 15ean 1.559 pertsonen aldi baterako etxebizitza eman zien. Lurralde-ikuspegitik begiratuta, nabarmena da ostatu hartzeko zentroek Araban eskaintzen duten estaldura (1,60 leku 1.000 biztanleko, Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz 1,34 eta 1,13koa da estaldura hurrenez hurren) eta baita baliabide gehienak hiru hiriburuetan egotea⁶⁰ (aterpetxeetako eta eskakizun gutxiko zentroetako lekuen %84 eta gainerako bizitegi-baliabideen %68)⁶¹.

Zentro hauetan artatutako lehentasunezko biztanleriari dagokionez, zentroen %62,6k egoera edo arazo zehatz batera bideratuta zegoela adierazi zuen. Gainerakoek, zentro guztien herenak –erabilgarri dauden leku guztien %47,1– ez du lehentasunezko biztanleriarik. Lehentasunezko biztanleria dutenen artean, gehien artatu duten egoera immigrazioa izan zen (leku guztien %13,1), genero-indarkeria (%11,6) eta hainbat drogekiko adizioa (%8,6) eta gutxien nahasmendu mentala duten pertsonak artatu dituzte (%3,3).

⁵⁹ Datu hauen erreferentzia-data 2014ko abenduaren 15a da, egun horretan zentroek hotzaren aurkako neguko eskaintza indartzen dute zentroek.

⁶⁰ 2014an, hiru hiriburuetan bizi zen biztanleria (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) EAEn bizi zen biztanleria osoaren %35 zen.

⁶¹ Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago, Lurralde Historikoaren arabera deszentralizazio-maila desberdinak daudela. Horrela, ostatu hartzeko zentro guztien %87,5 Gasteizen dago, eta Bizkaiko hiriburuan, aldiz, %71, eta Gipuzkoan, zentroen %32, 4 bakarrik dago Donostian.

56. taula . Ostatu hartzeko zentro-kopuruaren eta lekuen banaketa, lehentasunezko biztanleria-motaren arabera. EAE 2014

	Zentroak		Tokiak	
	K.	(%) zentrozen guztizko kopurua erreferentziat hartuta	K.	(%) tokien guztizko kopurua erreferentziat hartuta
Lehentasunezko biztanleriaduna	122	62,6	1.467	52,9
Espetxean egondakoak	10	5,1	101	3,6
Alkoholarekiko eta drogekiko adikzioa	22	11,3	239	8,6
Immigrazioa	22	11,3	363	13,1
Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak	29	14,9	321	11,6
Zentroetan hartutako adin txikikoen adin-nagusitasuna	18	9,2	188	6,8
Nahasmendu mentala	4	2,1	91	3,3
Bestelakoak	17	8,7	164	5,9
+ GIB-hiesa duten pertsonak	4	2,1	--	--
+ Emakume ahulak	9	4,6	--	--
+ Prostituzioa	2	1,0	--	--
+ Beste egoera batzuk	2	1,0	--	--
Lehentasunezko biztanleriarik gabea	73	37,4	1.304	47,1
Guztira	195	100,0	2.771	100,0

(--) Sekretu estatistikoari lotuta dagoen informazioa.

Iturria: Eustat. Etxerik Gabeko Pertsonei Laguntzeko Zentro eta Zerbitzuen Inkesta, 2014.

Eguneko zentroi dagokionez, EAEn, etxerik gabeko pertsonentzako 26 zentro daude guztira (Estatu osoan dauden zentrozen %43) eta lan edota hezkuntzarako prestatzeko eguneko arretako 607 leku eskaintzen dituzte guztira. Leku horiei beste zentro batzuek eskaintzen dituztenak gehitzen badizkiegu (funtsean, ostatu hartzeko zentroak, baina baita jantoki sozialak ere) guztira 1.555 leku daude (ikus155). Bizitoki-lekuen hornidurarekin gertatzen den bezala, kasu honetan ere lekuen estaldura nabarmen handiagoa da Araban (1,06 leku 1.000 biztanleko) beste bi herrialdeetan baino (0,64 eta 0,67 Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren, eta askoz ere handiagoa hiriburuetan (1,65) gainerako udalerriekin alderatuz gero (0,19 leku 1.000 biztanleko). Eguneko zentroz gain, EAEk 9 jantoki sozial ere baditu, 1 Araban, 5 Bizkaian eta 3 Gipuzkoan. Jantokiek guztira 918 jateko leku eskaintzen dituzte. Halaber, kaleko esku-hartze zerbitzuak eskaintzen dituzten 4 zentro daude, espezifikoki etxerik gabeko pertsonentzako, horietatik bat Araban dago eta gainerako hirurak Bizkaian.

57. taula . Etxerik gabeko pertsonentzako zentroetako langileak, gastua eta finantzazioa, EAEn eta Espainian. 2014

	EAE					Espainia
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Bakarrik Hiriburuak*	Guztira	
Langileak, guztira	227	1.214	650	1.856	2.091	17.572
Langileak sexuaren arabera						
- Gizonak	67	378	277	645	722	6.246
- Emakumeak	160	836	373	1.211	1.369	11.326
Langileak lan-loturaren arabera						
- Soldatapekoak	156	621	253	858	1.030	5.417
+Kontratu mugagabea	129	526	205	d.g.	860	4.246
+Aldi baterako kontratua	27	95	48	d.g.	170	1.171
- Subkontratatuak	0	43	10	38	53	549
- Boluntarioak	58	488	381	880	927	10.710
- Beste langile batzuk	13	62	6	80	81	896
Gastuak (milako eurotan)	6.730	24.230	13.975	36.919	44.936	d.g.
Finantzaketa Publikoa (%)	93,7	83,7	88,2	85,7	86,6	d.g.

* Bilbo, Donostia eta Gasteizko datu globalak eskaintzen ditu.

Iturria: geuk eginikoa, Eustaten eta INERen datuetan oinarrituta. Etxerik Gabeko Pertsonei Laguntzeko Zentro eta Zerbitzuen Inkesta, 2014.

Aipatutako zerbitzu eta zentro guztietan lan egiten duten langileei dagokienez, ohar batzuk egin behar ditugu: Inkestaren datuen arabera, 2014an etxerik gabeko pertsonak laguntzeko zentroetan 2.091 pertsonak lan egiten dute. Laneko lotura kontuan hartuz, langileen %49,3 soldatapekoa da, %44,3 boluntarioa, %2,5 subkontratutako langileak eta %3,9k beste lotura bat zuten (erlijiosoak, praktiketako langileak,...). Bestalde, azpimarragarria da zentro honetan lan egiten duten pertsonen artean gehienak emakumeak (%65,5) eta lanaldi mugatuko langileak (%61,2) direla⁶².

Soldatapeko langileei dagokienez (1.030 pertsona), esan behar da gehienak kontratu mugagabea duten langileak direla (%83) eta, kasu honetan ere, soldatapeko langileen hamarretik zazpi emakumeak dira. Kopuru erlatiboetan, etxerik gabeko pertsonak laguntzeko zentroetan lan egiten duten langileak EAEko gizarte-zerbitzuetan lan egiten duten pertsonen %6,1 dira. Halaber, bere hedadura –pertsona-kopurua bakarrik kontuan hartuta, eta ez laneko orduak– EAEn oinarritzko gizarte-zerbitzuek duten langile-horniduraren besteko dela esan daiteke⁶³.

Azkenik, baliabide hauei eusteko egiten den ahalegin ekonomikoari dagokionez, aurreko taulan ikus daitekeen bezala, EAEko gizarte-zerbitzuen sarean etxerik gabeko pertsonen emandako laguntzak 45 milioi euroko gastua ekarri zuen 2014an. Gastu hori (39 milioi euro) Administrazio publikoek finantzatu zuten batez ere. Egindako gastu publikoa bakarrik kontuan hartuta, etxerik gabeko pertsonak laguntzeko sarean, gizarteratzeko gizarte-zerbitzuetan egindako gastu publikoaren %44 gastatu da, prestazioak eta laguntza ekonomikoak alde batera utzita, eta EAEko gizarte-zerbitzuetan egindako gastu publikoaren %2,4⁶⁴.

Etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzu eta zentroyen sarearen ikuspegi orokorra egin ostean, emakumeentzako leku espezifikoeetan jarriko dugu arreta orain. Lurralde jakin batean dagoen zerbitzu-sarearen egokitzapena neurtzeko adierazle bakarra edo onena dauden lekuak erabiltzaileen sexuaren arabera banatzea izango litzatekeela pentsa litekeen arren, gai horri buruzko aurretiko azterketa egitea komeni da, emakumei eskaintzen zaie arreta espezifikoa neurtze aldera.

Kontsultatutako informaziotik ondorioztatu daitekeen bezala (ikus 58), EAEn dauden etxerik gabeko pertsonentzako ostatu hartzeko 195 zentroek eskaintzen dituzten lekuen ia hiru laurdenak (%73,4) mistoak dira, hots, gizon, zein emakumeentzako dira. Eskaintzen dituzten gainerako zentroak (guztira dauden 2.771 lekuetatik 737) gizonentzako bakarrik (%12) edo emakumeentzako bakarrik dira (ia %15). Ostatu hartzeko lekurik ez duten gainerako zentroyei dagokienez, hau da, jantoki sozialei, eguneko zentroyei edo kaleko esku-hartzeari dagokienez, emakume zein gizonen eskaintzen zaie arreta, bereizketarik egin gabe

⁶² Tasa handi hau boluntario-kopuru handiak azaldu dezake. Soldatapeko langileak bakarrik kontuan hartzen badira, lanaldi mugatuko langileak %41 dira.

⁶³ 2013ko Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Ekintzako Estatistikaren arabera, gizarte-zerbitzuen erdigunetzat hartu daitekeenak 16.948 pertsona ditu. Bestalde, eragiketa honek adierazten duenez, 2013an EAEko oinarritzko gizarte-zerbitzuetan 1.056 langile zeuden batez beste urtean.

⁶⁴ Kalkulu hauek Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistikarako Organo Bereziak egiten duen Gizarte Zerbitzuetan egiten den Gastu Publiko Arruntari buruzko ikerketan (2013) oinarrituta daude.

58. taula. Zentroen edo zentro-sareen kopurua eta leku-kopurua zentro motaren arabera eta zentroetan artatutako biztanleriaren arabera, sexuka. EAE 2014

	Zentro-kopurua edo zentro-sareen kopurua				Toki-kopurua*			
	Gizonak bakarrik	Emakum eak bakarrik	Mistoa	Guztira	Gizonak bakarrik	Emakum eak bakarrik	Mistoa	Guztira
Ostatu hartzeko lekua duten zentroak	33	41	121	195	329	408	2.034	2.771
- Gaueko aterpetxeak edo harrera-zentroak	2	-	19	21	(*)	-	(*)	549
- Harrera-zentroa ⁽¹⁾	1	5	6	12	(*)	103	(*)	223
<i>Guztira</i>	3	5	25	33	28	103	641	772
Berehalako harrera egiteko etxebizitza, apartamentua (larrialdia)	-	10	27	37	-	98	289	387
Aldi baterako egiteko edo ostatu hartzeko etxebizitza, apartamentua	6	20	32	58	82	169	493	744
Gizarteratzeko etxebizitza, apartamentua (egonaldi mugagabea)	24	6	26	56	219	38	339	596
Bizilekua	-	-	11	11	-	-	272	272
Ostatu hartzeko tokirik ez duten zentroak edo zerbitzuak	-	-	39	39	-	-	1.525	1.525
Jantoki soziala	-	-	9	9	-	-	918	918
Eguneko zentroa	-	-	26	26	-	-	607	607
Kaleko esku-hartzea	-	-	4	4	-	-	(**)	(**)
Guztira	33	41	160	234	329	408	2.034	2.771

(*) Sekretu estatistikoari lotuta dagoen informazioa.

(**) Zerbitzu honek dituen ezaugarriengatik ez da lekurik jasotzen.

(1) 24 orduetan laguntza ematen duen aldi baterako harrera-zentro kolektiboa.

*Ostatu hartzeko lekuak dituzten zentroetan ostatu hartzeko lekuen kopurua adierazten da, eta gainerakoetan jateko lekuen kopurua (jantoki sozialean) eta eguneko arretarako lekuak (eguneko zentroetan).

Iturria: Etxerik Gabeko Pertsonen Laguntzeko Zentro eta Zerbitzuen Inkesta, 2014.

Oro har, arreta ostatu hartzeko lekuak dituen zentroetan jarriz gero, bi ondorio argi azpimarratu daitezke:

- Emakumeentzako toki espezifikoaren gabezia (edo urritasuna) aterpetxeetan edo gaueko harrera-zentroetan: Etxerik Gabeko Pertsonen Laguntzeko Zentro eta Zerbitzuen Inkestako datuen arabera, zentro hauek eskaintzen dituzten leku gehienak mistoak dira. EAEn dauden 21 aterpetxe edo gaueko harrera-zentroetatik, 19k toki mistoak eskaintzen dituztela adierazten dute eta 2k gizonentzako tokiak bakarrik eskaintzen dituzte. Hasiara batean deigarriak iruditu daitezkeen datu hauek zehaztea merezi du. Hala da, zentro bateko lekuak esleitzerako orduan estatistika honek hiru aukera bakarrik eskaintzen ditu (gizonak bakarrik, emakumeak bakarrik eta mistoa), eta beraz, ez du barne hartzen, zentroa mistoa izanagatik ere, espezifikoki emakumeentzako lekuak gordetzeko aukera. Ildo beretik, beste iturri batzuen bidez, EAEn, gaueko harrera-zentro eta aterpetxeen kategorietako hiru zentrotan, gutxienez, emakumeentzako plazak gordetzen direla jakin ahal izan dugu. Horietako bat Gasteizko aterpe Gaueko Zentroa da, eta dituen 32 lekuetatik 3 emakumeentzako dira; bigarrena Bilboko Elejabarri udal-aterpetxea da (71 lekuetatik 16 emakumeentzako gordeta daude; eta hirugarrena Errentariako Gaztetxuloa da (23 lekuetatik 3).
- Egonaldia luzatu ahala, etxebizitzetan murriztu egiten dira emakumeentzako leku espezifikoak: harrera-zentroak eta larrialdietako etxebizitzak –leku hauetan bereziki emakumeentzako gordetako lekuak %33 inguru dira, neurri handi batean, kategorian honen barnean berehalako harrera egiteko zentroak eta genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako larrialdietako etxebizitzak daudelako– eta egoitzak –egoitzetan dauden leku guztiak mistoak dira– alde batera utzita, deigarriak dira inkesta honetan sartu diren gainerako bizileku-moduak. 58ko datuetatik ondorioztatu daitezkeen bezala, aldi baterako harrera egiteko etxebizitzetan, emakumeentzako lekuen proportzioa %22,7koa da, baina egonaldi mugagabea etxebizitzetan %6,4koa bakarrik. Aldiz, espezifikoki gizonentzako diren lekuak egonaldi mugagabea etxebizitzetan dauden lekuen ia %37 dira eta aldi baterako etxebizitzetako lekuen %11.

6.3.2. Emakumeentzako bakarrik diren baliabideak? Zeharkako genero-ikuspegirantz

Emakumeentzako bakarrik diren lekuak egon behar al dira etxerik gabeko pertsonak laguntzeko baliabideetan? Aztertutako literaturan etengabe eskatzen dira emakumeentzako bakarrik diren baliabideak⁶⁵. Eskaera azterlanetako ondorioetan ez ezik, azterlanetan parte hartu duten etxerik gabeko hainbat emakumeren iritzietan ere adierazten da (ikus, adibidez, Henry *et al.*, 2010) Dena den, informazio hau zehaztu egin behar da.

Kontsultatu dugun bibliografian oinarrituta, baliabide hauen alde sortzen diren berehalako argudioetako bat etxerik gabeko emakumeei segurtasuna eskaintzen dietela da indarkeria matxistaren mehatxuaren aurrean. Esan bezala, genero-indarkeriak espezifikoki emakumeen esperientziari lotuta dagoen etxea galtzea eragin dezake, eta indarkeria matxista mehatxu etengabea da kalean lo egin behar duten emakumeentzako; horregatik, etxerik gabeko emakume gehienek ezkutuko etxegabetasuneko ordezkotako estrategiak aukeratzeko funtsezko arrazoia da⁶⁶. Ondorioz, etxerik gabeko emakume askok beldurra edo mesfidantza izaten dute baliabide misto batean ostatu hartzeko aukera dutenean (Henry *et al.*, 2010; Perez, 2014), bereziki genero-indarkeriaren biktimak baldin badira. Sentimendu horiek euren osasun eta ongizaterako kaltegarriak izateaz gain, beste oztopo bat gehiago dira ahalduntze-prozesuetan eta emakume horiek dituzten arazoan gaiztozko prozesuetan.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako baliabide espezifikoak alde batera utzita, horri buruz ahobatezko adostasuna baitago, emakumeentzako bakarrik diren beharrei buruzko eztabaida eztabaida-taldeetan aztertu den gaietako bat izan da, eta argi eta garbi indarkeria matxista identifikatu da kontuan hartu beharreko alderdi gisa:

Adibidez, espetxean dauden emakumeei dagokienez, batzuek galdetzen zidaten ea zergatik ez genuen baliabide bat emakumeentzako bakarrik irekitzen [...] Guk etxebizitza txiki bi ditugunez, hasierako ideia mistoak izatea zen. Hala ere, aurkitu genuen egoera hauxe izan zen: [gizonen] portzentaje handi bat genero-indarkeria eragindakoa zen, eta oso zaila zen espetxean egondako emakumeak erasotzaile izandako gizonekin sartzea. Espetxean egondako emakume askok salatu ez arren, genero-indarkeria jasan dute, eta ezin genituen nahastu.

Dena den, ezin daiteke ondorioztatu etxerik gabeko pertsonak laguntzeko sare osoan bereizketaredua ezarri behar denik. Egindako eztabaida-taldean garapenean sortutako gogoetek gai honi buruzko hausnarketa sakonago bat egiteko beharra mahaiganeratzten dute. Horren haritik, gizarte mistoan bizi garenez, uste da ez litzatekeela zabaldu behar gizon eta emakumeentzako baliabide espezifikoaren ereduak. Baina horrek ez du esan nahi arazo zehatz batzuk dituzten pertsonak laguntzeko baliabide hauek behar ez direnik eta are gutxiago, gaiaren oinarria aztertu behar ez denik, izan ere, emakumeen bereizgarriari ematen zaien erantzun urria alde batera utzi gabe, ez baita onartzen bizitegi-bazterketaren eremuko laguntza-politikek edo baliabideek eduki beharko luketen genero-oinarria.

Horren haritik, gaiari buruzko bibliografiak salatzen dutenez, baliabide mistoen diseinu eta funtzionamenduak ez du emakumeen beharrak kontuan hartzeko ohiturarik, genero-alborapenarekin sortuta baitaude. Arartekoaren etxerik gabeko pertsonen egoerari buruzko txostena (ibidem: 312) argi eta garbi erakusten zuen arazoa⁶⁷:

⁶⁵ Vanneville-k (2010: 15) esandakoa jarraituz, nolahi ere, zehaztu daiteke eskatzen dena gizonik gabeko guneak direla, ez gizonen kontrakoak.

⁶⁶ Halaber, aipatu beharra dago, kalean edo ostatu hartzeko zerbitzu jakinetan izandako erasoen emakumeengan eragin gehiago badute ere, gizonen ere badutela mehatxu hau (Bowpitt *et al.*, 2011: 544). Mehatxua zentroen gainbegiratze eskasarekin lotzen da (ibidem; Henry *et al.*, 2010).

⁶⁷ Zerbitzu hauetan emakumeak gutxiago izateagatik soilik, beren betebeharrak behar bezala beteko ez dituztela eta, zerbitzuekiko aurreiritzia eragin dezakete emakumeengan (ibidem: 231), eta ondorioz, beraiekin gauzatu daitezkeen esku-hartzearen aurkako jarrera hartu dezakete aurrez.

Etixerik gabeko pertsonen oinarrizko beharrak artatzen dituzten baliabideak eta zerbitzuak gizonentzako diseinatuta daude. Emakumeentzako dauden baliabide espezifikoak beren familia-erantzukizunengatik edo tratu txarrak bizi izan dituztelako artatzeko diseinatzen dira. Ez dago, zehazki, etxerik gabeko emakumeak artatzeko diseinatutako baliabiderik. Baliabide mistoak, egia esan, emakumeak sar daitezkeen gizonentzako baliabideak dira. Emakumeek gizonen ez bezalako beharrak eta inplikazio emozionalak dituzte.

Zerbitzu hauetan emakumeak gutxiago izateagatik soilik, beren betebeharrak behar bezala beteko ez dituztela eta, zerbitzuekiko aurreiritzia eragiten dute emakumeengan (ibidem: 231), eta ondorioz, beraiekin gauzatu daitezkeen esku-hartzearen aurkako jarrera hartu dezakete aurrez.

Nire ustez, automatikoki, gehienbat gizonen okupatutako baliabidera joaten direnean, lehenik eta behin, beldurra eragiten die eta segurtasun eza sortzen du emakumeengan, eta ez dute beren espaziotzat hartzen. [...] Batzuetan gu ere, bizitegi-bazterketako egoeran ez gaudenok, ahaldunduta gaudenok, beldurtu egiten bagara, imajinatu bizitoki-baliabide horietara joaten diren emakumeak nola sentitzen diren...

Zentro mistoan egon daitezkeen banaketa fisikoak, eremuak banantzen saiatzeko dauzkaten elementuak, edo gune *seguruagoak* (kamerak) edo intimoagoak (sarrailak) sortzeko bitartekoak alde batera utzita, oro har bat datoz esaterakoan, arreta ez bakarrik, baina funtsean arreta-ereduan eta langileen lanean ardaztu behar dela:

Joera gizarte mistoa da, baina hori egiten badugu eta profesionalak egiten duguna arretan bazterketa-eredu maskulinoenak txertatzea bada, zaila da profesional berak eredu desberdinak edukitzea zentro mistoaren barnean. Beharbada, uste dut, zentro mistoak ez direla oso lagungarriak emakumeentzako, nolabaiteko eredu maskulinoan oinarritzen baikara. Gakoa profesionalok arreta-sistema kudeatzeko dugun modua da.

Hain zuzen ere, kontsultatutako literaturak agerian uzten du programa eta zerbitzuen diseinuari buruzko arazoaz gain, arreta eskaintzen dieten profesionalen arazoa ere badagoela, kritikak izaten baitituzte. Henry *et al.*-en (2010) esanetan, etxerik gabeko emakumeek borondate ona, onarpena eta laguntza behar dute eta langileen jarrera oinarrizkoa da esku-hartzez arduratu daitezen. Hala ere. Ingalaterran egin zuten ikerketan zehar, etxerik gabeko emakumeekiko gaitzespen-jarrerak, jarrera amore-emaileak edo mespretxuzkoak erakusten zituzten testigantzak jaso zituzten. Profesionaltasunik gabeko jarduera horiek, etxerik gabeko emakume askok jasan duten indarkeria matxistaren esperientzia eta profesionalen generoaren arloan duten prestakuntza-faltarekin batuta, baliabideen erabiltzaile izan litezkeen emakume askok lanean diharduten gizonetikiko duten mesfidantza azaldu dezakete (Henry *et al.*, 2010: 32-33), eta baita ere, etxerik gabeko emakumeen beharrak ulertzeko duten ezintasunari egindako kritikak (ibidem: 33), eta etxerik gabeko emakumeentzako programa eta inoiz, zerbitzuetan emakumezko langileak bakarrik kontratatzeako eskaera (Reeve *et al.*, 2007; Enders-Drägässer, 2010; Henry *et al.*, 2010).

Hautemate horietako batzuk elkarrizketatutako emakumeen kontakizunetan ikus daitezke argi eta garbi:

Aterpetxe horretan zaintzaile guztiak gizonenak ziren, eta nik nahiago nuen galdera batzuk emakumezkoek egin. Izugarri harritu ninduen emakumerik ez egoteak, gauza batzuk erosoago hitz egiten baitira emakumeekin: batzuetan agian konpresa bat edo beste zerbait behar duzu, tontokeriak dira baina... Gizarte-langile eta -hezitzaileak bazeuden, baina oso ordutegi mugatua zuten [...] Gero, zaintzaileak, gatazketan esku-hartzerakoan, ez dute sentikortasunik, eta nire ustez, ez daude prestatuta gatazka jakin batzuk ebazteko. Beste egoera askotan gertatu daitezke gatazkak, baina hango ikuspegia «hau egiten baduzu, joan egin beharko duzu» da, poliziaren antzekoa, eta ez dute kontuan hartzen... Nik adibidez, emakumeen arteko istiluak ikusi ditut [...] eta istilu horien ondorioz, kaleratzeko erabakia hartu zuten, kalea emakumeentzako askoz gogorragoa dela jakinda.

Isabel, 45 urte.

Beraz, etxerik gabeko zentro edo zerbitzuek duten izaera mistoaren ondorioz, –emakume eta gizonentzako arreta-ereduei buruzko hausnarketa zehatzik ez dagoenez gero– emakumeen nolabaiteko diskriminazioa sortzen da. Horren arrazoa izan liteke behar espezifikoak ez ezagutzea, baina baita genero-neutraltasuneko politika jarraituz emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dutela pentsatzearen okerreko ustea ere (Henry *et al.*, 2010: 17)⁶⁸

Errealitate honen jakitun, hirugarren sektoreko erakunde batzuek gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak artatzearen eremuan egiten duten lana azpimarratzea merezi du, hala nola, Goiztiri edo T4 elkarten lana. Elkarteok Berdintasun Plan bana gauzatu dute, eta bien jarduerak erakundetan lan egiten duten pertsonentzako ez ezik, kudeatzen dituzten programa edo baliabideen erabiltzaileentzako ere badira.

Goiztiri Elkarteak I. Plana 2007an onetsi zuen, eta egun, 2014-2016 aldirako II. Plana du. Jardueren esparruan, Ahalduntze eta Maskulinitate Eskolaren sorrera nabarmendu behar da, prestakuntza, gaikuntza eta partaidetzarako gune gisa sortua, Goiztiriko langileentzako zein erakundea erabiltzen duten bazterketa-arriskuan dauden kolektiboetako gizon eta emakumeentzako. Barne hartzen dituen jardueren artean, honako hauek azpimarra daitezke: Goiztiriko langileentzako prestakuntza-ikastaroak, genero-ikuspegia erakundearen programa eta jardueren diseinuan, gauzapenean eta ebaluazioan barne hartzeko; erabiltzaileentzako maskulinitate berrien ikastaroa, maskulinitate-eredu tradizionalak eztabaidatzeko edo indarkeria matxista deslegitimatuzko; edo emakumeentzako gaikuntza-tailerrak genero-indarkeriako egoerei aurre egiteko.

T4 elkarteari dagokionez, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Planak barne hartzen dituen helburu eta ekintzen artean dago genero-ikuspegia erakundearen baliabide eta programetan txertatzea, berdintasunaren arloan langileentzako ikastaro espezifikoak egitea, edo emakume eta gizonen talde berezituak sortzearen esperientzia pilotua, gizonen taldea maskulinitate berriei buruzkoa eta emakumeena ahalduntzea eta autonomia sustatzeko taldea.

Bibliografia espezializatuak emakumeentzako bakarrik diren gune eta programak eskatzeko azken arrazoa, berdinen artean laguntza-harremanak sortzeko aukerak ugaritzen dituela da, bai adostutako jardueren bidez, bai elkarrekintza informaletan zehar. Bristolen (Erresuma Batua) egindako etxerik gabeko emakumei buruzko ikerketa batean, Henry *et al.* (2010: 33) egileek laguntzazko harreman hauei garrantzia handia ematen diete bizitza autonomoa eraikitzerakoan.

Gai hau eztabaida-taldeetan ere aztertu da, eta bertan nabarmendu da emakumeentzako eta emakumeekin lan egiten duten erakundeentzako dakartzaten onurak, laguntza-harremanetan parte hartzen duten emakumeengandik jaso duten balorazio positiboa eta gizonen osatutako taldeak sortzeko aukera, generoari buruzko gaiak eztabaidatu ahal izateko. Beste lurralde-eremu batzuetako teknikariekin egindako elkarrizketetan oinarrituta, jakin ahal izan dugu, esaterako, talde hauen sorrera zabaldu samar dagoela Bartzelonako eguneko zentro batzuetan, non emakumeen taldeak biltzen baitira hainbat gai (pertsonalak edo kolektiboak) aztertzeko taldearen osakeraren arabera. Taldearen helburu nagusia elkarri laguntzea da.

Talde horien beharra, emakumei egindako elkarrizketetan zehar jasotako testigantza batzuetan ere agertzen da.

Hain aldenduta gaude, ezen ondo konpontzeko aukera izan arren... Bakarrik sentitzen baikara. Ez da harremanik ezartzen, zeren zeregin batzuek bakarrik elkartzen bazaituzte, ez dakizu besteari zer gertatzen ari zaion. Taldeko terapia bat egongo balitzateke, hiru aukera egongo liriteke: lehenengoa entzutea eta ez hitz egitea, bigarrena pixka bat parte-hartzea eta hirugarrena zure kasua kontatu eta besteek laguntzea, eta zuk ere besteek laguntzea. Ez dagoenez, zure alboko gelan dagoen pertsona ere ez duzu ezagutzen.

Paloma, 35 urte.

⁶⁸ Beste hainbeste esan liteke emakumeentzako bakarrik diren baliabideei buruz: baliabideok egoteak ez du esan nahi, derrigorrez, horietan genero-ikuspegia kontuan hartzen denik.

Oro har, ondorioztatu daiteke, ez dela nahikoa emakumeentzako bereziki pentsatuta dauden zentro, programa eta gune gehiago edukitzea, baizik eta gehienbat gizonak artatzen dituzten zentro, programa eta gune generikoek ere genero-ikuspegia txertatu beharko lukete, maskulinitate-ereduak ulertu ahal izateko eta horietan eta horiekin esku hartzeko. FEANTSAk, etxegabetasuna eta genero-indarkeriari buruzko adierazpen baten (2007: 4) arabera, adibidez, herrialde batzuetan «onuragarria izan liteke emakume eta umeentzako zerbitzuetan eredu eta harreman maskulino positiboak izatea» eta emakumeentzako bakarrik diren zerbitzuak erabilgarriagoak izan litezke «[esku-hartzearen] hasierako fasean edo bereziki ahulak diren taldeentzako, gutxiengo etnikoentzako, esaterako». Etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuen kalitateari buruz FEANTSAk egindako beste dokumentu batean (2011), gutxieneko estandarren ezarpena balioesten du –oraindik ez dira oso ohikoak Europan–, eta Hungariako araudia jartzen du adibidetzat, besteak beste, zerbitzu mistoak komun eta dutxa bananduak izatera derrigortzen baititu. Zufferey-k, aldiz, Australiako etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuetako langileei buruzko ikerketa kualitatiboaren amaieran, genero-ikuspegia hartzeko iradokitzen du, bidezko zerbitzuak garatzeko, eta zehazki, proposatzen duen ikuspegia da «feminismoaren aldeko ikuspegia etxerik gabeko gizonekin esku-hartzerakoan, maskulinitatearen eraikuntza nagusiei buruzko hausnarketa kritikoa egiteko aukera ematen duena» (2010:23). Azkenik, Fernández-Rasines eta Gámez-Ramos (2013: 48), eta baita Löfstrand ere (2004, *cit. in* Baptista, 2010: 175-176), etxerik gabeko gurasoen artean seme-alabekiko erantzunkidetasuna sustatuko duten aldaketak sartzearen alde mintzatzen dira.

Espezifikoki etxerik gabeko emakumeentzako programa eta zentroen erabilgarritasuna aztertu ostean, errazago uler daiteke Edgar eta Doherty-k gizarte-taldearen arretan antzemandako lehenengo muga (2001: 263): baliabide espezializatuen eskaintza urria. Gabezia hori are kezkarriagoa da, kontuan hartzen badugu, egile bien esanetan, emakumeentzako zentro eta programetan egiten diren esku-hartzeak luzatu egin ohi direla, eta horrek onuradunak izan litezkeen emakume-kopurua murrizten du. Beraz, zerbitzu espezializatuera sartzea lortzen ez duten emakumeek aukera bi dituzte: beren beharrak asetzen ez dituzten zerbitzu orokorretara joatea, edo arretarik gabe geratzea eta gizarte-zerbitzuak alde batera utzita beste aukera batzuk bilatzea, ezkutuko etxegabetasuneko egoeran. Aukera horiek zirkuluaren koadratura bitxia sortzen dute, izan ere, «emakumeentzako arreta espezifikokoaren eskaintza-eskasiak indartu egiten du eskaera mugatua denaren ideia [faltsua]» (ibidem).

Edgar eta Doherty-k beren liburua argitaratu zutenetik, zalantzarik gabe, etxerik gabeko emakumeen beharrak asetzeko gai zuren zerbitzuen eskaintza handitu egin da, baina egia da, kontsultatu ditugun azterketa askoren arabera, gutxi direla uste da. Horixe aitortzen du, adibidez, 2015-2020 aldirako Etxerik Gabeko Pertsonentzako Estrategia Nazional Integralak (Espainiako Gobernuak, 2015) bere ildo estrategikoetan zerbitzu horien sustapena barne hartzerakoan.

6.3.3. Emakumeen etxegabetasunaren era askotako aurpegiak: erabiltzaile-profil ezberdinei arreta eskaintzea

Gizarte-zerbitzuek etxerik gabeko emakumei eskaintzen dien arreta mugatua dago, emakumeentzako espezializatutako baliabide-eskaintza murriztuagatik ez ezik, baita gutxi dibertsifikatutako baliabideak daudelako ere. Edgar eta Doherty-k arazo hau orain dela hamabost urte identifikatu zuten (2001:261), zentro eta programa espezializatu hauek gehienbat seme-alabak dituzten emakume ezkongabe gazteentzako eta genero-indarkeriaren biktima izan diren biktimentzako ziren, beste profil batzuk zeuzkaten etxerik gabeko emakumeak alde batera utziz, drogamenpekotasun-arazoak dituzten emakumeak, esaterako. Gainera, egiaztatu da, talde bi hauek gainerakoek baino arreta azkarragoa jasotzen dutela (Europako Batzordea, 2013: 11-12), ahultasun bereziko taldetzat hartzen baitira.

Dena den, etxerik gabeko emakumeek izaten dituzten era askotako zailtasunen gaia asko errepikatzen da emakumeen bizitegi-bazterketa, oro har, aztertzen duen literaturan, eta elkartutako zailtasunak dituzten etxerik gabeko emakumei eskaintutako ikerketen gero eta joera zabalagoa eragin du. Zerbitzu espezializatu gehienak genero-indarkeria jasan duten emakumeengana eta beren ardurapean seme-

alabak dituzten emakumeengana bideratu izanak –gorago aipatu da– azaltzen du profil hauek sakon aztertu izatea, ikerketek etxegabetasunaren ikuspegia gutxitan kontuan hartzen duten arren⁶⁹. Etxerik gabeko emakumeen beste profil batzuen inguruko produkzio zientifikoa hasiberria da oraindik ere⁷⁰, esaterako, sexu-langileak, drogamenpekotasun-arazoak edo osasun mentaleko arazoak dituzten emakumeak, emakume adineko, emakume etorkinak, espetxean egondako emakumeak edo beren burua lesbiana, bisexual edo transexualtzat identifikatzen duten emakumeak (edo besteek identifikatu dituztenak). Azpimarratu behar da, faktore aniztasun hau ikuspegi sistemiko batekin aztertzen dela maiz, hau da, zailtasunek elkarri nola eragiten dien deskribatzen saiatuz, kausa-efektu harremanen bidez edo errefortzu-harremanen bidez.

Hurrengo azpiataletan etxerik gabeko emakume-talde bakoitzaren egoera zehatza sakonago aztertuko da.

6.3.3.1. *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak*

Beren bikote edo bikote ohien indarkeriatik ihesi etxea uzten duten emakumeak lehenetsuneko eta berehalako arreta jasotzen dute, arriskuan baitaude. Genero-indarkeriaren fenomenoaren larritasunak eta hedadurak, sorrarazten duen gizarte-sentsibilitateak eraginda, goi-mailako arau espezifikoak sortu du Espainiako Estatuak, Genero-indarkeriaren aurkako babes integralko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa. Lege horrek genero-indarkeria jasaten duten etxerik gabeko emakumeak babesten ditu. Dena den, garrantzitsua da esatea, erasotzailearen aurka salaketa jartzea nahitaezkoa dela batzuetan, dauden prestazio eta zerbitzuak erabili ahal izateko (Edefundazioa, 2012: 48-49).

Segurtasuna da biztanleria-talde honi buruzko ikerketetan agertzen den lehenengo ardurua, eta ardurarik garrantzitsuena. Lehen esan bezala, indarkeria matxistak eragindako beldurraren ondorioz, etxerik gabeko emakume askok, eta bereziki genero-indarkeria jasan dutenak, zerbitzu mistoak baztertzen dituzte (Reeve *et al.*, 2007: 39; Henry *et al.*, 2010). Azterketek ere ez dituzte baliabide mistoak gomendatzen genero-indarkeriaren kasuetarako. Baliabide mistoen ordez, emakumeen emakumeentzako bakarrik diren programa eta zentroak eskatzen dituzte, eta batzuetan, arreta emakumeek bakarrik edo batez ere emakumeek eskaintzea ere eskatzen dute (Reeve *et al.*, 2007: 39; Henry *et al.*, 2010), Alemanian egin ohi dutenaren antzera (Enders-Drägässer, 2010: 12). Hala ere, FEANTSAK jakinarazi duenez (FEANTSA Health and Social Protection Working Group, 2007: 6), etxerik gabeko emakume ugari zerbitzu misto orokorretan amaitu dezakete, bereziki kalean lo egiten bazuten edo adikzio edo osasun mentaleko arazoak bazituzten. Horregatik, atalase baxua duten ostatu hartzeko zerbitzuek gune bananduak izatea eta beren funtzionamendu androzentrikoa berraztertzea eskatzen dute, emakume hauen beharrak betetzen dituztela bermatzeko.

Emakumeentzako bakarrik diren zerbitzuei dagokienez, Tually *et al.* (2008: 35 or. eta hur.) egileek Australian genero-indarkeria jasan duten emakumeak artatzeko dauden hiru baliabide mota aztertzen ditu eta baliabideok kontuan hartzea merezi du. Lehenbizi, *safe at home programs* deitutakoak (Erresuma Batuan *sanctuary models* izenez ere ezagunak) daude, eta beren helburua da, eragoztearagindako emakumeek beren etxea uztea, etxean bertan emakumeen segurtasuna bermatuko duten neurriak ezarri. Horrela, genero-indarkeriari buruz alde aurretik pentsatzen ditugun hainbat zalantza jartzen dituzte, adibidez, erasoetatik libratzeko etxea utzi beharrenezko ideia, emakumeentzako etxean geratzea segurua ez denaren ideia eta erasotzaileak etxea inoiz uzten ez duenaren ideia. Hala ere, egileen ustetan, ebaluazio batzuetan programa hauek lortu duten arrakasta erlatibizatu egin behar da, emakume-talde murriztuak bakarrik ateratzen baitu etekina, eraso-arrisku txikia dutenek, eta arriskua objektiboki zehaztea zaila da. Beraz, programa hauek ez lirake oso eraginkorrak izango baliabideak esleitzerakoan. Gainera, ez dute tarteko ostatu-beharra kentzen, emakumeak baliabide hauetan kokatu arte bi aste igaro baitaitezke.

⁶⁹ Gogoratu emakume-talde hauetan espezializatutako zerbitzuak etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzu gisa sailkatu ohi direla (Enders-Drägässer, 2001: 260).

⁷⁰ Lerro hauetan aipatzen diren monografiak hedadura mugatu samarra dutela, batez ere, zorroztasunik gabeko zerbitzuen ebaluazioak, kasu-azterketak edo berrikuste bibliografikoak direlako. Txosten honetarako egindako dokumentu-bilaketaren asmoa ez zen gaiari buruz argitaratutako guztia aztertzea, eta horregatik, batzuetan bigarren mailako iturri egiten zaie erreferentzia, lehen mailako iturriak erabili beharrean.

Baliabideen bigarren kategoria bat *refuges* edo *shelters* izenekoek osatuko lukete. Kategoria honetan bizitegi-zentro espezializatuak zein taldekatutako harrera-etxebizitzak (cluster housing models) sartuko lirateke, biak larrialdietarako bizitokiak. Kasu honetan, Tually *et al.* egileak arduratuta daude epe ertain eta luzeko laguntzarengatik, izan ere, emakume hauek astiro osatu daitezke eta batzuetan ez dago laguntza horrekin jarraitu ahal izateko baliabiderik, zerbitzu hauetarako aurreikusitako gehieneko egonaldia gainditu ostean; eta baldin badaude, sarritan baliabide batetik bestera eramaten dituzte eta emakumeen bizitzarako disruptiboa izaten da, beren ardurapean seme-alabak badituzte bereziki. Bestalde, emakumeek baliabide hauetara sartzerakoan eduki ohi dituzten oztopoak banan-banan aipatzen dituzte egileek: zerbitzu eta lekuen falta, emakume-talde berezien (aniztasun funtzionala duten emakumeak, gutxiengo etnikoak) behar espezifikoari arreta eskasa, etxean jarraitzeko nahia, ondoeza senide eta lagunengandik urruntzeagatik, eta deserosotasuna komunitatean bizi eta zentroko arauak bete behar izateagatik. Halaber, aipatzen dute adinarekin lehentasunak aldatu egiten direla: emakume gazteak erosoago sentitzen dira taldean bizitzen; eta helduak banakako bizilekuetan.

Genero-indarkeria jasan duten emakumeek ostatu hartzeko etxebizitzak EDE Fundazioak Euskadin tratu txarrak jasan dituzten emakumeen esperientzietan oinarrituta egin zuen lanean (2012) ere ebaluatzen dira. Ikerketan parte hartu zuten emakumeek⁷¹ balorazio ona ematen die harrerako etxebizitzari, izan ere erasotzailearengandik ihes egiteko azken baliabidetzat hartzen baitituzte, baina baliabide hauetarako sarrera eskatu zutenean topatu zituzten oztopoak –instituzionalak, sozialak eta pertsonalak– ere aipatzen dituzte: etxea uzteko erabakia azkartasunez hartu beharra, salaketa edo urruntze-agindua eduki beharra, batzuetan gizarte-zerbitzuetako langileengandik jaso zuten diskurtso negatiboa, leku ezezagunean haur batekin eta dirurik gabe ostatu hartzeak sortzen duen ziurgabetasuna, une horretan izandako laguntza psikologikoaren falta, eta zerbitzua erraz aurkitu daitekeenaren ustea. Horren haritik, Casey-k (2002:87) zentroen kokapena ez zabaltzearen garrantzia gogorarazten du –sartzeko oztopoa izan daitekeen arren– eta Homes for Women (2013) kanpainak kokapen seguruak aukeratzearen garrantzia.

Tually *et al.* egileen azterlanean (2008: 50 or. eta hur.) aztertutako baliabidea *Housing First* eredua da, babespeko etxebizitzaren programa, etxegabetasunaren eremuan ohikoa dena ez bezala, banakako etxebizitza (baina laguntzarekin) eskaintzeko ahaleginak egiten ditu esku-hartzearen hasiera-hasieratik⁷². Egileek egokitzen hartzen dute genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeak artatzeko. Hala ere, Homes for Women kanpainako txosten batek (2013), biztanleria horrentzako ez dela egokia dio. Hala ere, onartzen du, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako espezifiko mota honetako proiektuak garatu direla Kanadan eta Estatu Batuetan, eta zenbaitetan, ebaluazio ona jaso dutela. Dokumentu honen arabera, lehentasunezko aukera emakumeentzako bakarrik diren zentroetan ostatu hartzea izan behar da, segurtasun handiagoa eta laguntza-sareak sortzeko aukera gehiago eskaintzen baitituzte.

EAEn, zehazki, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen bizileku-arreta irailaren 11ko 148/2007 Dekretuak garatzen du, etxeko eremuan tratu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituenak. Dekretua baliabideen sailkapen honetan oinarrituta eratzen da:

- Egonaldi laburreko berehalako harrera-zerbitzuak: eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan, balia daitezkeen baliabideak, etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeak berehala eta baliabide egokienera bideratu aurretik haien premiak balioesteko behar den denboran hartzen dituztenak.
- Egonaldi ertaineko edo luzeko harrera-etxebizitzak: etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen aldi baterako babes-eskariei eta ostatu-eskariei erantzutea dute helburu.

⁷¹ Zehaztu behar da, taldeko parte-hartzaile gutxi erabili zituztela zerbitzu hauek bereziki, eta gehienbat laguntza-sarerik gabeko emakume etorkinak zirela.

⁷² 1990eko hamarkadaren hasieran Estatu Batuetan sortutako eredu honek lortu dituen emaitza onen ondorioz, erreferentzia bihurtu da mundu osoan zehar. Espainiako Estatuan, filosofia honetan oinarritutako proiektu pilotuak abiarazi dira berriki hainbat hiritan (RAIS Fundazioa, 2015) eta mota honetako programen sustapena txertatu da 2015-2020 aldirako Etxerik Gabeko Pertsonentzako Estrategia Nazional Integralaren (Espainiako Gobernua, 2015: 42-43) ekintza-ildoetan.

- Egondaldi ertaineko edo luzeko harrera-zentroak: etxeko eremuan tratatu txarrak jasaten dituzten eta esku-hartze espezializatu integrala behar duten emakumeen aldi baterako babes-eskariei eta ostatu-eskariei erantzutea dute helburu.

Oro har, EAEk baliabide hauen hornidura egokia du, bai foru-aldundiek, bai udalerrri eta mankomunitate ugari harrera-zerbitzuak dituzte, eta arreta-sare honi balorazio positiboa eman diote elkarrizketatutako pertsonek.

Hala ere, nabarmendu beharra dago, genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako programak eta baliabideak ez daudela egokituta beste arazo batzuk dituzten bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeekin lan egiteko (Herrero, 2002). Ikuspegi honetatik begiratuta, era berean, esan daiteke, dauden zentro misto askok ez dituztela espezifikoki indarkeria matxista jasan duten emakumeek dituzten beharrizan bereziak kontuan hartzen:

Nire solairuan, denak gizonak dira ni izan ezik. Nire bikote ohiak urruntze-agindua du eta hemen inoiz ez didate galdetu hainbeste gizonekin bizitzen nola sentitzen naizen.

Paloma, 35 urte.

6.3.3.2. *Ama diren emakumeak*

Kontsultatu ditugun ikerketak bat datoz, esaterakoan genero-desberdintasun handiak daudela, emakume gehiago baitaude seme-alabak dituzten pertsonen artean. 2012ko Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko azken inkestak adierazten zenez, EAEn, etxerik gabeko pertsonentzako jateko eta ostatu hartzeko zerbitzuak erabiltzen zituzten emakumeen %66,8k seme-alabak zituen eta gizonen artean, aldiz, %36,3k bakarrik zituzten seme-alabak. Zoritxarrez, dauzkagun datu estatistikoekin, ezin dezakegu seme-alaben egungo adina eta bizikidetzako egoera zehaztu. Hala eta guztiz ere, seme-alaba adingabeak dituzten emakume ugari daudela pentsatu daiteke, izan ere, emakume guztien %73k 45 urte baino gutxiago baititu.

Etxegabetasunari buruzko bibliografian aurkitutako erreferentzien arabera, pentsa liteke, gehiengo profil hauen artean bakarrik dauden amen profila dagoela. Dena den, kontuan hartu behar da, azterketa bibliografikoa etxerik gabeko emakumeengan arreta jarrita burutu denez, ez direla aintzat hartu bizitegi-bazterketako egoeran dauden familiei buruzko ikerketa hasiberriak⁷³, ezta ere, talde berari buruzkoak izanda ere, ikuspegi ezberdinetatik aztertzen dituzten ikerketak, familienganako babesaren ikuspegitik, esaterako. Bestalde, seme-alabak bere ardurapean dituen aita ere ez dela kontuan hartzen dirudi zerbitzuak diseinatzerakoan, ezta oinarri hartzen dituzten programetan ere.

Literaturak adierazi duenaren arabera, beren ardurapean seme-alabak dituzten amek lehentasunezko arreta jasoko dute gizarte-zerbitzuetan, baina arreta hori ez da amatasunaren ondorio zuzena, amari seme-alaba txikiengatik egotzen zaion funtsezko zereginarena baizik. Adingabeen presentzia pizgarria izan liteke laguntza eskatzerakoan, baina oztopoa ere bihurtu daiteke, osasun mentaleko edo drogamenpekotasuneko arazoaren ondorioz zaintza galtzeko beldurreratik (Hutchinson *et al.*, 2014: 15) edo genero-indarkeriazko kasuetan salaketa jartzeko eragin ditzakeen ondorioei dioten beldurreratik (Marsat, 2000: 267; EDE Fundazioa, 2012).

Baliabide asko ez daude pentsatuta seme-alabak beren ardurapean dituzten emakumeentzako, bakarrik dauden emakumeentzako pentsatuta daude [...]. Baliabide gutxi daude [seme-alabak beren ardurapean dituzten emakumeentzako] eta nahiko zorrotzak dira. Gainera, emakume asko gizarte-zerbitzuetara etortzearen beldur dira, seme-alabak kenduko dizkielakoan, beraz batzuk ez dira beldur horretatik gizarte-zerbitzuetara etortzen, eta nik ulertzen dut.

⁷³ Gauza bera esan liteke etxerik gabeko adingabeei buruz. Bizitegi-bazterketako egoeran dauden familia eta adingabeak espezifikoki ikuspuntu horretatik aztertzea da berria, normala denez, familien eta umeen babesaren ikuspuntutik egindako bibliografia zabala baitago. 2000ko hamarkadan, bereziki, gora egin zuten bakarrik zetozen adingabe etorkinei buruzko ikerketek (gaztelaniaz MENA siglekin ere ezagunak), profil honetako etorkin ugari iritsi baitziren sasoi hartan (cfr. Quiroga, Alonso eta Sòria, 2009).

Gure inguruan, seme-alabak beren ardurapean dituzten emakumeei, emakumeentzako bakarrik diren zerbitzuetan edo emakumeentzako lekuak gordetzen dituzten zentro mistoetan ostatu eman ohi zaie. EAEn, zentro eta zerbitzuetan egin zen gaueko azken zenbaketetan lortutako datuek oso ondo erakusten dute egoera hau. 2014ko urriaren 29-30eko gauean zehar, 1.513 zenbatu ziren guztira hainbat baliabidetan ostatu hartuta, eta horietatik %7,3 (111 pertsona) gurasoetakoren batekin batera zeuden adingabeak ziren. Zenbatutako 253 zentroetan eskuratutako informazioaren arabera, ostatu hartuta zeuden adingabe guztietatik %65,8k, emakumeentzako bakarrik ziren ostatu hartzeko baliabideetan (%54,1) edo emakumeentzako lekuak zituzten baliabideetan (%11,7) igaro zuten gaua. Herenak, gutxi gorabehera, emakumeentzako lekurik gordeta ez zuten baliabide mistoetan igaro zuten gaua. Gizonentzako bakarrik diren baliabideetan, aldiz, ez zen adingaberik aurkitu. Halaber, aipatu behar da, ildo berean, zenbatutako 253 zentroetatik, %34,8k bakarrik hartzen dituztela familiak, hau da, adingabeekin batera baliabide horietara doazen pertsonak. Proportzio hau %100era heltzen da indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako zentroen kasuan, baina %27ra murrizten da gainerako zentroetan.

59. taula . Adingabeek lagunduta doazen pertsonak hartzen dituzten zentro-kopurua eta hartutako adingabe-kopurua, zentro-motaren arabera. 2014ko urriaren 29-30eko gaua

	Zentroak		Hartutako pertsonak		
	Guztira	Familiak hartzen dituzte	Hartutako pertsona helduak	Hartutako adin txikiko pertsonak	
	K.	% horiz.	K.	K.	% bert.
Zentro-motak ETHOSen arabera					
2.1.- Gaueko aterpetxea edo babeslekua	9	0,0	225	0	0,0
3.1.- Aterpetxeak eta bizitokiak	6	50,0	161	4	3,6
3.2.- Aldi baterako iragaitzako bizitokia	18	61,1	58	11	9,9
3.3.- Babespeko bizitokia	152	25,0	668	56	50,5
4.1.- Emakumeentzako aterpetxea	28	100,0	40	25	22,5
5.1.- Aldi baterako bizitokia/harrera-zentroak	9	77,8	53	15	13,5
7.2.- Epe luzerako tutoretzapeko bizitokia	31	3,2	197	0	0,0
Guztira	253	34,8	1.402	111	100,0
Zentro-motak toki-modalitateen arabera					
Emakumeentzako bakarrik	57	71,9	131	60	54,1
Gizonentzako bakarrik	64	0,0	287	0	0,0
Leku-erreserbarik ez duten zentroak	121	33,9	799	38	34,2
Emakume/gizonentzako leku-erreserba duten zentro mistoak	11	54,5	185	13	11,7
Guztira	253	34,8	1.402	111	100,0

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Dena den, ez da ahaztu behar, taulak eskaintzen duen datuetako bat: ostatu hartzeko gizonentzako bakarrik diren zentroetako bakar batean ere ez dago ardurapeko seme-alabak sartzeko aukerarik. Zentzu honetan Fernández-Rasines eta Gámez-Ramosek (2013: 48) Iruñeko metropolialdean, zaintzari dagokionez, emakume eta gizonezkoiei esleitutako rolen errepikapenari buruz esandakoa hona ekartzea merezi du:

[...] adingabeekin ostatu hartzea emakumeentzako bakarrik diren zentroetan baino ez dute kontuan hartzen, emakumeentzako bakarrik direnetan, zein emakumeak gehiengo diren edo erabiltzaile guztiak emakumeak diren zentroetan. Gizonezkoentzako zentroetan ez dute ardurapeko adingabeak sartzeko aukerarik. [...] Esan liteke, zerbitzuak ezarritako genero-rolen arabera diseinatuta daudela, hau da, adingabeen hazkuntza eta zaintza emakumeei egozten die. Horrek esan nahi du, emakumeak ezin direla sartu ardurapeko adingabeak hartzen ez dituzten aterpetxe mistoetan. Horren korrelatu gisa, zentro mistoek gizonengan bakarrik jarri dute arreta azken hamarkadotan, eta ondorioz, ekuazio hau indartzen dute: «etxebizitzarik gabe = etxerik gabe = gizonezkoa».

Löfstrandek (2004: 13, *cit. in* Baptista, 2010: 176) antzekoa ondorioztatzen du Suedian egindako etxerik gabeko gizonezkoen buruzko ikerketa batean:

Aitatasunari buruzko politika suediarrek gizonezkoak aita bihurtu dituzte, baina etxerik gabeko pertsonekin egindako tokiko esku-hartzeetan aitak (bakarrik dauden) gizon bihurtu dira. «Etxerik gabeko pertsonak», eta «drogamenpekotasuna duten etxerik gabeko pertsonak» kategoriak neutroak izan arren generoari dagokionez, ezin daitezke bateratu «aita» kategoriarekin, esplizituki genero-kategoria baita.

Emakumeen artean seme-alabak dituzten pertsona gehiago egon badaitezke ere, hori alde batera utzita hausnartu egin behar da etxerik gabeko pertsonen arreta eskaintzerakoan gurasotasunari ekiteko moduari buruz, eta genero-rolak inolako eztabaidarik gabe zein neurritan errepikatzen diren aztertu behar da. Horren haritik, nabarmentzea merezi duite EAEn komunitate terapeutiko batzuen esparruan egin diren esku-hartzeak gizonentzako gurasotasun-trebetasunei buruzko tailerren bidez. Gainera, esperientzia hauek gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen eskaintako bizitegi-arretaren eremuko erabilzaile diren gizon zein emakumeen zabaldu zaizkie.

Guk orain dela 20 urte proposatu genuen lehenengoz gurasotasun-trebetasunen tailerra komunitate terapeutikoan eta lan-garapen oso emankorra izan du. Izan ere, orokorrean, seme-alabekin bizikidetzarik ez duten gizonak dira, batzuetan familia handia dute, beste batzuetan [...]. Eta hala ere, askoren pentsaera da «nik zein zeregin dut». Hori guztia berreskuratzea, zure presentzia zein izango den, egon behar zaren edo ez, zure seme-alabekin zein harreman izango duzun eta seme-alabek ere aitaren figura hori kokatu eta ulertu ahal izatea, ez sistemen mezuetatik, aita berarengandik baizik. Esan nahi dudana da oso interesgarria izan zela gai nagusi bihurtzen hasi ginelako [...]. Gertatzen dena da ez dirudiela gizonen gaia –ez da egon behar aitatasunaren eskaera espezifiko bat, baina bai aitatasunarena– eta hala ere, interesgarria izango litzatekeela uste dut, zentroetan, bertan dauden pertsonen euren artean eduki dezaketen harremana lantzea. Eta emakumeek bizitoki-guneetan amatasunarekin eta feminitatearekin zerikusia daukan guztiaren presentzia landu beharko lukete. Izan ere, nire ustez, gai hau aztertzea eta gurasotasun-gai guztien konponketari heldu ahal izatea funtsezkoa da, baztertutako pertsonen susperraldian lotsa eta mina lantzeko.

Seme-alabak ardurapean dituzten emakume etxegabeentzako arreta espezifikoari dagokionez, gomendioak eta jardunbide egokiak ugari samarrak dira kontsultatu dugun literaturan. Emakume hauei arreta eskaintzerakoan, seme-alaben beharrak hartu behar dira kontuan, beraientzako gune eta jolasteko jardueren (Hinton, 1999; Homes for Women, 2013: 7), gizarte eta hezkuntzaren eta arreta psikologikoaren alderditik (berezi familiak genero-indarkeria jasan baldin badute) [ibidem]. Ildo honetatik, egile batzuek drogamenpekotasunagatik tratamendua jasotzeko zentroetan ez dagoela lekurik seme-alabak dituzten emakumeentzako azpimarratzen dute (Hinton, 1999: 5; Novac *et al.*, 2006: 60). Gainera, amek adiskidetzeko-zerbitzuak eska ditzakete –adibidez haurtzaindegiak– aukera izan dezaten –nahi izanez gero– seme-alaben zaintza enpleguarekin edo enpleguaren bilaketarekin bateratzeko (ibidem; Cabrera, 2012: 21), edo gurasotasun-prestakuntza (Novac *et al.*, 2006: 61) eta laguntza juridikoa ere eskatu dezakete, zaintza-galera ekiditeko edo harrera edo adopzioko balizko prozesuei aurre egiteko (Hutchinson *et al.*, 2014: 15-16). Langileek aldiz, batzuetan drogak kontsumitzen dituzten amak artatzerakoan dituzten aurreiritziak identifikatzeko eta gainditzeko ahalegina egin behar dute (Hinton, 1999: 5).

Baina etxerik gabeko ama guztiek ez dituzte seme-alabak beraiekin eramaten. Seme-alabak jatorrizko herrialdean utzi dituzten emakumeak zein aldi baterako ezintasunagatik edo ezintasun iraunkorragatik zaintza galdu duten emakumeak traumatizatuta geratu daitezke (Reeve *et al.*, 2007: 33; Hutchinson *et al.*, 2014: 15) eta bizitzeko tratamendua jasotzeko beharra izan dezakete (Hutchinson *et al.*, ibidem). Hinton-en arabera (1999: 3-4), seme-alabengandik banantzeak aldatzeko motibazioa galtzea, autoestimua baxua eta lotsa- eta erruduntasun sentimenduak ekar ditzake, eta era berean, aurre egiteko estrategiak sortu ditzake: gorrotoa eta indarkeria, ukapena, depresioa eta beste arazo mental batzuk, droga-kontsumoaren gehikuntza; baina baita terapia bilatzea edo antzeko egoeran dauden beste emakume batzuei laguntza eskaintzea ere. Beste seme-alaba bat izateko nahia, nolabait

galdutakoa ordezkatzeko, ere sarri agertzen da (ibidem; Novac *et al.*, 2006: 9). Laguntza-falta eta drogen kontsumoak galerarengatik mina kroniko bihurtzen lagun dezakete, eta atxikimendu-arazoak agertu daitezke ondorengo hazkuntza-prozesuetan edo osasun mentaleko arazoak larriagotu ditzake hamarkada batzuk geroago (ibidem:59). Bestalde, kontuan hartu behar da, etxebizitza egonkor bat lortzea, zaintza berreskuratzea eta familia berriz elkartzea sarritan elkarri lotuta daudela: emakumeak aukera gehiago eduki ohi ditu seme-alabak alboan baldin baditu, eta beraz, etxebizitza bat ematen bazaio, baina zaintza edo familia elkartze atzeratzen baldin bada, etxebizitza egonkor bat izateak huts egin dezake (Hinton, 1999: 5).

Dolua gainditzeko laguntza oinarrizkoa da seme-alabak galdu dituzten amek trauma hau gaindi dezaten⁷⁴. Kasu hauetan esku-hartzea erraztuko duen protokolo formalik ez dagoenez (Novac *et al.*, 2006: 59), kontsultatutako literaturak jarraibide batzuk eskaintzen ditu. Lehenbizi, doluan laguntza jasotzea emakume hauen behar espezifikoetat hartu behar da eta denbora eta baliabideak eskaini behar zaizkio (Hinton, 1999: 6). Pribatutasunarekiko errespetua ezin daiteke izan ez jarduteko aitzakia, eta horregatik espezifiko arazo horri buruz galdetu beharra dago (ibidem). Esku-hartzeak protagonismoa emakumeei eman behar die eta gune seguruak eman behar zaizkie beren esperientziak adieraz ditzaten eta besteek entzun ditzaten, bai banakako edo taldeko terapien bidez, bai beste emakume batzuen laguntzarekin (ibidem)⁷⁵. Azterketak amatasunaren ondorio fisikoak eta emozionaletan jarri behar du arreta (Novac *et al.*, 2006: 57), egiturazko beste alderdi batzuen eragina ahaztu gabe, esaterako abusua, pobrezia edo etnizitatearena (Charlton *et al.*, 1998, *cit. in* Novac *et al.*, 2006: 57). Ama eta seme-alaben egoerak hala gomendatzen duenean, laguntza eman behar zaie ama eta seme-alaben arteko loturari eusteko, psikologia eta hezkuntzaren arloko laguntza-lanen eta topaketak egiteko leku egokien bidez (ibidem: 57; Hutchinson *et al.*, 2014: 16). Familia bateratzeko baldintzak betetzen baldin badira, nolabaiteko aholkularitza juridikoa ere beharrezkoa izan liteke (Hutchinson *et al.*, 2014: 16). Zerbitzuetako langileei dagokienez, dolu-prozesuei eta laguntza emateari buruzko prestakuntza espezializatua behar dute (Hinton, 1999: 7; Novac *et al.*, 2006: 59) une erabakigarrietan lasaitzeko prozeduren eta lanaren ebaluaziotik bereizita dagoen ikuskapen klinikoaren arloan (Novac *et al.*, ibidem). Langileek ama hauek, eta bereziki drogak kontsumitzen dituztenak, estigmatizatzen dituzten jarrera edo portaerarik ez gertatzea ere zaindu behar dute (ibidem: 9; Hinton, 1999: 5).

Haurdun eta bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeei dagokienez, osasun-laguntza bermatu behar zaie, esaterako, zerbitzu espezializatua, etxegabatasunak eragiten dituen zailtasunak eta zailtasun horiei nola ekin ezagutzen duten langileek eskainia (Hutchinson *et al.*, 2014: 16). Horri dagokionez, gogoratu beharra dago, gabezia nutrizionalek eta droga batzuen kontsumoak hilekoaren falta (amenorrea) eragin dezakeela eta emakumea beranduago jabetu daiteke haurdunaldiaz —honek eragiten dituen ondorioekin—, baina haurdunaldiak drogen kontsumoa gutxitzea ere eragin dezake, edo behintzat, arriskuak murrizteko jardunbideak gehitzea (Novac *et al.*, 2006: 9).

6.3.3.3. *Sexu-arloan lan egiten duten emakumeak*

Etterik gabeko emakumeek zein gizonak erabiltzen dute prostituzioa estrategia ekonomiko gisa, baina ohikoagoa da emakumeen artean (Bowpitt *et al.*, 2011: 541-542). Adibidez, St Mungo's GKEren erabiltzaile guztien laurdena (eta kalean gaua igaro zutenen herena baino gehiago) prostituzioan ibiliak ziren, Gizonen artean, berriz, kopuru hori %2koa zen (Hutchinson *et al.*, 2014: 17). Espainian, batez ere bezeroek eskatuta, sexu-langileen artean droga-kontsumoaren prebalentzia handia adierazten duten seinaleak (Meneses, 2010), hasiera batean, prostituzioan lan egiten duten etxerik gabeko emakumeengana estrapolatu daitezke. Halaber, esan behar da, gehienetan, emakumeen irregulartasun-egoerak —EAEn prostituzioan lan egiten duten emakume gehienak atzerritar paperik gabeak dira—, lan-kontraturik ez izatearekin batuta, izugarri zailtzen duela etxebizitza bat eskuratzeko aukera (Emakunde, 2007).

⁷⁴ Aitek ere dolua bizi dezakete seme-alaben galerarengatik, eta arreta eskaini behar zaie zentzu honetan (Hinton, 1999: 6). Gizonak banaketok bizitzeko duten moduari buruz oso ikerketa gutxi dauden arren, amai baino gutxiago eragiten dietela dirudi (Novac *et al.*, 2006: 7), segur aski —eta neurri handi batean— sozializatuak izan diren moduagatik.

⁷⁵ Hinton-en ustez (ibidem: 7) emakume horietako askok ezin dute emakumeen taldeetan parte hartu lehenago banako lan handia burutu gabe. Novac *et al.* egileek (ibidem: 59), aldiz, emakumeen taldeak banako terapiak baino beldur gutxiago eragin dezaketela besterik ez du aipatzen.

Sexuaren industrian lan egiten duten emakumeei arreta eskaintzerakoan, Hutchinson *et al.* (2014: 17) egileek bi esku-hartze mota burutu behar direla ohartarazten dute. Batetik, arriskuak murrizteko programak prostituzioarekin jarraitu nahi dutenentzako. Programen barnean honako hau sartu beharko litzateke: osasun sexualari eta metodo antikonzeptiboetarako buruzko aholkularitza, doako preserbatiboak eta xiringa-trukea –aipatu dugun droga-kontsumoaren prebalentziagatik–. Bestetik, prostituzioa utzi nahi duten emakumeei aukerak eskaini behar zaizkie, horrek dakarren diru-sarreraren galerari aurre egiteko. Izan ere, horixe dela esaten dute aldatzeko oztopo handienetakoa bat (Kraus *et al.*, 2005: 25). Bibliografian identifikatutako laguntza-neurrien artean honako hauek aipatzea merezi du: emakumeentzako bakarrik diren zerbitzuak (Bindel *et al.*, 2013: 74). bizitokia lortzeko duten lehentasuna (ibidem) eta gizarteratze-prozesuaren hasierako faseetan prostituzioan jarraitzeko aukerarekiko nolabaiteko tolerantzia (Kraus *et al.*, 2005: 25).

Prostituzioan dabilzan edo orain dela gutxi prostituzioan aritu diren emakume biologikoekin –eta batzuetan transexualekin– ikuspegi integrala kontuan hartuz lanean jarduten duten hainbat erakunde daude EAEn gaur egun. Ildo horretan, Bizkaiko Askabide elkarteak aipatu behar da: bizitoki-arloan 4 baliabide desberdin ditu (22 leku guztira), beharrian guztiak asetzeko (Askabide, 2014). Erakunde honek lege-aholkularitzako zerbitzua ere badu, eta prestakuntza-programak, lanerako prestakuntzako lantegiak eta laneratzeko programak egiten ditu. Eremu honetan, Bizkaian Oblatek duten kongregazioa ere aipatu behar da, bertan baliabide bat dute (6 leku), pertsonen salerosketaren biktimentzako edo jada prostituzioan aritu nahi ez duten emakumeentzako, batez ere. Era berean, Gipuzkoako Arrats elkarteak aipatu behar da, emakume haurrentzako ostatu hartzeko baliabide espezifikorik ez badaukate ere, Aukera Zerbitzuaren bidez, laguntza psikosoziala eta osasun-arlokoa eskaintzen baitiete inork behartu gabe prostituzioan jarduten duten pertsona helduei (bertokoei zein atzerritarrei); Edo baita Arabako Gizarterako elkarteak ere.

6.3.3.4. Droga-mendekotasun edo osasun mentaleko arazoak dituzten emakumeak

Etxegabetasunaren Europako Behatokiak (Baptista *et al.*, 2015: 15-16) etxetik gabeko biztanleriaren artean, honako ezaugarri hauek dituzten pertsonen talde txiki samarra baina ondo zehaztua identifikatzen du: gaixotasun mental larri batzuen komorbilitate-tasa altuak, droga-kontsumoarekin arazoak, baztertzeko sozioekonomiko larria eta gizarte-estigmatizazioa, osasun-egoera txarra eta sarri jokabide kriminala edo ordena publikoa aztoratzeko joera duena. Talde honetako gehienak bakarrik dauden pertsona helduak izango lirateke, eta orain dela gutxi egindako ikerketa baten arabera (Mayock *et al.*, 2015, *cit. in* ibidem), ezkutuko etxegabetasunean dauden emakumeen proportzioa gainordezkatuta egon liteke talde honen barruan.

Bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeek ostatu hartzeko zerbitzuak erabili ahal izateko duten oztopo nagusienetakoa bat drogamenpekotasuna da (Edgar eta Doherty, 2001: 262; BC Society of Transition Houses, 2011), maiz abstinentsia izaten baita sartzeko nahitaezko baldintza bat. Talde honen droga-kontsumoa haurtzaroen jasandako abusuekin, genero-indarkeriarekin, prostituzioarekin eta osasun mentaleko arazoekin lotu da (Hutchinson *et al.*, 2014: 14), eta beraz, azterketa multidimentsionala behar du, kalte-murrizketa barne hartuz (BC Society of Transition Houses, 2011: 3. atala, 14-16). Baina laguntza eskatu aurretik, emakumeen droga-menpekotasunek duten estigmari eta seme-alaben zaintza galtzearen beldurrari aurre egin behar diete (ibidem: 14-15).

Gaixotasun mentalari dagokionez, gaixotasun mentala duten etxetik gabeko pertsonen ahultasun izugarria aipatu behar da, izan ere, Aguirrek aipatzen duen bezala, «erabateko segurtasun-gabezia duen inguruan bizi dira, eta testuinguru pertsonalean gertatzen den edozein aldaketa txiki ontorio ikaragarriak eta sakonak izan ditzake» (2013:136). Gaixotasun mentalari lotutako trauma jakinen konplexutasuna, tratamenduetan genero-ikuspegiaren falta eta ondoreza arintzeko hartzen dituzten droga-kontsumoa uzteari uko egitea dira gaixotasun mentala duten etxetik gabeko emakumeen hauen arretan dauden erronketako batzuk (Hutchinson *et al.*, 2014: 14-15).

Gainera, toxikomaniak dituzten emakumeei zein osasun mentaleko arazoak dituzten emakumeei eskaintzen zaien arretak zerbitzuetan lan egiten duten langileen aurreiritziei aurre egin behar die. Järvinen-ek Kopenhagen egindako azterketan (1995: 9-10) azaltzen duenaren arabera, langileek talde hauek «emakume gogaikarritzat» (*unwelcome women*) hartu ohi zituzten, beren jarrera hainbat argudiorekin zurituz. Lehenbizi, emakumeek segurtasun-eza eragiten zutela eta diziplina-arazoak zituztela esaten zuten. Mesfidantza baliabide-eskasiaren ondorioa ere bazen. Batetik, teknikariak osasun-langileen faltaz kexatzen ziren, baina espezializazio handiagoa eskatzea paradoxikoa da Järvinen-en iritziz, sektorearen espezializazioak, hain zuzen, eragin baitzuen zerbitzuak erabiltzaile-profil jakinetan arreta jartzea, eta orain ez zituzten erabiltzaileok ulertu nahi. Ikuspegi hori kontuan hartuta, espazio komunak (sukaldea, egongela, komuna) drogamenpekotasun-arazoak edo gaixotasun mentala duten emakumeekin partekatzeak zailtasuna adierazten zuten. Banakako logelak zituzten zerbitzuei dagokienez, erabiltzen zuten argudioa zen, emakume hauek ez zutela atonomia, ezta erantzukizunaren zentzu nahikorik ikuskapen gabeko zentroetan bizi izateko, eta horregatik, zerbitzu «egokiagoetara» bideratu behar ziren.

Ikerketa honen aurkikuntza zehatzez gain, emakume hauek eztabaida-taldeen barruan ere «emakume gogaikarritzat» hartu dira, baina ikuspuntu autokritikotik, eta lotutako jokabide-nahasmenduak dituzten emakumeekin oso lotuta:

Gai honi buruz analisi pixka bat autokritikoa egin beharko litzateke lanbidean. Nire ustez, gure esperientziaren arabera, emakumeak biziaren eta harremanen osagai hauek, eta batez ere lotutako portaera nahasmenduek gehiago hondatuta etortzen dira, eta beraz, horien eraginez, askoz gehiago gogaitzen gaituzte emakume hauek zentroetan. Geure buruari egiten diogun kritika ere bada, aztertu egin baitugu. Arazo handiak sortzen dituzten emakumeak dira, portaera nahasmendu guztiak harreman-gaitasunen galerarekin oso lotuta baitaude, eta horrek zentroetan eragozpenak eragiten ditu, gatazka sortzen du. Pertsona horiei bakarrik jartzen diegu zalantza beti beren gaitasuna eta erabakitzeko eskubidea. Ezin dute erabaki prozesuaren une bakar batean ere, baina zentroetatik noiz joan erabaki dezakete. Baina orduan egon ohi dira egoera txarrean, eta une horretan babesteko eta bizitzarako erabaki garrantzitsuak hartzeko gaitasuna dagoen pentsatzeko lana egin beharko genuke.

6.3.3.5. Adineko emakumeak

Hasiera batean, adinekoa izatea etxegabetasunetik babestu beharko luke, adineko pertsonentzako baliabideen sarea erabili baitezakete. Hala ere, Pannel eta Palmer egileek (2004) adierazi zuten bezala, ohiko baliabideak txarto prestatuta daude etxe gabeko adineko pertsonen beharrak asetzeko, sarritan behar konplexuak izaten baitira. Halaber, honako hau ere kontuan hartu behar da: «etxe gabeko adineko pertsonak ez dira talde homogenea, eta desberdintasun handiak daude adin-taldeen barruan eta adin-taldeen artean, osasunaren, gizarte-sareen bizitokien eta laguntza-beharren arloan, besteak beste» (ibidem: 20). Adineko pertsonak etxegabetasunean izaten duten ibilbideak ere ezberdinak izaten dira (ibidem: 16-17): batzuek gaztetatik daramate egoera horretan, sarritan haurtzaro zaila izan zutelako edo lan ibiltariengatik, baina beste pertsona batzuek nagusiagoak direnean galtzen dute etxea, maiz bikote-haustura bategatik, eta zenbaitetan, langabeziak eta alkoholismoak markatutako bizi-testuinguruan. Britainiako ikerketek (*cit. in* ibidem: 17) agerian uzten dute, helduak direnean etxerik gabe geratzen diren pertsona erdiek baino gehiagok, etxea, lana eta familia zituztela.

Etxerik gabeko adineko pertsonak bereziki ahula den taldeetat jotzen da, dituen beharrian konplexuengatik. Homesless Link GKE ingelesean, adibidez, 50 urtetik gorako erabiltzaileen %60k beharrian konplexuak zituzten (Bevan eta Van Doorn, 2002, *cit. in* ibidem: 18), adinaz gain gutxienez beste bi bazterketa-faktore zituztelako, besteak beste, honako hauek: gaixotasun mentala, era askotako adikzioak, nortasun-nahasmenduak, jokabide kriminala, ikasteko zailtasun anitzak, desgaitasuna, osasun-arazo fisikoak, edo portaera desafiatzailea (ibidem: 1). Oro har, etxeari eta beren inguruari garrantzi handia emateko joera izaten dute —esperientzia traumatikoekin lotzen ez

badituzte-, eta gazteek baino denbora gehiago igaro ohi dute etxean (ibidem:4). aterpetxeak ez zaizkie gustatzen, erabiltzaileak askoz ere gazteagoak izan ohi direlako. Dena den, baliabide hauek garrantzitsuak izaten dira, gizarteratzeko programetara sartzeko ateak izaten baitira (ibidem: 24).

Adineko emakume etxegabeen taldea asko aztertu dute orain dela gutxi arte, batez ere Erresuma Batua eta Australian eragin du interes gehien (Petersen eta Parsell, 2014: 5). Bibliografian agertzen diren erreferentziek, Europako Etxegabetasunaren Behatokiak adierazten dituen pertsonen profila aipatzen dute, hau da, bakarrik dauden pertsona helduak, gaixotasun mentala dutenak, etxegabetasun-ibilbide luzearekin eta bazterketa handiarekin (Baptista *et al.*, 2015: 15-16; Mayock *et al.*, 2015, *cit. in* ibidem). Ezkutatu ordez, emakume hauen presentzia argi eta garbi hauteman daiteke espazio publikoan, ondo zehaztutako gizarte-ordezkaritza sortzeraino, sinplifikatua eta estereotipatua izan arren: bere gauza guztiak aldean dituela kalean dabilen emakumearena⁷⁶ (Marpsat, 2000: 272). Nolanahi ere, gutxi izango lirarteke, baina ezaugarri hauek dituen taldea eratzen egon litezke: gizarte-zerbitzuek bereziki aintzat hartzen ez duten taldea (Edgar eta Doherty, 2001: 261) eta emakumeentzako ohiko bizitokietan gustura ez daudenen taldea, gazteagoak direnentzako diseinatuta baitaude (Henry *et al.*, 2014: 33; Pannel eta Palmer, 2014: 3). Genero-indarkeria jasan duten adineko emakumeek ez dute gogoko izaten beren etxea uztea partekatutako bizitoki batetara joateko, beraz, laguntza ibiltari pertsonalizatudun etxebizitzak (*floating support*) egokiagoak izan litezke beraientzat (ibidem), segurtasun nahikoa baldin badaukate.

6o. taula . 6o urte edo gehiago dituzten pertsonen kopurua, bizitoki-motaren arabera. 2014ko urriaren 29-3oeko gaua

	Pertsona helduak		Artatutako 6o urte edo gehiagokoak				
	Guztira		Emakumeak		Gizonak		
	K	K	Guztizkoaren gaineko %-a	% bertikala	K	Guztizkoaren gaineko %-a	% bertikala
Kalean	323	--	--	--	9	2,8	18,4
2.1.- Gaueko aterpetxea edo babeslekua	218	2	0,9	13,3	7	3,2	14,3
3.1.- Aterpetxeak eta bizitokiak	143	2	1,4	13,3	13	9,1	26,5
3.2.- Aldi baterako iragaitzako bizitokia	36	2	5,6	13,3	2	5,6	4,1
3.3.- Babespeko bizitokia	572	1	0,2	6,7	9	1,6	18,4
4.1.- Emakumeentzako aterpetxea	37	2	5,4	13,3	--	--	--
5.1.- Aldi baterako bizitokia/harrera-zentroak	47	--	--	--	--	--	--
7.2.- Epe luzerako tutoretzapeko bizitokia	190	6	3,2	40,0	9	4,7	18,4
Guztira	1.566	15	1,0	100,0	49	3,1	100,0

Iturria: geuk eginikoa, EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen pertsonen egoerari buruzko II. azterketa (2014) lanean oinarrituta.

Beste testuinguru batzuetan adineko pertsona etxegabeek talde nabarmenagoa osatzen dute, EAEn aldiz, gaueko azken zenbaketak eskaintzen dituen datuek biztanleria-talde honen izaera minoritarioa erakusten dute. Emaitzen arabera, kalean, zein baliabideetan ostatu hartuta aurkitutako pertsona helduen %4,1ek bakarrik zituen 6o urte edo gehiago. Pertsona horiek guztietatik, %77 gizonak ziren (49 pertsona) eta %23 emakumeak (15 pertsona). Dena den, eta talde oso txikia izan arren, lortutako emaitzetatik desberdintasun garrantzitsuak ondoriozta daitezke sexuaren arabera. Aurkitu ziren 6o urte edo gehiagoko gizon gehienak (%59,2) gaua kalean edo aterpetxeetan igaro zuten, baina emakumeen artean, proportzio hau %26,6koa bakarrik izan zen, emakume gehienak epe ertain eta luzerako beste baliabide mota batzuetan aurkitu baitziren.

⁷⁶ Bag lady ingelesez, clocharde frantsesez.

6.3.3.6. Emakume etorkinak

Europar etxegabetasun-egoeren artean atzerriko emakume-kopuruaren gehikuntza antzeman zenetik bi hamarkada baino gehiago igaro diren arren (Edgar eta Doherty, 2001), kontsultatutako bibliografian erreferentzia gutxi aurkitu dira talde honi emandako arretari buruz.

Hain zuzen, Eustaten Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestako datuak erreferentziatzen hartuz gero –elkarrengandik urrun samar dauden bi alditan jasotako informazioa alderatzeko aukera ematen digun eragiketa bakarra–, emaitzek erakusten dutenez, etxerik gabeko pertsonen ostatu hartzeko edota jateko zerbitzu eta zentron erabiltzaileak asko aldatu dira jatorriari dagokionez.

61. taula . Etxerik gabeko pertsona-kopuruaren bilakaera, jatorrizko herrialdearen arabera. EAE 2005-2012

	2005			2012					
	K			K			% bertikala		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Espainia	286	622	907	209	624	833	--	--	--
Atzerria	165	761	926	180	1.076	1.256	100,0	100,0	100,0
-Frantzia	1	21	22	2	3	5	0,6	2,8	2,4
-Portugal	2	57	59	1	17	18	1,2	7,5	6,4
-Errumania	36	38	74	8	20	28	21,8	5,0	8,0
-Europako gainerako herrialdeak	24	52	76	22	29	51	14,5	6,8	8,2
-Aljeria	11	128	139	17	132	149	6,7	16,8	15,0
-Kongo	2	20	22	3	10	13	1,2	2,6	2,4
-Maroko	5	344	349	38	520	558	3,0	45,2	37,7
-Afrikako gainerako herrialdeak	8	44	52	35	236	271	4,8	5,8	5,6
-Bolivia	16	14	30	2	6	8	9,7	1,8	3,2
-Brasil	22	1	23	6	3	9	13,3	0,1	2,5
-Kolonbia	13	14	28	3	8	11	7,9	1,8	3,0
-Amerikako gainerako herrialdeak	22	18	39	28	62	90	13,3	2,4	4,2
-Beste herrialde batzuk	2	11	13	16	30	46	1,2	1,4	1,4
Guztira	451	1.382	1.833	389	1.701	2.090	--	--	--

Iturria: EUSTAT. Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Inkesta 2005, 2012

Datuak orokorrean kontuan hartzen badira, gertaera deigarrienetako bat da, atzerriko biztanleria 2005an etxerik gabeko pertsonen %50,5 zela, eta 2012an, aldiz, %60,1. Etorkinen biztanleriaren pisu erlatiboaren gehikuntza gizon zein emakumeen artean ikus daiteke, baina emakumeen artean atzeritarren proportzioa txikiagoa da aldi bietan, gizon atzeritarrekin alderatuta. Etxerik gabeko pertsonen artean atzeritar gehiago egoteaz gain, aldaketa aipagarriak ikus daitezke pertsona huen jatorri espezifikoari buruz. Zehazki, emakumeen artean, Europa eta Amerikatik datozenen pisu erlatiboan murrizketa nabarmena antzeman daiteke Afrikatik etorritako emakumeen (bereziki Maroko eta Saharaz hegoaldeko herrialdeetatik etorritakoak) aldean. Gizonen artean, joera antzekoa da kontinenteen araberako jatorriari dagokionez, baina Amerikatik datozenen artean ia ez dela aldaketarik ikusi aipatu beharra dago. Oro har, azterketarako 2012ko datuak bakarrik kontuan hartzen badira, gizon atzeritar gehienak Afrikatik datoz (%83,5) baina emakumeen artean aniztasuna handiagoa da.

Zer dio kontsultatutako bibliografiak etxerik gabeko emakume etorkinei buruz? Lehenbizi, bazterketa-arrisku gehien duen azpitaldea agiririk gabeko emakumeena dela (Feantsa Health and Social Protection Working Group, 2007: 5). Gainera, ostatu hartzeko baliabideak erabiltzen dituzten emakume etorkinek gainerakoek baino gabezia afektibo gutxiago dituztenaren zantzuak daude, eta lana lortzeko eta egoera erregularizatzeko oso motibatuta egoten dira (Edis, Ikerketa Soziologikoko Taldea, 2004:51).

Hala ere, prestakuntza-gabezia oso garrantzitsuak antzematen dira, emakume hauei arreta eskaintzerakoan alderdi kultural jakin batzuk kontuan hartu behar direnean:

Nire ustetan, alderdi kulturala garrantzitsua izango litzateke, profesional gisa genero-ikuspuntutik zailtasunak baditugu, zer esanik ez beste kultura bateko generoarekin. Nire iritziz, arazo larria dugu hor, kolektibo zaila dela uste dut.

6.3.3.7. Espetxean egondako emakumeak

Etxegabetasuna eta espetxearen artean oso lotura estua dago, eta beraz, etxerik ez edukitzeak espetxeratua izateko aukerak gehitzen ditu, eta espetxean egon izanak, irteterakoan etxe egonkor bat lortzeko aukera gehitzen du (Mayock eta Sheridan, 2013: 120). Hala ere genero-ikuspegitik gai hau sakontasunez aztertzen duten ikerlanak hasiberriak dira oraindik.

Espetxean egondako hamaika emakume etxegaberekin Irlandan egindako azterketak –emakume guztiek drogamenpekotasun-arazoak zeuzkaten– (Mayock eta Sheridan, 2013) agerian uzten ditu txandakatzeak: etxebizitza egonkorreko aldiak, ezkutuko etxegabetasun-aldiak, kalean igarotako faseak, gizarte-baliabideetan eta osasun-baliabideetan egonaldiak eta espetxera sartu-irtenak. Datu interesgarri bat da, emakume hauetako askok ez zutela espetxea mehatxutzat hartzen, aterpetxeetako bizitzatik, gizarte-harreman kaltegarrietatik eta eskasia ekonomikotik irteteko bidetzat baizik, edo adikzioetatik sendatzeko aukeratzat. Gainera, inork ez zuen deskribatzen espetxea bultzagarri bezala bere bizitzan; aitzitik honela deskribatzen dute: «aldi baterako bizi izan ziren beste lekuetako bat, uneko beren etxegabetasun-ibilbideen barnean» (ibidem: 135).

Beste ikerketa batzuen arabera, bizitegi-bazterketa salbuespena izatetik oso urruti dago emakumeek espetxean sartu aurretik izan zituen bizitoki-egoerak kontuan hartzen direnean. Villabonako (Asturias) espetxean preso zeuden emakumeekin egindako ikerketa batek erakusten duenez, espetxean sartzeko unean emakumeen %46,4k bakarrik zeukan etxebizitza jabetzan edo alokairuan, eta %26,6k ez zeukan etxerik edo gutxienezko baldintzarik ez zeukaten etxebizitzetan bizi ziren (Sánchez, 2011: 131).

6.3.3.8. Emakume lesbianak, bisexualak edo transexualak (LBT)

Bibliografia espezializatuan, gero eta interes handiagoa antzeman da etxegabetasun-egoeran dauden lesbiana, bisexual eta transexualen (LBT) esperientziak ezagutzeko, eta gizarte-zerbitzuetan nolako arreta jasotzen duten jakiteko.

Kontultatutako literaturan oinarrituta, esan daiteke, egoera hauei lotutako diskriminazioak, eta bereziki familiako homofobiak indarkeria eta beren sexualitatearen errepresio aktiboa eragin dezakeela nerabe eta gazteengan. Batzuetan, egoera hauek ere etxegabetasun-egoera bihur daitezke (Gold 2005, Roche 2005). Erresuma Batuan burututako ikerketen arabera, tolerantziarik ezari, eta homofobia eta transfobiari lotutako arazoek etxea guztiz galtzea eragin dezakete edo etxegabetasun-aldi luze zein laburragoak ekar ditzakete LGBT gazteen artean, talde bereziki ahula baita.

Beste ikerketa batzuk ere ildo beretik doaz, Henry *et al.* (2010: 44) egileek Bristolen (Ingalaterra) etxerik gabeko 94 emakumeri egindakoa, adibidez. Emakume horietatik %13 lesbianak edo bisexualak ziren (Estatuko batez bestekoaren bikoitza), eta ezin zitekeen lagina partzialtzat hartu. O'Connor eta Molloy-k etxerik gabeko 15 eta 24 urte bitarteko gay, lesbiana eta bisexualekin egindako lanaren arabera (2001), ezin daiteke baieztatu orientazio sexualak etxegabetasuna sortzen duenik, baina inguruaren tolerantziarik ezak eta gazteek horri buruz daukaten itxaropenak etxetik irtetea lagundu dezake.

Ikerketa berberak funtsezkotzat jotzen du etxerik gabeko lesbiana eta transexualek dauzkaten era askotako beharrak aintzat hartzea, eta esku-hartze holistikoen alde agertzen dira. Hain zuzen, egileek egiaztatu egiten dute, droga-menpekotasunak, prostituzioa eta esplotazio sexuala direla etxerik gabeko lesbianak eta bisexualak jasan behar izaten dituzten zailtasunetako batzuk, eta gauza bera

gertatzen da bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeekin ere. Ezaugarri bereizgarria da aurre egin behar izaten dietela gizarte-zerbitzu gehienetan indarrean dagoen homofobia irekiari edo sentsibilitate-faltari, bai bertan lan egiten duten langileen artean, bai gainerako erabiltzaileen artean. Horregatik, ez da harrizakoa, ahal izanez gero aniztasun sexualaren arloan espezializatutako zerbitzuetara joatea, eta horrek azken finean, ikusgarritasuna kentzen dio talde honi beste gizarte-baliabide batzuetan.

Bizitoki seguruz gain, emakume hauek laguntza emozionala, epe luzerako laguntza, autolaguntzarako taldeak eta familiekin harremana leheneratzeko bitartekaritza-zerbitzuak –eskatzen dutenean– behar dituzte, eta beren beharrak kontuan hartzen dituzten zerbitzuak edo behar gorietan espezializatutakoak ere eskatzen dituzte behin eta berriz. Kontsultatutako hainbat dokumentuk ildo honetako jardunbide egokiak aipatzen dituzte (Gold, 2005: 20; Hutchinson *et al.*, 2014: 11).

Estatu Batuetan, adibidez, etxerik gabeko pertsonen artean LGBT gazte ugari daude, etxerik gabeko pertsona guztien %15-36 artean LGBT gazteak direla zenbatesten da (Rosario *et al.*, 2012). Hala ere, gure testuinguruan gutxiago direla pentsa liteke, dagoen LGBT pertsonen onarpen handiagotatik. Hala ere, azpimarratu behar da, talde anitz honen barnean pertsona transexualek eta transgeneroek duten ahultasun handiagoa, eta baita homofobiaren, eta bereziki lesbofobiaren, mailaren iraunkortasuna gizarte-eremuko langileen artean (Rodríguez Otero, 2014).

6.3.3.9. Bikotekidea duten emakumeak

Etxerik gabeko emakumeen profil hauen beharrian bereziak alde batera utzita, bikotekidea duten emakumeek ere zerbitzuak erabiltzeko zailtasun batzuk izan ditzaketela antzeman da. Escuderoren (2003) esanetan, etxerik gabeko emakumeei, bikotekidea izateak honako hau eskaintzen die: laguntza emozionala, dauden aukera ekonomiko urriak aprobetxatzeko gaitasun handiagoa, segurtasun handiagoa eraso eta lapurreten aurrean eta proposamen sexualak jasotzeko aukera gutxiago. Perezek (2014) Kalifornian (Estatu Batuak) jasotako etxerik gabeko emakumeen testigantzen arabera, bikotekidearen hurbiltasunak segurtasuna ematen zein izan zitzaketen erasoan aurrean, eta bikotekide baten zein bestearen droga-kontsumoa ekiditen zuen. Horregatik, bikotekidea kalean uztea izan zen ikerketan zehar emakumeek ostatu hartzeko baliabidea ekiditeko eman zuten arrazoi nagusia.

Bikoteentzako gela eskasia edo gabezia ere agertzen da Escuderok Granadan (2003) eta Bachillerrek Madrilen ustez (2008: 266-267), egindako ikerketetan. Bachillerrek eskasia edo gabezia hau hiriburuko aterpetxe gehienak erakunde erlijiosoek kudeatzen dituztelako gertatzen da. Hala ere, aurreiritzi moralak alde batera utzita, zerbitzuen beharrei oso lotuta dauden *erabilgarritasunari* buruzko gogoeta batzuk ere badaude azpian:

Nire ustez, errazagoa da guretzako berezitateko bizitokietan lan egitea. Adibidez, bizitoki mistoetan [...], dauden arazorik handienak beren arteko harreman sexualak, sortzen diren bikoteak... dira, askoz ere zailagoa da bizitoki misto batean lan egitea, beste gauza batzuk lantzen hasi behar zarelako, adibidez, sexualitatea edo genero-indarkeria, eta geure baliabideetan landu beharko genuke. Baina orokorrean, ez dugu inoiz gauza jakin batzuk lantzeko astirik izaten.

Oro har, bizitoki-eremuaren barnean gertatzen diren harreman sexualak oso gutxi aztertzen dira (batzuetan ezkutatu ere egiten dira) eta arazoak sortzen ditu, eztabaida-taldeetako pertsonen adierazpenek erakusten duten bezala.

Zentroetako harreman sexualen gaia ere tabua da, ez da araudietan agertzen, existitu ere ez dela egiten dirudi.

[Baliabidearen izena] zentroan debekatuta dago, gertatzen da baina debekatuta dago, nahaspila asko sortzen duelako. Kanportzeko arazoak erasotzea, substantziak kontsumitzea eta sexua izatea dira.

Izan ere, batzuetan jakintzat jotzen ditugu baimendu ezin daitezkeen egoerak, baina ez dakigu oso ondo zergatik ezin daitezkeen. Orain dela urte batzuk, [baliabidearen izena] zentroan, bikote bat joan zen bertara eta oso zorrotz jarri ginen, beraiek elkarrekin lo egin nahi zuten, bionboaren gainetik pasatzen ziren eta denborarekin, hausnartzen, egiten genuen kontrol-lanak, polizia-lanak, eta baita kontrol moralak ere, gatazka gehiago sortu zituen.

6.3.4. Arreta osoa eta genero-ikuspegiduna

Goian adierazi den bezala, etxerik gabeko emakume gehien ezaugarri bereizgarri onena hainbat bazterketa pilatzen dituztela da. Bazterketaren multidimentsionaltasun-kontzeptua elkaguneratzetasunaren kontzeptuari lotuta ulertu behar da (Crenshaw, 1989), horren arabera, pertsona batek jasaten dituen diskriminazioek elkarri eragiten diote nortasun bat eratu arte. Etxerik gabeko emakumeen kasuan, etxearen gabezia, pobrezia, gabezia afektiboak eta droga-menpekotasun edo osasun mentaleko arazoak, besteak beste, genero-menpekotasunarekin gurutzatzen dira. Ikuspuntu honetatik, hobeto uler daiteke emakume askoren bizi-nahasmendua; sarritan gabeziak dituzte beren buruen zaintzan (Henry *et al.*, 2010: 34; Vanneuville, 2010: 15), mugarik ez dute (Henry *et al.*, 2010: 34) eta gizarteratze-programetan adostutako hitzorduetara joateko zailtasunak dituzte.

Gainera, emakume hauen eskaerak ez dira estatikoak, aldatuz doaz denbora igaro ahala. Henry *et al.* (2010: 27) egileen ikerketak adierazten zuenez, epe laburrera, finantza-laguntza, adikzioak gainditzeko zerbitzuak, osasun mentaleko zerbitzuak eta laguntza psikologikoa eskatzen zuten, eta epe luzera, etxebizitza bat izateko aukera eta nolabaiteko ondorengo jarraipena eskatzen zuten, esku-hartzeak adierazten duen egonkortasun-etapa ixtea eta bizitza autonomoa hasteak segurtasun-falta handia eragiten baitzien. Reeve *et al.* (2007: 39) egileek ildo honetatik, emakumeak etorkizunean autonomia izateko prestatzearen garrantzia azpimarratzen dute.

Emakume hauetako batzuek dituzten behar konplexuekin bat etorri, gizarteratze-prozesuak ere luzeak eta konplexuak izan ohi dira. Ikerketa jakin batzuen arabera, esku-hartzeak gehiegi irauten badute oztipoa izaten da, jadanik urriak diren baliabide espezializatuen erabilera eraginkorrerako, erabiltzaileak izan daitezkeen artatutako benetako pertsona-kopurua murriztu egiten baitu (Edgar eta Doherty, 2001: 263; Easton eta Matthews, 2012: 14)⁷⁷.

Bibliografian, arreta integrala da bizitegi-bazterketako emakumeen beharrez anitzak eta konplexuak aztertze formula eraginkorra. Banakako beharrik identifikatzea eta aseko dituzten zerbitzuak eskaintzea ez da nahikoa, eta Bristoleko (Ingalaterra) zerbitzu baten arduradunak esaten zuen bezala, «emakumei mesede eskasa egiten diegu beharren sorta bat bezala tratatzen baditugu» (*cit. in* Henry *et al.*, 2010: 28).

Esku-hartzeak dimentsio anitzeko ikuspegitik planifikatu behar dira (Edgar eta Doherty, 2001: 262) eta zerbitzuak koordinatu behar dira sarean jarduteko (Henry *et al.*, 2010: 30-31). Kasuen kudeatzaileen figura⁷⁸ oso lagungarria izan daiteke hainbat eremutan espezializatutako profesionalak eta erakundeak parte hartzen duten gizarteratze-prozesuen laguntza-jarraitutasuna bermatzeko (ibidem: 34-35).

⁷⁷ Chrysalis proiektuaren diagnostikoa (Easton eta Matthews, *ibidem*), Londreseko kaleetan prostituzioan aritzen ziren eta droga kontsumitzen zuten etxerik gabeko emakumeentzako programa interesgarria da zentzu honetan. Hiru fasetan diseinatua, fase bakoitzarentzako ostatu hartzeko baliabide eta dimentsio anitzeko laguntza espezifikoekin, guztira, gehienez ere bost urteko iraupena ezartzen zuen, eta erabiltzaileek zein erakunde parte-hartzaileek egokitzen jotzen zuten epe hori. Hala ere, aurrekontu-murrizketengatik, eta ukitutako emakume gehiago artatzeko beharrezko programako egonaldia gehienez ere bi urtera murriztu zen. Aldaketek iritzi polemikoak eragin zituzten: erabiltzaile batzuek faseak gainditzeko motibatua sentitzen zirela adierazten zuten, baina erakunde parte-hartzaileak desadostasuna agertu zuten, uste zutelako epe berriak ez zirela egokiak erabiltzaileen behar konplexuei erantzuteko eta azkenean, zailtasun handienak zituzten emakumeak programatik kanpo geratuko zirela.

⁷⁸ Henry *et al.*-en ustetan (2010:34-35) hobe da zeregin hori emakumeak egiten badu.

Integrala izateaz gain, arreta banakakoa izan behar da —hau da, emakume bakoitzaren beharrezanetan, itxaropenetan, gaitasunetan eta lehentasunetan jarri behar du arreta—, autonomia pertsonala indartzera eta komunitatean sustraitzera bideratu behar da (Schwartz *et al.*, 2010: 30). Malgutasuna ere garrantzitsua da sartzeko baldintzetan, zein programa eta zerbitzuetan egoteko baldintzetan (Henry *et al.*, 2010: 70; Edgar eta Doherty, 2001: 262), enplegua eta prestazio sozialak bateratzeko aukera, adibidez (Easton eta Matthews, 2012)⁷⁹. Epe erdi eta luzera, emakume hauen ahalduntzea ere lagundu behar du, beren egoera agerian jartzeko eta egin behar diren erreformak jende aurrean hobetzeko aldarrikatzerako orduan protagonismo handiagoa beren gain har dezaten (ibidem: 31). Ikus daitekeen bezala, esku hartzeko printzipio eta irizpide hauek bat datoz, oro har, pertsonarengan arreta jartzen duen arreta integralaren ereduarekin (Rodríguez, 2013: 65-80), berez menpekotasun-eremurako diseinatua.

Azkenik, bizitegi-bazterketaren azterketak generoaren zeharkako ikuspegia eduki behar du, beraz, esku-hartzeak etxerik gabeko gizon eta emakumeek beharizan eta ibilbideetan dituzten desberdintasunak kontuan hartuta planifikatu eta ebaluatu beharko dira —emakumeentzako bakarrik den arreta-eredua egiteak ez bailuke zentzurik izango— eta edozein neurriren funtsezko helburua emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna izango da. Zerbitzu eta programen plangintza zehatzak, hortaz, alderdi hauek hartu beharko lituzke kontuan:

- Familia-erantzukizuna egotea eta gurasobakartasunaren eragina, gizarteratzeko eta laneratzeko aukerak baldintzatzen baititu⁸⁰.
- Genero-indarkeriako kasuen prebalentzia, eta oro har, etxerik gabeko emakumeen biktimizazio-arrisku handiagoa.
- Gaixotasun mentalen prebalentzia handiagoa etxerik gabeko emakumeen artean, eta oro har, generoa eta osasun mentalaren arteko lotura.
- Harreman-faktoreen garrantzi handiagoa emakumeen etxegabetasun-ibilbideetan.
- Instalazioek arreta eskaintzen zaien pertsonen pribatutasun eta intimitaterako eskubidea bermatzen dituzten lekuak edukitzeko beharra.
- Gizarteratzeko prozesuan emakumeei laguntza eskaintzeko behar den gaitasuna, prestakuntza eta esperientzia duten langileak —emakumeak zein gizonak— edukitzeko beharra.

6.4. Emakumeen etxegabetasunaren prebentzioa

Txosten hau egiteko kontsultatu dugun bibliografiak agerian uzten du genero-ikuspegitik etxegabetasunaren prebentzioak duen garapen eskasa. Mendearen hasieran, Edgar eta Deherty-k (2001: 262) jadanik adierazi zuten garaiko politikak ez zeudela ezkutuko etxegabetasunean zeuden emakumeei zuzenduta, ezta beren beharrezanak asetzeko espezifikoki pentsatuta ere. Orduetik argitaratutako azterketei esker, esparru horretan zertxobait aurreratu dela ondoriozta daiteke, zerbitzuen dibertsifikazioari dagokionez batez ere (cfr. Enders-Drägässer, 2001 eta 2010), artatutako beharrezanak hedatzeko gai den estrategia, eta horrela banakako eskakizunetara hobeto egokitzen den erantzuna ematen da, etxerik gabeko emakumeek eskatzen duten epe luzerako laguntza erraztuz. Etxerik gabeko emakumeen biografietan agertzen diren beste alderdi batzuk, trauma emozionalen arreta goiztiarra, esaterako (Reeve *et al.* 2007: 32-34), urriak dira oraindik ere. Beraz, egin daitekeen gutxi gorabeherako balantzeak adierazten duenaren arabera, orain dela hamabost urte antzemandako prebentzio-politiken gabeziak bere horretan darrai gaur egun ere.

⁷⁹ Diru-sarrerak bermatzeko sistemak pobrezia lanarekin heltzeko orokorrean duten zeregina aztertzeko, ikusi Zalakain (2014).

⁸⁰ Horri dagokionez, kontuan hartu behar da, gizarteratzeko gutxieneko errenta jasotzen duten pertsonen eskatzen zaien parte-hartzea eta elkarrekikotasuna ez dela beti lan-merkaturatzean gauzatzen, izan ere, gai honi buruzko lehentasunak aldatu egin daitezke familia-egoeraren arabera. Emakumeek bizitza autonomoa eduki ahal izateko lana lortzeko zailtasun handiagoa dutenez, eta beren gain hazkuntza-lan handiagoa hartzen dutenez, laneko eta familiako bizitzaren bateratzea errazten dituzten zerbitzuak eskaini behar zaizkie. Hori ez da traba, lehen aipatu bezala, seme-alaben zaintzan gizonen erantzunkidetasuna ere sustatzeko (Fernández-Rasines eta Gámez-Ramos, 2013: 48; Löfstrand, 2004, *cit. in* Baptista, 2010: 175-176).

Etzegabetasunaren prebentzioa justizia-kontua da, baina baita gizarte-politiken eraginkortasun-kontua ere. Europako Batzordeak alderdi hau azpimarratzen du, literaturaren berrikuspen batean, honako hau adierazten baitu: etxerik gabe zenbat eta denbora gehiago igaro orduan eta gehiago egiten du okerrera osasunak, eta era berean, erabateko gizarte-partaidetza ahalbidetzeko beharrezkoak diren denbora eta baliabideak gehitu egiten dira etzegabetasuna luzatu ahala. Orain arte argitaratu diren kostua-eraginkortasunari buruzko ikerketa eskasak adierazten dutenez, etzegabetasunaren arloko prebentzioa eta esku-hartze goiztiarrak ondorengo esku-hartzeak baino errentagarriagoak dira. 2011n argitaratu zen Danimarkako ikerketa batek (Van Leerdam, *cit. in* Comisión Europea, 2013: 16), adibidez, etzegabetasuna prebenitzeko inbertitzen den euro bakoitzeko 2,20 euro aurrezten direla zenbatesten du politika publikoen sorta zabalean, eta horri dagokionez, ahalmen gehien duten arloak hauek dira: larrialdietako osasun-arreta, zerbitzu psikiatrikoak, espetzeak, poliziaren esku-hartzeak, prozedura judicialak, medikazioa eta aldi baterako etxebizitzetan eta egoitzetan ostatu-hartzea. Ildo berean, Pleace *et al.*-ek (2013) etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuen kostua zenbatetsi dute Europako hainbat herrialdetan. Txostenean, bakarrik dagoen ama bati eta beren bi seme-alaba txikiei urte betean zehar ostatu emateak ekarriko lukeen gutxi gorabeherako kostua alderatzen du bikotekidearengandik banandu ondoren etxerik gabeko geratzeagatik eskaini lekizkieken zerbitzuen kostuarekin. Txostenaren kalkuluen arabera, lehenengo aukerarekin 2.479 € eta 17.660 € artean aurreztu litezke, herrialdearen arabera.

62. taula . Bi ume bere ardurapean dituen etxerik gabeko emakumea artatzeak dakarren kostuaren zenbatespena

	Finlandia	Herbehereak	Suedia	Erresuma Batua
1. egoera: etzegabetasuna				
Gizarte-prestazioak	10.776 €	15.964 €	11.299 €	13.235 €
Etxegabetzea	5.000 €	7.000 €	1.725 €	3.483 €
Ospitaleko larrialdiak (4 aldiz)	1.260 €	1.208 €	2.304 €	520 €
Familiantzako larrialdietako bizitokia (2 hilabete)	4.800 €	4.685 €	8.505 €	5.155 €
Hotelean aldi baterako ostatu hartzea (3 hilabete)	7.200 €	9.720 €	12.757 €	2.837 €
Alokairuko etxebizitzan aldi baterako ostatu hartzea (7 hilabete)	16.800 €	6.776 €	6.787 €	6.827 €
Kostuak, guztira	45.836 €	45.353 €	43.376 €	32.057 €
2. egoera: etxebizitza eta laguntza ibiltaria				
Gizarte-prestazioak	10.776 €	15.964 €	11.299 €	13.235 €
Familiako medikua (4 aldiz)	400 €	184 €	619 €	164 €
Alokairuko etxebizitzan ostatu hartzea	12.000 €	11.616 €	11.635 €	12.074 €
Etxeko bisitak (2 ordu hilean)	5.000 €	3.510 €	2.335 €	4.105 €
Kostuak, guztira	28.176 €	31.274 €	25.887 €	29.578 €
Eduki ditzakeen kostuen balantzea				
Aurreztu daitekeena (1. egoera - 2. egoera)	17.660 €	14.079 €	17.489 €	2.479 €
Kostu-ratioa (1/2)	1,63	1,45	1,68	1,08

Iturria: Honen egokitzapena: Pleace *et al.* (2013: 66).

Prebentzio-politika guztiek kontuan hartu behar dute etxerik gabeko emakumeen artean dagoen egoera-aniztasuna, taldeetako batzuek lehenetsuneko arreta jasotzen baitute –genero-indarkeriaren biktimek bereziki–, eta beste batzuek, aldiz, oztopo gehiago izaten dituztela dirudi laguntza lortzeko –drogamenpekotasun edo osasun mentaleko arazoak zituzten emakumeak, edo legez kontrako administrazio-egoeran dauden emakume etorkinak–. Horregatik, etxerik gabeko emakume guztientzako neurriak beste talde espezifiko batzuentzako neurriekin bateratu behar dira. Gainera, bizitegi-bazterketa dimentsio anitzeko fenomeno denez, aztertzeko, ongizate-sistemaren politika guztietako neurriak bateratu behar dira. Europako Batzordearen 2010eko ikerketaren arabera (*cit. in* Europako Batzordea, 2013: 15), gizarte-gastu handiagoa duten herrialdeetan etzegabetasun-maila txikiagoa dago, baina gizarte-hastua handitzeak ez du esan nahi zailtasunak dituzten pertsonak berez hobeto babestuta egongo direnik (FEANTSA, 2011, *cit. in* ibidem), horregatik, gizarte-politiken eta etxebizitza-arloko politiken arteko koordinazioa ona izatea proposatzen da. Ekiteko estrategia integralen garapena –ez bakarrik Estatuan (Espainiako Gobernua, 2015), baita eremu hurbilagoan ere– jauzi kualitatiboa izan daiteke etzegabetasunaren gaiari heldzerakoan, beharrezkoak diren baliabideez hornitzen bada eta jarraipen ona egiten bazaio.

Espezifikoki emakumeen etxegabetasunari dagokionez, Schwartz *et al.*-ek (2010) egindako proposamena aztertzea merezi du. Egileek gizarte-justiziaren ikuspegitik, makro eta mikro ikuspuntuak batzen dituen estrategia proposatzen dute. Banakakoaren ikuspegitik, hezkuntza sustatzea eta ahalduzkoa erraztea iradokitzen dute emakumeengan eragina duten bizitegi-bazterketako arriskuak murrizteko bitarteko bezala. Egitura-mailan, sistema judiziala, hezkuntza-sistema eta osasun-sistema nahastearen alde agertzen dira, genero-indarkeriarekiko gizarte-erantzuna hobetu, estigma murriztu eta zaintzaren jarraitutasuna eta osasun-arretaren izaera komunitarioa bermatzeko. Halaber, etxerik gabeko emakumei eskaintzen zaien arreta mentalak emakumeen etxegabetasunarekin lotutako sexismoa eta trauma emozionalak aztertzea eskatzen dute.

Egiturazko esku-hartzeen barnean, etxebizitzaren eremukoak erdigunean egon beharko lirateke etxegabetasunaren prebentzioan. Europako Batzordeak (ibidem) etxegabetzeak ekiditeko beharra azpimarratzen du, izan ere, etxegabetzeak ekiditearen errentagarritasuna egiaztatu da Eskozian eta Austrian egindako ikerketetan (ibidem: 17-19), eta horren errentagarritasuna berresten dute. Esku-hartze hauek kostu handia eduki dezakete –batez ere poliziaren esku-hartzea behar bada eta epaiketak luzatzen badira–, eta baita aterpetzeko egonaldiek ere, horregatik, sarritan merkeagoa izaten da pertsonak beren etxebizitzetan jarraitzeko laguntza ematea. Europako Batzordearen txostenak etxegabetzeak eragozteko eta ondorioak arintzeko hainbat herrialdetan arrakastaz ezarri den politika-multzoa jasotzen du: enbargoaren aurkako neurriak jabeen errentarien diru-sarreraren ustekabeko jaitseriei aurre egiten laguntzeko (Erresuma Batua), zailtasunak dituzten errentariak identifikatzea laguntza eskaintzeko (Suedia, Amsterdam, Austria), aholkularitza pertsonalizatua (Austria, Suedia), bateragarritasun-zerbitzuak (Belgika) kreditu-erakundeentzako jardunbide egokien kodea (Hungaria, Irlanda, Herbehereak, Erresuma Batua), etxegabetze-luzamenduak (Italia, Hungaria) edo berehala ostatu emateko programak (Valonia), besteak beste. Etxebizitza eskuratzeko sozialki jasangarriagoak diren moduak sustatzeak –esaterako, gizarte-aholkularitza, erabilera lagatzea, jabetza kooperatiboa edo gozamen-eskubidea– eta gehiegizko zorra duten pertsonen bigarren aukera bat eskaintzeko formulek –ordainean ematea, adibidez– ere etxegabetzeak ekiditen eta etxebizitza-eskubidea gauzatzen lagun dezakete (Valiño, 2013: 140-142).

Gizarte arloko politika eta zerbitzuei dagokienez, genero-ikuspegia eta sareko lana sustatzearen beharra adierazten da. Ezkutuko etxegabetasuna eragozteko lehentasunezko helburua izan behar da, eta lortzeko, ahalegin handiagoa egin behar da ezkutuko etxegabetasun-egoerak antzemate aldera (Enders-Dragässer, 2010: 14). Egoera hauek identifikatzeko beharra modu adierazgarrian jarri zuen agerian eztabaida-taldeko partaide batek:

nire ustez erronka garrantzitsua begirada aldaraztea da. Zeren emakume guztiak mantenduta badaude eta ez badira kalera iristen, mantentzen dituzten faktore eta eragileak hain dira toxikoak hain dira desegokiak, hain dira... [...]. Lehen esan dugu «agerian daudenak» [gaueko zenbaketek kalean zenbatzen dituzten edo ostatu hartzeko baliabideetan dauden emakumei buruz], baina garrantzitsuak agerian ez daudenak dira. Nola helduko gara emakume horienganaino?

Illo horretatik, oso erabilgarria izango litzateke dauzkaten gizarte-baliabideei buruzko informazioa ematea. Horretarako, egoera horietan dauden emakumeak maiz joaten diren lekuetan (liburutegiak, kultur etxeak, ambulatorioak, ospitaleak, supermerkatuak) liburuxkak eta posterrak jarri (Reeve *et al.*, 2007: 45). Bestalde, ostatu hartzeko zerbitzuetan segurtasuna indartu behar da, segurtasuna ez dadin izan zerbitzuotara ez joateko aitzakia. Azkenik, zerbitzu eta programen dibertsifikazioan aurrera egitearen eta trauma emozionaletan esku-hartze goiztiarra optimizatzearen garrantzia gogorarazi behar da.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

AGUIRRE, B. (2013) «El acompañamiento social personalizado como fórmula innovadora de respuesta a personas con trastorno mental y en exclusión social». *Zerbitzuan*, 54 zk., 127-137. or.

AMORE, K. ET AL. (2011) «The ETHOS definition and classification of homelessness: An analysis». *European Journal of Homelessness*, 5. lib. 2 zk., 19-36. or.

ARARTEKO (2006) *Respuesta a las necesidades básicas de las personas sin hogar y en exclusión grave / Etxerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna*. Vitoria-Gasteiz: Arartekoa.

ASKABIDE ELKARTEA (2015) *Memoria 2014*. Bilbo Askabide elkarte.

ROMÍ BIDEAN ELKARTEA (2014) *Estudio diagnóstico sobre la población gitano-rumana asentada en el Territorio Histórico de Gipuzkoa en el año 2014*. Donostia-San Sebastián: Romí Bidean elkarte.

AVRAMOV, D. (1996) *The invisible hand of the housing market: A study of effects of changes in the housing market on homelessness in the European Union*. Brusela: FEANTSA.

BACHILLER, S. (2008) *Exclusión social, desafiliación y usos del espacio. Una etnografía con personas sin hogar en Madrid*. Madril: Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

BAPTISTA, I. (2010) «Women and homelessness». In: *Homelessness research in Europe*. Brusela: European Federation of National Organisations Working with the Homeless, 163-186 or.

BAPTISTA, I. ET AL. (2015) *Local connection rules and access to homelessness services in Europe*. Sails: EOH Comparative Studies on Homelessness 5. zk. Brusela: European Federation of National Organisations Working with the Homeless.

BC SOCIETY OF TRANSITION HOUSES (2011) *Reducing barriers to support for women fleeing violence. A toolkit for supporting women with varying levels of mental wellness and substance use*. Ottawa: Status of Women Canada.

BINDEL, J. ET AL. (2013) *Breaking down the barriers: a study of how women exit prostitution*. Londres: Eaves.

BOURDIEU, P (2000) *La dominación masculina*. Madril: Anagrama.

BOWPITT, G. ET AL. (2011) «Comparing men's and women's experiences of multiple exclusion homelessness». *Social Policy & Society*, 10. lib. 4 zk., 537-546. or.

BRUTO DA COSTA, A., BAPTISTA, I. (2001) «La femme et le sans-abrisme au Portugal». In: *La femme sans-abri en Europe. Parcours, services et expériences*. Bristol: Policy Press, 59-72 or.

- BUSCH-GEERTSEMA, V. (2013) *Housing First Europe. Final report and local evaluation reports for Amsterdam, Budapest, Copenhagen, Glasgow and Lisbon*. Brusela: European Commission.
- CABRERA, P.J. (2000) *Mujeres sin hogar en España. Informe nacional para FEANTSA 1999*. Brusela: European Federation of National Organisations Working with the Homeless.
- CABRERA, P.J., RUBIO, M. (2008) «Las personas sin hogar, hoy». *Lan eta Immigrazio Ministerioaren aldizkaria*, 75. zk., 51-74 or.
- CABRERA, P.J. (2008) «Personas sin hogar». In: Hernández, M. (koord..) *Exclusión social y desigualdad*. Murtzia: Murtziako Unibertsitatea, 185-228 or.
- CABRERA, P. (2012) *Activando redes sociales. Un estudio para la prevención del sinhogarismo*. Madril: Realidades para la Integración Social.elkartea.
- CARRASCO, L. (2014) *Mujeres sin hogar en España: un análisis sociográfico desde una perspectiva feminista*. Madril: Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea
- CASEY, S. (2002) «Snakes and ladders: Women's pathways into and out of homelessness». In: *Competing Visions. Proceedings of the National Social Policy Conference*. Sydney, 4-6 July 2001. Londres: Social Policy Research Centre, 75-90 or.
- CHÁRRIEZ, M. (2012) «Historias de vida: una metodología de investigación cualitativa». *Griot aldizkaria*, 5. lib. 1 zk., 50-67. or.
- COLORADO COALITION FOR THE HOMELESS (2012) *The characteristics of homeless women*. Saila: Policy Brief. Denver: Colorado Coalition for the Homeless.
- COMISIÓN EUROPEA (2013) *Abordar el sinhogarismo en la Unión Europea*. Brusela: Europako Batzordea, SDW (2013) 42 amaiera.
- COMUNIDAD DE MADRID (2006) *Investigación cualitativa sobre la percepción que los grupos vulnerables de la ciudad de Madrid tienen de su salud y sus condicionantes*. Madril: Madrid-Salud Osasun publikoaren institutua
- COSTA, M. (2009) *El estudio de las personas sin hogar en geografía: un estado de la cuestión*. Bartzelona: Universitat Autònoma de Barcelona
- COSTA, M. (2010) «El estudio de las personas sin hogar en geografía. Un estado de la cuestión». *Documents d'Anàlisi Geogràfica*, 56. lib. 3 zk., 583-605. or.
- COURTENAY, W. H. (2000) «Constructions of masculinity and their influence on men's well-being: A theory of gender and health». *Social Science & Medicine*, 50. lib. 1385-1401 or.
- CRAMER, H. (2002) *Engendering homelessness: an ethnographic study of homeless practices in a post-industrial city. PhD Thesis*. Glasgow: University of Glasgow.
- CRENSHAW, K. (1989) «Demarginalizing the interesection of race and sex: A black feminist critique of antidiscrimination doctrine, feminist theory and antiracist politics». *The University of Chicago Legal Forum* 140 zk., 139-167 or.
- CRUZ, J. (KOORD.) ET AL. (2006) *Vivir en la calle. Estudio psicosocial sobre las personas sin hogar*. Sevilla: Osasun Publikoko Andaluziako Eskola
- DAMONTI, P. (2014) «Exclusión social y género: un análisis de la realidad contemporánea». *Zerbitzuan*, 57 zk., 71-89. or.
- DAMONTI, P. (2014) *Una mirada de género a la exclusión social. VII Informe sobre exclusión y desarrollo social en España*. Saila: Documento de Trabajo. Madril: Fundación FOESSA, Cáritas Española Editores.
- DE LA CRUZ, C. (1998) *Genero ikuspegia garapen proiektu eta programetan barneratzeko gida metodologikoa*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.

- DE LA RIVA, P. (2014) *Las personas sin hogar en España: perfiles y modelos de intervención*. Oviedo: Oviedo Unibertsitatea.
- GIZARTE ZERBITZUEN SAILA (2015) *Memoria 2014 / 2014ko Memoria*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- DÍAZ, M. (2014) *Mujeres sin hogar. Aproximación teórica a una situación de desprotección, vulnerabilidad y exclusión*. Sailsa: Materials CiP. Informes. Bartzelona: Institut de Ciències Polítiques i Socials.
- ARABAKO FORU ALDUNDIA. (2009) «Condiciones de vida de los y las trabajadoras en temporada en Rioja Alavesa». In: *Estudio sobre la convivencia en Rioja Alavesa en relación a los procesos inmigratorio*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- DOHERTY, J. (2005) «El origen del sinhogarismo: perspectivas europeas». *Documentación Social*, 138 zk., 41-61. or.
- EASTON, H., MATTHEWS, R. (2012) *Evaluation of the Chrysalis Project: Providing accommodation and support for women exiting prostitution*. Kent: Commonweal Housing, St. Mungo's.
- EDGAR, B. (COORD.), DOHERTY, J. (2001) *La femme sans-abri en Europe. Parcours, services et expériences*. Bristol: Policy Press.
- EDGAR, B., DOHERTY, J. (2001) «Conclusions». In: *La femme sans-abri en Europe. Parcours, services et expériences*. Bristol: Policy Press, 257-266 or.
- EDGAR, B. ET AL. (2004) *Third Review of Statistics on Homelessness in Europe. Developing an operational definition of homelessness*. Brusela: European Federation of National Organisations Working with the Homeless.
- EDGAR, B. (2009) *European review of statistics on homelessness*. Brusela: European Federation of National Organisations Working with the Homeless.
- EDGAR, B. (2012) «The ETHOS definition and classification of homelessness: An analysis». *European Journal of Homelessness*, 6. lib. 2. zk. 219-225 or.
- EMAKUNDE (2014) *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoan azterketa eta interpretazioa. 2014ko datu estatistikoak* Vitoria-Gasteiz: Emakunde.
- EMAKUNDE (2007), *Emakumeen prostituzioa Euskal Autonomia Erkidegoan. Prostituzioaren mapa sektoriala EAEn*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.
- ENDERS-DRAGÄSSER, U. (2001) «La femme, l'exclusion et le sans-abrisme en Allemagne». In: *La femme sans-abri en Europe. Parcours, services et expériences*. Bristol: Policy Press, 231-244 or.
- ENDERS-DRAGÄSSER, U. (2010) «Women and homelessness in Germany». *Homeless in Europe*, spring, 12-14.or.
- EQUIPO DE INVESTIGACIÓN SOCIOLÓGICA EDIS (2004) *Realidad social de las mujeres sin techo, prostitutas, excluidas y drogodependientes en España*. Madril: Emakumearen Institutua.
- ESCUADERO, M.J. (2003) *Mujeres sin hogar en Granada. Un estudio etnográfico*. Sailsa: Feminae, 15. zk. Granada: Editorial Universidad de Granada.
- EUROPEAN COMMISSION (2004) *Toolkit on mainstreaming gender equality in EC development cooperation. Section 3: Glossary of gender and development terms*. Brusela: European Commission.
- EUROPEAN FEDERATION OF NATIONAL ORGANISATIONS WORKING WITH THE HOMELESS (2011) *Quality of social services from the perspective of services working with homeless people*. European Report. Brusela: European Federation of National Organisations Working with the Homeless.
- EUROPEAN FEDERATION OF NATIONAL ORGANISATIONS WORKING WITH THE HOMELESS (2012) *On the way home? FEANTSA monitoring report on homelessness and homeless policies in Europe*. Brusela: European Federation of National Organisations Working with the Homeless.

- EUSTAT (2005) *Etterik gabeko pertsonen buruzko inkesta. Emaizten analisia*. Vitoria-Gasteiz: Eustat.
- FEANTSA HEALTH AND SOCIAL PROTECTION WORKING GROUP (2007) *Homelessness and domestic violence. Tailoring services to meet the needs of women who are homeless and fleeing domestic violence*. Brusela: FEANTSA.
- FERNÁNDEZ, R. (2011) *Exclusión social de mujeres presas: análisis de necesidades y su percepción del proceso de rehabilitación en el Centro Penitenciario de Villabona*. Oviedo: Oviedoko Unibertsitatea.
- FERNÁNDEZ-RASINES, P., GÁMEZ-RAMOS, T. (2013) «La invisibilidad de las mujeres sin hogar en España». *Revista de Psicología*, 22. lib. 2 zk., 42-52. or.
- EDE FUNDAZIOA. SERVICIO DE INVESTIGACIÓN SOCIAL (2012) *Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak: bizipenak eta eskariak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza
- FLYNN, C.P. (2000) «Woman's best friend: Pet abuse and the role of companion animals in the lives of battered women». *Violence against Women*, 6. lib. 2 zk., 162-177. or.
- GARCÍA, O., BRÄNDLE, G. (2014) «Relevance of the use of ETHOS in the assessment of housing exclusion: Proposals for discussion from the Spanish case». *European Journal of Homelessness*, 8. lib. 2 zk., 191-208. or.
- ESPAINIAKO GOBERNUA (2015) *Estrategia Nacional Integral para Personas sin Hogar 2015-2020*. Madril: Espainiako Gobernu.
- GOLD, D. (2005) *Sexual exclusion: Issues and best practice in lesbian, gay and bisexual housing and homelessness*. Londres: Shelter.
- HATENTO, ETXERIK GABEKO PERTSONEN KONTRAKO GORROTO DELITUEN BEHATOKIA (2015) *Los delitos de odio contra las personas sin hogar. Muchas preguntas. Algunas respuestas*. Madril: RAIS Fundazioa.
- HERNÁNDEZ, M. (KOORD.) (2013) *Vivienda y exclusión residencial*. Murtzia: Murtziako Unibertsitatea.
- HERRERO, I. (2003) «Mujeres sin hogar y violencia de género. La triple invisibilidad». *Cuadernos de Trabajo Social* 16. zk., 265-268 or.
- HINTON, T. (1999) *Forgotten Mothers. Meeting The Needs Of Homeless Women Who Have Lost Their Children*. LONDRES: CRISIS.
- HOMES FOR WOMEN (2013) *Housing first, women second? Gendering housing first. A brief from the Homes for Women Campaign*. Toronto, YWCA Canada.
- HUTCHINSON, S. ET AL. (2014) *Rebuilding shattered lives. The final report*. Londres: St. Mungo's.
- IRVINE, L. (2013) *My dog always eats first: homeless people and their animals*. Boulder: Lynne Rienner Publishers.
- ESTATUKO BURUZAGITZA (2004) «1/2004 Lege Organikoa, 2004ko abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa». *BOE* 2004/12/29.
- JULIANO, D. (2005) «El trabajo sexual en la mira: polémicas y estereotipos». *Cadernos Pagu*, 25 zk., 79-106. or.
- HENRY, L. ET AL. (2010) *Mapping Study of Services for Homeless Women in Bristol*. Bristol: University of Bristol.
- ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (2015) *Encuesta sobre centros de atención a personas sin hogar*. 2014. urtea. Madril: Estadistikako Institutu Nazionala.
- JÄRVINEN, M. (1995) «Homelessness as a social construction. A study on marginalized women». *Nordisk Alkoholtidskrift*, 12. lib. 4-13 or.
- KRAUS, D. ET AL. (2005) *Homelessness, Housing, and Harm Reduction: Stable Housing for Homeless People with Substance Use Issue*. Ottawa: Canada Mortgage and Housing Corporation.
- LUQUE, C. (2003) «La mujer sin hogar: realidades y reflexiones». *Cuadernos de Trabajo Social* 16. zk., 249-264 or.

- MARPSAT, M. (2000) «An advantage with limits: the lower risk for women of becoming homeless». *Population: an English Selection*, 12. lib. 1 zk., 247-291. or.
- MARTÍNEZ, L. (2014) *Crisis en familia. Síntomas de agotamiento de la solidaridad familiar. VII Informe sobre exclusión y desarrollo social en España*. Saila: Documento de Trabajo. Madril: Fundación FOESSA, Cáritas Española Editores.
- MAYOCK, P. ET AL. (2012) «Migrant women and homelessness: the role of gender-based violence». *European Journal of Homelessness*, 6. lib. 1. zk. 59-82 or.
- MAYOCK, P., SHERIDAN, S. (2013) «'At home' in prison? Women and the homelessness-incarceration nexus». *Irish Probation Journal*, 10. lib. 118-140 or.
- MENESES, C. (2010) «Usos y abusos de drogas en contextos de prostitución». *Revista Española de Drogodependencias*, 35. lib., 3. zk.
- SASOIKO LANAREN ARRETARAKO ERAKUNDE ARTEKO MAHAIA (2015) *Jarduera eta kudeaketaren urteko txostena. 2014. urtea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EAE-KO SASOIKO LANARI BURUZKO ERAKUNDE ARTEKO MAHAIA (2013) *2013-2016 aldirako Sasoiko Lanaren Arretarako II. Plan Integrala*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- METRAUX, S. ET AL. (2007) «Incarceration and homelessness». In: *Toward understanding homelessness: the 2007 National Symposium on Homelessness Research*. Washington: Hud User, 337-368 or.
- MORENVILLE, C. (2001) *A social Europe for women also? Gender inequalities in European social protection systems*. Brusela: European Anti-Poverty Network.
- MOSS, K., SINGH, P. (2015) *Women rough sleepers in Europe. Homelessness and victims of domestic abuse*. Bristol: Policy Press.
- MOSS, K. ET AL. (2014) *Empowering Women Rough Sleepers (WRS) to protect themselves from violence on the streets (Phase II)*. Wolverhampton: University of Wolverhampton.
- NAVARRO, M. (2013) *Análisis psicosocial de exclusión residencial extrema en la población migrante*. Madril: Comillaseko Pontifize Unibertsitatea.
- NAVARRO, M.A. (2013). «El fin del sinhogarismo en Euskadi ¿mito o realidad?». *Zerbitzuan*, 54 zk., 111-125. or.
- METRAUX, S. ET AL. (2006) *A visceral grief: young homeless mothers and loss of child custody*. Saila: Research Paper 2016. Toronto, Centre for Urban and Community Studies, University of Toronto.
- OCHOA, S.M. (2014) *El riesgo en la sociología contemporánea: de los riesgos sociales a los riesgos modernos. Documento de Trabajo*. Mexiko: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa.
- BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA (2014) *Genero indarkeriaren egoerari erantzunez buruzko zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte-babesaren eremua*. Bilbo: Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia.
- ONARTU (2010) *Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoera-azterketa*. Bilbo: Bilboko Udala.
- O'CONNOR, W., MOLLOY, D. (2001) *'Hidden in plain sight': Homelessness among lesbian and gay youth*. Londres: National Centre for Social Research.
- O'SULLIVAN, E. (ED.) ET AL. (2010) *Homelessness research in Europe*. Brusela: European Federation of National Organisations Working with the Homeless.
- PANNELL, J., PALMER, G. (2004). *Coming of age: opportunities for older homeless people under Supporting People*. Londres: Homeless Link.
- PEREZ, J.L. (2014). «The cost of seeking shelter: how inaccessibility leads to women's underutilization of emergency shelter». *Journal of Poverty*, 18. lib. 3 zk., 254-274. or.

- PETERSEN, M., PARSELL, C. (2014). *Older Women's Pathways out of Homelessness in Australia*. Brisbane: Institute for Social Science Research, The University of Queensland.
- PLEACE, N., BRETHERTON, J. (2013). *Measuring homelessness and housing exclusion in Northern Ireland. A test of the ETHOS typology*. York, Centre for Housing Policy, University of York.
- QUIROGA, V. ET AL. (2009). *Sueños de bolsillo. Sakelako ametsak. Inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan*. Saila: Inmigrazio Zuzendaritzaren Ikerketen Bilduma, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza
- RAIS FUNDAZIOA (2015). *Housing First, una solución eficaz para las personas sin hogar*. Madril: RAIS Fundazioa
- REEVE, K. ET AL. (2006). *Homeless women: still being failed yet striving to survive*. Londres: Crisis.
- REEVE, K. ET AL. (2007). *Homeless Women: Homelessness Careers, Homelessness Landscapes*. Londres: Crisis.
- ROCHE, B. (2005). *Sexuality and Homelessness*. Londres: Crisis.
- RODRÍGUEZ, P. (2013). *La atención integral y centrada en la persona. Saila: Pilares para la Autonomía Personal fundazioaren paperak*. Madril: Pilares para la Autonomía Personal fundazioa.
- SALES, A. et al. (2015) *Diagnosi 2015. La situació del sensellarisme a Barcelona. Evolució i polítiques d'intervenció*. Bartzelona: Xarxa d'Atenció a Persones sense Llar de Barcelona.
- SALES, A. (2015). «How many homeless people live in Spain? Incomplete sources and impossible predictions». *European Journal of Homelessness*, 9. lib. 2 zk., 215-231. or.
- SÁNCHEZ, M. (2007). *Solo luna. Treinta cartas a una dama sin hogar*. Madril: Caja Madrid Gizarte Ekintza; RAIS Fundazioa.
- SÁNCHEZ, M.R. (2012). «En los límites de la exclusión social: las personas sin hogar en España». *OBETS. Revista de Ciencias Sociales*, 7. lib.. 2 zk., 307-324. or.
- SCHWARTZ, J.P. ET AL. (2010). «Addressing the problem of women and homelessness». *Homeless in Europe*, spring, 29-31.or.
- ESPETXEETAKO IDAZKARITZA NAGUSIA (2014) *Informe general 2014*. Madril: Barne Ministerioa.
- ESPETXEETAKO IDAZKARITZA NAGUSIA (2015) *Estadística penitenciaria*. Madril: Barne Ministerioa.
- SIIS DOKUMENTAZIO ETA IKERKETA ZENTROA (2011) *Kale Gorrian. Donostian etxerik gabeko pertsonen egoerari buruzko azterlana*. Donostia-San Sebastián: Donostiako Udala, Kale Gorrian.
- SIIS DOKUMENTAZIO ETA IKERKETA ZENTROA (2013) *EAEEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko azterketa, 2012*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza
- SIIS DOKUMENTAZIO ETA IKERKETA ZENTROA (2015) *EAEEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko II. azterketa*. Donostia-San Sebastián: SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa
- SOLANA, E.M. (2012). *Estudio de la intervención con personas sin hogar en el Centro San Miguel según perfiles diferenciados. Master bukaerako lana*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Esku-hartze Sozialean Gizabanakoekin, Familiekin eta Taldeekin Unibertsitate Masterra.
- SUBSTANCE ABUSE AND MENTAL HEALTH SERVICES ADMINISTRATION (2011). *Current statistics on the prevalence and characteristics of people experiencing homelessness in the United States*. Washington: SAMHSA.

- SUDOUEST (2015). «Une vidéo montrant un chiot arraché à un SDF à Paris crée l'indignation». *SudOvest*, 2015/09/26.
- TAKACS, J. (2006). *Social exclusion of young lesbian, gay, bisexual and transgender (LGBT) people in Europe*. Brusela: ILGA-Europe.
- THÖRN, C. (2001). «(In)visible et honteuse: les stigmates de la femme sans-abri en Suède». In: *La femme sans-abri en Europe. Parcours, services et expériences*. Bristol: Policy Press, 245-256 or.
- METRAUX, S. ET AL. (2008). *Women, domestic and family violence and homelessness. A synthesis report*. Adelaide: Flinders University.
- TUTTY, L.M. (2006). *Effective practices in sheltering women leaving violence in intimate relationships. Phase II Report*. Toronto: YWCA Canada.
- TUTTY, L.M. (2009). *I Built my House of Hope: Best Practices to Safely House Abused and Homeless Women*. Toronto, Human Resources and Social Development Canada.
- VALIÑO, V. (KOORD.) ET AL. (2013). *Emergencia habitacional en el Estado español. La crisis de las ejecuciones hipotecarias y los desalojos desde una perspectiva de derechos humanos*. Bartzelona: Observatori DESC.
- VANNEUVILLE, M.C. (2010). «Transient women, suffering women, beyond appearances: the association Femmes SDF by their side». *Homeless in Europe*, spring, 15-16.or.
- HAINBAT EGILE (2010). «Gender perspectives on homelessness». *Homeless in Europe*, spring.
- HAINBAT EGILE (2008). «La exclusión residencial en España». In: *VI Informe sobre exclusión y desarrollo social en España 2008*. Madril: FOESSA Fundazioa, 525-598 or.
- WEBER, K. (2008). «Global female homelessness: a multi-faceted problem». *Gender Issues*, 25. lib. 147-156 or.
- YOUNG, S. (2010). «Editorial» *Homeless in Europe*, Spring 2010 2-3.
- ZALAKAIN, J. (2014). «El papel de los sistemas de garantía de ingresos en el abordaje de la pobreza en el empleo: la experiencia del País Vasco». *Lan Harremanak*, 31 zk., 36-62. or.
- ZUFFEREY, C.. (2010). «The gendered nature of homelessness service interventions: An Australian study». *Homeless in Europe*, spring, 21-23.or.